


BIZIKIDETZA ETA GATAZKAK IKASTETXEETAN





BIZIKIDETZA ETA GATAZKAK IKASTETXEETAN

EAEko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan Arartekoak egindako ikerketa

IDEA (Hezkuntzarako Ebaluazio eta Aholkularitza Institutua) aldetik:

Zuzendaritza: Elena Martín.

Ikertzaileen taldea: J.F. Lukas, K. Santiago, A. Marchesi, E.M. Pérez, A. Martín eta N. Álvarez.

Arartekoaren aldetik:

Iñigo Lamarca, Julia Hernández, Faustino López de Foronda, Valentín Martínez-Acha, Fermín Barceló, Sonia Francisco, Idoia Llano, Nieves Oca, Amaia Pagola.

© ARARTEKO

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.

Azaleko irudia: EPS, S.L.

Itzulpena: Hori-hori

Paper ekologikoa.

L.G: VI-505/06



BIZIKIDETZA ETA GATAZKAK IKASTETXEETAN

**EAEko Bigarren Hezkuntzako
ikastetxeetan Arartekoak egindako ikerketa**

AURKIBIDE OROKORRA

Taulen eta Irudien aurkibidea	15
Txostenaren aurkezpena	19
Sarrera	25
1. Ikerketaren testuingurua eta ikuspuntua.....	27
2. Txostenaren helburuak.....	29
3. Informazio iturri nagusiak.....	30
4. Argi-ilunak: deigarriena eta alderik kezagarrienak.....	31
5. Txostenaren antolaketa eta egin daitezkeen irakurketak.....	35
1. Bizikidetza ikastetxeetan: aurrekari teorikoak	37
1.1. Bizikidetzaren funtsezko elementuak.....	39
1.2. Gatazkak: tipologia, prebentzioa eta ebazpena.....	41
1.2.1. Ikasleen arteko tratu txarrak botere-abusuagatik.....	44
1.3. Ikastetxeetako bizikidetza eta gatazkari buruzko azterlanak.....	47
1.3.1. Tratu txarren eraginari buruzko nazioarteko azterlanak.....	48
1.3.2. Ikastetxeetako tratu txarren eraginari eta bizikidetzaren egoerari buruzko azterlanak Espainian.....	49
1.3.3. Ikasleen arteko tratu txarren eraginari buruzko azterlanen ondorio nagusiak.....	51
1.3.4. Ikastetxeetako beste bizikidetza-gatazka batzuen eraginari buruzko azterlanak.....	52
1.3.5. Bizikidetza eta ikastetxeko gatazkei buruzko azterlanak Euskal Autonomia Erkidegoan.....	56
2. Metodologia	65
2.1. Azterlan kuantitatiboa.....	69
2.1.1. Helburua.....	69
2.1.2. Metodoa.....	69
2.1.2.1. Baliabideak.....	69
2.1.2.2. Parte-hartzaileak.....	71
2.1.2.3. Datuak biltzeko prozedura.....	73
2.1.2.4. Azterketa prozedura.....	73
2.2. Azterlan kualitatiboa.....	74
2.2.1. Helburua.....	74
2.2.2. Metodoa.....	74

2.2.2.1. Parte-hartzaileak.....	75
2.2.2.2. Informazioa biltzea.....	75
2.2.2.3. Informazioaren azterketa.....	78
3. Azterlan kuantitatiboaren emaitzak.....	81
3.1. Bizikidetzak ikastetxeetan.....	83
3.1.1. Ikasleen iritzia.....	83
3.1.2. Irakasleen iritzia.....	85
3.1.3. Familien iritzia.....	88
3.2. Gatazkak ikastetxeetan.....	92
3.2.1. Egoera orokorra.....	92
3.2.2. Ikasleen arteko tratu txarrak botere gehiegikeriagatik.....	93
3.2.3. Irakasleen eta ikasleen arteko harreman-gatazkak.....	103
3.2.4. Bizikidetzak-arazoen kausak eta ebazpena.....	108
3.2.5. Bizikidetzak-gatazken kontrako babes-faktoreak.....	116
3.3. Balioak eta bizikidetzak.....	119
3.4. Hezkuntza testuinguruen balorazioa.....	122
4. Azterlan kualitatiboaren emaitzak.....	127
4.1. Bizikidetzak ikastetxean.....	129
4.1.1. Giro orokorra.....	129
4.1.1.1. Familien eta ikastetxearen arteko harremana.....	130
4.1.1.2. Irakasleen arteko harremana.....	131
4.1.1.3. Ikasleen arteko harremana.....	132
4.1.1.4. Ikasleen eta irakasleen arteko harremana.....	135
4.1.2. Arauak.....	139
4.1.2.1. Araudiaren ezagutza eta garapenean izaten den parte-hartzea.....	139
4.1.2.2. Arauen balorazioa.....	141
4.1.2.3. Arauen aplikazioa.....	142
4.1.2.4. Arauen aldaketa.....	146
4.2. Gatazkak ikastetxean.....	148
4.2.1. Gatazka motak.....	149
4.2.1.1. Gelako martxa etetea.....	149
4.2.1.2. Ikasleen arteko tratu txarrak.....	150
4.2.1.3. Bandalismoa.....	154
4.2.2. Gatazka arrazoiak.....	155
4.2.2.1. Irakasleen ospe-galtze profesionala.....	155
4.2.2.2. Ikasleen motibazio falta.....	156
4.2.2.3. Aldaketak balio-eskalan.....	157
4.2.2.4. Familiarekin uztarturiko faktoreak eta egoera pertsonalak.....	158
4.2.2.5. Irakasleen metodologia.....	159
4.2.2.6. Ikasleen kultura anitzeko jatorria.....	160
4.2.3. Gatazkak konpontzea.....	161
4.3. Ikastetxearen jarduerak bizikidetzak hobetzeko.....	168
4.3.1. Elkarrekin bizitzen irakastea.....	168

4.3.2. Prestakuntza.....	170
4.3.3. Bizikidetzarako batzordea	172
4.3.4. Tutoretza	173
4.3.5. Harrera plana.....	175
4.3.6. Bitartekaritza programak eta ikasle laguntzaileenak	176
4.3.7. Ikastetxearen esparrutik kanpoko jarduerak.....	176
4.4. Administrazioaren eta hedabideen eginkizuna	177
5. Ondorioak	183
6. Arartekoaren gomendioak.....	199
7. Erreferentzia bibliografikoak.....	215
8. Eranskinak.....	227
I. Eranskina: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren jarduerak	227
II. Eranskina: Galdera-sortak	237
- Ikasleentzako galdera-sorta.....	239
- Familientzako galdera-sorta	251
- Irakasleentzako galdera-sorta.....	259
- Zuzendarientzako galdera-sorta	267
III. Eranskina: Galdera-sortak aplikatzeko jarraibideak.....	275
IV. Eranskina: Azterlanaren fase kualitatiborako jarraibideak	281
V. Eranskina: Datu-taulei buruzko oharra.....	285

TAULEN ETA IRUDIEN AURKIBIDEA

TAULEN AURKIBIDEA

1.1. taula.	Erasotzaile, biktima eta lekukoen ehunekoa, eraso mota bakoitzerako.....	52
1.2. taula.	Irakasleek beren ikastetxeko ikasleen arteko gatazken gainean egiten duten balorazioa, irakaskuntzaren kalitatearen bestelako arazoan aldean	53
1.3. taula.	Irakasleek ikastetxeetan bizikidetza-gatazka ezberdinen garrantziaren gainean egiten duten balorazioa	53
1.4. taula.	Ikasleek irakasleei egindako erasoan ehunekoa, bi taldeek adierazita, "Sarritan + Beti" mailan	55
1.5. taula.	Irakasleek ikasleei egindako erasoan ehunekoa, bi taldeek adierazita, "Sarritan + Beti" mailan	55
1.6. taula.	Ikasleen arteko jokabide desegokiaren eragina.....	58
1.7. taula.	Ikasleen irakasleenganako jokabide desegokiaren eragina	58
1.8. taula.	Irakasleen ikasleekiko dituzten jokabide desegokiak	59
I. koadroa.	Kasuen ikerketan ikastetxeetan dokumentatuta zeuden bizikidetzaren sustapenerako erabilitako estrategien laburpena	60
II. koadroa.	Ikastetxearen giroan eragin handieneko faktoreak.....	61
1.9. taula.	Lekukoen arabera tratu txar mota ezberdinen eragin ehunekoa, "Sarritan + Beti" mailan.....	62
1.10. taula.	Tratu txar mota ezberdinen eragin ehunekoa biktimen arabera, "Sarritan + Beti" mailan.....	63
1.11. taula.	Mota ezberdinetako tratu txarren eragin ehunekoa erasotzaileen arabera, "Sarritan + Beti" mailan.....	63
2.1. taula.	Azterlanaren dimentsioak eta azpidimentsioak	70
2.2. taula.	Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan matrikulaturiko DBHko 2. eta 4. mailako ikasle kopurua	71
2.3. taula.	DBHko ikasketak eskaintzen dituzten ikastetxeen aukeraturiko lagina	72
2.4. taula.	Laginaren behin betiko banaketa. Irakasleak eta familiak	72
2.5. taula.	Laginaren behin betiko banaketa. Irakasleak eta zuzendariak...	73
3.1. taula.	Ikastetxeko bizikidetza-giroari buruz irakasleek emaniko erantzunak	86

3.2. taula.	Ikastetxearen funtzionamenduari buruz familiek eginiko balorazioa	90
3.3. taula.	Ondorengo eraso motak egin edo gelakideen partetik jaso dituzten ikasleen ehunekoa	94
3.4. taula.	Tratu txarrak eman edo gelakideen partetik jaso dituzten ikasleen ehunekoa, maila eta generoaren arabera	98
3.5. taula.	Ikaskideengandik erasoak jasaten dituzten ikasleen ehunekoa, ezaugarri ezberdinen arabera	117
3.6. taula.	Ikaskideei eraso egin dieten ikasleen ehunekoa, ezaugarri ezberdinen arabera.....	117
3.7. taula.	Irakasleek ikasleenganako jokabide negatiboak dituztela uste duten ikasleen ehunekoa, ezaugarri ezberdinen arabera	118
3.8. taula.	Jokabide negatiboak izan dituzten ikasleen ehunekoa, ezaugarri ezberdinen arabera	118
3.9. taula.	Irakasleen iritzia hezkuntza eta hedabideei buruz	125
4.1. taula.	Ikasleen arteko harremana talde ezberdinen arabera elkarrizketaturiko ikastetxeetan.....	133

IRUDIEN AURKIBIDEA

3.1. irudia.	Ikastetxeko bizikidetza-giroaren balorazioa ikasleen aldetik. Baieztapenekiko adostasun maila	83
3.2. irudia.	Ikastetxeko bizikidetza-giroaren balorazioa mailaren arabera. Baieztapenekin “Ados edo Oso ados” dauden ikasleen ehunekoa	84
3.3. irudia.	Ikastetxeko bizikidetza-giroaren balorazioa. Baieztapenekin “Ados edo Oso ados” dauden ikasle eta irakasleen ehunekoa ..	85
3.4. irudia.	Ikastetxeko funtzionamenduari buruz, zuzendariak emaniko baieztapen erantzunen ehunekoa	87
3.5. irudia.	Ikastetxearen ezagutza eta parte-hartzearen balorazioa bizikidetza programetan. Baieztapenekin “Ados edo Oso ados” dauden zuzendarien ehunekoa.....	87
3.6. irudia.	Hezkuntza Administrazioaren jardunbideari buruz irakasleek duten iritzia	88
3.7. irudia.	Ikastetxeko bizikidetza-giroaren balorazioa. Baieztapenekin “Ados edo Oso ados” dauden familien ehunekoa	89
3.8. irudia.	Talde ezberdinek beraien artean dituzten harremanen inguruan familiek duten iritzia	89
3.9. irudia.	Gatazken oihartzuna. Gatazka mota ezberdinak “Garrantzitsutzat edo Oso garrantzitsutzat” dituzten irakasleen ehunekoa	92

3.10. irudia.	“Azken urteotan ikastetxean gatazkak areagotu egin dira” baieztapenarekin ikasle, irakasle eta familien adostasun maila..	93
3.11. irudia.	Tratu txar mota ezberdinak egin edo gelakideengandik jaso dituzten ikasleen ehunekoak.....	95
3.12. irudia.	Gatazkak konpontzeari buruz ikasleek emaniko erantzunen ehunekoa	96
3.13. irudia.	Tratu txarreko egoeren aurrean jarduteko moduaren inguruko zalantzei ikasleek emaniko erantzunak	97
3.14. irudia.	Honako tratu txarreko egoera hauetan jarduteko moduaren inguruan ikasleek emaniko erantzunak. Generoaren araberrako datuak	99
3.15. irudia.	Ikasleen artean ondorengo eraso motak beren ikastetxeetan gertatzen direla uste duten irakasleen ehunekoa. Generoaren araberako datuak	100
3.16. irudia.	Gelakideen aldetik ondorengo eraso motak jasan dituzten seme-alabak dituztela uste duten familien ehunekoa. Mailen araberako datuak	101
3.17. irudia.	Gelakideei eraso egin dieten seme-alabak dituztela uste duten familien ehunekoa, eraso egin izana onartzen duten ikasleen ehunekoarekin alderatuta.....	102
3.18. irudia.	Ondorenean zehazturikoetatik, irakasleenganako jokabideren bat gauzatu izana onartzen duten ikasleen ehunekoa. Generoaren araberrako datuak.....	104
3.19. irudia.	Ondorenean zehazturiko tratu txarreko jokabideetatik, irakasleek ikasleenganako izan dituztela uste duten ikasleen ehunekoa. Generoaren araberrako datuak.....	104
3.20. irudia.	Ondorenean zehazturiko jokabideetatik ikasleek irakasleenganako izan ohi dituztela uste duten irakasleen ehunekoa.....	105
3.21. irudia.	Ikasleei tratu txarrak emateko irakasleen jokabideak ikastetxean gertatzen direla uste duten irakasleen ehunekoa....	106
3.22. irudia.	Ikasleek ondorengo jokabideetatik baten bat izan dutela uste duten familia, irakasle eta ikasleen ehunekoa	107
3.23. irudia.	Irakasleek ikasleenganako ondorengo jokabideetatik baten bat izan dutela uste duten familia, irakasle eta ikasleen ehunekoa..	107
3.24. irudia.	Ondorengo baieztapenak gatazken arrazoitzat hartzen duten ikasleen ehunekoa.....	109
3.25. irudia.	Honako tratu txarreko egoera hauen aurrean jarduteko moduaren inguruko ikasleen erantzunak. Maila eta generoaren araberako datuak	110
3.26. irudia.	Ikastetxean izaten diren bizikidetza-gatazken arrazoiak. Ondorengo baieztapenekin ados dauden irakasleen ehunekoa.	111

3.27. irudia.	Gatazken arrazoiak. Ondorengo baieztapenekin ados dauden familien ehunekoak	112
3.28. irudia.	Ikastetxean gertatzen diren gatazkak justiziaz konpontzen direlako baieztapenarekin ikasle, irakasle, zuzendari eta familiek duten adostasun maila	113
3.29. irudia.	Ondorengo jarduerak ikasleekin ikastetxean garatu ziren aldi kopurua 2004-2005 ikasturtean. Zuzendarien erantzunen ehunekoa	114
3.30. irudia.	Irakasle eta familien erantzunen ehunekoa galdera honentzako: "Egokia dela uste al duzu seme-alabek jazarpena izan duten familiek egoera argitzeko aukeratu duten bide judiziala?"	114
3.31. irudia.	Irakasle eta ikasleen erantzunen ehunekoa galdera honentzako: "Zein faktore uste duzu dela garrantzitsuena gizartearen garapenerako?"	119
3.32. irudia.	Ikasleen, irakasleen eta familien erantzunen ehunekoa balioen inguruan (1).....	120
3.33. irudia.	Ikasleen, irakasleen eta familien erantzunen ehunekoa balioen inguruan (2).....	121
3.34. irudia.	Ikasleen erantzunen ehunekoa ondorenean adieraziko diren agenteek egun dituzten balioetan duten eraginari buruz	122
3.35. irudia.	Ikasleek ondorenean agertuko diren gaiei emaniko erantzunen ehunekoa	123
3.36. irudia.	Ikasleen familiei buruzko baieztapen hauekin irakasleek agertzen duten adostasun maila.....	123
3.37. irudia.	Familien adostasun maila honako baieztapen hauekin	124

TXOSTENAREN AURKEZPENA

- Orrialde hauetan, gure Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako bizikidetzaren eta gatazkaren gaineko txostena aurkeztuko dugu.

Hezkuntzaren oinarriko helburuetako bat da bizikide izaten ikastea, indarkeriarik gabe, pertsona guztiei errespetua izanez, nolakoak diren alde batera utzita. Oinarriko helburua, beraz, hezkuntza sistemarentzat, baina baita gizartearen talde osoarentzat eta agente sozial ezberdinentzat ere.

Mutil, neska edo nerabe guztiek segurtasuna eskainiko dien eta gaitasunak ahalik eta gehien garatzea ahalbidetuko dien giroan heziak izateko eskubidea dute, adina, kondizioa, jatorria, ahalmena edo beste edozein ezaugarri pertsonal alde batera utzita. Familia guztiek dute beren haurrak ikastetxe batera bidaltzeko eskubidea, behar bezala babestu eta heziko dituzten bermearekin. Irakasle orok babeseta eta garatzen duen lanarenganako errespetua jasotzeko eskubidea du, bere funtzioak eskatzen duen agintea izanez... Horregatik, ikastetxeak ezberdinen arteko bizikidetzak praktikan jarri eta ikastea ahalbidetzen duen tokia izan behar du, edozein indarkeria mota, bereizkeria edo irain alde batera utziz.

Ez da bakarrik edukazio oneko edo txarreko kontua. **Eskubide kontua ere bada**, oinarriko eskubideena, pertsonen oinarriko duintasunari eragiten diotelako. Hori dela-eta, Ararteko erakundeak –kasu honetan Kataluniako Sindic de Greuges erakundearekin batera– gai sakontzea erabaki du pertsonen eskubideen babesle izategatik, eta modu berean, ondorioak eta gomendioak aurkeztuko dira ezohiko txosten honetan.

- Eskolako bizikidetzaren eta indarkeriaren gaia sakontasunez aztertzen saiatzeko, bada gutxienez beste arrazoi bat: kontu horren inguruan geroz eta handiago den eta “gizarte alarmatza” ere har litekeen **gizarte kezka** egotea.

Hala eta guztiz ere, ez da erraza kezka horren arrazoia zein den jakitea, ikastetxe eremuko jokabide gatazkatsuen benetako gorakada egotea den (alegia, indarkeria gehiago egotea), edo ondorioen larritasuna handiagoa izatea den (kasu larriagoak edo ondorio handiagoekin), edo hezitzaileak zailtasun handiagoak dituela gatazkak kudeatzerakoan (kontrolatzeko zailtasunak), edo lehen oharkabean pasatzen ziren jokabideek hedapen handiagoa izatea (gertakarien ezagutza hobea), edo gizarteak sensibilizazio handiagoa izatea onargarritzat edo onartezintzat jotzen duenarekiko...

Gizarte kezakako, edota alarmismoko testuinguru horretan, garrantzitsua zirudien ezagutza handiagoa edo hobea ematea gure ikastetxeetako benetako egoeraren inguruan, eta horretan oinarrituz, zenbait gomendio egitea ikastetxeetako giroa eta bizikidetzak hobetzeko.

Hori da hemen aurkezten dugun txostenaren oinarritzko helburua.

- Ikastetxeko testuinguruan indarkeria erabiltzearen inguruko berri, eztabaida eta kezka asko jada ia ohikoa den hitz batekin uztartzen dira gure artean: “**bullyinga**”.

Adierazi behar dut, txosten hau ez dela bullyingari buruzkoa. Edo, zehazkiago esanda, eginiko azterlana ez dela soilik gai horri buruzkoa. **Ikastetxeko klima** osotasunean aztertzeke asmoa du: ikasleen arteko harremanak, bai; baina modu berean, baita irakasle eta ikasleen arteko harremanak, ikasle eta familien artekoak, etab. Hau da, hezkuntza komunitatearen esparruan garatzen den harreman multzo osoa, gelako martxa etetea bezalako jokabideak ere barne hartuta. Izan ere, horrelako portaerek ikastetxeetako funtzionamendu ona asaldatzen dute.

Erabat positiboa den ikuspegitik abiatuz eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei arreta emanaz, ikastetxeetako errealitate eta giro ezberdinak aztertzeke saiakera egin da, bizikidetzaren alde egiten duten faktoreak nabarmentzen saiatuz, eta kontrako zentzuan, galarazpenerako edo indarkeria edo horren ondorioak larriagotzeke balio duten faktoreak azpimarratuz. Eta modu zuzenenean inplikaturik agertzen diren sektore ezberdinen “ahotsak” biltzeke saiakera egin da: ikasleen ahotsak, familienak, irakasleenak, zuzendaritza taldeenak, etab.

- Txostenaren elementu nagusia joan den ikasturtean (2005-2006) gure Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako 80 ikastetxetan garaturiko ikerketak eratzten du. Horretarako, galdera sortak, elkarrizketak eta eztabaida taldeak egin ziren.

Hala eta guztiz ere, bestelako **informazio iturri** osagarriak ere kontuan hartu dira, batez ere gomendioak egiterakoan. Horien artean, honakoak nabarmendu ditzakegu:

- Herritarrek parte hartzeke II. Foroko saioetan guraso eta irakasleek eginiko ekarpenak, “Ikasleen arteko tratu txarrak ikastetxeetan” gaiaren inguruan. Ararteko erakundeak sustatu zuen foroa, eta Bilbon, Vitoria-Gasteizen eta Donostian egin zen.
- Bildutako kexa eta kontsultak, eta bereziki Ararteko erakundera azken urtean bertaratu diren gurasoekin izandako elkarrizketak. Gurasoak bertaratzeko arrazoia beren seme edo alabak jasandako jazarpen egoeren salaketa izan zen.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saitetik eskuratutako informazioa, gure datu eskaerari erantzunez.

- Eginiko ikerketaren ekarpen interesgarrietako bat **hezkuntza komunitatearen sektore bakoitzak duen iritzia** horrenbesteko xehetasunez ezagutzeko aukera izatea da: ikasleen, irakasleen, familien eta ikastetxeetako zuzendaritzen iritziak, hain zuzen. Sektore bakoitzak, antzeman daitekeen moduan, bertsio oso ezberdina du errealitateari buruz: ez bakarrik gertatzen edo antzematen denaren gainean, baita kontu bakoitzari ematen zaion balioaren inguruan ere, eta batez ere, arazo ezberdinen artean topatzen dituzten arrazoi edo erantzukizunen inguruan.

Irizpide ezberdintasuna, bildutako zenbait ikuspegiren arteko kontraste handia, oso kezkaigarria iruditzen zaigu.

- Hemen egiten ditugun **gomendio** guztien helburua, noski, ikastetxeetako eta getako bizikidetza hobetzea da. Hezkuntza sistema osoari zuzendurikoak dira, goiko arduradunei edota ikastetxeko komunitatearen parte ez diren agente batzuk izanda, garatzen dituzten jarduerak direla-eta, haren gainean eragina dutenei.

Ikastetxe guztietako bizikidetza modu esanguratsuan hobetzea lortzeko zailtasun nagusietako bat sistemaren beraren konplexutasuna da, hamaika gela, hamaika irakasle... Hemen eginiko gomendio asko aplikatzeak esku hartzea eta arduratsu ibiltzea eskatzen die, neurri handiago ala txikiagoan, hainbat mailari: Hezkuntza Sailari eta haren zerbitzuei dudarik gabe, baina modu berean ikastetxeko organoei (Eskola Kontseiluak, bizikidetza batzordeak, zuzendaritza taldeak, mintegiak, zikloko taldeak...) eta baita beste agente sozial batzuei ere.

Bizikidetza hobetzeak jarduera koordinatua eta etengabekoa izatea eskatzen du, eta guztion esfortzua beharra du. Eta ez bakarrik eskolarena, baizik eta gizarte osoarena.

Zentzu horretan, Ararteko erakundeak, ahal duen heinean, jarraipena egingo du lorpenak, aurrerapausoak edo atzerapenak ezagutzeko, eta modu berean, hurrengo txosten batean, bizikidetzaren oinarrian dagoen ezinbesteko gai bat jorratuko du: baloreak adingabekoei irakastea.

- Publikoki **eskerrak eman** nahi dizkiot txosten hau posible izan dadin lagundu duen pertsona orori: IDEAKo ikerketa taldeari, azterturiko ikastetxeetako zuzendaritza taldeei –azterlanarekin hasi baino lehen bildu ginen haiekin–, galdera sortei erantzun dieten milaka familia, irakasle eta ikasleei, eta eztabaida taldeetan parte hartu zutenei (ikasle, irakasle eta gurasoak), eztabaida foroetan parte hartu zutenei, beren kezak helarazi dizkigutenei...

Guztiek azterlan honi eginiko ekarpenak biltzen jakin izana, eta hezkuntza sistema eratzen duten guztiei erabilgarri izango zaiela espero dugu.

- Mezu argia egi bihurtu behar dugu gure gizartean eta eskolan: **Zero tolerantzia harremanetako indarkeriarentzat**. Gure gizarteak eta giza harremanek, neurri

handi batean, nagusitasun eta mendetasun ereduari jarraitzen diote oraindik, eta hori errespetuaren, tolerantziaren, enpatiaren eta guztiontzako erabateko giza eskubideen bitartez gainditu behar da. Eskubide horiek ahulentzat ere badira.

Erabateko erronka da heztea helburu duen edozein erakunderentzat.

Vitoria-Gasteizen, 2006ko urriaren 2an.

ARARTEKOA
Iñigo Lamarca Iturbe

SARRERA

1. Ikerketaren testuingurua eta ikuspuntua

Orain dela pare bat urte jada, Ararteko erakundeak ikastetxeetako bizikidetzaren eta berdinkideen arteko gatazken gaia sakontasunez aztertzeo erabakia hartu zuen. Horretarako, txosten honen elementu nagusia izango zen azterlana egin aurretik, hezkuntza komunitatearen osotasunari irekitako jardunaldiak antolatu ziren (Herritarrek parte hartzeo II. Foroa). Bertan, ikastetxeetako bizikidetzaren benetako egoeraren, sektore ezberdinen kezken eta jarduketa proposamen batzuen inguruan eztabaidatu zen eta gaiak sakondu zen.

Orain arte ez dugu azterlan edo txosten askorik egin hezkuntza sistemari buruz bakarrik: Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzunari buruzko bat, sasoikako langileen multzoari buruzko beste bat eskolatze baldintzen gaineko kapitulu zabala erantsiz, etorkinak Araban eskolatzeari buruzko beste bat... Egia esan, arreta gehiago eman izan diegu beste sistema batzuei (osasuna, espetzeak, gizarte zerbitzuak), eta baita adin txikikoen eskubideei zuzenean eragiten dieten beste egoera batzuei ere: adin txikikoen babeserako sistema; gazteen justiziako sistema; bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoera; osasun mentaleko arazoak dituzten gazte eta nerabeen taldea...

Herritarrek adierazitako kexen ikerketa alde batera utzita, erakunde honek jarduteko eta ekimen propioak garatzeko tarte zabala du legearen arabera, eta “ofiziozko” jarduera ezberdinen bidez eta honakoa bezalako ikerketa eta txosten zehatzen bidez gauzatu ohi da.

Zer dela-eta gai hau orain? Oinarrizko eskubideei eragiten dien kontua delako: adin txikikoen eskubideak, irakasleen eskubideak eta familien eskubideak; hezkuntza jasotzeo eskubidea, ezberdina izateko eskubidea, errespetatuta izatekoa, duintasuna izateko eskubidea... Gaiaren inguruan gizarte kezka edo eztabaida dagoelako. Eztabaida hori ez delako beti errealitatearen azterketa serioetan oinarritzen. Kontu horiek direla-eta jasotzen ditugun kexa eta kontsultak ugariagoak direlako egunetik egunera...

Ez da erraza jakitea beti ezagutu diren fenomenoak izan diren ala gertakari berriak diren, ezta geroz eta ugariagoak diren ala ez ere, baina alarma berriak eta gizarte kezkek sortzen doaz, administrazioei eginiko esku-hartze eskaera berriak bezalaxe. Edonola ere, argi dago gizartearen sentsibilitate eta kezka aldatu egin direla. Horri esker, eskolara joateko adinean dagoen gazte talde adierazgarri batek bizi duen jazarpen egoeraren inguruko kontzientzia handiagoa dago adibidez, erantzun egokiak aurkitzeo beharra agerikoagoa bihurtuz.

Hau ez da defendatzaile bat, Espainiako Estatuan edo Europan, gaiaz arduratzen den lehenengo aldia, talde sentsibilizatuen kezken ondotik. 2001ean adibidez, Espainiako Herriaren Defendatzaileak azterlan bat argitaratu zuen berdinkideen arteko indarkeriari buruz, eta gutxi barru horri emaniko erantzunaren emaitza ezagutaraziko du. Gainera, badira “*bullyingari*” buruzko hainbat ikerketa; arazoaren eragin maila zehazteko ahalgina egin da ikerketa horietan, eta emaitza oso ezberdinak lortu dira. Ikastetxeetako bizikidetza osoaren inguruko azterlanak ordea, urriagoak dira.

Hezkuntza Sailak ere azterlan ezberdinak egin edo sustatu ditu. Ez dirudi ordea, bildutako datuak edo administrazioek aplikaturiko erantzunak nahikoa direnik, edo behintzat ez dute hori uste kalteturiko sektore batzuetako pertsonak. Gainera, taldeen kezken ondorioz, batzuetan hartzen den jarrerak gaia larritu dezake, gatazkatsua goa bihurtu alegia, konponbideak eman baino.

Hondarribiko Jokinen kasua ere onartu beharrekoa da, gelakideen arteko jazarpeneko kasu larriek lorturiko gizarte entzuteak erabakian izan duen eragina bezalaxe. Egia esan, azken bi ikasturteetan inoiz baino kontsulta eta salaketa gehiago jaso ditugu berdinkideen arteko jazarpen, tratu txar edo botere nagusikeriagatik. Ia beti estuturiko gurasoen aldetikoak. Batzuetan irakasleek eurek jarritakoak. Eta askotan beren ustez ikastetxeek edo dagokion hezkuntza administrazioak hartutako arduragabetasun edo jarrera defentsiboa kritikatu. Ez dugu uste kexak ugaritzea jazarpenaren areagotzearen ondorioa denik. Kasu honetan uste dugu, gizarte eztabaidak berak –beti ondo bideratzen ez dena– bereziki sentsibilizaturik edo adi egotea eragin duela mota honetako egoerekiko. Izan ere, eredu ezberdinen bidez izan bada ere, beti gertatu izan den zerbait da (horrek ez du esan nahi justifikazioa duenik edo aitzakia denik).

Iristen zaizkigun arazoak ziurrenik icebergaren punta txiki bat besterik ez dira, eta orokorrean, egoera larriak islatzen dituzte, oinarrizko eskubideei eragiten dieten egoerak hain zuzen: bereziki ikasle guztiek esetsi, iraindu edo baztertzeko beldurrik gabe ikastetxera joateko duten eskubidea; ezberdina izateko eta modu horretan taldean onartua izateko eskubidea; entzuna eta babestua izateko eskubidea, babesteko betebeharra dutenen aldetik... Baina modu berean beste eskubide batzuk ere agertzen dira arazoan, eta ez bakarrik adin txikiko pertsonenak (kasu honetan ikasleak), baita irakasleak eta gurasoak bezalako taldeenak ere.

Edonola ere, **komenigarria da azpimarratzea azterlana ez dela bakarrik ikasleen arteko jazarpen edo tratu txarretara mugatzen**. Horrela, nerabeen jokabideek eta ikastetxeetako errealitate gatazkatsu guztietatik aztertu eta hausnartu ditugunak ikastetxeko giroari eragiten diotenak izan dira, ikastetxeko testuinguruan harreman batzuk edo besteak eratzea dakartenak, bizikidetza positiboa edo negatiboa izan daitekeela agertzen dutenak, edo gatazken kudeaketa egokia galaraz dezaketena.

Bestalde, ikastetxeei arreta eman badiegu ere, nerabeek ikastetxetik kanpo duten bizitzan eragina duten elementu batzuk ere bilatu dira horiek ikastetxeko bizitzarekin lotura estua bazuten, esate baterako, taldeko harremanak, edota gizarte eta familiaren inguruko elementu batzuk. Bereziki baloreekin eta helduek gaiaren inguruan duten kezkekin uztarturiko puntuak aztertu dira.

Landutako ikuspegia, azterlana jazarpenera mugatzeko erabakia bera, azken emaitza edota erabilgarritasun handiagoa ala txikiagoa izatea baldintzatzen duten beste batzuekin batera hartu da. Adibidez, metodologia kuantitatiboa (galdera sorta ezberdinetatik abiatuz) eta kualitatiboa (sakontasunez garaturiko elkarrizketen bidez eta ikastetxe batzuetan eginiko eztabaida taldeei esker) erabili dira, jarduna Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetara mugatu dugu, horien kopurua gutxitu egin dugu alde kualitatiboan, ikastetxe bakoitzari dagokion informazioa “itzultzeko” konpromisoa hartu genuen bakoitzak bere azterketa propioa egiteko aukera izan zezan (konpromiso hori joan den ikasturteko azken hiruhilekoan bete zen), ikastetxe bakoitzak askatasunez erabaki du azterlanean parte hartu ala ez...

2. Txostenaren helburuak

Txosten honen helburua gure Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako benetako bizikidetzaren inguruan ezagutza hobea eskaintzea da, eskubideen defentsaren ikuspegia jorratuz. Hezkuntza sektore ezberdinen (ikasleak, familiak, irakasleak, zuzendaritza taldeak) ikuspegi anitzak bildu eta alderatu nahi izan dira, horrek guztiak ikastetxeetako giroaren hobekuntzarako erabilgarria izango den ustean.

Horretarako, helburu zehatzago batzuk ezarri dira:

- Bigarren Hezkuntzako irakasle, guraso eta ikasleen iritzia ezagutu eta alderatzea ikastetxeko bizikidetzan eragina dutela uste duten faktoreen gainean, eta horietako bakoitzari ematen dioten garrantzia.
- Ikastetxeetan gertatu ohi diren gatazka mota ezberdinen sorreran agertzen diren arazoak zeintzuk diren ezagutu eta alderatzea sektoreen iritziaren arabera, eta haien ustean horientzako konponbide egokienak zeintzuk diren jakitea.
- Bigarren Hezkuntzako ikasleen arteko harremanen ardatzean dauden baloreak zeintzuk diren aztertzea, bai beste ikasleekiko harremanetan baita bizitza partekatzen duten helduekiko dituztenetan ere.
- Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak bertako bizikidetzara hobetzeko garatzen ari diren jarduerak ezagutzea, eta gatazkak konpontzeko erabiltzen dituzten prozedurak zeintzuk diren jakitea.
- Bizikidetzara hobetzeko eta gatazkei aurrea hartu edo horiek konpontzeko, ikastetxeak gizarte zerbitzuekin elkarlanean garatzen ari diren jarduerak ezagutzea, eta prozesu hori bide judiziala erabiliz egiten den jakitea.
- Ikastetxean garatzen ari diren esku-hartze programei buruz talde ezberdinek egiten duten balorazioa ezagutu eta alderatzea, esparru horretan Administrazioaren jarduerak zeintzuk diren jakitea, eta horiek errazten edo zailtzen dituzten baldintzak identifikatzea.
- Azterlanaren emaitzetan oinarrituta, gomendio batzuk proposatzea.

- Hezkuntza komunitatearen eztabaidaren alde egitea ikastetxeetako bizikidetzaren gaian, horretarako integrazioarako eta errespetuzko giroaren baldintzatzaileen eta estrategia egokien alde egiteko ikastetxearen esparruan...

Hezkuntza komunitate osoarentzako probetxugarri izateko eta ikastetxeko giroaren hobekuntzan eragina izateko desioa azpimarratu behar da. Eta ez bakarrik Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, baita beste maila edo alditan ere. Azkenengo gomendioen helburua norabide horretan doa.

Hori horrela izatea ordea, Hezkuntza Sailak horiek betetzeko jartzen dituen baliabideen menpe egongo da, eta horrekin batera, baita ikastetxeek eurek eta sektore ezberdinek hartzen duten jarrera eta konpromisoaren menpe ere. Zentzu horretan azpimarratu behar dugu, jarrera ona topatu dugula azterlana egiteko lankidetzara eskatzerakoan.

3. **Informazio iturri nagusiak**

Jada adierazi den moduan, txosten honen gorputza Hezkuntza Ebaluazio eta Aholkulartzako Institutuari (IDEA) eskaturiko eta haiek garaturiko txostenak eraten du. Azterlana **gure Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako 80 ikastetxeko laginak** eratu zuen.

Azterlan honen alde kuantitatiboa eratzeko, galdera-sorta ezberdinei emaniko erantzunen azterketa egin da (ikusi II. eranskina). Galdera-sortak DBHko 2.mailako 1.707 ikaslek, DBHko 4. mailako 1.616 ikaslek, 2.782 familiak, 1.257 irakaslek eta 80 zuzendarik erantzun dituzte.

Azterlanaren alde kualitatiboa hamar ikastetxetara mugatu da, hainbat faktoreren arabera aukeraturikoak. Horretarako, elkarrizketak eta eztabaida taldeak egin dira sektore bakoitzarekin (ziklo bakoitzeko ikasleak, gurasoak, irakasleak).

Hala eta guztiz ere, gure gomendioak adierazterakoan batez ere, **beste informazio iturri osagarri batzuk** ere kontuan hartu dira. Horien artean, honakoak azpimarratuko genituzke:

- Orain dela gutxi egin diren beste azterlan batzuk ateratako ondorioak eta eginiko proposamenak, aztertutako errealitatea argitzeko balio zutenean (ikusi I. kapitulua).
- Ararteko erakundeak antolaturiko Herritarrek parte hartzeko II. Foroaren ondorioz jasotako ekarpenak. Gaia “ikasleen arteko tratu txarrak ikastetxeetan” izan zen (ikusi Arartekoaren web orrialdea: www.ararteko.net).
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak emaniko informazioa, guk eginiko datuen eskaera zehatzari erantzunez (ikusi I. eranskina).
- Azken bi urteetan jaso ahal izan diren kontsulta eta kexak jazarpen edo tratu txarreko balizko egoerak salatuz, eta egoerak argitzeko garatu ahal izan diren ikerketak. Horren ondorioz, zenbait muga topatu ahal izan dira prozeduretan.

- Hezkuntzako programa edo zerbitzu ezberdinen arduradunekin izandako harremanak. Modu berean, zenbait kasutan agertu izan diren beste agente sozial batzuekin ere izandako harremanak (epaileak, fiskalak, gizarte zerbitzuak eta polizia...).

4. **Argi-ilunak: deigarriena eta alderik kezagarrienak**

Ikastetxeetako indarkeriaren gainean gizarteak agertzen duen alarma, hedabideetan titular handiekin zenbaitetan agertzen diren albisteak, edota ikerketa zehatz batzuk eskaintzen dituzten emaitzak kontuan hartzen baditugu, ziurrenik deigarriena eta eginiko azterlanean azpimarratzeko moduko aldea izango da **gure hezkuntza komunitateko osagarri guztiak (ikasleak, irakasleak eta familiak...) nahiko pozik daudela beren ikastetxeetan sumatzen duten giroarekin**. Erantzunak kritikoagoak dira hezkuntza sistemaren giro orokorrari buruz galdetzen zaienean edo giroaren balizko hondamenari buruz hitz eginaraztean. Bakoitzaren ikastetxeari buruz galdetzean, ordea –hori da hobekien ezagutzen dutena–, bildutako balorazioak oso positiboak dira. Adibide gisa aipa daiteke, familien % 82k ez lukeela semea edo alaba ikastetxez aldatuko, edo familien % 93,4 oso pozik dagoela semea edo alaba dagoen ikastetxean egotearekin.

Txostenak beste hainbat alde positibo antzemateko aukera ematen du.

Ararteko erakundeak eskubideak bermatzeko duen betebeharretik aztertuz gero, ordea, alde negatiboak azpimarratu behar ditugu, eta bereziki, ondorio larriak izan ditzaketenak edo pertsonen oinarriko eskubideetan eragina izan dezaketenak. Ikuspegi hori kontuan hartuta, nahikoa litzateke ikastetxeko komunitateko kide bakar bat baztertua, mehatxatua, erasota edo lotsarazia izatea, gure kezka edo esku-hartzeak zentzua izateko. Eta gure azterlanean bildutako datuen arabera, gainerakoetan bezala, mota horretako jarduerak, gehienetan nagusikeriaren ondorio, ohikoak dira zorritzarrez.

Azterlanak nahiz garatutako jarduerak agertzen dizkiguten **kezka elementu** ezberdinen artean, honakoak azpimarra ditzakegu:

1) **Irakasleen eta familien artean antzeman daitekeen dibortzioa.**

Txostenak, bereziki galdera-sortei emaniko erantzun-sailak, aukera ematen du alde nabarmenak ikusteko, familien eta irakasleen artean oso jarrera ezberdinak antzemateko hainbat konturen inguruan iritzia ematerakoan eta balorazioak egiterakoan. Horrela, esate baterako, familiek oso ikuspegi idilikoa dute irakasle eta ikasleen arteko harremanen inguruan; haien ustez beren seme-alabek ez dute ia arazorik ematen; aldiz, askoz ere kritikoagoak dira irakasleen jardunbidearekin, eta abar.

Hala eta guztiz ere, garrantzitsuena ez da beharbada alde horiek egotea izango. Kezagarriena, ziurrenik, sektore batek besteari errua botatzea izango litzateke, edo arazoan erantzukizun nagusia egozte, edo batek besteak gatazkak konpontzeko duen modua zalantzan jartzea... Horrela, irakasle gehienek uste dute (% 54k), ikastetxeetako diziplina arazoan edo indarkeriaren arrazoiak familiak permisiboegiak izatea dela, eta seme-alabei inolako jokabide mugarik ez ezartzea. Familia askok, aldiz, uste du, gatazkak ez direla justiziaz konpontzen ikastetxeetan, edo bide judicialari heltzea aukera egokia dela...

Ararteko erakundean jasotzen ditugun kexek ere, alde horiek nabarmentzen dituzte: guregana jotzen duten familiak uste dute, irakasleek edo ikastetxeetako zuzendariek arduragabekiaz jardun dutela edo beren irudia mantentzen saiatu direla, edo ez dutela nahikoa lan egin beren seme edo alabaren arazoa konpontzeko. Aitzitik, ikastetxeak behar bezala jardun duela uste du, eta zenbaitetan, familiaren esku-hartzea kaltegarria ere izan dela, gauzak zailteza besterik lortu gabe.

Kontuan hartzen badugu azterlan guztiek eta praktikak familia eta irakasleen arteko lankidetzaz azpimarratzen dutela ikastetxeetako bizikidetzaz eta giroa hobetzeko ezinbesteko faktore gisa, alde horiek izugarri kezkarriak dira, eta lehenetsuneko arreta eman behar zaie.

2) Sektore batzuen parte-hartze eskasa ikastetxeetako bizikidetzaz arautzen duten arauak egin, berrikusi eta aplikatzen.

Eginiko azterlanaren emaitzek agertzen dute, bizikidetzaz arauak egin eta berrikustean dagoen parte-hartzea oso eskasa dela, bai behinik behin familia eta ikasleen aldetik. Sektore horien poztasun eza galdera-sorten erantzunean nahiz eztabaida taldeetan agertzen da.

Badirudi ikastetxe batzuetan ohikoa izaten dela aurreko urteetan ezarritako arauak egokitzat jotzea, ikastetxeko komunitateko kide guztien arteko eztabaida sustatu gabe. Horietako asko kide berriak izan daitezke ikastetxean, eta beraz, gerta daiteke horien gaiztatzean inoiz parte hartu ez izana.

Modu berean, ez dirudi formalizazio gehien izandako parte-hartze azpiegiturek –Eskolako Kontseiluentzat bizikidetzaz batzordeak diren moduan– kontua behar bezala konpontzen dutenik. Ikasle eta familien balorazioaren arabera –organo horietan parte-hartze zuzena dutenak barne–, arauen berrikuspenean edo aplikaziorako irizpideetan esku hartzeko dituzten aukerak oso mugatuak dira, irakasleek erabakitzeke duten ahalmenaren ondoan.

3) Zenbait jokabide “normaltzat” hartzea; horrek zalantzan jartzen ditu errespetuzko bizikidetzarako ezinbestekoak diren hainbat balore.

Azterlanean ikusitako beste elementu kezkarrienetako bat da, ikasleen talde handi batek “normaltzat” jotzea zenbait jokabide, horiek ikastetxeko giro ona suntsi badezakete ere. Jokabide horiek sufrimendu handia eragin diezaiekete zenbait ikasle eta irakasleri, edota arazoei erantzun egokia emateko aukera zaildu.

Nagusiki, hiru jokabide motaz ari gara. Horiek, aztertutakoaren arabera, nahiko ohikoak dira eta ikasleen talde esanguratsuak justifikatzen ditu –arrazoi harrigarriak emanez batzuetan–:

- Gelako martxa etetea edo diziplina eza, txostenean antzeman daitekeen moduan, irakaslearen egonezinerako arrazoi nagusienetako bat da, eta modu berean, ikasleen aldetiko frustrazioa eta poztasun eza dakartza.

- Gelakideei eginiko erasoak, haiengan izan ditzaketen ondorio negatiboak baloratu gabe.
- Ezer egiten ez duen lekukoaren paperaren onarpena. Normalean, ondorio negatiboak etorriko zaizkienaren beldur, beste alde batera begiratzen dute, sufritzen ari denari babesik eman gabe edota heldu arduradunekin elkarlanean aritu gabe.

Txostenak dioen moduan oso zabaldurik dauden jokabide horien konbinazioak kostu personal handia ari dira izaten, bai ikasleen baita irakasleen kasuan ere, eta horrek ondorio negatiboak dakartza ikastetxeetako eta geletako bizikidetza giroan.

4) Ikastetxeetatik kanpoko agente batzuen jarduera jakin batzuk izaten duten eragina, eta ez beti positiboa.

Ikastetxeko komunitatea eta bereziki irakasleen taldeak, txosten honetan islatzen den moduan, kezka handiz ikusten du neurri batean beste gizarte agente batzuen esku-hartzea, beraiena dela uste duten esparru batean. Ikusi adibidez, ikastetxeko jazarpen kasuen judizializazioaren inguruan adierazitako iritziak, edo zenbait kasuri hedabideek ematen dioten tratamenduari buruz adierazitakoak.

Izan daiteke ikastetxetik “kanpoko” agente batzuen esku-hartzearen aurkako iritzi batzuk jarrera defentsiboaren ondorioz etortzea, baina aldi berean arrazoizko kezka antzematen da zenbait esku-hartzek egoera ez hobetzeaz gain, ondorio negatibo gehiago sor ditzakeelako positiboan aldean.

Gauzak horrela, badirudi kasuen, hartutako neurrien eta ondorioen jarraipena egitea beharrezkoa dela.

5) Irakasle askorengan ezinegon maila altua antzeman daiteke, gainezka egiten dutela sentitzen dutelako.

Galdera-sortei emaniko zenbait erantzunek nahiz elkarrizketa eta eztabaida talde jakin batzuen edukiak pentsarazten dute, irakasle askok gainezka egiten duela sentitzen duela, alde batera utzita daudela, lubakian sartuta bezala, lan itzelaren aurrean beharrezkoak dituen baliabideak izan gabe: onarturiko agintea, prestakuntza egokia, tutore lanak behar bezala gauzatzeko denbora eta esparruak, administrazioaren babesa, esparru legal argiak, baliabideak, eskolari gerora egingo duenaren aurkakoa izango dena exijitzen ez dion gizartea...

Bildutako erantzunen arabera, badirudi oraindik funtzio “hezitzailea” onartu nahi ez duten irakasleak badaudela, nahiz eta oso gutxi diren. Gehienek lan hezitzailean sinesten dute, baina behar bezala gauzatzeko baliabideak falta zaizkiela diote.

Irakasleen etsipenak ikastetxeetako bizikidetza giroan hobekuntza esanguratsuak sumatzea galaraziko luke, beraz, horregatik da garrantzitsua haien parte-hartzea zaindu eta babestea.

Egia da ikastetxeek, haiek bakarrik, ezin dutela gizarteko indarkeria deuseztatu, baina prebentzioa lan dezakete, agerpena gutxitu eta harremanetarako eredu alternatiboak eskaini.

6) Zenbait jokabideren aurrean agerturiko erreakzioa ez da nahikoa, edo motelegia da, eta horrek zigorgabetasun sentsazioa sortzen laguntzen du.

Egia da ikastetxeen oinarrizko lana prebentzioa izan behar dela, baina zenbait egoeraren aurrean, prebentzioa ez da nahikoa.

Zenbait gertakariren aurrean, jazarpen egoerak kasu, ezinbestekoa da esku hartzea eta, gainera, azkartasunez eta eraginkortasunez.

Mantsotasunak edo eraginkortasun ezak ondorio negatiboak bakarrik dakartzate: jazarpena jasan behar duen pertsonarentzat noski, babesgabetasun egoeran jarraitzen duelako, baina baita jazarpena eragiten duen pertsonarentzat edo taldearentzat, zigorrik gabe ikusten dutelako beren burua, eta lekukoentzat ere, gelakide bat lotsarazten jarraitzen dutela ikusten dutelako apartekorik gertatu gabe.

Ararteko erakundeetan jasotako kontsulta eta kexa gehienak ikastetxeek urtetan pairatutako desgastearen eta frustrazioaren ondotik etorritakoak izan dira. Oro har, familiek adierazitakoak izan dira, ikastetxearen aldetiko esku-hartzea moteltzat edo eskastzat jotzeagatik.

7) Tratu txarren biktima direnen bakardadea eta mina.

Badirudi orain arte ezagututako edo salatutako kasuak errealitatearen zati txiki bat besterik ez direla.

Baina, hezkuntza sisteman edo eskolako aro jakin batean agertzen diren jazarpen kasuen proportzio fidagarrienaren datua zein den alde batera utzita, kontua da jazarpena pairatzen duen ikasle asko dagoela. Horietatik asko isiltasunean bizi dira, edo lagun baten babesarekin bakarrik. Egoera horren arrazoia hura defendatu beharko luketen helduei gertatzen dena azaltzeko biderik ez izatea, edo salaketak babesgabetasun handiagoa eta are ondorio kaltegarriagoak ekarriko dizkiela uste izatea izan daiteke.

Egoera hori erabat onartezina da zuzenbidezko estatu batean, eta are gehiago, heztea helburutzat duen erakunde batean. Haien erantzukizun nagusia ikasleak babestea da, kasu gehienetan adin txikikoak baitira.

Txosten honetan zenbait gomendio zehatz egin ditugu, tratu txarren biktima direnei beharrezkoa duten laguntza bermatzeko asmoz.

5. **Txostenaren antolaketa eta egin daitezkeen irakurketak**

Txostenean bildutako kapitulu bakoitzak bere garrantzia du, eta errealitatearen azterketan argi egin nahi dute. Horrela:

- **1. kapituluak** interes handieneko **aurrekari teorikoen** laburpena eskaintzen du, ikastetxeetako bizikidetzaz aztertzeko: ikastetxeko giroan eragina duten ezinbesteko faktoreak zeintzuk diren; gatazken tipologia, prebentzioa eta konpontzea; nagusikeriagatik berdinkideen arteko tratu txarrak. Modu berean, ikuspegi panoramikoa eskaintzen du gaur arte bizikidetzaren eta ikastetxeko gatazken inguruan eginiko azterlan nagusien gainean. Horiek esparru ezberdinetan eginikoak izan dira (nazioartean, estatu mailan, erkidego ezberdinetan). Arreta berezia eman zaie Euskal Autonomia Erkidegoan garatutako azterlanei.
- **2. kapituluak** txosten honen oinarrian dagoen ikerketan erabilitako **metodologia** azaldu eta justifikatzen du, bai 80 ikastetxer eraturiko laginarekin eginiko azterketa kuantitatiboa, bai horietatik hamarretan eginiko azterlan kualitatiboa.
- **3. kapituluak** aurreko paragrafoan aipaturiko **azterlan kuantitatiboan** lorturiko emaitzak biltzen ditu. Horretarako lau kontu handi ezberdintzen ditu: 1) ikastetxeetako bizikidetzaz; 2) ikastetxeetako gatazkek; 3) baloreak eta bizikidetzaz; eta 4) hezkuntza testuinguru ezberdinak. Horietako bakoitzaren baitan sektore bakoitzak emaniko erantzunak aztertu eta alderatzen dira, galdera-sorta zehatzen bidez: ikasleei, irakasleei eta familiei eginikoak, hain zuzen.

Ikastetxeetako gatazkei dagokienez, ikuspegi osoa ematea da lortu nahi dena, nahiz eta arreta berezia eskaintzen zaien berdinkideen artean nagusikeriagatik gertatzen diren tratu txarrei, eta irakasle eta ikasleen arteko harremanetan agertzen diren gatazkei. Modu berean, gatazken arrazoiak, horien konponbidea eta horiek prebenitzeko edo horietatik babesteko faktoreak ere aztertzen dira.

- **4. kapituluak** kontu horiek eta baten bat gehiago aztertzen ditu, ikastetxearen jarduerak edo administrazioaren papera kasu, baina **ikuspegi kualitatibotik** begiratuta. Bertan bildutako iritzi, balorazio, jarduera eta proposamenak ez datoz galdera-sortei emaniko erantzunetatik, baizik eta aukeraturiko hamar ikastetxeetan pertsonalki eginiko elkarrizketetatik eta antolaturiko eztabaida taldeetatik. Kasu askotan, adibide adierazgarri gisa, pertsona batek edo ikasle talde batek, gurasoek edo irakasleek hitzez hitz adierazitakoaren transkripzioa erantsi da.
- **5. eta 6. kapituluek** ondorioak biltzen dituzte, argi eta garbi. Horietako lehenengoan, eginiko azterlanaren bidez lorturiko **ondorio nagusien errepasoa** egiten da, eta aldi berean, emaitza horiek orain dela gutxi eginiko beste azterlan eta ikerketa batzuen emaitzekin alderatzen dira, bat datozen elementuak nabarmentzeko eta aldeak egotearen arrazoiak argitzeko.

6. kapituluak **Arartekoaren 28 gomendioak** biltzen ditu: gomendio orokorrak, izaera arautzailekoak edo hezkuntzaren Administrazioarenak; beste batzuk ikastetxeen antolaketari eta lehentasunei zuzenean eragiten dietenak; ikastetxearen

barruan jazarpen edo indarkeria egoeretan izan beharreko esku-hartzean kontuan hartu beharreko gomendioak; ikastetxetik kanpoko beste agente batzuen esku-hartzeari eragiten dietenak; eta azkenik, jarraipen eta ikerketa beharren gaineko hiru gomendio.

- Gainerako **elementuak osagarritzat** har daitezke:
 - o 7. kapitulua, erreferentzia bibliografikoei buruzkoa.
 - o **I. eranskinak** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sustaturiko jarduera nagusiak biltzen ditu.
 - o **II. eranskinak** erabilitako galdera-sortak jasotzen ditu: ikasleentzako galdera-sorta; familientzako galdera-sorta; irakasleentzako galdera-sorta; zuzendarien-tzako galdera-sorta.
 - o **III. eta IV. eranskinetan** galdera-sortak aplikatzeko eta azterlan kualitatiborako jarraibideak biltzen dira.

Txostenaren testuarekin batera hainbat **datu-taula, grafiko eta irudi** erantsi da. Zehazki, 26 taula, 2 koadro eta 37 irudi. Hala eta guztiz ere, komenigarria da kontuan hartzea, erabili izan diren taula guztiak txostenaren idatzizko bertsioan ez sartzeko erabakia hartu dela –bolumen handikoak direlako–, ezta eranskin gisa ere. Horiek kontsultatzeko interesa duenak bertsio elektronikora joz egin ahal izango du.

Sarrera honekin amaitzeko, testuak eskaintzen dituen **irakurketa aukera ezberdinak** azpimarratu nahi ditugu: datu kuantitatiboena, bildutako adierazpen edo iritzi pertsonalak, ideia, arazo edo proposamen nagusiak... Zentzu horretan, irakurketa ezberdinak errazteko asmoz, zenbait elementu tipografiko erantsi zaizkio testuari (letra lodia, etzana, laukiak, irudiak...) Modu berean, “laburpen” elementuak erantsi dira atal ezberdinen amaieran edo kapitulu zehatzetan (bereziki 5. eta 6. kapituluetan, eta sarrera honetan bertan).

**BIZIKIDETZA IKASTETXEETAN:
AURREKARI TEORIKOAK**

1. BIZIKIDETZA IKASTETXEETAN: AURREKARI TEORIKOAK

1.1. BIZIKIDETZAREN FUNTSEZKO ELEMENTUAK

Ikastetxeetako gatazkekiko kezkek, zorionez, bertako bizikidetza-giroaz arduratu (eta ez bakarrik kezkatu) beharraz ohartarazi gaitu. Izan ere, gatazkek ekiditeko modurik egokiena ikastetxeko komunitatea osatzen duten guztiei bizikide izaten erakustea da. Eusko Jaurlaritzak bizikidetzari buruz egindako agirietako batean jasotzen den moduan, ikastetxeko hezkuntzaren helburuetako bat “...*ikasleak elkarrekin eta pertsona helduekin berentzat zeharo berria den testuinguru batean (familiarena baino irekiagoan) bizikide izan daitezen lortzea izan da; ikastetxeko bizikidetza gizarte bizikidetzarako eskola izatea, alegia*” (Eusko Jaurlaritza, 2004, 22. or.).

Bizikidetzak erakundean sortu diren pertsona arteko harremanen kalitatera garamatza; harreman horiek eskolako giro zehatza sortzen dute eta honek, bestalde, haiengan du eragina. Hala, beraz, bizikidetza positiboa bilatzea hezkuntzaren funtsezko helburuetako bat da eta ezin uler daiteke soil-soilik gatazka zehatzen sorrerak eragindako erreakzio gisa. Ikuspegi horretatik, bizikidetzaren funtsezko ardatza kohesio eta kontrol sozial handiko eskola kulturak sustatutako pertsona arteko harreman positiboak sortzea da. Kultura horretan erasoak ezin dira moralki onargarritzat hartu eta pertsonaren duintasuna beste edozein balioen gainetik egongo du (Martín, Fernández, Andrés, Del Barrio eta Echeita, 2003).

Bizikidetza-giro positiboa, errealitate konplexu oro bezala, faktore ugariaren baitan dago, baina badira batzuk eragin nabarmena dutenak (Anderson, 1982; Creemers eta Reezigt 1999; Campo, Fernández eta Grisañela, 2004; Freiberg, 1999). Hiru garrantzitsuenak aipatzen dira. Lehena pertsona arteko harremanen esparruan ezartzen diren **arauei** dagokie. Arauen edukia funtsezkoa da, baina baita horiek ezartzeko prozedura eta, haiek urratzen direnean, abian jartzen diren jarduerak ere (Zaitegui, 1998). Horiek parte-hartze prozesuen bidez definitzea, ikasleei eta familiei horien berri behar bezala ematea eta irakasleek horiek koherentziaz eta faboritismorik gabe aplikatzea dira bizikidetza ona izateko oinarrizko printzipioetako batzuk. Bestalde, ikerketak agerian jartzen du beharrezkoa dela arauak ikastetxeko giroan eta ikasgelakoan duten eginkizun ezberdina bereiztea (Flanders, 1964; Hargreaves, 1978; Salmivalli eta Voeten, 2002). Azkenik, beste ardatz nagusietako bat zigorra da, arauen bat betetzen ez denean. Zalantzarik gabe oso zaila den arren praktikan jartzea, zigorrak, hezigarriak izan daitezen, ezin dute soilik zigortzea helburu izan eta horiei funtzio pedagogikoa bilatu behar zaie. Zigorra jartzeko

erabakiak, oso konplexua den arren, bizkor aplikatu ahal izatea eta erabilitako irizpideak bidezkoak izatea lortu behar du. Hori dela eta, zailagoa da huts egitea erabakia soilik pertsona baten baitan ez dagoenean. Gertatutakoaren premiagatik berehala esku hartu behar bada ere, baterako hausnarketarako denbora egotea ahalbidetu behar da, tartean direnek eta hezkuntza komunitateko ordezkariak arazoa patxadaz azter dezaten.

Bizikidetza-giro positiboa lortzeko bigarren faktore erabakigarria **ikastetxeak gaitasun sozial eta emozionaleri eta hezkuntza moralari ematen dion garrantzia** da. Nazioarteko hezkuntza erakundeen agiritan modu hertsian defendatzen den arren hezkuntzak, orain arte irakatsi diren gaitasun akademikoek gain, beste gaitasun edo “alfabetizazio” berri batzuk ere bermatu behar dituela, horien artean, garapen sozial, emozional eta morala (NCREL eta Metiri Group, 2003; ELGA, 2002; UNESCO, 1996¹), ikastetxeetako errealitatea, batez ere Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako, oso urrun dago irakaskuntza horiek lehentasunen artean izatetik.

Hala ere, ikasleen ongizate emozionala eta balioen hezkuntza funtsezko euskarriak dira ikasleak pertsona arteko harreman egokiak ezartzeko prestatzen dituen hezkuntzan. Giro positiboan besteekiko bizikide izateko, beharrezkoa da nor bere buruarekin ongi sentitzea. Ikastetxeak autokontzeptu egokitua eraikitzen eta beren burua den bezala estimatzen lagundu behar die ikasleei. Beren buruarekiko estimuak izan behar du besteekiko arduraren oinarria. Pertsonetikiko nahiz inguruarekiko erantzukizun, errespetu, altruismo eta zaintzaren balioak dira bizikidetza baketsuaren oinarria.

Hezkuntzaren xedea ikasleei heteronomiatik autonomia moralera aurrera egiten laguntzea da. Ikastetxeko giroa edo, Kohlberg Power eta Higginsen (1989) esamoldea erabilita, *giro moral*a ikastetxeetako gizarte harreman formalak eta informalak erregulatu dituzten arauen, balioen eta esanahi sistemen bidez eraikitzen da. Balioen hezkuntzak irakasle guztien jardunean egon behar du presente, baina ikasgelaren eta irakasgaien esparrua gaindizkatzen du. Horrela, ikastetxean gertatzen den guztia hezkuntza eragineko iturri bihurtzen da, ikastetxeko espazioak eta denbora hezkuntza denbora eta espazio gisa ulertu behar da eta hezkuntza komunitate guztiak nahita aprobeztatu behar ditu (Martín eta Mauri, 2001).

Ikastetxeko jarduerak hezkuntzak funtsean duen izaera moralaren eragina izateko behar hori ez da oztopo komenigarria izan dadin arreta berezia eskaintzea batez ere ikasleen garapen sozial, emozional eta moralaren alde egiten duten jarduera zehatzei edo berariazko programei. Harrera programak, tutoretzak, eskolaz kanpoko jarduerak, aholkularitza psikopedagogikoko zerbitzuak, ikasle laguntzaileak edo bitartekotza ekipamenduak horren adibide egokiak dira.

Ikastetxean bizikidetza sustatzeko hirugarren ardatza **familiarikiko elkarlana** da. Oro har, hezkuntzako bi testuinguruen (hots, familiarren eta ikastetxearen) arteko jarraitasuna beharrezkoa bada hezkuntzaren kalitaterako, garapen sozioemozional eta moralarekin zerikusia duten irakaskuntzei dagokienez, lotura hori funtsezkoa da. Beharrezkoa da

¹ LOEk curriculum berria ere ezartzen du eta bertan, elementu egituratzailerik gisa, ikasleek berenganatu behar dituzten gaitasunak barneratzen ditu, hitzaren zentzu zabalean.

gurasoek, lehenik eta behin, ikastetxeko hezkuntza proiektua partekatzea, arauen prestakuntzan eta horiek aplikatu eta berrikustez arduratzen diren organoetan parte hartzea, tutorearekin eta gainerako irakasleekin komunikazio arina izatea eta beren seme-alabekiko harremana laguntzan eta konfiantzan oinarrituta dagoela bermatzea.

1.2. GATAZKAK: TIPOLOGIA, PREBENTZIOA ETA EBAZPENA

Gatazka bi pertsonaren edo gehiagoren arteko borroka da, horien ideiak, jarrerak edo interesak bateraezinak direnean edo bateraezintzat hartzen direnean. Gatazketan, oso eginkizun garrantzitsua dute emozioek eta sentimenduek eta gatazkan dauden pertsonen arteko harremana sendotu edo okertu egin daiteke, ebazpen prozesua nolakoa den.

Gatazkak pertsona arteko harremanekin baterako osagaia da eta, beraz, beti agertuko dena bestetik bizikide izatean eta beharrezkoa dena aurrera egiteko. Lederachek, gatazkaren teoriako egile garrantzitsuenetako batek, halaxe adierazten du:

“... gizarte orotan dagoen prozesua eta giza bizitzarako beharrezko fenomeno; aldaketetan eta harremanetan faktore positiboa edo suntsitzailea izan daiteke, nola arautzen den”. (Lederach, 2000)

Ez da ohikoa pertsonen gatazkaren ikuspegi hau izatea; aitzitik, egoera negatiboekin edo norbaitentzat kaltegarriak diren egoerekin erlazionatzen dituzte. Bada, kontzeptu hori lantzea eta ikastetxeko komunitate osoari ulertaraztea erronka gatazka nola konpondu dela da esku-hartze prozesuaren lehen helburuetako bat.

Ikastetxeetan oso mota ezberdinetako gatazkak aurkitzen dira eta horien ebazpenak, oso maiz, bizikidetza-giroa okertzen du. Komeni da gatazken aniztasun horretan bereizketa egitea, horiek guztiek gorago aztertutako elementuak partekatzeaz gain, hainbat alderdi bereizle ere badituzte horien arrazoi eta ondorioei eta horiek saihesteko moduari dagokienez. Beste azterlan batzuetan erabili den eskemari jarraiki (Defendatzailea, 2000; Martín, Rodríguez eta Marchesi, 2003), sei motatako bizikidetza-gatazkak desberdinduko ditugu: disrupzioa; ikasleen erasoak irakasleei; irakasleen erasoak ikasleei; ikasleen arteko tratu txarrak; bandalismoa eta absentismoa.

Bibliografiarik berrienean dauden **disrupzioaren** definizio anitzen artean, Sanders eta Hendryrena (1997) bereziki egokia da beren erraztasun eta argitasunagatik:

“Jokabide disruptiboa ikastetxeko ordena eta diziplina eta bertan eskolatutako ikasleen hezkuntza ongizatea oztopatzen dituen edozein jokabide da”. (Marchesin aipatua, 2004, 128. or.)

Ikasgelan disrupzioa hainbat modutara adieraz daiteke (etenaldiak, etengabeko zarata, garaiz kanpoko barreak eta bromak, irakasleari agiraka egitea...). Oso gatazka mota konplexua da, soilik jokabidea aztertzen bada, argi eta garbi identifika baitaiteke noiz dagoen halako arazoa; hala ere, ikerketen emaitzek agerian uzten dute irakasleek eta ikasleek jokabide beraren zentzuari eta xedeari buruz egiten duten irudikapena oso ezberdina dela, beste gatazka batzuetan ere gertatzen den bezala. Horrela, irakasleen ustez eskolak eteteko asmo esplizituarekin izandako portaera asko beharri erantzuteko eta irakasleak hain gaizki hartuko zituela pentsatu gabe egin diren jarduera gisa aztertzen

dituzte ikasleek. Galdera ugari egiten dituzten ikasleak edo, beren jarduera-maila dela eta, aulkian eserita daudela besteak baino gehiago mugitzen diren ikasleak aipa daitezke interpretazio desberdinaren adibide gisa.

Ikastetxeko komunitateko talde ezberdinek gatazkari buruz duten ikusmoldeaz hitz egiterakoan adierazi genuen bezala, hemen ere beharrezkoa da esku-hartzean bat ez etortze hori azaltzea. Bestalde, bistakoa da galderak benetan irakaslea gogaitzeko erabiltzen dituen ikasleari dagokionez edo azalpenean galdu egiten den ikasle despistatu edo geldoagoari dagokionez komeni izango lirartekeen neurriak oso ezberdinak direla.

Zenbait autoreren arabera (Defrance, 2005; Fernández, 2001; Marchesi, 2004; Torrego eta Moreno, 2003; Uruñuela, 2006), disrupzioa eskola porrotarekin harreman estuena duten faktoreetako bat da. Kasu gehienetan, denbora galtzea dakar eta, ondorioz, horrek zaildu egiten du ikastaldi egokiak behar lukeen erritmoari eustea. Bestalde, irakasleen eta ikasleen arteko harremanei kalte egiten die; hala, batzuetan, bi alderdiak elkarren portaeraren inguruko usteak sortzen hasten dira eta, kasu askotan, bakarrik bete den iragarpen gisa geratzen dira. Zenbait autorek (Hayden eta Blaya, 2001) eskolarekiko aihergatasun edo axolagabetasunaren fenomenoak aipatzen dute; hori beren beregi disrupzioak eragindakoa ez bada ere, gaizki ebazitako gatazka hau kasurik txarrean absentismo egoeretara ere eramaten gaitzaketen jatorrizko egoeretako bat izan daiteke.

Absentismoa bizikidetzeta-gatazka gisa hartzea, zalantzarik gabe, gai eztabaidagarria da, baina gutxienez bi arrazoi egongo lirarteke kategoria honetan barneratzeke. Lehena aurreko paragrafoan aipatu berri dugu: kasu askotan, zenbait ikasleek pixkanaka eskolarekiko sentitzen hasten diren gaitzespenak pertsona arteko harreman txarretan du jatorria, bereziki, baina ez soilik, irakasleekiko harreman txarretan. Alabaina, egia da baita ere kasu batzuetan aldentze hori eskola zereginaren zentzua galtzearen ondorioz gertatzen da, nahiz eta horrek ez duen zertan harreman arazoekin batera etorri behar. Baina irakasle askok uste du, horretarako arrazoia edozein dela ere, zenbait ikasleek maiz egiten dute huts eta horrek zaildu egiten du oso eskola behar bezala aurrera eramatea. Argudio horiekin bat etorritik, justifikatuta dagoela dirudi absentismoa garrantzi handiko eskola arazoa dela, baina pertsona arteko gatazkatzat hartzen den horren mugarik lausoetan kokatzen dela esatea.

Ikasleek irakasleei egindako erasoak, gutxitan gertatzen diren arren, gehitu egin dira, zenbait ikastetxetan arazo garrantzitsu bihurtzeko adina. Berriz ere, eraso mota honek oso modu desberdinetan islatzen dira, besteak beste, errespetu eza eta hitzezko erasoak, eraso fisikoak –nola zeharkakoak (jabetzei kalte egitea) edo zuzenekoak (jotzea)–, baita beste modu batzuk ere, esaterako, zurrumuruak sortzea edo mehatxu egitea. Eraso horien maiztasuna, hurrengo paragrafoan xehetasun handiagoz ikusiko dugun bezala, “larritasun maila handiagoa, maiztasun txikiagoa” ereduari jarraiki aldatzen da, nahiz eta oso garrantzitsua den aipatzea larritasun hitza erabiltzerakoan kontu handiz egin behar dela, eraso fisikoak errespetu faltak baino indarkeriazko egintza larriagoa baita; azken hauek behin eta berriro egiteak oso zailtzen du irakaslearen eguneroko bizitza.

Irakasleei egindako erasoek gizarte alarma handia sortzen dute eta, gainera, zailagoa da horiek parte-hartze prozeduren bidez (esaterako, bitartekotzaren bidez) konpontzea. Mehatxu gisa bizitzen dira, ez bakarrik mehatxu pertsonal gisa, baizik eta baita erakunde

mehatxu gisa; horrek zalantzan jartzen du ikastetxeko egitura antolatzeko oinarri den agintaritzaren eta horrek irakasleen artean fronte komunaren aldeko jarrera eragin ohi du; jarrera hori oso ulergarria izan arren, batzuetan zaildu egiten du zigorra ez beste konponbide konplexuagoetan pentsatzea. Bistakoa da irakasleei egindako erasoak onartezinak direla, beste edozein eraso bezala, baina horiek saihestea eta, behin gertatu ondoren, arazoaren zioari aurre egiten dioten neurriak hartzea, kasu askotan, lehen erantzunean hain beharrezkoa den berehalakotasuna gainditzea eta arazotik emozionalki urrutiratu ahal izatea dakar. Bestalde, funtsezkoa da arazo hau, gainerakoekin batera, ikuspuntu sistemikoan barneratzea; hemen, arrazoiak inoiz ez dira alderdi batenak bakarrik. Horren adibide dugu, zehazki, gatazka mota honen ispilua: **irakasleek ikasleei egiten dizkieten erasoak.**

Eraso mota hau ere ez da oso ohikoa adierazpenik esplizituenetan (eraso fisikoa, hitzezko eraso). Hala ere, nahikoa ohikoagoa da irakasleek ikasleak barregarri uztea, hauek ezin ikusi ahal izatea edo hauen aurkako mehatxuzko jokabideak izatea. Gatazka horien berri ez digute soilik ikasleek eman, baizik eta baita irakasleek eurek ere, hurrengo atalean ikusiko dugun bezala.

Erasoak inoiz ez dira desiragarriak, hitzaren jatorrizko zentzuan, baina, dirudienez, justifikatuta dago esatea irakasleek ikasleei egiten dizkietenak desegokiak direla, horien kokaleku diren ikastetxeen funtzioa heztea baita eta erlazioa funtsean asimetrikoa baita. Berriz ere uler daiteke zergatik gertatzen diren halakoak, baina behar bada inork ez du zalantzan jartzen, bizikidetzaren giroa hobetzen hasteko punturen bat aukeratu behar izanez gero, hori gizartearen aldeko portaera eredu izan behar dutenen ahalegina aukeratu beharko litzatekeela.

Bizikidetzaren gatazkako bosgarren mota **bandalismoa** da; erakundearen aurkako jokabide antisoziala da. Batzuetan ikastetxeko zenbait heldurekin pertsona arteko arazoak daudela erakusten du eta ikasleak, zeharka, haiei kalte egiten saiatzen dira; beste batzuetan, eskola sistemaren aurkako gaitzespen orokorra adierazten du; eta beste batzuetan, ez soilik ez bereziki eskola edo institutuarekin zerikusirik ez duen bat ez etortze sozialaren ondorio da. Jokabide horiek guztiona denaren balorazioa pixkanaka okerrera daraman prozesuaren adierazpen gisa ere interpreta daitezke. Hain zuzen ere, ikastetxeko materiala lapurtu edo apurtzen denean –halakoak noizbehinka gertatzen dira, batez ere zenbait ikastetxetan–, ohikoa da kasu gehienetan espazioa eta eskola materiala ez zaintzeko joerarik ez egotea. Curriculum ofizialak guztiona denaren balioa sustatzea barneratzen duen arren aipatzen dituen hezkuntza asmoen artean, zenbait azterlan soziologikok aipatzen du gatazka ez direla oso konprometituta sentitzen proiektu kolektiboetan (Elzo, 2004; Kataluniako Generalitatea, 1998; González Blasco, 2006; Marchesi eta Lucena, 2002).

Azken gatazka mota, hots, ikasleen arteko tratu txarrak, aztertzen hasi aurretik, komeni da gogoraraztea orain arte identifikatutako erasoen gain, ikastetxeetan, beste erakunde sozial batzuetan bezala, egiturazko indarkeriaren arazoa antzeman daiteke, zenbait autoretok proposatzen duten bezala (Galtung, 1998; Ross eta Watkinson, 1999). Indarkeria mota hau, sistemikoa edo sinbolikoa ere deitua, honela definitzen da:

“Gizabanakoengan edo taldeengan kontrako eragina duen edozein praktika edo prozedura instituzional, zama psikologiko, mental, kultural, espiritual, ekonomiko edo fisikoa

ezartzen baitie. Hezkuntzari aplikatuta, ikasleei ikastea eragozten dieten jardunbideak edo prozedurak dira; horien ondorioz, kaltea eragiten zaie". (Ross eta Watkinson, 1999, 15. or.)

Egiturazko indarkeria eskoletako eskoletako bizitzaren eguneroko alderdietan, ikastetxeetako irakaskuntzako eta antolakuntzako jardunbideetan, aurkituko litzateke, bertan menderatzea, baztertzea, diskriminazioa eta intolerantzia erabiltzen baitira. Horrek ez du intenzionaltasun esplizitua, baina ikastetxeko giroa kaltetzen du, pertsona arteko harreman positiboak zailago bihurtzen baititu.

Javier Elzo soziologoak (2004) zenbait xehetasun ere ematen ditu ikastetxearen esparuan dauden indarkeria mota ezberdinei buruz. Hauek oso iradokitzaileak dira eta, horien artean, egiturazko indarkeria ere aipatzen da:

"Kongresu ezberdinetan lau indarkeria motaz osatutako tipologia aurkeztu izan dut eskolari dagokionez. Barne indarkeria, masifikazioarekin, ikastetxeko egiturari berari datzekion arazoekin nahiz adierazitako helburuen eta hezkuntza sistemako egitura ezkutuen arteko gatazkekin zerikusia duena. Eskolari lotuta ez dagoen indarkeria, eskolaz kanpoko indarkeria, inguruko gizartearen gertatzen den baina eskolan bertan ere ondorio igargarriak dituen indarkeria. Gizartearen amorrua bada nagusi, aurka dauden taldeak zatituta badaude eta bertan dauden gurasoek indarkeria legezkotzat hartzen badute, hori guztia nerabeen portaeretan islatzen da. Ikastetxearen aurkako indarkeria, batzuetan ikasle bakoitzak eskolan dituen harreman zehatzen ondorio eta ikastetxearen aurka, langileen aurka —berreziki, irakasleak— edo altzarien aurka gauzatzen dena. Batzuetan, eskolan egon behar izatea emantzipatzeko edo berehalako bizi-helburuak gauzatzeko oztopo gisa hartzen du ikasleak... Azkenik, nortasuneko indarkeria, eskolari lotuta ez dagoena eta ikastetxearen aurkakoa dena; eskola bera (eta bertako zenbait kide, nola irakasleak hala ikasleak) oztopotzat hartzen dute, bai hazteko bai beren nortasun kolektibo propioa garatzeko; nortasun hori benetakoa edo lortu nahi dena den gutxienekoa da, garbia eta nahasketarik gabekoa dela uste baitute. Ikasleentzat eskola botereak instituzionalizatutako agentea da eta bere nortasun pertsonal eta kolektiboa gara dadin eragozteko. Lau indarkeria mota hauetan, aztertu eta ebatzteko planteamendu ezberdinak eskatzen dituzten logika ezberdinez hitz egiten ari gara. Hori bullying-a baino haratago doa edo, nahiago izanez gero, beste modu batera jar daiteke testuinguruan. Ez da kontu erraza, ez horixe."

Azkenik, ikasleen arteko tratu txarrak sakonago aztertuko dira, azterlan honen lehentasuneko helburuetako bat, zehazki, ikasleen euren arteko borrokaren prozesuak hobeto ezagutzea baitzen.

1.2.1. Ikasleen arteko tratu txarrak botere-abusuagatik

Bizikidetzeta-gatazka hau, 70eko hamarkadan (1977, 1978 eta 1979an) Eskandinavian lehen aldiz Olweusek ikertu zuena, estatus bereko pertsonen arteko harremanean funtsezkoa dena apurtzen denean sortzen da, hau da, simetria galtzen denean. Hain zuzen ere, ikasleek, kasu honetan, eskola-adinean dauden nerabe eta gazteek, berdinen arteko harremana dute, helduekin gertatzen ez den bezala. Gizarte eremu hori ezinbestekoa da garapenerako, bertan ikasten baita beharrezko autonomia pertsonala izaten. Baina hori ahalbidetzen duena, alegia, parearekiko elkarrekikotasuna, apurtu egiten bada eta, gainera, kideetako batek besteak baino botere gehiago bereganatzen badu, harremana

okertu egiten da eta erasotzailearen eta biktimaren arteko menderatze dinamika sortzen du. Hala, beraz, ikasleen arteko tratu txarrak, abusu, eraso edo biktimizazio izenez ere ezagutuak, honela defini daitezke:

“Pertsona arteko harreman mota maltzurra, talde baten baitan izan ohi dena eta desabantailan dagoen beste bat behin eta berriro beldurrarazi eta baztertzea ezaugarri duena. Bereziki kaltegarria den harreman mota dela esan daiteke, adibidez, ikasgela berean dauden ikaskideek edo lan sail berean diharduten lankideek osatuta egon daitekeen taldetik kanpoko irizpide zehatzaren arabera diharduten bera duten, hau da, berdinak diren, baina, kidea beldurrarazi edo baztertzen duenak bere abantailazko egoeran gehiegikeriaz jokatzaren ondorioz, botere aldetik –fisikoa, psikologikoa, etab.– maila ezberdinean dauden gizabanakoen artekoa denean”. (Del Barrio, Martín, Almeida eta Barrios, 2003, 10. or.)

Berdinkideen arteko tratu txarrak oso modu ezberdinetara gauzatzen da. Sailkapenik osatuena hartuta, Herriaren Defentsariaren txostenean ere erabilia (Defentsaria, 2000), erasotzaileak edo eraso egiten duen pertsona taldeak gutxienez honako portaera hauen bidez lor dezake kide bat biktima bihurtzea. Lehenik eta behin, gizarte bazterkeria, modu aktiboan (parte hartzen ez uztea) edo alde batera utzita (kontuan ez hartzea). Erasoa fisikoa ere zuzenekoa (jotzea) edo zeharkakoa (biktimaren gauzak ezkutatu, lapurtu edo apurtzea) egin daiteke. Hitzezko eraso ere zuzenekoa (iseka egitea edo ezizenak jartzea) edo zeharkakoa (gaizki esaka aritzea edo zurrumurru kaltegarriak zabaltzea) izan daiteke. Azkenik, tratu txarren beste bi kategoria proposatu dira: mehatxuak, beldurrarazteko asmoz mehatxu egitea nahiz mehatxupean zerbait egitera behartzea, eta sexu-erasoa, jokabide fisikoen nahiz hitzezko jokabideen bitartez eragin daitekeena.

Duela gutxi, beste mota bateko tratu txarrak antzeman dira; hots, horiek aurreko mota horietakoren bat bitarteko teknologikoak erabilia gauzatzea. Horrela, gatazka mota honetan gero eta garrantzi handiagoa bereganatu duten jokabideen artean, honakoak aipa daitezke: bideo grabazioak egitea, erasotzaileek biktimaz abusatzen duten bitartean, eta horiek mugikorren bidez nahiz sarean zabaltzea; edo etengabe eraso egitea, mugikorreko mezuen bidez. Merezi du jokabide horien berezitasunari buruzko hausnarketa egitea, abusuaren berri ematean biktima are babes gutxiagorekin eta lotsa sentsazio handiagoarekin geratzen baita; hori dela eta, beldurrarazte borneak altuagoak dira. Bestalde, jarduera horietako gehienak koldarkeriagatik anonimoak direnez, erasotzaileen zigorgabetasuna sendotzen da. *“Tratu txar zibernetiko”* horiek orain dela gutxikoak direnez, oraindik oso esku-hartze espezifiko gutxi jarri dira abian.

Berdinkideen arteko tratu txarrak taldeko fenomeno gisa ulertu behar dira (Salmivalli et al., 1996). Biktimaren eta erasotzailearen edo erasotzaile taldearen artean sortzen den harreman motak zerikusi handia du ikasgelako taldearen edo ikastetxeko talde handiagoek osatutako taldearen barruan antolatzen diren dinamikekin. Ikasgelako harremanak esplizituki nahiz inplizituki erregulatzen dituzten arauak eragina dute ikasgelako ikasleentako bakoitzaren portaeran. Era horretan, pertsona berak, ikastetxeko testuiguruaren arabera, aukera gehiago edo gutxiago izango ditu erasotzaile edo erasotu bihurtzeko. Bestalde, ikasleen arteko tratu txarrak taldeko fenomeno dira, horiek ikusten dituzten ikasle guztiengan –eta ez soilik eraso zuzenean egin duenarengan– eragiten duen heinean. Batek bestea etengabe nola sufriarazten duen ikusten duenak gauza asko ikasten ditu, onak edo txarrak, egoera hori nola konpontzen den edo horren aurrean erreakzioa nolakoa den. Hori dela eta, garrantzitsua da lekukoaren iritzia ezagutzea eragin

azterlanak egiten direnean, eta, batez ere, esku-hartzeak talde eta ikastetxe osoan egitea. Izaera klinikoagoa duten ikuspegiak ez dute kontuan hartzen gatazka mota honen talde izaera, beren ustez, arazoa biktimaren eta erasotzailearen artean baitago.

Eta horrek zer esan nahi du? Pertsonen ezaugarri batek berak ere ezin dezakeela eraginik izan tratu txarren prozesuan sartuta geratzeko aukeran? Zenbait jarrerak arreta nagusiki subjektuan jartzen dute; hauek giza garapenaren interakziozko eta harremanezko izaera ahazten dute. Beste batzuek guztia testuinguruan jartzen dute. Jarrera horien artean, badira beste ikuspegi batzuk ere tartean eta, horien arabera, aurretik ez dago zehaztuta nor izango den biktima eta nor erasotzaile, baina zenbait arrisku faktore egon omen daitezke. Ez dirudi oinarri askorik duenik biktimak oso ezagunak ez diren ikasleak, ikasle barnerakoiak, fisikoki ahulak, ikastunak edo biktimizazioarekin nolabaiteko lotura izan dezakeen beste edozein arrasto duten ikasleak direla esateak. Gauza bera geratzen da erasotzailearen erretratu robota egiten saiatzean. Errealitateak erakutsi digu beti salbuespenak daudela eta horiek teoria sinplista hori bertan behera uzten dutela.

Beste gauza bat da, ezer zehaztu gabe, zenbait ezaugarriak, testuinguruarekiko elkarre-raginean nahiz bertan sortuta, erasotzaile edo biktima izateko aukera gehiago ematen dituztela adieraztea. Baina, arrisku faktoreak dauden bezala, babes faktoreak ere badaude, nola pertsonentzat hala hezkuntza ingururako. Egia balitz lotsatia den eta lagun gutxi dituen ikasleak aukera gehiago dituela eraso pairatzeko, egia da baita ere ikasgelako taldeak jokabide horiek ez onartzeko duen jarrerak aukera handiak emango lituzkeela biktimizazioa ekiditeko. Prozesu konplexuetan (eta hezkuntzakoak halakoxeak dira) ia beti gertatzen den bezala, gauzak ez dira ez zuriak ez beltzak. Ikuspegi sistemikoeak, testuingurukoek eta interaktiboek aberastasun handiagoz arrazoitzen dituztela prozesu psikosozialak, hertsiki indibidualak diren ikuspegiak baino.

Ildo honetatik argi eta garbi arrisku faktoretzat har daitekeena zentzuren batean ezberdina izatea da. Baina ezberdina izatea kontzeptu erlatiboa da. Berez ez da ezberdina, baizik eta beste norbaitekin alderatuta. Horregatik dago ikastetxeetan aniztasunarekiko jarrera hain estu lotuta botere abusuegatik gertatzen diren ikasleen arteko tratu txarrak ekiditeari (Alonqueo eta Del Barrio, 2003).

Pertsona arteko gatazka honen beste ezaugarrietako bat da, askotan, ezkutuan geratzen dela, batez ere, helduentzat. Hurrengo atalean xehetasun handiagoz aztertuko den bezala, oso maiz irakasleak ez dira egoera batzuetaz ohartzen, ikasleentzat bistakoak izanagatik. Familiek ere ez dute beti horren berri jakiten. Berdinkideak dira, hain zuzen ere, ezagutzen dutenak eta, beraz, lehenago esku har dezaketanak. Hori dela eta, ikasle laguntzaileen programak, eskainitako laguntza edozein dela ere —ikasle tutorea, bitartekaria, laguna— oso interesgarriak dira (Andrés eta Barrios, 2006; Cowie eta Sharp, 1996; Cowie, Naylor, Talamelli eta Smith, 2002; Naylor eta Cowie, 1999; Fernández, Villaoslada eta Funes, 2002). Ikaskidea salatu nahi ez izatea, salatari izan nahi ez izatea, norbera biktima bihurtu ahal izatearen beldur izatea dira irakasleei laguntza eskatzea oso ohikoa ez dela justifikatzerakoan ikasleek aipatzen dituzten arrazoiertako batzuk (Del Barrio, Almeida, Gutiérrez, Van der Meulen eta Barrios, 2003b).

Baina tratu txarrak “ikusezin” samarrak izatea ez da soilik arrazoi horien eraginagatik. “Mito” jakinak ere badaude eta horiek gainditu egin behar dira. Ideia horiek, “haurrak

horrelakoak dira”; “ezin dira neska-mutilak esne mamitan izan”; “azken batean, me-rezi zuen”; “hori beste ikastetxe batzuetan gertatzen da, baina hemen ez”, ohikoenen artean batzuk baino ez aipatzearren, ikusmolde intuitiboak, sinplistikak dira eta ez dute uzten ikastetxeetan gertatzen ari dena behar bezala interpretatzen (Sullivan, 2000, Del Barrio et al., 2005).

Tratu txarren ondorioak zehatz-mehatz baloratzea oso zaila da, baina dauden azterlanek erakusten dute kaltea ez dela gertatzen soilik biktima abusua jasaten ari denean, baizik eta, kasu askotan, helduaroan ondorioak dituzten arrastoak ere izaten dituzte (Van der Meulen et al., 2003; Matsui et al., 1996; Hugh-Jones eta Smith, 1999; Schäfer eta Madsen, 1998). Nabarmendu beharrekoa da jokabiderik kaltegarrienen artean gizarte bazterkeria dagoela, nahiz eta aditu ez direnek garrantzi handirik gabeko portaeratzat hartu ohi duten.

Zorionez, fenomenoarekiko sentsibilizazio eta ulermen maila asko handitu da azken urteotan. Berdinkideen arteko tratu txarrak erabat ezezaguna izatetik “gatazken izarra” izatera igaro dira. Hau, zalantzarik gabe, positiboa da. Gizartea kontzienteagoa da, baita administrazioa eta ikastetxeak ere. Goi-mailako erregulazioetan aldaketa arau-emaileak barneratu edo proposatu ere egin dira haiek saihesten eta ebazten laguntzeko asmoz, Adingabeekiko Erantzukizun Penalaren Legean eta Hezkuntzaren Lege Organikoan² esplizituki aipatuta.

Hala ere, eta maiz gertatu ohi den bezala, gehiegikeriak desio ez diren ondorioak sor ditzake. Beharbada arrisku gehien dutenetako bat familiek bide judizialera jotzen dutela da, salaketetara jo aurretik ikastetxean bertan abian jar daitezkeen bide guztiak agortzeko prozesu patxadatsuagoa aukeratu ordez. Zalantzarik gabe, kosta ahala kosta saihestu behar da biktimek babesik gabeko egoera horretan jarraitzea, baina jarduteko modurik onenak ez du zertan izan behar lehen begiratuan energikoena dirudiena.

1.3. IKASTETXEETAKO BIZIKIDETZA ETA GATAZKARI BURUZKO AZTERLANAK

Azterlan ugari egin dira ikastetxeetako gatazken eragina ezagutzen saiatzeko helburuarekin. Horien artean, gehienek ikasleen arteko tratu txarren ikerketan jarri dute gogoia. Are urriagoak dira gainerako gatazkei buruzko lanak. Are gutxiago dira beren eremua bizikidetza-giroa eta honetan eragina duten faktoreak aztertzerazabaldutuenak.

Atal honetan labur-labur aurkeztuko dira eremu ezberdinetan egindako azterlan nagusiak eta, amaieran, horietatik atera daitezkeen ondorioak ezartzen dira. Hortaz, ez dira lan bakoitzaren emaitzak adieraziko (horiek aipatutako erreferentzietan aurkitu ahal

² LOEren hogeita batgarren xedapen gehigarriak honakoa ezartzen du: “Hezkuntza administrazioek genero indarkeriazko nahiz eskola erasoko ekintzen ondorioz ikastetxez aldatu behar duten ikasleak berehala eskolatzen direla bermatuko dute. Era berean, ikastetxeek ikasle horiei arreta eskaintzen dietela ahalbidetuko dute.”

izango ditu irakurleak), horrek berrikuspen honen helburua gaintzen baitu, baina bai sendotasun handiagoz agertzen diren datuetako joerak³.

Lehenik eta behin, nazioarteko azterlanak aurkezten dira eta, ondoren, Espainian eta autonomia-erkidego ezberdinetan gauzatu direnak. Atal honen bukaerarako utzi dira Euskal Autonomia Erkidegoan egindako ikerketak, azterlan honen emaitzak aztertzeko eta horiekin alderatzeko dagoen erreferenterik zuzenena baitira.

1.3.1. *Tratu txarren eraginari buruzko nazioarteko azterlanak*

Berdinkideen arteko tratu txarrei buruzko nazioarteko azterlanen artean, Olweusek Norvegian eta Suedian egindako lan aitzindariak nabarmendu behar dira (Olweus, 1973, 1983, 1999). Ikerketa horiei esker, konstruktua teorikoa prestatu zen eta tratu txarren eragina neurtzeko lehen tresna sistematikoa eta zehatzak sortu ziren; honen ildotik, gaur egungo lan asko tresna horiek sortu izanaren ondorio dira. Gatazkan generoa, bilakaera eta estatusa (biktima; erasotzailea; erasotzailea/biktima; eta lekukoa) garrantzitsuak direla da azterlan hauen ekarpen garrantzitsuenetako bat eta, aurrerago azaltzen dugun bezala, beste azterlan batzuek ere halaxe egiaztatu dute.

Finlandian, Bjorkqvistek eta Lagerspetzek (Bjorkqvist, Ekman eta Lagerspetz, 1982; Lagerspetz et al., 1982) oso interesgarriak diren hainbat lan gauzatu dituzte, generoak tratu txarretan duen eragina aztertzeko. Lan horiek ondoren pixkanaka baieztatzen joan denaren aztarna ematen dute; alegia, tratu txarrek mutilengan eta neskeengan eragin ezberdina dutela eta, bereziki, generoaren arabera, biktimizazio modu zehatzen bat edo beste nagusitzen dela.

Rigby Australian kontzeptuaren definizioan eta eraginari buruzko lehen datuetan garrantzi gehien izan duten autoreetako bat da (Rigby, 1996; Rigby eta Slee, 1991). Bere lanetan tratu txar gaiztoak eta ez gaiztoak bereizten ditu, erasotzailearen asmoaren arabera, eta biktimek eta erasotzaileek berez lituzketen ezaugarri batzuk proposatzen dira.

Erresuma Batua da eremu honetan beste ezagutza iturri garrantzitsua. Peter Smithek, zalantzarik gabe arlo honetan ikerlari aipagarrienetakoen artean dagoenak, zenbait azterlan gauzatu ditu (Yates eta Smith, 1989; Whitney eta Smith, 1993) Olweusen galdera-sortaren egokitzapena erabilia eta horiek begien bistan utzi dute Erresuma Batuan tratu txarren eragina Norvegian baino handiagoa dela. Smithek, beste ikerlari batzuekin batera (O' Moore, Kirkham eta Smith, 1996) beste lan bat egin zuen Irlandako eskoletako lagina hartuta eta horren emaitzak aurretik aipatutako azterlanetan lortutakoen antzekoak izan ziren.

³ Berdinkideen arteko tratu txarrei buruzko azterlanen berrikuspen zehatzagoa nahi izanez gero, irakurleak honakoetara jo dezake: Smith et al., 1999; Smith, 2003; Smith et al., 2004; eta, gaztelaniaz, honakoetara: Herriaren Defendatzailearen txostena (2000, bidean) edo Gutiérrez, 2001.

1.3.2. ***Ikastetxeetako tratu txarren eraginari eta bizikidetzaren egoerari buruzko azterlanak Espainian***

Estatuan azterlan gutxi egin dira. Horietatik lehena 1999ko ikasturtean egin zen, Herriaren Defendatzaileak eta UNICEFek hala eskatuta, Cristina del Barrio eta Elena Martinen zuzendaritzapean, eta horren eragina, ezbairik gabe, oso nabarmena izan da (Defendatzailea, 2000). 2006ko ikasturtean, ikerketa horren erantzuna egin da eta, horren bidez, azken zazpi urteotan ikastetxeetan bizikidetzak okerrera edo hobera egin duen eta, zehatzago, tratu txarren egoerek zein eragin duten jakin ahal izango da. Txosten hau idatzi bitarteko aldian, oraindik ez dira kaleratu Herriaren Defentsariaren bigarren txostenaren emaitzak.

Bi lan horietan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak dirauen lau urteetako ikasleen lagin adierazgarriak eta lagina osatzen zuten hirurehun ikastetxeetako ikasketa-buruek galdera-sorta bete zuten. Galdera-sorta hori Olweusenean oinarrituta zegoen, baina berrikuntza garrantzitsuak zituen. Hurrengo atalean laburbilduko diren biktimizazio jokabideen tipologia xehatuari dagozkion eraginari buruzko datuez gain, ikerketak generoak eragina duela berretsi zuen, nahiz eta ez zuen alderik aurkitu ez baserriko eta hiriko testuinguruaren artean, ez ikastetxe publiko eta pribatuaren artean, ezta autonomia-erkidegoen artean ere.

2005eko ikasturtean, Reina Sofía zentroak, indarkeria aztertzeke, ikerketa egin zuen Espainia osoko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak hartuta (Serrano eta Iborra, 2005). Datuak hartzeke sistema telefonoz egindako elkarrizketa izan zen eta, bertan, zortziehun subjektuk, oro har, ikasleen arteko indarkeriazko egoerei eta, zehazki, eraso egoerei buruzko 32 galderari erantzun zieten. Kontzeptu horiek definitzerakoan erabiltzen diren irizpideak eta tresnak ezberdinak direnez, oso zaila da bi lanen artean alderaketak egitea.

Estatuko bi azterlan horiez gain, **erkidegoetan** ere **zenbait ikerketa** egin dira; honako hemen, ordena alfabetikoan. Andaluzian, Rosario Ortega eta bere lankideek egindako hainbat lan ditugu, honako proiektu hauen testuinguruan: *Sevilla Anti-Violencia Escolar (SAVE)* eta beranduagokoa eta zabalagoa den *Andalucía Anti-Violencia Escolar (ANDAVE)* (Ortega y del Rey, 2001; Ortega eta Mora-Merchan, 1995, 1997; Mora-Merchan, 2000). Lehen nahiz Bigarren Hezkuntzako ikasleak aztertu ziren. Berriki, Granadan, Duránek (2003) ere fenomeno hori aztertu du bere tesian. Aragoian, Carlos Gómez Bahillok (2005) beste lan bat koordinatu du duela gutxi eta, bertan, Derrigorrezko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako azken zikloaren lagin adierazgarriko ikasle, familia eta irakasleek ikastetxeetako bizikidetzari eta gatazkei buruzko galdera-sortei erantzun diete. Balear Uharteetan ere tratu txarren eta beste eskola gatazka batzuen eraginari buruzko azterlanak egin dira Herriaren Defendatzailearen txostenean jasotakoaren oso antzekoa den galdera-sortan oinarrituta eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleak eta ikasleak hartuta (Orté eta March, 1996; Orté 1998; Orté et al., 1999, 2000). Kataluniari dagokionez, Generalitateko Irakaskuntza eta Barne Sailek ikerketa bultzatu zuten eskolatutako 12 eta 18 urte arteko gazteen gatazka portaerei buruz. Beste jokabide antisozial batzuen artean, drogen kontsumoa, irakasleei egindako erasoak, lapurretak, bandalismoa eta

ikasleen arteko tratu txarrak aztertu ziren (Kataluniako Generalitatea, 2002)⁴. Bestalde, Kataluniako Sindic de Greugesek azterlana egin du Bigarren Hezkuntzan ikasleen arteko bizikidetzeta eta borrokari buruz, Arartekoaren txosten honekin koordinatuta, hain zuzen ere (Kataluniako Sindic de Greuges, bidean). Gaztela eta Leonen, Avilés eta Monjássek (2005) Valladolideko bost institututako DBHko lau mailetakoko ikasleei buruzko datuak bildu zituzten.

Miguel Angel Zabalzak bizikidetzari buruzko hainbat azterlan zuzendu zituen Galiziako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen lagin adierazgarrian. Ikerketa horrek zuzendariak, irakasleak eta ikasleak hartu zituen bere baitan eta galdera-sorta, elkarrizketa eta eztabaida-taldeen bidez gauzatu zen (Zabalza, 1999). Errioxako Ikuskapen Tenikoko Zerbitzuak, bestalde, eskola erasoari buruzko txostena egin du, biktima eta erasotzaileen 70 kasu aztertuta eta Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergo eta Lanbide Heziketako ikastetxeetako irakasle, ikasle, orientatzaile eta zuzendaritza-taldeei galdera-sortak banatuta (Sáenz et al., 2005). Madrilgo Komunitatean tratu txarrei buruzko lehen azterlana 1989an egin zen eta gainerakoei aurrea hartu zien nabarmen; horren autoreetako bati, Isabel Fernándezi, eskerrak eman beharrean gaude, Espainian lan mota hau bultzatzeagatik. Viera, Fernández eta Quevedok (1989) 10, 12 eta 14 urteko ikasleei galdera-sorta egin zieten. Gutiérrezrek (2001), elkarrizketa tresna gisa hartuta, ikerketa egin zuen Lehen Hezkuntzako azken zikloko nahiz Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lau mailetakoko ikasleen artean izaten diren tratu txarrei buruz. Duela gutxi, Hezkuntza Berrikuntza eta Zuzendaritza Garapenaren Institutuak eskolako indarkeria eta erasoari buruzko azterlana egin du, *Cisneros VII* izenaz ezagutua, Madrilgo Komunitateko 22 ikasgeletan Lehen Hezkuntzatik hasi eta Batxilergorainoko ikasleekin (Oñate, Piñuel eta Zabala, 2005). Azkenik, hilabete batzuk baino ez atzera, Madrilgo Komunitateko Adin Txikiko Defentsariak (2006) ikastetxeetako bizikidetzari buruzko azterlana egiteko eskatu zion IDEA institutuari eta, horretarako, Lehen Hezkuntzako azken zikloko nahiz Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei nahiz beren irakasleei galdera-sorta banatu zitzaion.

Murtzian, arlo honetako lehen ikertzaileetako batek, Fuensanta Cerezok (Cerezo eta Esteban, 1992), pareen izendapenaren prozedura aplikatu zuen lau ikastetxetako 10 eta 16 urte arteko ikasleen artean, erasotzaileak eta biktimak identifikatze aldera. Bestalde, Emakumearen Nafarroako Institutuak, galdera-sortaren bidez, ikasleen arteko tratu txarrei buruzko azterlana egin zuen 18 ikastetxetako DBHko ikasleekin, eta arreta berezia jarri zuen generoaren aldagaian (Hernández Frutos et al., 2002). Valentziako Erkidegoan, Comisiones Obrerareko Federació d'Ensenyament erakundeak ikastetxeetako lagin adierazgarriaren azterlana egitea eskatu zien Rafaela García López eta Ramón Martínez Céspedesi (2001); azterlan honetan, DBHko 3. mailako ikasleek nahiz zuzendari, orientatzaile eta irakasleek ikastetxeetako hainbat gatazka motari (bandalismoa, drogen kontsumoa, irakasleei egindako erasoak) nahiz ikasleei tratu txarrak emateko jokabideei buruzko galdera-sortari erantzun zioten. Azkenik, Ceutako hiri autonomoan bi azterlan ere egin dira. Lehenak, Parejarenak (2002),

⁴ Galdera-sorta honetako galdera batzuk aurrerago, Javier Elzoren zuzendaritzapean, Donostiako ikasle laginarekin egin zen lan batean erabili ziren. Horren emaitzez 1.3.5 atalean mintzatuko gara, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako ikerketei buruzkoan.

galdera-sortak eta eztabaida-taldeak bateratu zituen eta Bigarren Hezkuntzako 17 ikastetxetan gauzatu zen. Bigarrena, Ramirezek egina (2006), Lehen Hezkuntza eta DBHko lehen zikloa ematen duten bi ikastetxetan egin zen, ikasleen artean banatutako galdera-sortaren bidez.

Erkidegoetako lagin zehaztutara mugatuta dauden azterlan horiez gain, merezi du aipatzea, lan honekin duten lotura bereziagatik, Hogar del Empleado fundazioak (FUHEM) hala eskatuta IDEA institutuak bi azterlan gauzatu zituela orain dela zenbait urtetik hona abiarazitako ebaluazio sarea osatzen duten hainbat autonomia-erkidego-tako 67 ikastetxetan. Horietan, ikasle, familia eta irakasleei gatazka mota ezberdinen inguruan –horien artean, tratu txarrak– eta ikastetxeko bizikidetzagiro orokorraren inguruan egindako galdera-sorten bidez jaso ziren datuak (Martín, Rodríguez eta Marchesi, 2003, 2005). Lan horietan, gorago aipatutako beste batzuetan bezala, talde horien irudikapenak alderatzerakoan, ikus daiteke alde nabarmenak daudela gatazka ulertzeko moduan.

1.3.3. ***Ikasleen arteko tratu txarren eraginari buruzko azterlanen ondorio nagusiak***

Ikerketa hauek guztiak ez datoz guztiz bat beren emaitzetan, baina hori logikoa da, kontuan hartu behar baita, kasu askotan, ikastetxeetako gatazken izaera kategorizatzeke modu ezberdinetatik abiatzen direla eta, kasu batzuetan behintzat, informazioa biltzeko prozedura eta tresna oso ezberdinak erabili direla. Hala ere, badira zenbait datu ikasleen arteko tratu txarrei buruzko azterlanek, hasi zirenetik, duela ia mendelaurdena, behar bezain modu iraunkorrean aurkitu dituenak orain arte egonkortasun handia duten joerak direla esan ahal izateko. Jarraian, garrantzitsuenak laburbiltzen dira:

- Botere abusuagatik ikasleen artean sortzen diren tratu txarrak ikastetxe mota guztietan aurkitzen dira, haur eta nerabeen pertsona arteko harremani lotuta baitaude. Horrek ez du esan nahi, ordea, horien agerpena saihestu eta ondorioak gutxiagotu ezin daitezkeenik.
- Eragin handiena jasaten duten mailak Lehen Hezkuntzako azken zikloa (10-12 urte) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehena (12-14 urte) dira; puntu horretatik aurrera, tratu txarrak askoz ere gutxiago agertzen dira.
- Generoa tratu txarren fenomenoan eragin nabarmena duen aldagaia da. Tratu txarren jokabide askotan, egiazta daiteke gizonezko biktima eta erasotzaile gehiago dagoela. Hala ere, zenbait azterlanetan ikus daiteke neskek batez ere gaitz esanaren bidez erasotzen dituztela beren biktimak.
- Erasotzaileak biktimaren maila berekoak izan ohi dira. Hori kontraesanean dago hain zabalduta dagoen ideiarekin; alegia, ikasle zaharragoak direla gazteagoak erasotzen dituztenak.
- Tratu txarrak oso modu ezberdinean eragiten duten abusuen bidez adieraz daitezke. Herriaren Defendatzailearen azterlana (2000) erreferentzi gisa hartuta, Estatu osoari buruzkoa eta metodologia aldetik zehatza izanik, maiztasun adierazgarrienak ondoren datorren 1.1 taulan jasotakoak direla esan daiteke:

1.1. TAULA. ERASOTZAILE, BIKTIMA ETA LEKUKOEN EHUNEKOA, ERASO MOTA BAKOITZERAKO

(Martín, Del Barrio, Montero, Gutiérrez, Fernández, Ochaíta, 2003)

	LEKUKOA	BIKTIMA	ERASOTZAILEA
Baztertu	% 79	% 14,9	% 38,7
Parte hartzen ez utzi	% 66,5	% 10,7	% 13,7
Iseka egin	% 91,6	% 38,5	% 45,5
Ezizenak jarri	% 91,3	% 37,2	% 37,9
Norbaitetaz gaizki hitz egin	% 88,3	% 34,9	% 38,5
Gauzak ezkutatu	% 73,9	% 21,8	% 13,5
Gauzak apurtu	% 37,6	% 4,4	% 1,3
Gauzak lapurtu	% 39,5	% 7,3	% 1,5
Jo	% 59,6	% 4,8	% 7,2
Mehatxu egin, beldurtzeko	% 66,2	% 9,7	% 7,4
Mehatxu bidez behartu	% 12,6	% 0,8	% 0,4
Armekin mehatxu egin	% 6,2	% 0,7	% 0,4
Sexu-erasoa	% 7,6	% 2	% 0,6

- Biktimek batez ere beren lagunengana jotzen dute arazoaz hitz egiteko eta hauek esku hartzen dute tratu txarrak baldin badaude. Familiei gutxitan esaten zaizkie halakoak eta irakasleei are gutxiago. Hori dela eta, ikasleen arteko tratu txarrak neurri handi batean helduengandik ezkutatuta geratzen den fenomeno da.
- Edozein alderdi eta zentzutan ezberdina izatea da pertsona bat biktima bihurtzeko arriskuan jartzen duen ezaugarriarik ohikoena.
- Tratu txarrak gizarte taldeen barruan gertatzen den fenomeno da eta, beraz, besteekin harremanetan jartzeko modu positiboak ikasita aztertu eta saihestu behar dira; modu horiek ikastetxeetan erakutsi behar dira.

1.3.4. *Ikastetxeetako beste bizikidetza-gatazka batzuen eraginari buruzko azterlanak*

Ikastetxeetako beste bizikidetza-gatazka batzuen eraginari buruzko azterlanak oso urriak dira oraindik, eta beharbada atera daitekeen lehenengo ondorioetako bat, hain zuzen ere, ikerketa ildoak garatzeko beharrena da, modu horretan, ikasleen arteko tratu txarrekin gertatzen ari den bezala, ikastetxeen funtzionamendua horrenbeste asaldatzen duten mota horretako fenomenoaren garrantzia eta ezaugarriak sakontasunez aztertzeko, ikasleen eta irakasleen garapen sozial eta emozionalarekin batera.

Lehen informazio garrantzitsua da, ikastetxeko indarkeriaren gaiak sortzen duen eta, gainera, hazten doan gizarte alarma gorabehera, irakasleei irakaskuntzaren kalitatea zailtzen duten bestelako arazoen aldean horri ematen dion garrantzia zein den galdetzean, erantzunak ez datozela bat hedabideek egunero helarazten duten gizarte pertzepzioarekin

(Defendatzailea, 2000). 1.2. taulak azaltzen du, 1999an ikasleen arteko gatazkek bosgarren tokia betetzen zutela galdera-sorta erantzun zuten 300 ikasketa-bururen kezken zerrendan. Garrantzi gehien jasotzen zuten puntuak ikasleek ikasteko izan zitzaizkiren arazoak izan ziren.

1.2. TAULA. IRAKASLEEK BEREN IKASTETXEKO IKASLEEN ARTEKO GATAZKEN GAINEAN EGITEN DUTEN BALORAZIOA, IRAKASKUNTZAREN KALITATEAREN BESTELAKO ARAZOEN ALDEAN

(Martín, Del Barrio, Montero, Gutiérrez, Fernández, Ochaíta, 2003)

		GARRANTZIA	
		Garrantzitsua	Oso garrantzitsua
ARAZOAK	Ikasleek dituzten ikasketa arazoak	% 42	% 38,7
	Langile taldearen egonkortasun eza	% 30	% 18,7
	Giza baliabiderik eta baliabide materialik eza	% 34,3	% 28,7
	Ikasleen arteko gatazka eta erasoak	% 24	% 19,3
	Familien parte-hartze falta	% 38,3	% 34
	Komunikazioa eta irakasleen arteko harremana	% 25,7	% 21,3

Azterturiko arazo mota ezberdinen garrantziaren balorazioa xehetasun handiagoz hausnartzean, antzematen da ikasleen arteko gehiegikeriak laugarren postuan kokatzen direla, bi maiztasunak batu ondoren. Gelako martxa etetea da irakasleen lana gehien zailtzen duena, portaera txarrekin eta irakasleen partetik jasotzen dituzten erasoekin batera (ikusi 1.3. taula).

1.3. TAULA. IRAKASLEEK IKASTETXEETAN BIZIKIDETZA-GATAZKA EZBERDINEN GARRANTZIAREN GAINEAN EGITEN DUTEN BALORAZIOA

(Martín, Del Barrio, Montero, Gutiérrez, Fernández, Ochaíta, 2003)

		GARRANTZIA	
		Garrantzitsua	Oso garrantzitsua
GATAZKAK	Eskolak ematea galarazten duten ikasleak	% 26	% 45
	Ikasleen arteko gehiegikeriak	% 17	% 38
	Portaera txarrak eta ikasleengandik irakasleenganako	% 17	% 40
	Bandalismoa eta gauzak eta materiala apurtzea	% 24	% 36
	Absentismoa	% 30	% 28

Hala eta guztiz ere, oso azterlan gutxi saiatzen da gelako martxaren etetearen garrantzia neurtzen, beharbada kontzeptu hori mugatzea zaila delako, goian adierazi den moduan. Pedro Uruñelak (2006) egindako azterlanak interes handia du ikuspuntu honetan, nahiz

eta Madrilgo Erkidegoko hegoaldeko biztanle talde bati buruzkoa bakarrik izan. Ikertzaile horrek udalerriko hamar institututan jarritako parte eta zigorrak aztertu zituen 2002-2003 ikasturtean, eta horien arrazoiak maila ezberdinetan sailkatu zituen: ikasketari uko egiteko jokabideak; aginte gatazkak eta portaera bortitzak. Ikastetxe horietako irakasle guztiei galdeketa zabala aplikatu zien, eta bost eztabaida talde egin zituen haiekin.

Azterlan honetako ondorio garrantzitsuenen artean, institutu ezberdinetan jartzen den neurritz kanpoko parte kopurua azpimarratu behar da -6.681 ikasleko populazioan 13.226 parte izapidetu ziren-. Uruñuelak irizpide ezberdintasuna antzeman zuen irakasleen artean, jokabide zehatz bat gelako martxaren etenduratzat hartu eta horren garrantzia zehazterakoan. Azterlan horretan bildutako datuen arabera, gelaren eta ikastetxearen martxa gehien eteten den tartea DBHko 2. eta 3. mailena da. Modu berean baieztatzen dute, beste gatazka batzuen kasuan gertatzen den moduan, gelaren martxaren etetearen gertakarian mutilak direla batez ere agertzen direnak: lauko multzo bakoitzetik hiru mutilak dira. Generoak, ordea, ez du soilik ikasleengan eragina. Irakasle emakumeek parte gehiago jartzen dituzte irakasle gizonetako aldean. Modu berean, lotura estua antzematen da errepikatzaile izan eta gelaren martxa eteteko jokabideak izatearen artean, eta pertsonen arteko harremanak okertzen doazenean izugarri altzatzen den gorpil gaiztoa baieztatu egiten da: ikasleen % 24k parteen % 63 biltzen dute, hau da, gelako martxa etetearen arazoa gorpil horretan etengabe murgildurik dauden ikasle taldean mugatzen da. Azkenik, hainbat lotura antzematen dira eskola orduen, asteko egunen eta urteko hilabeteen eta arazoaren eraginaren artean. Bertatik, Uruñuelak hainbat ondorio interesgarri ateratu zituen ikastetxearen antolakuntzaren eraginaren inguruan, mota horretako gatazkei dagokienez.

Modu berean datu interesgarriak azaltzen dituen bigarren azterlan bat Langile Komisionen Hezkuntza Federazioak (2004) egindakoa izan zen, Estatu osoko ikastetxe publiko eta pribatuetako 2.000 irakasleri egindako inkesten bidez. Azterlan horren arabera, irakasleengan atsekabe gehien sorrarazten duen arazoa ikasleen diziplina falta da (% 30). Balorazio hori are okerragoa bihurtzen da titulartasun publikoko eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan testuinguru soziokulturala baxua denean. Bestalde, koordinazio akademikoko nolabaiteko erantzukizuna duten irudiek poztasun gutxiago agertzen dute. Irakasleei laneko baldintza jakin batzuk eragiten dizkieten tentsio mailen inguruan galdetzen zaienean, emaitzek alde handia agertu zuten gatazkaren arabera. Ikaskideen arteko bizikidetzaren arazoa maila handienetan % 1ek bakarrik azpimarratzen dute eta diziplina falta, irakasleenganako errespetu falta eta erasoak, berriz, % 35ek. Diziplina falta % 51raino igotzen da bakarka baloratzean.

“Cisneros VIII: violencia contra profesores” izeneko txostena (Piñuel, 2006) Madrilgo Erkidegoko Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko nahiz pribatuetako 2.100 irakasleri inkesta eginez burutu zen, eta hortik eskuraturiko datuak bat datoz Langileen Komisionek egindako azterlanean eskuraturikoekin, irakasleek jasotako erasoek sorrarazten duten kezka eta tentsioari dagokienez. Datuak bat datoz bereziki diziplina ezaren gaian. Azterlan horren arabera, Lehen Hezkuntzako irakasleen % 80k eta Bigarreneko % 90ek beren ikastetxeko indarkeria jarduerak aipatu ditu. Indarkeria horretan mota guztietako gatazkak sartuko lirake, eta berrikuspen honetan aurkezturiko gainerako azterketek agertzen dituzten zifretatik nahikoa ezberdinak dira. Galderak irakasleenganako erasoetara mugatzen direnean, azterlanak dio irakasleen % 53,6k

ingurukoengandiko indarkeria fisiko edo hitzezkoaren biktima izatea onartzen dutela. Azterlanak modu berean azpimarratzen du, irakasleei egindako eraso horietatik % 75,1 ikasleek egindakoak direla, eta % 36,5, aldiz, haien gurasoek egindakoak. Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak dira berriro ere Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen aurretik agertzen direnak. Motarik ohikoena hitzezko erasoarena da.

Herriaren Defendatzailearen txostenak ere (2000) interesa agertu zuen ikasleek irakasleei egindako erasoek garrantziarengatik, eta lagina eratu zuten ikastetxeetako 300 ikasketaburuei galde egin zitzaion. Galera bera erantsi zen IDEA Institutuak Hogar del Empleado Fundazioarentzat Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako 1.296 irakaslerekin egindako azterlanean (Martín, Rodríguez eta Marchesi, 2005), eta baita Madrilgo Erkidegoko Adingabekoaren Defendatzailearentzat (2006) erkidego horretako Lehen Hezkuntzako azkeneko zikloko eta Bigarren Hezkuntzako 1.356 irakaslerekin egindakoan ere. 1.4. taulan jasotzen diren emaitzek agertzen dute errespetu faltak direla arazo nagusia, erasoak oso ezohikoak diren bitartean. Modu berean irakasle eta ikasleen arteko arazoaren aurkezpen alde argia agertzen da.

1.4. TAULA. IKASLEEK IRAKASLEEI EGINDAKO ERASOEN EHUNEKOA, BI TALDEEK ADIERAZITA "SARRITAN + BETI" MAILAN

(Marchesi, Martín, Pérez eta Díaz, 2006)

	Irakasleak	Ikasleak
Irakasleenganako errespetu falta	% 23,2	% 5
Irakasleei eraso egitea	% 0,4	% 0,7
Ikastetxeko materiala lapurtu edo puskatzea	% 13,2	% 2,5
Gelako martxa eteten duen portaera	% 29,6	% 10,2

IDEAk egindako azterlanen kasuan ere, irakasleek ikasleei egindako erasoez galdetu zen. Gatazka horri askoz ere arreta gutxiago eskaintzen zaio, baina gure iritziz modu berean da garrantzitsua. 1.5. taulak agerturiko emaitzek nabarmentzen dute, ikasle eta irakasleen pertzepzioen artean distantzia handia antzematen jarraitzen bada ere, lehenengok hezkuntza lanari ez dagozkion jokabideak izaten dituztela onartzen dutela.

1.5. TAULA. IRAKASLEEK IKASLEEI EGINDAKO ERASOEN EHUNEKOA, BI TALDEEK ADIERAZITA, "SARRITAN + BETI" MAILAN

(Marchesi, Martín, Pérez eta Díaz, 2006)

	Irakasleak	Ikasleak
Barregarri uztea	% 2,3	% 7,8
Begitan hartzea	% 2	% 17,9
Iraintzea	% 1,6	% 3,6
Mehatxu bidez beldurtzea	% 1,1	% 4,4

Azkenik, oso interesgarriak dira ere Kataluniako Generalitateko Hezkuntza eta Herri-zaingoa Sailek Javier Elzoren eta Bartzelonako Unibertsitateko Aragay, Sabaté eta Torrellez irakasleen aholkularitzarekin egindako azterlanaren (2002) emaitzak. Helburua 12 eta 18 urte bitarteko gazte eskolatuen portaera gatazkatsuen garrantzia aztertzea zen, haien jarrera eta balioekin batera gizarteko gertakariekin. 7.394 ikasleri luzaturiko galdera-sorta bidez egindako azterlan honek, ikasleen arteko tratu txarrei dagokienez goian adierazitako joerak baieztatzeaz gain, beste mota batzuetako gatazken inguruko zenbait datu eskaintzen ditu. Zehazki, emaitzen arabera, inkesta erantzun zuten ikasleen % 10,5ek noizbait ikastetxeko ondasunetan kalteren bat eragin izana onartu zuten, eta % 15,8k birritan edo gehiagotan eragin izan dutela onartu zuten. Bestalde, % 7,4k irakasleak noizbait iraindu izana onartu dute eta % 4,6k birritan edo gehiagotan egin izana. Azkenik, % 0,8k bakarrik onartu du irakasleei noizbait eraso egin izana eta % 0,4k birritan edo gehiagotan egin izana.

Azterlan horrek gazteek, ikastetxeko testuingurutik kanpo, agertzen zituzten jokabide bortitz eta antisozialak aztertu zituen. Emaitzek argi uzten dute ohikoagoak direla ikastetxetik kanpoko delitu eta gatazkek ikastetxean bertan izaten direnak baino. Bestalde, azterlanak generoaren eragina baieztatzen du: gatazka mota horietan ere, mutilak gehiagotan agertzen dira neskak baino. Interesgarria da, baita ere, ikasleek beren familiek mugak jartzen ez dizkietenaren inguruan duten pertzepzioaren eta gatazketan agertzearen arteko lotura. Harreman berdina topa daiteke ikasleek gelakideekin gustuko harremanak ez dituztela esatean.

Eginiko lan eskasek eskaintzen duten panorama honako puntu hauetan laburbil daiteke:

- Gelako martxa etetea irakasleak gehien kezkatzen dituen arazoa da pertsonen arteko harremanei dagokienez eta, dirudienez, eragin gehien duena da.
- Ikasleek irakasleei egindako erasoak ez dira, kaleko iritzia kontuan hartuko bagenu, uste bezain maiz izaten, eta horien barruan, eraso fisikoak oso urriak dira. Horrek ez du esan nahi, halere, larriak ez direnik.
- Hain ezagunak izan ez arren, irakasleek ikasleei egindako erasoak ere izaten dira, nahiz eta modu berean ezohikoak izan.
- Bandalismoa ikasleen % 10ek baino gehiagok parte hartzen ez duen jokabidea da, eta ikastetxeen barruan kanpoan baino neurri txikiagoan ikusten da.

1.3.5. ***Bizikidetza eta ikastetxeko gatazkei buruzko azterlanak Euskal Autonomia Erkidegoan***

Euskal Autonomia Erkidegoan, beste batzuetan bezala, gatazken eragin maila nahiz ikastetxeetako bizikidetza-giroaren egoera orokorra ezagutzeko azterlanak egin dira. Irizpide kronologikoak erabiliz, horietan lehena Javier Elzok (2003) zuzenduriko azterlanak da. Kasu horretarako, soziologo euskaldun ezagun honen parte-hartzea izan zuen eta Kataluniako Generalitateak egin zuen azterlaneko (2002) galdera-sorta egokitu egin zen eta 12 eta 18 urte bitarteko 2.329 ikasleko laginari aplikatu zitzaion. Donostiako ikasleen lagin horretan lorturiko emaitzak bat etorri ziren aurreko atalean agertu berri diren populazio kataluniarraren datuekin.

Bigarren ikerketa lana Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Kultura Sailak 2004an egindakoa izan zen, *Bizikidetza eta bakearen aldeko heziketa EAEko ikastetxeetan*, eta aditu kopuru handiaren 5 parte-hartzea izan zuen.

Erkidegoko ikastetxeetan bizikidetza eta bakerako hezkuntzaren egoeraren mapa aurkeztea helburutzat zuen azterlan honek, metodologia kuantitatiboa nahiz kualitatiboa erabili zituen. Lehenengo kasuan, galdera-sortak aplikatu zitzaizkion Lehen eta Bigarren Hezkuntzako 140 ikastetxetako zuzendaritza talde, irakasle, ikasle eta familiei. Lagina DBHko laugarren mailako edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko 16 urteko edo gehiagoko 2.052 ikaslek, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako 566 irakaslek eta 383 gurasok eratu zen.

Fase kualitatiboan ikastetxeko komunitateko hiru taldeek parte hartu zuten hamar eztabaida taldetan, eta lurralde eta taldeka antolatu ziren honako modu honetan: Araba-gurasoak, Bizkaia-ikasleak eta Gipuzkoa-irakasleak.

Ondorenean, Arartekoaren azterlanarentzat eta bat etortzeagatik interesgarrienak diren datuak azpimarratuko dira. Lehenik eta behin, **bizikidetza-giro orokorrari** dagokionez, emaitzek honakoa azaldu zuten:

- Bizikidetza ona da pertsonen arteko harremanetan, eta diziplina ezeko egoerek ez dute normaltasunaren muga gainditzen.
- Bizikidetza hobea da Lehen Hezkuntzan Bigarren Hezkuntzan baino.
- Diziplina ezeko jarduerak maiztasun handiagoarekin konpontzen dira hezkuntza neurrien bidez zigorrekin baino. Bizikidetzako Batzordea, aldiz, ia diziplinazkoa bakarrik den organotzat hartzen da.
- Irakasleek aginte galera antzematen dute.
- Arauak ez dira beti modu zuzenean aplikatzen.
- Irakasleek indarkeria eta diziplina eza areagotu egin direla uste dute.
- Guraso nahiz irakasleek ikaslearen jokabidean erantzukizun gehien ematen dioten arrazoia familia giroarena da.

Gatazka mota ezberdinen eraginari dagokionez, batzuk besteekin alderatzean, emaitzek honakoa gerrarazi zuten:

- Diziplina ezeko egoerak ikastetxean ohikoenak dira (2,2 puntu 1-4 eskalan), eta atzetik gelako diziplina eza (1,9), indarkeria ikastetxean (1,6) eta gelako indarkeria (1,3) ditu.
- Gatazka ohikoenak ikasleen artean gertatzen direnak dira (% 36,3), eta ondorenean irakasleekiko harremanenak (% 17,5).
- Ikasleen beldur nagusia irakasleek haiek barregarri uztea (% 41,3) edo galderak egitea (% 38,59) da; askoz ere gutxiago, aldiz, gelakideek haiek erasotzea (% 12,6).

⁵ J. Basagoti, S. Fernández, S. Harillo, L. Otano, G. Ruíz, M. Uranga, M. Vázquez eta N. Zaitegui

Eragin datuei dagokienez, zehazki **ikasleen arteko jokabide desegokiei** dagokienez, 1-4 eskalan, emaitzak 1.6 taulan bildu dira.

1.6. TAULA. IKASLEEN ARTEKO JOKABIDE DESEGOKIEN ERAGINA

(Eusko Jaurlaritz, 2004. Egokitua).

	IKASLEAK	IRAKASLEAK
Ahozko indarkeria. Irainak	3,1	3,1
Kasurik ez, axolagabekeria	2,7	2,7
Traba egitea, etetea	2,6	2,7
Suntsiketak	2,2	2,2
Beldurtzea, mehatxuak	2,3	2
Erasoak eta borrokak	2,2	1,9
Lapurretak	2,1	1,9
Sexu-jazarpena	1,4	1,2

Laginaren aldagaien eraginari dagokionez, mutilek jokabide desegoki gehiago agertzen dituzte, eta horiek ohikoagoak dira ikastetxe publikoetan eta maila soziokultural ertain-baxukoetan.

Ikasleek irakasleekiko dituzten jokabide desegokiei buruz galdetzerakoan, 1.7. taulan jasotzen diren eragin mailak azaldu ziren.

1.7. TAULA. IKASLEEN IRAKASLEENGANAKO JOKABIDE DESEGOKIEN ERAGINA

(Eusko Jaurlaritz, 2004. Egokitua)

	IKASLEAK	IRAKASLEAK
Kasurik ez, axolagabekeria	2,6	2,4
Irainak eta laidoak	2	1,7
Suntsiketak	1,4	1,3
Mehatxuak	1,2	1,3
Eraso fisikoak	1,2	1,1

Kasu honetan ere, mota horretako jokabideak ohikoagoak dira ikastetxe publikoetan eta maila soziokultural ertain-baxukoetan.

Txanponaren beste aldean, **irakasleek ikasleekiko dituzten jokabide desegokiek** aurreko mailan agerturiko eragin maila antzekoak dituzte (ikus 1.8. taula).

1.8. TAULA. IRAKASLEEN IKASLEEKIKO DITUZTEN JOKABIDE DESEGOKIAK

(Eusko Jaurlaritza, 2004. Egokitua)

	IKASLEAK	IRAKASLEAK
Ebaluazioak bidegabeko erabiltzea	2	1,3
Kasurik ez, axolagabekeria	1,9	1,3
Irainak eta laidoak	1,8	1,3
Mehatxuak	1,6	1,2
Eraso fisikoak	1,2	1,1
Suntsiketak	1,2	1,1

Jokabide horiek ohikoagotzat jotzen dira ikastetxe publikoetan eta maila soziokultural ertainekoetan.

Hirugarren azterlana ISEI-IVEIko hiru ikertzailek, A. Campo, A. Fernandez eta J. Grisañelak egindakoa da, hau ere 2004an: *Bizikidetasuna Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan. Kasuak aztertzea*. Lan horrek, xedetzat zuen helburuarengatik, kasuen azterketako metodologia aukeratu zuen. Helburuak honako hauek izan ziren:

- Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek, bizikidetzak hobetzeko saiakeran, erabilitako estrategiak identifikatu eta deskribatzea.
- Ikastetxe bakoitzak, aurre egin beharreko arazoak eta jarduteko testuingurua kontuan hartuta, erabiltzen duen neurri multzoa deskribatu eta baloratzea.
- Ikastetxeko giroan eragina duten faktore nagusiak sailkatzea.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bizikidetzak hobetzeko onarturiko esperimentuak gauzatzen ari ziren hiru ikastetxe aukeratu ziren, eta horietan elkarrizketak eta eztabaida taldeak antolatu ziren programaren arduradunekin eta zuzendaritza talde, irakasle, ikasle eta familiekin. Modu berean, ikastetxe bakoitzeko DBHko 2. eta 3. mailetak bi talderi galdera-sortak aplikatu zitzaizkion. Lana dokumentu azterketarekin osatu zen.

Lorturiko emaitza anitzak laburtzea zaila denez, eta ISEI-IVEIko web orrialdearen bidez (www.isei-ivei.net/cast/pub/indexpub.htm) horiek guztiak eskura daitezkeenez, azterlanaren ondorioetan jasotzen diren laburpen koadroak aurkeztea erabaki da. Lehenengoan, hiru ikastetxeetan bizikidetzak hobetzeko antzemaniko estrategiak laburtzen dira.


**I. KOADROA: KASUEN IKERKETAN IKASTETXEETAN DOKUMENTATUTA ZEUDEN BIZIKI-
DETZAREN SUSTAPENERAKO ERABILITAKO ESTRATEGIEN LABURPENA**
(Campo, Fernández eta Grisañela, 2004. Egokitua)

IKASTETXEA	A. Ordenako, segurtasuneko eta lan eraginkorreko giroa ezartzea	Araudi argia gauzatzen da, mugak ezartzen dituena, eta aditzera ematen da.	Jokabideak erregulatzea
		Araudia sistematikoki berraztertzen da.	Araudiaren funtzionaltasuna
		Araudiak egoera arruntak, ohikoak, erregulatu ditu.	Prozedurak finkatzea
		Araudiaren asmoa ezustekoei, gatazkei, aurrea hartzea da.	Aurrea hartzeko ahalmena
		Eskola jarduera giro lasaian antolatzen da	Eskola giro positiboak
		Arduradunek gatazketan esku hartzen dute, ez dira inhibitzen.	Gatazkei aurre egitea
		Boterea eta agintaritza arrazoiz erabiltzen dira, eta prebentziozko jarrerekin.	Agintaritzarik eza
		Irakasleak ikasleekin oinarritzko ekintza-adostasunetara iristen dira.	Trinkotasuna
	B. Partaidetza eraginkorra eta pertsonen inplikazioa	Talde bereziak hezkuntza-erantzuna beharretara egokitzen saiatzen dira, eta ez dute bereiztea helburu.	Integrazioa
		Irakasleek, ikasleek eta familiek parte hartzeko, ikastetxea egiturez hornitzen da.	Antolamendua
Partaidetza eta konpromisoa saritzen dira.		Partaidetza demokratikoa	
C. Kontuan hartu eta errespetuzko harreman positiboak	Irakasleek lan horren garrantzia onartzen dute eta bizikidetzaren eusten duten harremanei arreta eskaintzen diete.	Lana onartzea	
	Irakasleek harremanen egoerari buruzko hausnarketa eta ebaluazioa egiten dute.	Diagnostikoa	
	Irakasleek harremanetan hobekuntza-planak ezartzen dituzte.	Planifikazio sistematikoa	
	Irakasleak xede horrez koordinatzen dira.	Koordinazioa	
	Beti ere prebentziozko jarrera da nagusi.	Prebentzioa	
D. Buruzagitza	Zuzendaritza inplikatu eta estimatu egiten da.	Zuzendaritzaren estimulua	
	Proiektuen koordinatzaileek agintaritza, erantzukizuna eta baliabideak dituzte buruzagitza banatuta.	Erantzukizuna eta baliabideak	
IKASGELA	E. Tutoretzen denbora, ikasleen garapen pertsonal eta sozialaren oinarritzkoa	Taldeak eta pertsonak jarraitzeko tutoretzaren balioa onartzen da. Elkarriketarako gunea.	Taldeko eta banakako tutoretza
		Plan sistematikoa baloreetan, gizarte-abilezietan, gatazkek ebazteko jarreraren eta tekniken erregulazioan.	Ikasleen garapen pertsonala eta soziala
		Tutoreak beren zereginetarako trebatzen dira, materialak gauzatzen zaizkie eta laguntza eskaintzen zaie.	Prestakuntza praktikoa

II. koadroan hiru ikastetxeetako azterlanean ikastetxeko giroaren hobekuntzan eragin handienekotzat agertu ziren faktoreak aurkezten dira.

II. KOADROA: IKASTETXEAREN GIROAN ERAGIN HANDIENEO FAKTOREAK

(Campo, Fernández eta Grisañela, 2004. Egokitua)



Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruko laugarren ikerketa lana ikasleen arteko tratatuaren eraginari buruzko azterlan zehatza izan zen. Lan horrek *Tratu txarra berdinen artean "Bullying-a" Euskadin* izena jaso zuen eta hau ere ISEI-IVEIk sustatu zuen ere. Egileak J. A. Oñederra, P. Martínez, I. Tambo, eta E. Ubieta izan ziren, eta 2005ean burutu zen Lehen nahiz Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan.

Lan horretan Herriaren Defendatzailearen eta Eroraren azterlan batean (1991) oinarrituriko galdera-sorta erabili zen eta 88 ikastetxetako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako 2.851 ikasleri aplikatu zitzairen. Bigarren Hezkuntzan Erkidegoko 81 ikastetxetako DBHko 4. mailako 3.132 ikaslek erantzun zuen galdera-sorta.

Ondorenean azterlanaren emaitzak laburtuko dira. 1.9. taulan eragin ehunekoaren datuak aurkezten dira, bi mailak bilduta: lekukoek aitorturiko dezenteko maiztasuna –“Sarritan”–, eta maiztasun bizia –“Beti”–. 1.10 taulan berriz, biktimenak, eta 1.11. taulan erasotzaileak.

1.9. TAULA. LEKUKOEN ARABERA TRATU TXAR MOTA EZBERDINEN ERAGIN EHUNEKOA, "SARRITAN + BETI" MAILAN
(Oñederra, Martínez, Tambó eta Ubieta, 2005)

	LEHEN HEZKUNTZA	BIGARRIN HEZKUNTZA
Ez ikusiarena egitea	22,6	15,7
Parte hartzen ez uztea	18,6	23
Iraintzea	55,3	48,6
Ezizenak jartzea	49,2	33,9
Gaizki hitz egitea	49,4	36,1
Gauzak ezkutatzea	24,2	17,4
Gauzak apurtzea	9,6	6,6
Gauzak lapurtzea	12,9	8,5
Jotzea	19,4	32,2
Mehatxu egitea	20,2	16,6
Mehatxu bidez behartzea	3,8	4,5
Armeekin mehatxatzea	1,6	2,3
Sexu-jazarpena	3,3	4,7

**1.10. TAULA. TRATU TXAR MOTA EZBERDINEN ERAGIN EHUNEKOA
BIKTIMEN ARABERA, "SARRITAN + BETI" MAILAN**
(Oñederra, Martínez, Tambó eta Ubieta, 2005)

	LEHEN HEZKUNTZA	BIGARREN HEZKUNTZA
Ez ikusiarena egitea	2,3	1,3
Parte hartzen ez uztea	3,2	1,9
Iraintzea	7,1	4,5
Ezizenak jartzea	8,4	5,5
Gaizki hitz egitea	5,9	4,9
Gauzak ezkutatzea	3,1	1,8
Gauzak apurtzea	1,4	0,8
Gauzak lapurtzea	1,7	1,7
Jotzea	3,3	1,2
Mehatxu egitea	2,4	1,6
Mehatxu bidez behartzea	1	0,4
Armekin mehatxatzea	0,6	0,3
Sexu-jazarpena	1,1	0,6

**1.11. TAULA. MOTA EZBERDINETAKO TRATU TXARREN ERAGIN EHUNEKOA
ERASOTZAILEEN ARABERA, "SARRITAN + BETI" MAILAN**
(Oñederra, Martínez, Tambó eta Ubieta, 2005)

	LEHEN HEZKUNTZA	BIGARREN HEZKUNTZA
Ez ikusiarena egitea	1,4	2,7
Parte hartzen ez uztea	1,7	1,5
Iraintzea	2,6	3,2
Ezizenak jartzea	1,8	3,3
Gaizki hitz egitea	2,7	4,4
Gauzak ezkutatzea	0,6	1,1
Gauzak apurtzea	0,9	0,4
Gauzak lapurtzea	0,4	0,5
Jotzea	1,3	1
Mehatxu egitea	0,8	1
Mehatxu bidez behartzea	0,4	0,4
Armekin mehatxatzea	0,5	0,5
Sexu-jazarpena	0,5	0,6

Eragin datuez gain, azterlan honek ere agertu zuen, irakasleei egoera horiei buruz galdetzean, Bigarren Hezkuntzako erantzun ohikoena *batzuk zigortu* (% 26,1) egiten dutela dela. % 24k diote *batzuek esku hartzen dutela eteteko* eta % 20k ez direla *enteratzen*.

Ikasturtearen aldagaiaren eraginari dagokionez, tratu txarren eragin handiena Lehen Hezkuntzako 6. mailan izaten da eta ondoren tarte berdineko 5. mailan, Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailetan eta azkenik DBHko 3. eta 4. mailak ditu. Generoaren aldagaiari dagokionez, datuek adierazten dute mutil biktimen ehunekoa altuagoa dela neskena baino bi eskola tarteetan, eta Bigarren Hezkuntzan aldea handitu egiten dela.

Modu berean, interesgarria da kontuan hartzea *ikastetxera etortzean beldurrik sentitu ote duten* galderari emaniko erantzuna. Lehen Hezkuntzako ikasleen % 63,9k eta Bigarreneko % 71,3k ez dutela beldurrik sentitu diote. Baiezko erantzuna ematen duten horien artean, Lehen Hezkuntzaren kasuan garrantzia berdinarekin azpimarratzen dute *ikaskide bati edo gehiagori beldurra izatea* (% 37,6) eta *gelako lanari, notei eta etxeko lanei beldur izatea* (% 37,1). Bigarren Hezkuntzan, ordea, bigarren beldur iturri horrek (% 32,8) gaintitu egiten du irakasleei izan diezaieketena (% 28,9).

METODOLOGIA

2. METODOLOGIA

Ondorengo lerroetan azterlan honetan erabilitako metodologiaren deskribapen xehatua aurkeztuko dugu, bai alde kuantitatiboan bai kualitatiboan. Bi kasuetan helburuak, baliabideak eta informazioa jaso eta aztertzekeko prozedurak aipatuko ditugu.

Deskribapen honi hasiera emateko, azterlan honetan onarturiko eta garaturiko metodologiaren osagarritasun aukera justifikatuko dugu laburki. Azterlanean lortu nahi ziren helburuetara iristeko, osagarritasun metodologikoaren bidea hartzea erabaki da, modu horretan bai metodologia kuantitatiboak eta bai kualitatiboak eskaintzen dituzten ekarpen ezberdinak aprobetxatzeko.


Metodologia kuantitatiboaren eta kualitatiboaren integrazioa estrategia ezberdinak erabiliz gauza daiteke. Bericatek (1998) ekarpen interesgarria egiten du, metodoen integrazioaren inguruan duen ikuspegitik abiatuz, integrazio metodologikorako aukera ezberdinak laburbiltzean integrazioko oinarritzko hiru strategiaren bidez: *osaketa*, *konbinazioa eta triangelaketa*. Gure ikuspegitik abiatuz, estrategia horiek ez dira baztertzailak, baizik eta ikerketa berdinean batera ager daitezkeenak eta une edo egoera ezberdinetan aplikatu, modu horretan, osagarriak izan daitezzen horietako bakoitza aplikatuz eratorritako emaitza edo produktuei dagokienez.

- **Osaketaren** estrategia ikerketa berdinarean esparruan bi irudi lortzean ematen da, bata orientazio kualitatiboko metodoetatik eratorritakoa eta bestea orientazio kuantitatiboko metodoetatik eratorritakoa. Ikuspegi bakoitzak errealitatearen dimentsio ezberdina argitzen du eta, beraz, metodoen gainjartzea ez da existitzen eta ez da lortu nahi. Mailarik gorenean, estrategia helburu horrekin garatu bada, metodo bakoitzeko emaitzak integratzen dituen interpretazio laburpenak eman ditzake. Esku artean dugun ikerketan ezin baiezta daiteke osaketa hori erabat gauzatu denik, izan ere, ez dira bi metodoak aplikatu parte hartu duten ikastetxeetako bakoitzean. Hala eta guztiz ere, osaketa hori bai gauzatu dela azterlan kualitatiboan parte hartu duten hamar ikastetxeetan, horietan metodo bakoitzaren aplikaziotik eratorritako bi irudiak lortu baitira.
- **Konbinazioa** ikerketa berdinean esparruan metodo bat beste metodoaren barruan modu subsidiarioan integratzen saiatzen denean agertzen da. Xedea azken horren bidez lorturiko emaitzen baliozkotasuna sendotzea da. Konbinazio prozesu horretan, bigarren metodoak ager ditzakeen ahultasunak konpentsatu nahi dira

lehenengotik eratorritako datu edo informazioa erantsiz. Konbinazio estrategian, emaitzen konbergentzia topatu baino konbinazio metodologiko egokia da lortu nahi dena. Ikerketa lan honen kasuan, konbinazio hori ikasleek, irakasleek eta familiek beteriko galdera-sorten artean eta talde horiei eginiko elkarrizketen artean agertu da.

- **Triangelaketaren** estrategian errealitatearen ikuspuntu osatuagoa da lortu nahi dena, ez bi begiradaren bidez, baizik eta errealitatearen dimentsio bakar baten azterketan orientazio ezberdinak erabiliz. Erabilitako metodo ezberdinek eskaintako informazioak alderatzean egiten den triangelaketaz gain, datu iturri ezberdinetatik lorturiko triangelaketaz hitz egin dezakegu, kasu honetan ikasleek, irakasleek, ikastetxeko zuzendaritza taldeko kideek eta familiek eratuko lituzkete iturri horiek. Triangelaketa horrek lorturiko emaitzen baliozkotasuna eta sinesgarritasuna sendotzen ditu.

Ondorengo irudian hiru estrategia horien irudikapen grafikoa ikus daiteke.



Integrazioko oinarritzko estrategiak (Bericat, 1998: 38-tik hartua).

Flickek honakoa esaten duenean baieztatzen duena aplikatzea izango litzateke:

“...metodologia ikuspuntu ezberdinak osagarriak dira beren artean arazo bat aztertzerakoan, eta hori metodo bakan bakoitzaren puntu ahul eta itsuen konpentsazio osagarritzat hartzen da.” (Flick, 2004: 280. orr.)

Aurrekoari, eta egile berdinarekin jarraituz, metodoen konbinaketaren bestelako abantailak erantsi dakizkioke, honakoak esate baterako:

- Emaitza kuantitatiboak eta kualitatiboak bateratzearen, elkar baieztatzearen eta ondorio berak ateratzearen aukera.
- Bi emaitzek arazo baten alde ezberdinei arreta ematea eta ikuspegi osatuagorantz eramatea.

Azkenik gaineratu beharko litzateke, gerta daitekeela emaitza kualitatiboak eta kuantitatiboak elkarrengandik urruntzea edo kontraesankorrak izatea. Egoera horrek aldean interpretazio teorikora eraman beharko luke, eta kontu horrek, ikerketa lana baliorik gabe ez uzteaz gain, are baliagarriagoak bilakatzen ditu lorturiko emaitzak.

2.1. AZTERLAN KUANTITATIBOA

2.1.1. *Helburua*

Azterlan kuantitatiboaren helburua ikastetxeko komunitateko kide ezberdinen iritziak jasotzea izan da, ikastetxeetako bizikidetzari buruz eta baita bertan jazotzen diren gatazka mota ezberdinen eraginari, horretarako arrazoiei eta ebazpen moduei buruz.

2.1.2. *Metodoa*

2.1.2.1. *Baliabideak*

Azterlanaren fase kuantitatiboa ondorengo atalean zehaztuko diren ikastetxeko komunitateko talde ezberdinei galdera-sortak aplikatuz burutu zen. Galdera-sortak diseinatzeke egin zen lehenengo gauza, aurreko kapituluan agerturiko esparru teorikotik abiatuz, ikastetxeetako bizikidetzagiroan garrantzia gehien izan zezaketen adierazleen dimentsio eta azpidimentsioak zehaztea izan zen eta, modu berean, horietako bakoitzaren gainean informazio aberats eta egiazkoagoena eman zezakeen taldea identifikatu zen.

Bizikidetzaren gainean oro har nahiz gatazka ezberdinen inguruan eginiko ikerketa nagusiak aztertu ondoren eta, bereziki, ikasleen arteko tratu txarrena hausnartu eta gero, bizikidetzaren oinarrizko faktoreak ikertzeko dimentsio orokorrak –ordena, arauak, parte-hartzea eta programa zehatzak– sartzea erabaki zen. Modu berean pertsonen arteko harremanetan eragina duten arazo nagusietan oinarrituriko beste dimentsio zehatzagoak erantsi ziren: ikasleen arteko gehiegikeriak, gelako martxaren etetea, ikasleek irakasleei eragindako erasoak eta azken horiek ikasleei egindakoak, bandalismoa eta absentismoa. Lehen gatazka mota sakontasun handiagoz aztertu zen, garrantzitsua izateagatik eta azterketa hori interesgarria izateagatik zehazki gelakideen arteko lankidetzeta eta borroketan. Helburua Euskal Autonomia Erkidegoko gatazken eragina ezagutzea zen, horiek ikastetxearen funtzionamenduan zuten eraginaren pertzepzioa, baina modu berean gertakari horien arrazoiak eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe eta institutueta bideratzen ari diren konponbideak ere eza-gutu nahi ziren.

Dimentsio horietaz gain, aurreko azterketetan pertsonen arteko harremanetan eta hezkuntza prozesuetan oro har eragina agertu zuten beste batzuk sartzea erabaki zen. Zentzu horretan, ikaslearen garapen sozialarekin, familiararen inguruarekin eta ikastetxearen testuinguru soziokulturalarekin uztarturiko dimentsioak erantsi ziren ikerketan. 2.1 taulan azterlanaren dimentsio eta azpidimentsio teorikoak jaso dira, eta baita, kasu bakoitzean, informazioa emango zuten taldeak ere.

2.1. TAULA. AZTERLANAREN DIMENTSIOAK ETA AZPIDIMENTSIOAK

Dimentsioa	Azpidimentsioa	Informazioa emango lukeen taldea
Ikastetxeko bizikidetzagiroa	Taldean antolaketa Aniztasunaren arretarako neurriak Harrera programak Tutoretza jarduerarako plana Ikasle etorkinen ehunekoak	Zuzendaritza taldea
	Arauak Pertsonen arteko harremanak Parte-hartzea eta komunikazioa Administrazioaren papera	Irakasleak Ikasleak Familiak
Ikasleen balioak	Adiskidetasuna Taldearen presioa Publikoa denaren balioa Autoritarismoa-autoritatea	Ikasleak
Gatazken eragina	Gatazka moten maiztasuna Nork egiten du Nola erreakzionatzen da	Irakasleak Ikasleak Familiak
Gatazken arrazoiak	Pertsonen ezaugarrietan oinarriturikoak Faktoreen elkarrekintzan oinarriturikoak	Irakasleak Ikasleak Familiak
Gatazka konpontzea	Erabakiak hartzeko prozedurak Zehapen mota (zigorrezkoa edo pedagogikoa)	Irakasleak Ikasleak Familiak
Familiaren testuingurua	Testuinguru soziokulturala Familiaren jarraipen eta babesa Ikastetxeko bizikidetzan egindako esku-hartzeak	Ikasleak Familiak

Dimentsio eta azpidimentsio horietatik abiatuz, talde ezberdinetatik informazioa biltzeko galdera-sortak egin ziren. Abiapuntutzat ikerketa taldeak aurreko beste azterlan batzuetan erabilitakoak hartu ziren (Martín, Rodríguez eta Marchesi, 2003, 2005; MEIC, 2006)¹. Lau galdera-sorta elebidun egin ziren, bat inkesta erantzungo zuen talde bakoitzarentzat –ikasleak, irakasleak, zuzendaritza taldea eta familiak–, eta guztietan item komun batzuk sartu ziren talde bakoitzak emaniko informazioa alderatu eta egiaztatu ahal izateko.

¹ Ikasleen arteko tratu txarren azterketari zuzenduriko galdera-sortaren zatian, itemak Herriaren Defendatzailearen txostenean (Defendatzailea, 2000) erabilitako galdera-sortan oinarritu ziren. Txosten haren zuzendarikidea azterketa honen zuzendaria izan zen Cristina del Barriorekin batera.

Hala eta guztiz ere, galderak erantzungo zituen talde bakoitzaren ezagutzarentzat item zehatzak jarri ziren. Ikasle, irakasle eta familiei zuzenduriko galdera-sortetako galdera gehienak lau edo bost erantzun aukerako Lickert eskalan erantzuten ziren, adierazten zen gai motaren arabera. Kasu batzuetan, itemek erantzun bat aukeratzea eskatzen zuten adierazitako hautabide ezberdinen artean. Txosten honen II. eranskinean erabilitako lau galdera-sortak erantsi dira.

Ikasleen galdera-sortako galderak behar bezala ulertzen zirela baieztatzeko helburuarekin, azterlan pilotua egin zen DBHko 2. eta 4. mailako ikasleekin, gerora azterlanean parte hartuko ez zuen erdiko klaseko itunpeko ikastetxe batean. Azterlan pilotu hori egiteko, aurretik jarraibide zehatzak idatziz emandako inkestagile bat bidali zen. Hark egingo ziren galdera motak ahots ozenez irakurri eta ikasleei argitu behar zizkien, eta batez ere, argi utzi ikasleen arteko tratu txarren eraginarekin uztarturiko galderei baiezkoa emateko ohikoa zen zerbait izan behar zuela, eta ez isolaturiko gertakari bat. Jarraibide horiek III. eranskinean aurkitu ahal izango dira. Ikasleek azterlan pilotuan emaniko erantzunak eta inkestagileak ikasleek ondorenean eginiko aipamenen gainean azpimarraturikoak galdera-sorta egokia zela eta erabilitako denbora –eskola batek irauten duena– nahikoa zela baieztatzea ahalbidetu zuen.

2.1.2.2. Parte-hartzaileak

Azterlanean parte hartuko zutenak aukeratzeko, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko zerrendaren arabera Euskal Autonomia Erkidegoan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. eta 4. mailan eskolaturik zeuden ikasle kopuru osoa hartu zen kontuan (ikusi 2.2 taula).

2.2. TAULA. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IKASTETXEETAN MATRIKULATURIKO DBHko 2. ETA 4. MAILETAKO IKASLE KOPURUA

	DBHko 2. MAILAKO IKASLE KOPURUA			DBHko 4. MAILAKO IKASLE KOPURUA		
	PUBLIKOA	PRIBATUA	GUZTIRA	PUBLIKOA	PRIBATUA	GUZTIRA
ARABA	1.104	1.427	2.531	965	1.397	2.362
GIPUZKOA	2.516	3.232	5.748	2.200	3.188	5.388
BIZKAIA	4.080	5.339	9.419	3.494	5.097	8.591
GUZTIRA	7.700	9.998	17.698	6.659	9.682	16.341

(Iturria: www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net)

Beharrezkoa zen lagina aukeratzeko, mordoan laginketa geruzatua egin zen. Laginketa unitatea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza tarteko ikasketak eskaintzen zituzten ikastetxeek osatu zuten. Geruzak hiru aldagai kontuan hartuta ezarri ziren: ikasturtea –DBHko 2. eta 4. mailak–; lurralde historikoa –Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia–; ikastetxearen titulartasuna –publikoa eta pribatua–.

Laginaren tamaina –gutxi gorabehera % 2ko lagin akatsarekin, % 95eko konfiantza mailarekin eta $p=q=0,50$ arekin– DBHko 2. mailako 2.114 ikasletan eta 4. mailako 2.094 ikasletan ezarri zen, hau da, 4.208 ikasle ausazko lagin bakunerako.

Lagina aukeratzeko, ikasle kopurua proportzionalki kalkulatu zen titulartasunaren eta lurralde historikoaren arabera. Ondorenean, kontuan hartuta Bigarren Hezkuntzan batez beste 25 ikasle daudela gela bakoitzeko, laginean parte hartu behar zuen ikastetxe kopurua zehaztu zen. Kopuru hori proportzionalki banatu zen biztanleria osoaren banaketa orokorra kontuan hartuta ikastetxe publiko eta pribatuen artean, eta lurralde historikoetako bakoitzean (ikusi 2.3 taula).

2.3. TAULA. DBHko IKASKETAK ESKAINTZEN DITUZTEN IKASTETXEEN AUKERATURIKO LAGINA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA			
	PUBLIKOA	PRIBATUA	GUZTIRA
ARABA	3	7	10
GIPUZKOA	12	19	31
BIZKAIA	18	26	44
GUZTIRA	33	52	85

Laginaren tamaina geruzaka hausnartuta, lagina eratuko zuten ikastetxeak ausaz aukeratu ziren Euskal Autonomia Erkidegoan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak eskaintzen zituzten gutzietan artean.

Ikastetxeetako bakoitzean, ausaz aukeraturiko DBHko 2. mailako eta 4. mailako ikasle talde bana, haien familiak, zuzendariak eta 20 irakasle inkestatu ziren.

Azkenik, txosten honetan biltzen diren datuak lortzeko erabilitako lagina 80 ikastetxekoa izan da, eta bildutako erantzunen banaketa lurralde eta titulartasunen arabera 2.4 eta 2.5 tauletan jasotzen da.

2.4. TAULA. LAGINAREN BEHIN BETIKO BANAKETA. IKASLEAK ETA FAMILIAK

	IKASLEAK				FAMILIAK			
	DBHko 2.a		DBHko 4.a		DBHko 2.a		DBHko 4.a	
	PUBLIKOA	PRIBATUA	PUBLIKOA	PRIBATUA	PUBLIKOA	PRIBATUA	PUBLIKOA	PRIBATUA
ARABA	72	189	69	155	62	170	61	126
GIPUZKOA	219	382	211	373	204	325	163	312
BIZKAIA	302	543	276	532	275	458	226	400
AZPITOTALA	593	1.114	556	1.060	541	953	450	838
TOTAL	1.707		1.616		1.494		1.288	

2.5. TAULA. LAGINAREN BEHIN BETIKO BANAKETA. IRAKASLEAK ETA ZUZENDARIAK

	IRAKASLEAK		ZUZENDARIAK	
	PUBLIKOA	PRIBATUA	PUBLIKOA	PRIBATUA
ARABA	64	116	3	7
GIPUZKOA	203	260	11	18
BIZKAIA	267	347	15	26
AZPITOTALA	534	723	29	51
GUZTIRA	1.257		80	

2.1.2.3. Datuak biltzeko prozedura

Behin baliabideak eratuta eta parte-hartzaileak aukeratuta, Ararteko erakundeak zuzendari guztiak deitu zituen bilera batean parte hartzeko. Bilera lurralde historiko bakoitzean egin zen eta azterlanaren helburua, metodologia eta egutegia argitu ziren eta lankidetzara eskatu.

Bilera horren ondoren, ikastetxe bakoitzari kaxa bat bidali zitzaion azterlana egiteko beharrezkoa zen material guztiarekin: ikasleentzako 50 galdera-sorta bakoitza irakurgailu optikorako orri banarekin, irakasleentzako 20 galdera-sorta irakurgailurako orri banarekin, 50 galdera-sorta inkestatuko ziren ikasleen gurasoentzat, eta galdera-sorta bat zuzendaritza taldearentzat. Material horrekin batera, jarraibide orrialde bat erantsi zen ikastetxeko zuzendaritzarentzat. Bertan galdera-sortak aplikatu beharreko taldeak eta entrega epeak jasotzen ziren. Modu berean, ikasleei galdera-sortak aplikatuko zizkieten tutore/irakasleentzat beste jarraibide orrialde bat erantsi zen. Orrialde horrek (III. eranskinean jaso da) zehazki agertzen zuen irakurgailu optikorako orrialdeetan nola erantzun, eta bertan, ikasleei aplikazioarekin hasi aurretik irakurri beharreko paragrafo bat erantsi zen. Helburua ikasleek ikasleen arteko botere abusuagatiko tratu txarren inguruko galderak behar bezala ulertzea zen, eraso isolatuz bereiziz. Landa lana 2005eko azaroaren 21aren eta abenduaren 10aren artean egin zen.

2.1.2.4. Azterketa prozedura

Txosten hau egiteko item ezberdinen erantzun ehunekoak atera ziren, dimentsiotan taldekatuz. Ehuneko horiek ondorengo aldagaien arabera ezberdindu dira:

- Ikasleen ikasturtea: DBHko 2. eta 4. maila.
- Ikasleen eta irakasleen generoa.
- Ikastetxearen titulartasuna: publikoa, pribatua.
- Ikastetxearen batez besteko testuinguru soziokulturala: ikastetxearen maila soziokulturala DBHko 2. eta 4. mailako ikasleen galdera-sortan jasotako azken bederlatzi galderatan lorturiko emaitzen arabera kalkulatu zen (ikus galdera-sorta II.

eranskinean)². Parte hartu zuten 80 ikastetxeen banaketak bi kokatu zituen maila gorenean, 29 maila ertain-altuan, 48 maila ertain-baxuan eta bat maila baxuan. Horregatik, azterketak egiteko lau mailak bitan bildu ziren –baxua eta ertain-baxua; ertain-altua eta altua–.

- Atzerriko jatorria duten eskolaturiko ikasle ehunekoa: galdera-sortetan, zuzendarietara ikastetxearen egoera adierazteko eskatu zitzaizen mota horretako ikasle ehunekoen lau mailen arabera: % 1-10; % 11-20; % 21-30 eta % 30 baino gehiago (ikus galdera-sorta II. eranskinean). Parte hartu zuten ikastetxeen banaketak 68 ikastetxe jarri zituen lehenengo mailan, bigarrenean hiru, hirugarrenean bost eta laugarrenean institutu bakar bat³. Talde bakoitzaren kasu kopuruetan emaniko alde hain handiak ez du ezberdintasun esanguratsurik kalkulatzeko ahalbidetu.

Talde ezberdinen arteko aldeak estatistikoki esanguratsuak ziren ala ez baieztatzeko, kontingentzia taulen bidez lorturiko Khi karratuaren frogara erabili dugu. Datu esanguratsuzat gutxienez % 95eko konfiantza maila lortu duten horiek hartu dira. Modu berean, zuzenduriko hondakin tipifikatuak hartu dira kontuan, eta espero zirenetatik nabarmen aldentzen ziren balioak definitzea ahalbidetu dute.

Behin datu kuantitatibo guztiak aztertuta, parte hartu zuen ikastetxe bakoitzari bere emaitzen txostena helarazi zitzaion 80 ikastetxe eta institutu etako emaitza osoekin alderatuta. Horrek ikuspegi bateratuak aberasturiko irudia izatea ahalbidetu zuen. Azterketan laginaren aldagai guztiekin uztarturiko datuak aurkeztu ziren.

2.2. AZTERLAN KUALITATIBOA

2.2.1. *Helburua*

Azterlan kualitatiboaren helburua azterlan honetarako aukeraturiko ikastetxeetako bizikidetzaren harremanetan agertzen diren faktoreak zehaztasun handiagoz ulertzea izan da, batez ere ikaslearen arteko harreman sozialei eta haien baloreei dagozkienak. Modu berean, ikasle, irakasle eta familien iritzia ezagutu nahi izan da ikastetxean garatu ahal izan diren bizikidetzaren programen inguruan.

2.2.2. *Metodoa*

Azterlan hau garatzeko eta jarritako helburuari erantzuna ematen saiatzeko, diseinu mailagoko metodologia kualitatiboa erabili zen, eta gertakarietara moldatzen joan da ikerketa prozesuak aurrera egin ahala. Bestalde, honakoak ere erabili ziren: ikuspegi holistikoa, egoeraren ulermen bateratua kontuan hartzen saiatuz; testuinguruan sarturikoa, ikas-

² Galdera-sortaren ezaugarri teoriko eta psikometrikoak zehetasun handiagoz ezagutzeko, irakurleak Marchesi eta Martinen (2002) *Evaluación de la Educación Secundaria. Fotografía de una etapa polémica*, Madril: Santa María Fundazioa, liburura jo dezake eta Alejandro Tianaren kapitulua irakurri.

³ Guztira 77 ikastetxe izan ziren, hiruk ez ziotelako galdera horri erantzunik eman.

tetxe bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartzen zirelako; pertsonala eta berehalakoa, elkarrizketak eta eztabaida taldeak aurrez aurreko harremanari esker eraturiko konfiantza giroan egin zirelako. Modu berean, hausnarketaren xede ziren egoerak sakontasunez ulertzeko helburua izan da.

2.2.2.1. Parte-hartzaileak

Azterketa kualitatibo hau garatzeko, hamar ikastetxe aukeratu ziren 80ko laginetik eta, horretarako, fase kuantitatiboan bildurako datuetatik lorturiko parametro hauek hartu dira kontuan:

- Bizikidetza-arazo garrantzitsuagoak dituzten lau ikastetxe, bi publiko eta bi itunpeko, eta titulartasun bakoitzaren barruan, bata hirikoa eta bestea landa esparrukoa.
- Erdi mailako gatazka maila duten bi ikastetxe, bata publikoa eta bestea itunpekoa.
- Irizpide horiek kontuan hartzeaz gain, lurralde historikoen araberrako banaketa ere bilatu zen, kasu bakoitzeko ikastetxe kopuruari arreta emanez.
- Halaber, irizpide osagarri gisa, aurreko baldintzak betetzen zituzten kasuan, bizikidetzaren hobekuntzarekin uztarturiko programak edo jarduerak garatu zituzten edo garatu ez zituzten ikastetxeak aukeratu ziren.

Aukeraturiko ikastetxe guztiei bigarren fase horretan parte hartzea proposatu zitzaie, eta aurreikusitako ordezkari bat bakarrik erabili behar izan zen. Izan ere, kasu horretan ikastetxea beste azterlan batzuetan zegoen murgildurik, eta horrek gehiegizko gainkarga zekarren.

2.2.2.2. Informazioa biltzea

Informazioa biltzeko bi estrategia mota erabili ziren: eztabaida taldeak eta elkarrizketa sakonak.

Eztabaida taldeak

Jakina den moduan, eztabaida taldea intereseko gairen baten gainean elkarrekin hitz egin eta eztabaidatzen duten pertsona multzoa da. Bakoitzak bere ikuspegi, pertzepzio eta iritziak ematen ditu puntu zehatz eta jakinen gainean (Lukas eta Santiago, 2004). Eztabaida talde horietan parte-hartzaile ezberdinak egon dira eta aukera eman dute talde ezberdinen joerak zeintzuk diren jakiteko bizikidetzaren eta ikastetxeetako gatazken inguruan, datu kuantitatiboek agerturiko baina prozedura kualitatiboek bezalako ulermen maila eskaintzen ez duten emaitzetan sakonduz. Eztabaida talde horien helburua, beraz, izaera kualitatiboko informazioa biltzea zen, aukeraturiko eta *a priori* antolatuturiko gaietatik abiatuz.

Aukeraturiko ikastetxe bakoitzean lau eztabaida talde eratu ziren, eta horietako bakoitzean zazpi edo zortzi parte-hartzaile egon ziren. Zuzendariei testu bat bidali zitzaie taldeetan parte hartu behar zuten pertsonak aukeratzeko argibideekin. Testu hori IV.

eranskinean jaso da. Taldeak hiru ikertzailek koordinatu zituzten. Kasu guztietan proiektuan laguntzaile zen pertsona baten laguntza izan zen. Hark oharrak hartu zituen bilera garatzen zihoan ahala, eta gainera audion grabatu zen. Eztabaida taldeen iraupena ordubete ingurukoa izan zen.

Hasiera batean, lau taldeetako bakoitzeko parte-hartzaileak honako hauek izan ziren:

- DBHko lehenengo zikloko bi mailetak sei eta zortzi ikasle bitarte. Mutilak eta neskek kopuru berdinean. Bereziki gatazkatsuak edo bereziki lotsatiak ez direnen profila erabili nahi izan zen, eta ahal bezain ireki eta komunikatzaileak izatea eskatu zen.
- DBHko 2. zikloko bi mailetak ikasleak aurreko taldeko ezaugarri berdinekin.
- DBHko irakasleak. DBHko lau mailetak zortzi tutore inguru. Zortzi baina gehiago izatekotan, ausaz aukeratu ziren, baten bat bizikidetzeta-gaietan sartuagoa bazegoen salbu. Zentzu horretan, pertsona horrek taldean parte-hartzea eskatu zen. Bizikidetzarako Batzordea zuten ikastetxeetan, bertako kide ziren irakasle batzuk ere parte hartu zuten taldean.
- Ikastetxeko Eskola Kontseiluko gurasoak. Bizikidetzarako Batzordea existitzen zen kasuan, bertako kide ziren gurasoek ere parte hartu zuten.

Eztabaida taldeetan jarraituriko eskema honako hau izan zen:

- Lehenik eta behin, eztabaida talde bat zer den agertzen da modu laburrean, eta honako aldeak azpimarratu:
 - Mota horretako taldeetan interesgarria dena, parte-hartzaile guztien informazioa, balorazioak eta iritziak jasotzea da.
 - Moderatzaileak ez du parte hartuko eta ez ditu adierazpenak baloratuko. Bere funtzioa mundu guztiak parte hartzea ahalbidetzea eta bileraren garapena erraztea da.
- Bigarrena: emaniko informazio eta iritziak konfidentzialtasun berme osoarekin erabiliko dira. Nork zer esan duen edo zeri buruz ez da inoiz identifikatuko.
- Transkripzioa eta bileraren analisisa errazteko, grabatzeko baimena eskatzen da.
- Mota honetako hasierako galdera orokorrek ekiten zaio bilerari:
 - Ikastetxe honetako jendea ondo konpontzen dela iruditzen al zaizue?

Une horretatik aurrera talde bakoitzarentzat diseinaturiko gidoiak garatu ziren. Gidoien eskema orokorra ondorenean agertuko dena da eta ikastetxeko komunitateko talde ezberdinen ezagutza eta interesen indar propioak ditu:

1. Ikastetxeko bizikidetzaren balorazioa.

- Bizikidetza eta/edo gatazka giro orokorraren adierazle eta arrazoiak.
- Araudia: garatzea, baloratzea eta aplikatzea.
- Bakoitzaren papera erabakiak hartzerakoan.
- Ikastetxeetako segurtasuna.

2. Gatazka motak.

- Ikasleen arteko tratu txarrak: arrazoiak, aplika daitezkeen konponbideak, talde ahulenak, kasu horietan antzematen den portaera, egoeren balorazio morala, administrazioaren papera.
- Irakasle eta ikasleen arteko gatazkak: arrazoiak, konponbideak, irakasleen arteko aldeak, maila gatazkatsuenak.
- Bandalismoa: arrazoiak, konponbideak, publikoa denaren balorazioa, aurrea hartzeko neurriak.
- Adinaren, generoaren eta norbanakoaren eta kulturaren aldean garrantzia gatazketan.
- Gizarte aldaketak eta horien garrantzia hezkuntzan.
- Banden existentzia.
- Bestelakoak.

3. Ikastetxearen jarduna bizikidetza-arazoen aurrean.

- Tutoretzak (taldeka, banaka).
- Araudia: balorazioa, egin litezkeen aldaketen iradokizunak.
- Bizikidetzarako batzordeak.
- Bizikidetzarako programak (bitartekaritza, ikasle laguntzaileak, administrazioaren programak).

Bilerak ikertzailearen ustetan ateratako ondorio nagusitzat harturikoen laburpen txikia eginez amaitu ohi ziren, guztien adostasuna baieztatzeko asmoarekin.

Elkarrizketak

Elkarrizketa eredu ezberdinen artean, kasu honetan erabili direnak erdi-egituraturikoak deritzenak izan dira. Piageten metodo klinikoaren ondotik eratorritako elkarrizketa horiek subjektuaren pentsamenduan sakontzeko aukera ematen dute, bere ideia propioak jarraituz, eta aurreikusitako gaietan barrena abiatzearen kaltetan izan gabe (Lukas eta Santiago, 2004). Erdi-egituraturiko elkarrizketak izatean, alde aurretik ezarritako elkarrizketa eskema edo eredu existitzen da, elkarrizketatzen den pertsonari galdetu nahi zaizkion zenbait galderarekin. Ondorenean, eta jasotako erantzunen arabera (hitzaren bidezkoak nahiz hitzaren bidezkoak ez direnak), elkarrizketatzaileak galdera berriak egin

ditzake, alde batzuetan sakontzeko edo ikerketaren helburuentzat interesgarri izango diren azterketa bide berriak irekitzeko. Gaingiroki azalduta, hori izan da fase kualitatiboko elkarrizketetan garatu den prozesua.

Guztira hamar elkarrizketa egin dira parte hartu duten ikastetxeetako ikasketa-buruekin. Egokitzat jo izan den kasuetan, orientatzaileek ere parte hartu izan dute. Elkarrizketetarako erabilitako gidoiak taldekako elkarrizketetan edo eztabaida taldeetan erabilitakoen antzekoak izan dira.

2.2.2.3. Informazioaren azterketa

Logikoki, metodologia kualitatiboa izatean, triangelaketak⁴ garrantzi handia hartzen du. Horren bidez, seguruagoa da bildutako informazioak duen garrantziaz jabetzea, sinesgarritasun, trinkotasun eta berresteko aukerekin batera. Batetik, metodoen triangelaketa informazioaren bilketarako erabili da (elkarrizketak, eztabaida taldeak eta galdera-sortak); eta, bestetik, informatzaileak triangelatu dira, bildutako informazioa talde ezberdinei baitagokie: irakasleak, ikasketa-buruak, ikasleak eta familiak.

Bildutako informazioaren azterketa trinkoa ikerketaren azken fasean egin bada ere, lehenengo elkarrizketa eta eztabaida taldeak egin zirenetik gertatzen zihonanaren azterketa partzialak egin ziren. Behin hamar ikastetxeetako informazioa bilduta, azterketa trinkoa egin da honako prozedura hau erabiliz (Lukas eta Santiago, 2004):

1. FASEA: Informazioa gutxitzea
 - a. Aztertu beharreko informazioaren aukeraketa eta identifikazioa
 - b. Azterketaren helburuak zehaztea
 - c. Mailen sistema ezartzea
 - i. Erregistro unitatea aukeratzea
 - ii. Mailen sistema ezartzea
 - iii. Maila bakoitzarentzako kodeak identifikatzea
 - d. Mailen sistemaren azterketa pilotua
 - e. Kodifikazioa
2. FASEA: Informazioa antolatu eta aurkeztea
3. FASEA: Emaitzak aztertu eta interpretatzea

Jarririko faseak aztertuz ondoriozta daitekeen moduan, bildutako datuen gaineko azterketa kualitatibo ulerkorra egin da. Horretarako, hainbat maila aukeratu eta identifikatu behar izan dira. Prozesu hori modu deduktiboan edo induktiboan egin daiteke. Gure kasuan prozedura mistoa erabiltzea erabaki dugu. Hau da, *a priori* hainbat maila jarri dira, bibliografiaren berrikuspenean eta ikertzaileen esperientzian oinarrituz (prozedura

⁴ Kasu honetan, triangelaketak fenomeno baten azterketari egiten dio erreferentzia metodoen edo iturrien konbinazioa erabiliz.

deduktiboa). Ondorenean, bildutako informazio guztia kodifikatzen joan denean, mailen sistema egokitzuz joan da benetan bildutako datuetara molda zedin (prozedura induktiboa). Azterketak errazteko, datu kualitatiboak modu kualitatiboan aztertzeko diseinaturiko NUD.IST programa erabili denez, adierazitako prozedura mistoa (deduktibo-induktiboa) erabili ahal izan da.

Ondorenean aurkeztuko den koadroan datuak kodifikatzeko erabilitako hasierako maila sistema ikus daiteke:

(1) / GIRO OROKORRA

- (1 1) / Giro orokorra/Familiak-ikastetxea
- (1 2) / Giro orokorra / Ikasleak-ikasleak
- (1 3) / Giro orokorra/Ikasleak-irakasleak/tutorea. Diziplina
- (1 4) / Giro orokorra / Irakasleak-irakasleak

(2) / ARAUDIA

- (2 1) / Araudia/Ezagutza
- (2 2) / Araudia /Aplikazioa
- (2 3) / Araudia /Erabilgarritasuna, balorazioa, onarpena
- (2 4) / Araudia /Aldaketak
- (2 5) / Araudia /Gelako arauak

(3) / BIZIKIDETZA ONERAKO ARRAZOIAK

(4) / BIZIKIDETZA TXARRERAKO ARRAZOIAK

(5) / IKASTETXEA BIZIKIDETZAREN AURREAN

- (5 1) / Ikastetxea bizikidetzaren aurrean/Bizikidetzarako Batzordea
- (5 2) / Ikastetxea bizikidetzaren aurrean /Tutoretzak
- (5 3) / Ikastetxea bizikidetzaren aurrean /Harrera Plana
- (5 4) / Ikastetxea bizikidetzaren aurrean /Bitartekaritza
- (5 5) / Ikastetxea bizikidetzaren aurrean /Prestakuntza

(6) / GATAZKAK

- (6 1) / Gatazkak/Arrazoiak
- (6 2) / Gatazkak /Motak
- (6 3) / Gatazkak /Gatazkak konpontzea
- (6 4) / Gatazkak /Segurtasuna
- (6 5) / Gatazkak /Dilema

(7) / ADMINISTRAZIOAREN EGINKIZUNA


AZTERLAN KUANTITATIBOAREN EMAITZAK

3. AZTERLAN KUANTITATIBOAREN EMAITZAK

3.1. BIZIKIDETZA IKASTETXEETAN

3.1.1. *Ikasleen iritzia*

Bizikidetza-giroari buruzko galderei ikasleek eman dizkieten erantzunek bizikidetza-giro horren irudi positiboa eman dute. 3.1 irudian biltzen den eran, gutxi gorabehera lau ikasletik hiruk *ikastetxean ordena dagoela* uste dute eta *irakasleek gelan ordena mantentzen dutela*.




Arauen balorazioa aztertzen bada, emaitzek irudi zehatzagoa eskaintzen dute. Ikasleen % 68k arauak egokiak direla pentsatzen dute eta % 82,7k *ikastetxeko bizikidetza-arauak argi adierazten saiatzen direla*. Baina arau horiek ezartzean ikasleek duten partaidetzaren inguruan ikasleek beren buruez duten irudia ez da hain positiboa. Ikasleen erdiak hau esaten dute: *gela irakasleen eta ikasleen artean zenbait arau*

jarri ditugu eta maiz erabiltzen ditugu Bestalde, ikastetxean sortzen diren arazoak konpontzeko ikasleen iritziak kontuan hartzen direla pentsatzen dutenak % 52 dira eta galdera hori ikasgelaren eremuan egiten denean ehunekoa apur bat handiagoa da (% 59); baina, edonola ere, ehuneko hori ikastetxearen ezaugarri den ordenari buruzko balorazioa baino txikiagoa da.

Arauen edukiez gain eta arauak egiterakoan izandako partaidetzaz gain, ikasleen iritziak aztertu ziren, irakasleek arau horiek aplikatzean duten koherentziari eta bereizketa ezari lotuta. Lehenengo kasuan, ikasleen % 62k uste dute irakasleek irizpide berberak erabiltzen dituztela ikastetxeko arauak ezartzerakoan, baina % 41ek soilik uste dute gelan ikasle guztiak berdin tratatzen dituztela, bereizketarik egin gabe.

Azkenik, bizikidetzeta-giroari dagokionez, ikasleek oso balorazio ona egin dute pertsonen arteko harremanaren inguruan eta ikastetxeak horiek irakasteari ematen dioten garrantziaren inguruan. % 92k esaten dute ikastetxean ongi sentitzen direla eta lagun asko dituztela. % 71ren iritziz, ikastetxean irakasleen eta ikasleen arteko harremanak onak dira. % 77k pentsatzen dute ikastetxeak garrantzia ematen diola besteekin harremanak modu egokian izaten irakasteari. Gainera, lau ikaslelik hiruk pentsatzen dute ikastetxean garrantzia ematen zaiola ikasle batek beste batekin etengabe arazoak dituenean.




Ikastetxeko bizikidetzeta-giroaren balorazio positibo horren barruan, ikerketan aztertu diren aldagaietan alde batzuk ikusi ahal izan dira. 3.2 irudian jasotzen den eran, ikasturtea da eragin gehien duen faktorea. DBHko 2. mailako ikasleak, nahiz eta aztertutako hainbat alderdi positiboki baloratu dituzten, askoz ere kritikoagoak dira ikastetxeak baimentzen dien partaidetzarekin. Arauak aplikatzean irakasleen artean dagoen koherentzian konfiantza gutxiago dute, eta gutxiagok uste dute ikastetxeak era prosozialean harremanak

izaten erakusteari garrantzia ematen diola. Ikastetxeen titulartasunari dagokionez, ikastetxe pribatuetao ikasleek balorazio hobea egiten dute ikastetxeko eta ikasgelako ordenaz. Ikasleen generoak, ikastetxeen testuinguru soziokulturalak eta kokatuta dauden lurralde historikoak ez dute eraginik lehenbiziko galdera hauetan.

3.1.2. *Irakasleen iritzia*

Eskoletako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako bizikidetza-giroari dagokionez irakasleek egiten duten balorazioa ikasleena baino positiboagoa da, 3.3 irudian ikusten den moduan. Ordenak, arauen edukiak, eta ikasleekin eta lankideekin dituzten harremanek ehuneko handiagoak erakusten dituzte, hau da, balorazio hobea izan dute. Baina, ikasleen kasuan bezalaxe, beren jardueran duten koherentzia falta irakasleek beraiek ere onartzen dute. Hala, lagineko irakasleen % 51k onartzen dute *irakasleek ez dituztela irizpide berak erabiltzen ikastetxeko arauak ezartzerakoan*.



Irakasleen galdera-sortan ikastetxeko bizikidetzarekin lotutako beste galdera batzuk sartzen ziren, baina galdera horiek ikasleei egiteak ez zuen zentzurik. Item horietako erantzunen arabera (3.1 taulan jaso dira erantzunak), irakasleen gehiengoak (% 90,7) pentsatzen du *ikastetxe orok bizikidetza hobetzeko programa zehatza izan beharko lukeela*; aitzitik, irakasleen % 59k soilik onartzen dute *bizikidetzarekin loturiko programetan parte hartzen dutela*. Ehuneko handi batek esaten du *tutoretza orduetan, bizikidetza-gaiak, elkar ezagutzeko bideak, etab. lantzen direla*, baina % 42,9k bakarrik erantzun dute *irakasleen sentsibilizaziorako jarduerak egiten direla ikasle bakoitzaren ezaugarriak ezagutzeko*.

3.1. TAULA. IKASTETXEKO BIZIKIDETZA-GIROARI BURUZ IRAKASLEEK EMANIKO ERANTZUNAK


		TESTUINGURUA		TITULARTASUNA		GUZTIRA
		ALTUA ETA ERTAIN- ALTUA	ERTAIN- BAXUA ETA BAXUA	PUBLIKOA	PRIBATUA	
Ikastetxe orok bizikidetza hobetzeko programa zehatza izan beharko luke	Ez nago batere ados edo Ez nago ados	% 2,1	% 2,0	% 2,1	% 2,1	% 2,1
	Berdin zait	% 7,1	% 7,3	% 8,8	% 6,0	% 7,2
	Ados edo Oso ados	% 90,8	% 90,7	% 89,1	% 91,9	% 90,7
Nire ikastetxean bizikidetza-ekin loturiko programetan parte hartzen duten irakasleak daude	Ez nago batere ados edo Ez nago ados	% 19,0	% 17,4	% 20,5	% 16,2	% 18,0
	Berdin zait	% 23,8	% 21,1	% 24,6	% 20,3	% 22,1
	Ados edo Oso ados	% 57,2	% 61,5	% 54,9	% 63,5	% 59,9
Nire ikastetxean, tutoretza orduetan, bizikidetza-gaiak, elkar ezagutzeko bideak, etab. lantzen dira	Ez nago batere ados edo Ez nago ados	% 4,8	% 3,7	% 5,1	% 3,3	% 4,1
	Berdin zait	% 8,9	% 10,2	% 13,1	% 7,2	% 9,7
	Ados edo Oso ados	% 86,4	% 86,1	% 81,8	% 89,4	% 86,2
Nire ikastetxean, irakasleen sentibilizatorako jarduerak egiten dira ikasle bakoitzaren ezaugarriak ezagutzeko	Ez nago batere ados edo Ez nago ados	% 36,8	% 32,6	% 38,8	% 30,8	% 34,2
	Berdin zait	% 22,5	% 23,1	% 22,2	% 23,4	% 22,9
	Ados edo Oso ados	% 40,7	% 44,3	% 39,0	% 45,8	% 42,9
Nire ikastetxean, ikasleekin ikastetxeko Barne Araudia landu eta eztabaidatzen dugu	Ez nago batere ados edo Ez nago ados	% 32,3	% 28,9	% 27,8	% 31,9	% 30,2
	Berdin zait	% 24,9	% 24,3	% 25,1	% 24,1	% 24,5
	Ados edo Oso ados	% 42,8	% 46,8	% 47,0	% 44,0	% 45,3
Ikastetxe gehienetako bizikidetzarako batzordeak zigorrak ezartzeko organoak bakarrik izaten dira	Ez nago batere ados edo Ez nago ados	% 21,2	% 19,7	% 18,4	% 21,6	% 20,3
	Berdin zait	% 21,4	% 20,0	% 20,7	% 20,4	% 20,5
	Ados edo Oso ados	% 57,3	% 60,3	% 60,8	% 58,0	% 59,2

Bizikidetza hobetzeko berariazko jardueretan parte hartu duten azterlaneko ikastetxeen inplikazioa ezagutzeko, eskoletako eta ikastetxeetako zuzendariei galdetu zitzairen. 3.4 eta 3.5 irudiek emaitzak biltzen dituzte, eta hau erakusten dute: nahiz eta harrera programak eta ikasleen taldekatzeak bizikidetza hobetzeko ikastetxeetan maiz erabiltzen diren neurriak izan, bitartekotza programek eta ikasle laguntzaile programek oraindik ere oso ezohikoak izaten jarraitzen dute.


Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bultzatutako bizikidetza hobetzeko programen ezagutzari eta parte-hartzeari dagokionez, ikastetxeetako zuzendari gehienek ezagutzen duten programa *bizitzarako ezagutza eta trebetasunetako hezkuntza programa* da (% 57,5), eta zer edo zer gutxiago ezagutzen dute *elkarbizitzarako eta bakerako hezkuntza programa* (% 44). Ezagutza maila nahiko altua bada ere, ikastetxe gutxik hartu dute parte programa horietan.

Titulartasuna izan da alde garrantzitsuak erakutsi dituen aldagai bakarra, zuzendarien laginari dagokionez. Zehazki, ikastetxe publikoetan ikasle laguntzaile programa gehiago egiten dira ikastetxe pribatuetan baino, eta taldeen berrantolaketa ere gehiago erabiltzen da harreman sozialek bizikidetza oztopatzen dutela ikusten denean.

3.4. irudia. Ikastetxeko funtzionamenduari buruz, zuzendariek emaniko baiezeko erantzunen ehunekoa



3.5. irudia. Ikastetxearen ezagutza eta parte-hartzearen balorazioa bizikidetza programetan. Baieztapenekin "Ados edo Oso ados" dauden zuzendarien ehunekoa




Arauen definizioari eta aplikazioari dagokienez, irakasleek aitortzen dute ikasleek gutxi parte hartzen dutela Ikastetxeko Barne Araudia osatzen, eta irakasleen gehiengoaren aburuz (% 59,2), *ikastetxeetako bizikidetzarako batzordeak gehienetan organo zigortzaile hutsak dira.*

Azkenik, bizikidetza-giroari buruzko lehen atal honi dagokionez, irakasleek beren iritzia eman zuten Hezkuntza Sailak bizikidetza hobetzen izan beharreko paperaren inguruan. 3.6 irudian ikus daitekeenez, gai horren inguruan irakasleak oso kritikoak dira. % 28 soilik daude ados administrazioa *kezkatuta dagoela ikastetxeetako bizikidetzan sortzen diren arazoengatik* esaten denean. Ehuneko hori % 5,5eraino jaisten da, *Hezkuntza Sailak ikastetxeetako bizikidetza hobetzeko daraman politika eraginkorra den galdetzen denean.*


Irakasleen iritzietan aztertutako aldagaien eraginari dagokionez, desberdintasun batzuk ikus daitezke testuinguru soziokulturalari eta ikastetxeetako titulartasunari lotuta, 3.1 taulan erakusten den eran. Hala, ordenari eta pertsonen arteko harremanen kalitateari dagokionez, gorago aipatu den moduan, bi motatako instituzioetan balorazioa oso po-

sitiboa bada ere, ikastetxe pribatuetako irakasleek poztasun maila handiagoa erakusten dute. Titulartasunaren arteko alde horiek ere aurki daitezke irakasle taldearen koheren-tziari buruzko balorazioan, gaitasun prosozialen irakaskuntzari eman zaion garrantzian (batez ere tutoretzan) eta bizikidetzaz arazoekin emandako garrantzian. Bukatzeko, Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuetako irakasle gehiagok uste dute, publikoetako irakaslee-kin alderatuta, Administrazioa arduratuta dagoela bizikidetzaz arazoekin eta bizikidetzaz hobetzeko daraman politika eraginkorra dela.




3.1.3. Familien iritzia

Familien galdera-sortan, ikastetxeko bizikidetzaz giroari buruzko galdera batzuk sartu ziren baita ere. 3.7 irudian jasotzen denez, kolektibo honek, irakasleen eta ikasleen antzera, ordenari eta araei buruzko balorazio positiboa du. Irakasleen eta ikasleen puntuazio-aren artean kokatzen da familien puntuazioa. Familiek iritzi hobea duten item bakarra irakasleen jarduteko koheren-tziari buruzkoa da: gurasoen % 61en aburuz, irakasleek irizpide berak dituzte.



Hezkuntza Sailaren paperari dagokionez, balorazioak kritikoa izaten jarraitzen badu ere, irakasleek adierazten dutena baino hobea da. Erdiak baino gutxiagok uste dute (% 41,1) *Hezkuntza Saila kezkatuta dagoela ikastetxeetako bizikidetzan sortzen diren arazoengatik*, eta % 18k soilik pentsatzen dute *bere politika eraginkorra dela*.

Hala ere, kolektiboek beren artean duten harremanari buruz familiek duten balorazioa, 3.8 irudian erakusten den moduan, ez da irakasleek eta ikasleek dutena bezain positiboa.



Galdera-sorta horietan ere bereziki familientzat ziren galdera batzuk sartu ziren. Galdera horietako lehenengoan, *ikastetxean, bizikidetzeta-gaiak lantzeko gurasoekin jarduerak egin dira zioen galderan*, hain zuzen, gutxi gorabehera lau gurasotik hiru (% 71,8) ados

agertu dira baieztapen horrekin, 3.2 taulan erakusten den eran. Ehuneko handiago baten iritiz (% 84,7), *semearekin/alabarekin harreman arazorik badago, berehala jakinarazten diete*. Beren balorazioa are hobea da tutoreen lana baloratzan dutenean. Familien % 91,8k uste dute *tutorearekin harremanetan egoteak beren semearen/alabaren egoeraren berri izateko aukera ematen diela*.

Ikastetxea oro har baloratzeko galdera batzuk ere sartu ziren galdera-sortan. Emaitzek irudi oso ona eskaintzen dute (ikus 3.2 taulako azken hiru itemak). % 67,1ek pentsatzen dute beren ikastetxea ona edo oso ona dela, eta % 1,1ek soilik pentsatzen dute txarra edo oso txarra dela. Familien gehiengo argi batek (% 81,9) *semea/alaba ez luke ikastetxez aldatuko*. Familia ia guztiak (% 93,4) oso pozik daude beren seme-alaben ikasketetarako aukeratutako ikastetxearekin.

3.2.TAULA. IKASTETXEAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZ FAMILIEK EGINIKO BALORAZIOA

		GUZTIRA
Ikastetxean, bizikidetzagaik lantzeko gurasoekin jarduerak egin dira	Ez nago batere ados edo Ez nago ados	% 12,6
	Berdin zait	% 15,7
	Ados edo Oso ados	% 71,8
Nire semearekin/alabarekin harreman arazorik badago, berehala jakinarazten didate	Ez nago batere ados edo Ez nago ados	% 6,5
	Berdin zait	% 8,8
	Ados edo Oso ados	% 84,7
Tutorearekin harremanetan egoteak nire semearen/alabaren egoeraren berri jakiteko aukera ematen dit	Ez nago batere ados edo Ez nago ados	% 3,2
	Berdin zait	% 4,9
	Ados edo Oso ados	% 91,8
Eman zure iritzia ikastetxe hau nolakoa den esanez	Oso txarra edo Txarra	% 1,1
	Arrunta	% 31,9
	Ona edo Oso ona	% 67,1
Ahal banu, nire semea/alaba ikastetxez aldatuko nuke	Ez nago batere ados edo Ez nago ados	% 81,9
	Berdin zait	% 9,0
	Ados edo Oso ados	% 9,1
Pozik nago nire semeak/alabak ikastetxe honetan ikasten duelako	Ez nago batere ados edo Ez nago ados	% 1,9
	Berdin zait	% 4,7
	Ados edo Oso ados	% 93,4

Familien datuak lagingaren aldagaietatik abiatuz aztertu direnean, desberdintasun nabarmenak daudela ikusi ahal izan da ikasturtearekin, testuinguru soziokulturalarekin eta ikastetxeen titulartasunarekin lotuta. DBHko 2. mailan dauden ikasleen familiek, seme-alabak 4. mailan dituztenekin erkatuz, neurri handiagoan pentsatzen dute tutorearen kontaktuaren bitartez seme-alaben egoera ezagutzen dutela. Era berean, ikasleen arteko harremana okerragoa dela pentsatzen dute.

Bestalde, testuinguru soziokultural baxuko eta ertain-baxuko familiek konfiantza gutxiago dute ertain-altukoek baino tutorearengan beren seme-alaba gehiago ezagutzeko bide gisa. Baina semearekin/alabarekin ikastetxean arazoak daudenean jakinarazi egiten zaiela gehiagok uste dute. Era berean, testuinguru soziokultural baxuko eta ertain-baxuko

familia askoz gehiagok aldatuko luke semea/alaba ikastetxez. Testuinguru ertain-altuko familia gehiagok pentsatzen dute, aldiz, beren ikastetxea hobea dela eta ikasleekin bizikidetza-gaiak jorratzeko jarduerak egin dituztela; horrez gain, ikasleen arteko harremanari balorazio hobea egiten diete.

Titulartasunari dagokionez, ikastetxe pribatuetako familiek balorazio hobea egiten dute gai hauen inguruan: ikastetxeko ordena, kolektiboen arteko harremana eta ikastetxea bera. Gainera, ehuneko handiagoak uste du ikastetxeak kolektiboekin jarduerak egiten dituela bizikidetza hobetzeko.


LABURBILDUZ

- Ikastetxeko komunitateak egiten duen ikastetxeko bizikidetza-giroaren (ikastetxeko ordena, arauak eta pertsonen arteko harremanak) balorazioa oso positiboa da.
- Edonola ere, ikasleek eta irakasleek berek onartzen dute ahuleziarik garrantzitsuenetarikoa hau dela: irakasleen artean irizpide bera erabiltzea arauak aplikatzeko orduan eta arau horiek egiten ikasleei parte hartzen uzteko orduan. Ikasleek, halaber, ikasle batzuekin bereizkeria dagoela aipatzen dute.
- DBHko 2. mailako ikasleak bizikidetzako adierazle gehienetan kritikoagoak dira 4. mailakoak baino.
- Familiak kontent daude beren seme-alabak eskolatuta dauden ikastetxearekin.
- Ikastetxeetan ikasle berriak hartzeko programak gauzatzen dira, baina nekez abiarazten dira bitartekotza edo ikasle laguntzaile programak.
- Bizikidetza hobetzeko Hezkuntza Sailaren programak ikastetxeetako zuzendarien artean nahikoa entzutetsuak dira, baina ikastetxeen gehiengoak ez du programa horietan parte hartzen.
- Ikastetxean bizikidetza hobetzeko Hezkuntza Sailaren politikaren eraginkortasunaren inguruan balorazio txarra egiten dute irakasleek eta familiek.
- Ikastetxe pribatuetako familiak gusturago daude beren ikastetxearekin, oro har, eta bizikidetza-giroarekin, bereziki.
- Testuinguru altuko eta ertain-altuko familiak gusturago daude beren ikastetxearekin eta ikasleek beren artean duten harremanarekin.

3.2. GATAZKAK IKASTETXEETAN

3.2.1. Egoera orokorra


Eskoletan eta ikastetxeetan nahiko maiz gertatzen diren gatazkek ikastetxeko funtzionamenduan duten eraginaren ikuspegi orokor bat izateko, galdera bat prestatu zen irakasleentzat. 3.9 irudian biltzen diren erantzunek erakusten dutenez, *eskolak ematea galarazten duten ikasleek* sortzen duten arazoa da, hau da, gelako martxa oztopatzeari, gehien kezkatzen duen arazoa (% 79,3), *ikasleen arteko gehiegikeriak* jarraituta (% 71,2). *Modu txarrak eta ikasleen erasoak irakasleei* dago hirugarren postuan (% 69,3), eta azken tokietan daude *bandalismoa* (% 67,6) eta *absentismoa* (% 64,1).



Horrez gain, kasu honetan hiru kolektiboek beren ustez *azken urteotan ikastetxean gatazkek areagotu egin diren* galdetu zitzaizkien. **Ikasleen** % 57,9k ezetz esan zuten (ikus 3.10 irudia). **Irakasleen** erantzunak guztiz zatituta daude: % 40 ez daude ados baieztapen horrekin, % 41,7k beren desadostasuna adierazten dute eta % 18,3 erdibideko postuetan gelditzen dira Lickert eskalan. Bestalde, balorazio hori aldatu egiten da titulartasunaren eta testuinguru soziokulturalaren arabera. Hala, baieztapen horrekin ados dauden testuinguru ertain-altuko eta altuko ikastetxeetako irakasleen ehunekoa askoz handiagoa da ikastetxe publikoetako irakasleen ehunekoarekin erkatuta. Era berean, irakasleen generoaren arabera, erantzunetan aldea nabaritu da. Emakumezko irakasle gehiago daude ados arazoak ugaritu direla esatean gizonetakoekin konparatuta.

Gai horren inguruan **familiak** duten ikuspegia, ordea, guztiz bestelakoa da: % 27,8 soilik daude ados baieztapenarekin eta % 43,5 ez datoz bat ikuspuntu horrekin. Edonola ere, argi dagoena da titulartasunak eta testuinguru soziokulturalak eragina izan dutela iritzietan. Irakasleen kasuan bezalaxe, testuinguru ertain-altuko eta altuko ikastetxe pribatuetakoa familia gehiago daude gatazkek azken urteotan ugaritu egin direla esatean.

**3.10. irudia. “Azken urteotan ikastetxean gatazkak areagotu egin dira”
baieztapenarekin ikasle, irakasle eta familien adostasun maila**



Ondoren, ikasleen, irakasleen eta familien aburuz, gatazka mota bakoitzak duen tokiaren datuak aztertuko dira.

LABURBILDUZ

Gatazken ikuspegi orokorretik ondorengo hau ondoriozta daiteke:

- Ikastetxeetan gertatzen diren bizikidetzazko arazoaren artean gelako martxa oztopatzea da kezka gehien sortzen duena (lau irakasletik hiruk adierazi dute hori).
- Ikasleen arteko gehiegikeriak eta irakasleenganako modu txarrak eta erasoak agertzen dira ondoren, irakasleen % 70ek arazo oso garrantzitsutzat baloratuta dituztenak.
- Ikasle gehienek eta irakasleen % 40k uste dute gatazkak areagotu egin direla azken urteotan. Iritzi hori, ordea, lau familiatik batek bakarrik dauka.

3.2.2. ***Ikasleen arteko tratu txarrak botere gehiegikeriagatik***

• ***Ikasleen arteko tratu txarrak ikasleen ikuspuntutik***

Beren burua biktimatzat eta erasotzailatzat duten ikasleen arabera, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan tratu txar mota ezberdinek duten tokia erakusten da 3.3 taulan. Tratu txar motek duten eragina erakusten da taulan, maiztasunaren irizpidea jarraituz banakatuta –inoiz ez, gutxitan, sarritan, beti–, eta, azkenik, guztizko erasoaren kopurua, hots, azken hiru kategorien batuketatik ateratzen den emaitza. Guztizko kopuruaz nahiz azken bi

kategorien baturez arituko gara jarraian, intentsitate handieneko arazoak biltzen baitituzte (datuak 3.11 irudian biltzen dira) eta horiek izan baitira aurreko ikerketek erabili dituzten irizpideak, eta, kasuaren arabera, bat edo bestea erabili izan dute.

Biktinek esaten dutenari arreta jartzen badiogu, maiztasun handienaz gertatzen den jazarpen mota *hitzezko erasoak* dira (% 13,5 maiztasun intentsioan eta % 59,4 guztizkoan). Ondoren, *zeharkako eraso fisikoak* (*gauzak lapurtzea edo apurtzea*) daude, % 8,2 eta % 34,4 kopurutara iristen direnak, hurrenez hurren. Bazterketa soziala, bai alde batera uztea *–ez ikusiarena egin–* bai aktiboa *–baztertu–*, hirugarren tokian dago (% 6,2 eta % 30,3). Bestelako jokaerak maiztasun baxuagoan gertatzen dira. Eraso fisiko zuzena (jotzea) esaterako, biktimen arabera % 4,7an gertatzen da maiztasun intentsioari begiratzen badiogu eta % 21,7an guztizkoari begiratzen badiogu; mehatxuen ehunekoak % 4,6 eta % 18,9 dira, hitzezko sexu-erasoen ehunekoak % 3,4 eta % 11,3 dira, eta sexu-eraso fisikoen ehunekoak % 2,4 eta % 7,3 dira, eta zazpigarren eta azken tokian daude.


3.3. TAULA. ONDORENGO ERASO MOTAK EGIN EDO GELAKIDEEN PARTETIK JASO DITUZTEN IKASLEEN EHUNEKOA

	Inoiz ez	Noiz-behinka	Dezentetan	Oso maiz	Agerpena guztira
Iseka egin, gaizki hitz egin, lotsarazi naute	% 40,6	% 45,9	% 10,2	% 3,3	% 59,4
Jo naute	% 78,3	% 17,0	% 3,4	% 1,3	% 21,7
Ez ikusiarena egin, baztertu naute	% 69,7	% 24,0	% 4,4	% 1,8	% 30,3
Mehatxatu edo xantaia egin didate	% 81,1	% 14,3	% 3,4	% 1,1	% 18,9
Gauzak lapurtu edo apurtu dizkirate	% 65,6	% 26,1	% 5,8	% 2,5	% 34,4
Hitzezko sexu-erasoa egin didate	% 88,7	% 7,9	% 2,0	% 1,4	% 11,3
Sexu-eraso fisikoa egin didate	% 92,7	% 4,9	% 1,1	% 1,3	% 7,3
Iseka egin, gaizki hitz egin, lotsarazi dut	% 40,2	% 49,5	% 8,3	% 2,0	% 59,8
Jo egin dut	% 70,2	% 24,3	% 4,0	% 1,5	% 29,8
Ez ikusiarena egin, baztertu egin dut	% 59,2	% 33,4	% 5,6	% 1,7	% 40,8
Mehatxatu edo xantaia egin dut	% 81,9	% 14,4	% 2,7	% 1,1	% 18,1
Gauzak lapurtu edo apurtu ditut	% 88,0	% 9,2	% 1,8	% 1,0	% 12,0
Hitzezko sexu-erasoa egin dut	% 92,0	% 5,7	% 1,5	% 0,8	% 8,0
Sexu-eraso fisikoa egin dut	% 95,1	% 3,4	% 0,6	% 0,9	% 4,9

Erasotzaileek aipatzen dituzten kopuruek azalpen-ordena antzekoa jarraitzen dute, hitzezko erasoei (lehenengo postua) eta bi motatako sexu-erasoei (seigarren eta zazpigarren postuak) dagokienez. Bestelako jokaerak aldatu egiten dira. Erasoak gauzatzen dituztenek esaten dutenez, bazterketa soziala erabiliz egiten dute eraso (bigarren postuan), jotzen (hirugarren postuan), mehatxatuz (laugarren postuan) eta biktimen gauzak apurtuz edo lapurtuz (bosgarren postuan).

Erasotzaileen emaitzen arabera, guztizko kopurua antzekoa izango litzateke bi jokabidetan, hitzezko erasoetan (% 59,8) eta mehatxuetan (% 18,1); txikiagoa hiru jokabidetan, eraso fisiko zuzenetan (% 12) eta bi eratako sexu-erasoetan (% 8 eta % 4,9 hurrenez

hurren), eta handiagoa jotzearen kasuan (% 29,8) eta bazterketa sozialaren kasuan (% 40,8). Oso deigarria da gauzak apurto edo lapurtzearen kasuan dagoen alde nabarmena: biktimek, tratu txarrak egiten dituztenekin alderatuta, ia hiru aldiz gehiago gertatzen direla esaten dute.




Ikasleei tratu txarren aurrean duten portaeraren inguruan galdetzen zaienean, 3.12 irudian ikusten den moduan, erdiak esaten dute (% 49,7) *beren laguna bada, lagundu egiten diotela egoera aldatzeko*. Aitzitik, % 28,7k esaten dute hori egiten dutela *beren laguna ez bada ere*. % 10ek soilik *esaten dio nagusi bati*, % 7,6k onartzen dute *ez dutela ezer egiten* eta % 3,1ek adierazten dute portaera kezkagarriena hartzen dutela: *ez dut egoera aldatzeko ezer egiten, baizik eta egoera horretan sartzen naiz*.


Laguntasunaren garrantzia ageri-agerian gelditzen da galdera-sortako bi galderari emandako erantzunetan: *nori kontatzen dizkiozu zure bizikidetza-arazoak eta nork laguntzen dizu bizikidetza-arazoren bat gertatzen denean*. Bi kasuetan lagunak dira laguntzarik handiena (% 44,1 eta % 36,3, hurrenez hurren). Bigarren tokian, familiarengana jotzen da, baino askoz ere maiztasun txikiagoan, gutxi gorabehera lau alditik behin (% 24,2 eta % 23,9). Irakasleengana jotzea ez da oso maiz gertatzen (% 3,4 eta % 8,1). Edonola ere, nahiz eta irakasleei oso gutxitan kontatzen zaizkien horrelako gauzak eta beren esku hartzea oso noizbehinkakoa izaten den, ikasleen ustetan, kasuen erdian (% 54,9) *irakasleek badakite ikasle batek noiz dituen arazoak beste batekin*.

3.12. irudia. Gatazkak konpontzeari buruz ikasleek emaniko erantzunen ehunekoa


Zer egiten duzu zuk zure lagun batek etengabe arazoak dituenean?




Nori kontatzen diozu bizikidetzaz-azoren bat gertatzen denean?



Nork laguntzen dizu normalean bizikidetzaz-azoren bat gertatzen denean?



Los profesores se enteran cuando un alumno tiene problemas con otros




Galdera-sortan, Lickert eskalaren arabera baloratu behar ziren galderez gain, dilema batzuk sartu ziren; horietatik hiru ikasleen arteko tratu txarrei buruzkoak ziren (ikus II. eranskineko ikasleentzako galdera-sortako 57, 59 eta 60 galderak). Lehengo dilemaren helburua hau da: lagunei jazarpena egiten zaiela ikusterakoan ikasleek horren aurrean jarduteko dituzten moduen arrazoiak sakontasunez aztertzea. 3.13 irudian erakusten den moduan, erantzun sarriena (% 53,5) hau izan da: *nahiz eta kontakatilu deitu, hobe da irakasle bati esatea*. Kezkagarria da, baina, beste erdia mendetasun jarrera islatzen duten erantzunen artean banatzea. Hala, hiru ikasle batek (% 23,5) onartzen dute *hobe dela ez defendatzea, bestela zure kontra joaten baitira*. % 13,6k, hori justifikatzeko, hau esaten dute: *denborarekin pasa bitartean, jasaten jakin behar da*. % 9,5ek esaten dute *ezin dela ezer egin, kontakatitua izatea okerreina baita*.

Ikasle bat, taldean onartua izateko, eskatzen zaion guztia egitera zergatik irits daitekeen azaltzen duten hainbat aukera aurkeztzen zituen bigarren dilema. Erantzun ohikoena (% 51,9) hau izan zen: *batzuetan hobe da bakarrik egotea erabiltzen zaituzten lagunekin baino* (ikus 3.13 irudia). Datu on hori beste bazterketa erantzun batekin osatzen da, non % 32,9k esaten duten *ez dagoela horrelakorik egin beharrik*. *Nahiz eta lagunak edukitzea oso garrantzitsua izan, bilatu arte itxaron behar da*. Gutxi batzuek soilik

(% 5,6) uste dute hori onartu beharra dagoela *garrantzitsuena lagun taldea izatea baita*. Ikasle gutxi batzuek (% 9,5) garrantzia kentzen diote, eta honako hau esaten dute: *garrantzi gutxiko txantxak dira, zuk gero berriei egiten dizkiezunak*.

Azkenik, inork kasurik ez egitea eta baztertzea baino hobe dela etengabe zure kontra zirika aritzea pentsatzen duen ikasle baten arazoa dakar tratu txarren inguruko hirugarren dilemak. Datuek erakusten dutenez, ikasle batzuk ados daude horrekin, baina beste batzuk ez. Zehazki, % 50,9ren aburuz, errua ez da baztertutakoarena, *taldean agintzea gustatzen zaion bat egoten baita eta taldean nor sartzen den edo ez esaten baitu*; baina % 34,6k uste dute *lagunik ez izatea gerta daitekeen gauzarik txarrena dela, eta lagunek onartzeko ahaleginak egin behar direla*.



Tratu txar jokabideen maiztasunaren kasuan ere aldeak daude, ikasleen laginaren aldagai batzuen arabera. Generoa eta ikasturtea dira, berriz ere, aldagairik garrantzitsuenetarikoa.

**3.4. TAULA. TRATU TXARRAK EMAN EDO GELAKIDEEN
PARTETIK JASO DITUZTEN IKASLEEN EHUNEKOA,
MAILA ETA GENEROAREN ARABERA**

		IKASTURTEA		GENEROA	
		DBHko 2. maila	DBHko 4. maila	MUTILA	NESKA
Iseka egin, gaizki hitz egin, lotsarazi naute	Sarritan edo Beti	% 15,2	% 11,7	% 13,9	% 12,6
Jo naute	Sarritan edo Beti	% 5,4	% 3,9	% 5,8	% 3,5
Ez ikusiarena egin, baztertu naute	Sarritan edo Beti	% 7,0	% 5,5	% 6,4	% 6,0
Mehatxatu edo xantaia egin didate	Sarritan edo Beti	% 5,2	% 4,0	% 5,6	% 3,6
Gauzak lapurtu edo apurtu dizkirate	Sarritan edo Beti	% 8,8	% 7,6	% 9,1	% 7,8
Hitzezko sexu-erasoa egin didate	Sarritan edo Beti	% 4,4	% 2,4	% 3,1	% 3,8
Sexu-eraso fisikoa egin didate	Sarritan edo Beti	% 2,6	% 2,2	% 2,2	% 2,6
Iseka egin, gaizki hitz egin, lotsarazi dut	Sarritan edo Beti	% 10,7	% 9,9	% 12,7	% 8,6
Jo egin dut	Sarritan edo Beti	% 5,3	% 5,6	% 7,7	% 3,1
Ez ikusiarena egin, baztertu egin dut	Sarritan edo Beti	% 7,5	% 7,2	% 8,2	% 7,0
Mehatxatu, xantaia egin dut	Sarritan edo Beti	% 3,6	% 3,9	% 5,1	% 2,7
Gauzak lapurtu edo apurtu ditut	Sarritan edo Beti	% 2,8	% 2,9	% 4,1	% 1,8
Hitzezko sexu-erasoa egin dut	Sarritan edo Beti	% 2,4	% 2,2	% 3,1	% 1,6
Sexu-eraso fisikoa egin dut	Sarritan edo Beti	% 1,6	% 1,4	% 1,9	% 1,4

Generoari dagokionez, baieztatu ahal izan denez, tratu txarrak gehien bat gizonezkoiei eragiten dien fenomeno da, tratu txarrak gehiago pairatu eta egiten baitituzte nesken aldean. Zehazki, 3.4 taulan ikusten den eran, hitzezko erasoen, eraso fisikoen eta mehatxuen biktima direnen ehunekoa handiagoa da mutilen kasuan. Bestalde, mutil erasotzaileen ehunekoa handiagoa da ere tratu txarren adierazpen gehienetan: hitzezko erasoak, eraso fisikoak, mehatxuak, biktimaren jabetzako gauzak apurtu eta lapurtzea eta hitzezko sexu-erasoak.


Beste alde batetik, gorago aipatu den moduan nahiz eta tratu txarren egoera baten aurrean lagunengana jotzen den nagusiki –biktimek lagunekin hitz egiten dute: lagunek laguntzen diete–, neskek dira, batik bat, aukera hori egiten dutenak. Era berean, irakasleengana jotzeko aukera mutil gehiagok egiten dute, galderak eskaintzen dituen aukeren artean erantzun hori gutxiengoak aukeratzen duen arren.

Halaber, mutilekin erkatuta, neska gehiagok uste dute tratu txarrak gertatzen direnean irakasleek horien berri dutela. Eta 57. galderako dileman, salatzeari buruzkoan, neskek sarriago aukeratzen dute aukera hau: *tratu txarren egoera bat dagoenean, irakasle bati horren berri eman behar zaio*. 59. galderako dileman ere, *batzuetan hobe da bakarrik egotea erabiltzen zaituzten lagunekin baino* baieztapenaren aldekoak dira neska gehienak, oro har, bai eta 60. dilemako item honen aldekoak ere: *taldean sartzea zail egiten zaien ikasleak daude, taldean agintzea gustatzen zaion bat egoten delako eta taldean nor sartzen den edo ez esaten duelako*. Amaitzeko, aurkezten den azken dileman, *normala da, bi mundu gara dioen aukera gehiago aukeratzen dute neskek irakasleen eta ikasleen artean batzuetan egoten diren harreman txarrak azaltzeko*.


3.14. irudia. Honako tratu txarreko egoera hauetan jarduteko moduaren inguruan ikasleek emaniko erantzunak

Generoaren arabera datuak


Ikasle talde batek sekulakoak egiten dizkio mutiko bati



Ikerrek aste oso batean besteek agindutakoa betetzen egon behar izan zuen taldean onartua izateko



Mikelek zera dio, inork zuri kasurik ez egin eta baztertua baino askoz hobe dela etengabe zure kontra zirika aritzea




Ikasturtearen arabera alde dagokienez, 2. mailako ikasle gehiagok onartu dute eraso fisikoaren eta hitzezko sexu-erasoen biktima izan direla. Bestalde, familiei gehiago kontatzen diete gatazkaren bat dutenean, eta 4. mailakoek lagunak gehiagotan aukeratzten dituzte 2. mailakoek baino; hala ere, bi mailentzat lagunei kontatzea da ohikoena. Bukatzeko, 2. mailako ikasle gehiagok pentsatzen dute tratu txarrak daudenean irakasleek horren berri izaten dutela.

Datuetan alde handia ikastetxe publikoaren eta pribatuaren artean dago soilik. Ikastetxe publikoetan ikaskideen jabetzako gauzak lapurtu eta apurtzearen arazoa handiagoa da.

• *Ikasleen arteko tratu txarrak irakasleen ikuspuntutik*

3.15 irudian erakusten den moduan, irakasleek beren ikuspuntuari jarraiki egin duten gertaera kopuruaren arabera zerrendak antz handiagoa dauka erasotzaileen zerrendarena biktimen zerrendarena baino. Irakasleen esanean, tratu txarretatik ohikoena hitzezko erasoak dira. *Batzuk*, *dezentek* eta *askok* kategoriak batuta irakasleen % 67,4k onartzen dute horiek gertatzen direla. Horri bazterketa sozialak (% 32,4) eta zeharkako eraso fisikoak (gauzak apurtu eta lapurtzea) (% 24,3) jarraitzen diote. Gainerako lau jorkabideak ordena honetan azaltzen dira: mehatxuak (% 18,1), jotzea (% 15,5), hitzezko sexu-erasoak (% 7,3) eta sexu-eraso fisikoak (% 2,6). Ikusten den moduan, gertaerak gutxiago dira irakasleen iritziz.




Irakasleen eta ikasleen tratu txarren ehunekoen konparazio zuzena kontu handiz interpretatu behar da, izan ere, lehengo kasuan *zure ikasleetako zenbatek jasan du etengabe ondoren aipatzen diren erasoetakoren bat galdetzen zen eta ikasleei, aldiz, inoiz eraso motaren bat jasan edo gauzatu duten esatea eskatzen zitzaien. Irakasleen erantzunak, hortaz, tratu txarren lekukoaren paperari dagozkio, eta horrek, logikoki, ehunekoa handiago izatea dakar. Argi eta argi ikusi ahal izan dena zera da: aitortutako jazarpen portaera moten gertaera-ordena ia osotasunean bat datorrela bi kolektiboetan.*

Irakasleen laginaren aldagaiei dagokienez, desberdintasun adierazgarriak generoaren aldagaian atzeman dira. Emakumezko irakasleen ehuneko handiagoak esaten du, gizonzkoen ehunekoarekin erkatuta, ikasleen artean hitzezko erasoak eta eraso fisikoak gertatzen direla.


• ***Ikastetxeetan gertatzen diren ikasleen arteko tratu txarren inguruan familiek duten ikuspuntua***

Sarritan argudiatzen da familiek ez dutela ezagutzen eskola-eremuan beren seme-alabek duten portaera. Horrexegatik, eskola-instituzioaren hirugarren zutabea den honek arazoaren aurrean duen ikuspuntua zein den jakitea garrantzitsua da. Galdera-sortan, ildo horri jarraiki, galdera bat sartu zen; bertan, gurasoei esatea eskatzen zitzaien ea beren semeak/alabak jasan al duen etengabe azterlanean aztertzen den erasotarikoren bat.

3.16 irudian ikasturteka banatuta biltzen diren emaitzek erakusten dutenez, familien ustetan tratu txarrak emateko erarik ohikoena, berriz ere, hitzezko erasoak dira (% 18,1), ondoren zeharkako eraso fisikoak (% 8,2) –biktimaren materiala edo arropa lapurtu eta apurtzea– eta hirugarren tokian bazterketa soziala (% 6). Eraso fisikoak, beren iritziz, ez dira oso ohikoak (% 3,4) eta erasoak jaitsi egiten dira tratu txar “larrienei” buruz galdetzen zaienean: xantaiak eta mehatxuak (% 2,6), hitzezko sexu-erasoak (% 0,5) eta sexu-eraso fisikoak (% 0,3). Familiek ematen duten irudia bat dator bai ikasleenekin bai irakasleenekin, portaera ezberdinen gertaera-ordenari dagokienez. Oso deigarria eta interesgarria da datu asko bat datozela kategoria intentsoan (dezentetan, beti) biktima direla aitortu duten ikasleen datuekin; beraz, pentsa daiteke familiek badutela ikaskideen tratu txar larrien kasuetan gertatzen denaren berri.



Horrez gain, semeak/alabak beste ikaskideren bati tratu txarra eman ote dion galdetu zitzaizen familiei. 3.17 irudian jaso diren emaitzek erakusten dutenez, seme-alaben portaeraren inguruan duten irudia kasu honetan ez dator bat inondik inora ere errealitatearekin.



3.16 irudian ikus daitekeen moduan, lortutako datuek erakusten dute DBHko 2. mailako eta DBHko 4. mailako ikasleen familien artean desberdintasunak daudela tratu txarren kopuruaren inguruan. 2. mailako ikasleen familiek hitzezko erasoen eta eraso fisikoen bidezko tratu txar gehiago aitortu dituzte 4. mailakoek baino, eta horrez gain, pentsatzen dute beren seme-alabek ikaskideak gehienbat beren ondasunak apurtu eta lapurtuz erasotzen dituztela; hori ere bat dator ikasleengan aurkitu diren aldeekin.

Irakasleek ikastetxean ikasleen artean sortzen diren gatazkak ezagutzen dituztela uste al zuten galdetu zitzaizen ere familiei. Erdia baino gehiago (% 57,8) ados daude baieztapen horrekin eta, hortaz, seme-alabek galdera horri erantzun diotena ia-ia berdina da berriz ere (% 54,9). Kasu horretan, ikastetxe pribatuetako familiek adostasun maila handiagoa erakutsi dute ikastetxe publikoetakoek baino.

LABURBILDUZ

Ikasleen arteko tratu txarrei lotuta:

- Ikastetxeetan mota guztietako tratu txarrak gertatzen dira, baina tratu txar kopurua “larritasunaren”¹ alderantzizkoa da proportzionalki, hau da, tratu txarra gero eta larriagoa orduan eta kasu gutxiago.
- Biktimen esanean tratu txarren ordena, gertaera kopuruaren arabera, ondorengo hau da: hitzezko erasoak, zeharkako eraso fisikoak (lapurtzea, apurtzea), bazterketa soziala, eraso fisikoak, mehatxuak eta xantaiak, sexu-eraso fisikoak eta hitzezko sexu-erasoak.
- Tratu txarren fenomenoak, orobat, gizonezkoena da. Gizonezkoek hitzezko eraso, eraso fisiko eta mehatxu gehiago pairatzen dituzte, eta emakumezkoekin erkatuta, askoz gehiagotan izaten dira erasotzaile tratu txar mota guztietan, bazterketa sozialean eta sexu-eraso fisikoetan izan ezik; horietan ez da alderik nabaritzen bi sexuen artean.
- DBHko 2. mailako ikasleak maizago dira eraso fisikoak eta hitzezko sexu-erasoen biktima. Familietan ere aldea nabari da ikasturteen artean. 2. mailako ikasleen gurasoek adierazten dute beren seme-alabek tratu txar mota gehien pairatu eta gauzatu dituztela.
- Eraso kopurua, familien arabera, bat dator biktimen kasuan ikasleek adierazten dutenarekin, maila intentsoari dagokionez. Baina oso bestelakoa da seme-alabak erasotzaile hartuta galdetzen zaienean. Irakasleek aipatzen duten kopurua handiagoa da logikoki, lekuko gisa aitortzen baitute eta ez biktima edo erasotzaile gisa.
- Biktimek lagunengana jotzen dute nagusiki. Laguntasunak beren arazoak kontatzera eramaten ditu eta tratu txarra agertzen direnean, lagunek laguntzen dute biktima.
- Ikasleek nekez eskatzen diete laguntza irakasleei; ikasleen erdiak soilik uste dute tratu txarrak gertatzen direnean irakasleek egoera ezagutzen dutela.
- Ikasle gehienek uste dute arren irakasleei jakinarazi behar zaiela tratu txarren egoera bat dagoenean, nahiz ez kontaktatu deitu zaitzaketen, heren batek uste du hobe dela hori ez egitea, zu biktima bihurtzeko arriskua baitago.

3.2.3. **Irakasleen eta ikasleen arteko harreman-gatazkak**


Ikasleen arteko tratu txar egoerak ikastetxeetan garrantzi handiko arazoak dira, baina, hala ere, ez dira bizikidetzagiroa kaltetzen duten bakarrak. Ikasleen eta irakasleen arteko harremanak maiz arazoak eragiten ditu, bai eta bandalismo-jokabideak ere. Horregatik galdetu zitzaie, berriz ere hiru kolektiboek, zein zen egoera mota horien gaineko beren balorazioa.

• **Ikasleen ikuspuntua**


3.18 irudian ikus daitezkeen moduan, gelako martxa oztopatzea da, *eskolak ematea galarazten duen portaera izatea gelan*, ikasleek maizen egiten dutela onartu dutena

¹ Larritasun kontzeptua arreta handiz erabili behar da. Izan ere, eraso fisikoak eta, batez ere, mehatxuak eta sexu erasoak biktimarentzat oso esperientzia gogorak izan daitezkeen arren, ez dira hasiera batean hain gogorak ematen ez duten erasoak baino mingarriagoak. Horren adibide da bazterketa soziala. Atzera begirako ikerketek (ikus Van der Meulen *et al.*, 2003) erakutsi dutenez, bazterketa sozialak eragin oso kaltegarriak ditu, gertatzen diren mementoan ez ezik gartzaroen eta helduaroen ere.

(% 8,7). Irakasleei errespeturik ez erakustea dago bigarren tokian (% 6), baina irakasleak erasotzea oso ezohikoa da (% 1,1). Eskola-eremuko bandalismoa, ikastetxeko materiala apurtu edo lapurtzea, hirugarren postuan dago gertaera-ordenan (% 3,1).




Alderantzizko ikuspuntutik, ikasleei beren irakasleen jokaerez galdetzen zaienean, erasoei dagokienez, 3.19 irudian jasotzen diren erantzunek erakusten duten moduan, irakasleak, batik bat, eurentzat ezinikusia egitea islatzen duten jarrerengatik sentitzen dira gaizki (% 17,8). Lotsaraztea da aipatzen duten bigarren erasoa (% 9,8), eta ondoren datoz iseka egitea (% 6,2) eta mehatxuz ikaratzea (% 4,5).



Generoaren aldagaia da erantzunetan desberdintasun adierazgarriak eragin dituen bakarra, datuak banakatuta ematen dituzten 3.18 eta 3.19 irudiek erakusten duten eran. Mutilek errespetu gutxiago dute irakasleekiko eta irakasleei eraso fisikoak egiten dizkiete; gelako martxa oztopatzeko jokabide gehiago eta jokaera bandaliko gehiago dituzte. Halaber, neskek baino gehiagotan aipatzen dute irakasleek ezinikusia egin, iseka egin, eta mehatxuz ikaritzen dituztela .


• *Irakasleen ikuspuntua*

Irakasleek ikasleen portaerari dagokionez iritzi gogorragoa dute, nahiz eta pertsonen arteko gatazka-moten gertaera-ordena antzekoa den bi kolektiboetan (ikus 3.20 irudia). Lau irakasletik batek (% 23,2) esaten dute *gelako martxa oztopatzen duten* egoerak gertatzen direla gertaera-maila handietan –sarritan, beti–, eta % 39,5 noizeanbehinkako mailan batzen zaie –batzuetan–. *Errespeturik ez erakustea* gutxiago gertatzen da maiztasun handieneko kategorietan (% 16,5), baina noizbehinkako kategorian gelako martxa oztopatzen duten egoeren antzekoak izaten jarraitzen dute (% 41,4). Irakasleak ere ados daude *eraso fisikoak ez direla* batere ohikoak izaten esatean. Bi maiztasunak batuz % 2,6 besterik ez dira. *Jokaera bandalikoei* dagokienez, irakasle gutxik pentsatzen dute, halaber, jokaera horiek sarritan gertatzen direla (% 7,5); baina ehunekoa asko igotzen da “batzuetan” kategorian (% 28,3).



Irakasleek ikasleei egiten dizkieten erasoez irakasleek duten irudiak kontrako alderdia erakusten du. 3.21 irudian erakusten den moduan, gertaera-kopurua izugarri jaisten da, nahiz eta gatazken ordena ikasleek adierazten dutenarekin erkatuta ia berdina den. Irakasleen % 13,9k, bi maiztasunak batuta, ikasleak *lotsarazten* dituztela onartzen dute, eta % 11,5ek *ezinikusia egiten* dietela. *Mehatxuz ikaratzea* irakasleen % 5,7k onartzen dute. Iseken gertaera-kopurua % 4,3 da, eta, beste behin ere, eraso fisikoak dira ezohikoenak. Hala ere, harrigarria da irakasleek beraiek onartzea eraso fisikoak % 1,6 kasutan gertatzen direla: hamahiru irakaslek sarritan egiten dutela esan dute, eta zortzi irakaslek batzuetan.


3.21. irudia. Ikasleei tratu txarrak emateko irakasleen jokabideak ikastetxean gertatzen direla uste duten irakasleen ehunekoa




Lagineko aldagaien eragina handiagoa da irakasleen kasuan. Generoari dagokionez, emakumezko irakasle gehiagok esaten dute ikasleek eraso egin eta errespeturik ez dietela erakusten. Era berean, testuinguru ertain-baxuan eta baxuan dauden ikastetxeetako bi sexu-etako irakasleen iritziz, errespetu falta maizago agertzen da. Iritzi hori bera dute ikastetxe publikoetako irakasle gehienek, gelako martxa oztopotzeko jokaerarekin eta bandalismoarekin gertatzen den moduan.

• Familien ikuspuntua

Familiek, bestalde, irakasleen eta ikasleen arteko harremanaren ikuspegi askoz idilikoa goa dute. Beren seme-alabek arazorik apenas sortzen dutela pentsatzen dute, eta askoz gogorragoak dira irakasleekin. 3.22 irudian jasotzen den moduan, *gelako martxa oztopotzea* da berriz ere arazo nagusia (% 6,2), eta *irakasleei errespeturik ez erakustea* (% 4,8) dator ondoren. Aztertutako hirugarren arazoa, irakasleei *erasotzea*, alegia, familien % 0,2k adierazten dute soilik, eta *jokaera bandalikoak* kasuen % 0,7tik ez dira pasatzen. Beste behin ere, bizikidetzaz arazoaren gertaeren ordena berdina da, baina horiek gertatzen diren maiztasunaren pertzepzioa txikiagoa da, baita arazoaren sortzaile diren pertzepzioarekin konparatuta ere.



Irakasleen portaerak baloratzen direnean (ikus 3.23 irudia), emaitzen irudikapenak ikasleenaren antz handia dauka, nahiz eta aitortutako gertaeren ehunekoak txikiagoa den. Hala, familien % 12,1ek uste dute irakasleek ezinikusia egiten dietela beren seme-alabei; % 10ek lotsarazi egiten dituztela; eta % 3,9k iseka egiten dietela. Ehunekoak behera egiten dute apur bat mehatxuz ikaratzearen kasuan (% 1,8) eta, batez ere, eraso fisikoaren kasuan (% 0,5).



Familien testuinguru soziokulturalak eragina dauka azterlanean aztertutako bi arazoen gertaera-kopuruaren balorazioan. Testuinguru ertain-baxu edo baxuko gurasoen ustetan beren seme-alabek eskolak ematea galarazten duten portaerak dituzte eta irakasleekiko errespetua gehiagotan galtzen dute, testuinguru ertain-altuko eta altuko familiekin konparatuta. Horrez gain, ehuneko kopuru handiagoak uste du irakasleek beren seme-alabak lotsarazi eta iraintzen dituztela.

LABURBILDUZ

Gainerako arazoei dagokienez:

- Bai irakasleek bai ikasleek gelako martxa oztopatzea arazorik ohikoena dela pentsatzen dute, eta hurrengo arazorik ohikoena irakasleekiko modu txarrak izango lirateke. Bi kolektiboek irakasleei eraso fisikoak egitea oso ezohikoa dela pentsatzen dute.
- Irakasleak eta ikasleak bat datozen arren beraiek tartean dauden harreman-arazoen gertaera-ordenarekin, irakasleen aburuz, gisa horretako arazoak askoz maizago gertatzen dira, ikasleen aburuz baino.
- Jokaera bandalikoak oso urriak dira ikasleen ustez (% 3,1). Irakasleek aipatzen duten kopurua bikoitza den arren (% 7,5), baxua da beste arazoekin alderatuta.
- Mutilak aztertutako arazo guztietan neskek baino gehiago parte hartzen dutela ikusi da. Era berean, neskekin konparatuta, irakasleek mutilak gehiago lotsarazten dituztela eta ezinikusia gehiagotan egiten dietela pentsatzen dute mutilek.
- Emakumezko irakasleek aitortzen dute gizonezko irakasleei baino gehiago erasotzen dietela ikasleek eta modu txarrak gehiago direla beraiekin.
- Irakasleen % 10ek baino gehiagok onartzen dute ikasleei ezinikusia egin eta lotsarazi egiten dituztela. Kasu honetan, ikasleek aitortzen duten gertakari-kopuruak irakasleenarekin antz handiagoa dauka irakasleenganako erasoetan baino.
- Familiek ez dute inondik inora pentsatzen beren seme-alabek irakasleak seme-alabek eta irakasleek esaten duten bezain beste erasotzen dituztenik.
- Testuinguru soziokultural ertain-baxuko eta baxuko irakasle eta familiek neurri handiagoan pentsatzen dute ikasleek irakasleei ez dietela errespeturik erakusten. Testuinguru horretako familiek, halaber, beren seme-alabek gelako martxa oztopatzeko jokaerak dituztela eta irakasleek ezinikusia eta iseka egiten dietela neurri handiagoan pentsatzen dute.


3.2.4. *Bizikidetzaz arazoak eragiten dituzten kausak eta ebazpena*

• *Zeri egotzen zaio arazoak eragiten dituzten kausak*

Azterlanean hiru kolektiboek –ikasleak, irakasleak eta familiek– aukera multzo batetik beren ustez ikastetxeetan bizikidetzaz arazoak egotea hoberen azaltzen zuen arrazoiak aukeratzeko eskatzen zitzaizkien. Aukera horietako batzuk komunak ziren hiruetan².

² Familien kasuan, eskaintzen zitzaizkien aukerak gehiago zirenez, bi arrazoi hautatzeko aukera eman zitzaizkien, baina irakasleek eta ikasleek bat bakarrik hauta zezaketen.

Ikasleen erantzunek islatzen dutenez (ikus 3.24 irudia), arrazoa oso gatazkatsuak diren ikasle batzuk izateari (% 44,7) esleitzen diote, batik bat. Ez irakasleak ez familiak ez dira ikasleen ustetan arazo hauen jatorria.



Ikasleentzako galdera-sortan, tratu txarren kasuaren moduan, hiru dilemma sartu ziren, gelako martxa oztopatzeko jokaeren, irakasleen eta ikasleen arteko gatazken eta jokaera bandalikoaren arrazoa apur bat sakonago ezagutu ahal izateko. Lehenengo kasuan (ikus ikasleentzako galdera-sortako 58. galdera), 3.25 irudian ikus daiteke gelako martxa oztopatzeko jokaera bultzatzeko garaian taldeak paper oso garrantzitsua duela. Izan ere, % 40,6k aukera hau egin dute: *interesgarria iruditzeke egiten du. Inork bere graziak barrez hartuko ez balitu, ez lituzke gehiago egingo.* % 23,5ek ondorengo azalpen hau aukeratu zuten: *azken finean gaizki pasatzen du, trauskil edo lotsagabearen portaera bereganatu du eta ez daki egoera horretatik nola atera. Irakasleak berarekin hitz egin beharko luke eta egoera konpontzen saiatu.*


Irakasleen eta ikasleen arteko harreman txarrei dagokienez, 62. galderako dilemak baieztatzen du ikasleek gatazken erantzukizuna beren buruei egotzen dietela. Ikasleen % 35ek honako hau dioen azalpena aukeratu dute: *ikasleok gehiegikeriak egiten ditugu eta horregatik irakasleak gogor jartzen dira.* Bigarren azalpen aukeratuena arazoari garrantzia kentzen dio: *normala da, bi mundu oso ezberdinak gara.*

Azkenik, ikasleek jokaera bandalikoari ematen dieten azalpena aztertzea helburu zuen dilemak (ikus ikasleentzako galdera-sortako 61. galdera) agerian jarri du erantzukizun falta nabaria, eta ez hainbeste eskola-instituzioarenganako gaitzespena. Ikasleen % 43k *ondo pasatzen dugu. Barre batzuk egiten ditugu* esaten duen erantzuna aukeratu dute. Ia lautik batek *ez da zurea, zer axola dio* aukeratu dute azalpen gisa. % 19,5ek soilik egin dute justifikazio honen alde: *irakasleei izorratzeko.*


3.25. irudia. Honako tratu txarreko egoera hauen aurrean jarduteko moduaren inguruko ikasleen erantzunak.

Maila eta generoaren arabera datuak


Nota txarrak ateratzen dituen ikaskidea beti irakasleak gogaitzen ari da, eskolak eragozten, erantzun desegokiak ematen...



Irakasle eta ikasleen artean harreman txarra egoteko arrazoiak



Batzuetan institutuetakoa hormak edo komunak margotzen dira, mahaiaik edo gauzak apurtzen dira




Hemen ere, emaitzetan eragin nabaria duen aldagaia da generoa. Neskek garrantzia kentzen diete irakasleen eta ikasleen arteko harreman txarrei, mutilek baino neurri handiagoan. Harreman txarrak belaunaldien arteko aldeetatik sortzen direla pentsatzen dute.

Ikasturteari dagokionez, DBHko 2. mailako ikasleek, 4. mailakoekin alderatuta, neurri handiagoan esleitzen diote arazoaren kausa ikasle gatazkatsu batzuk izateari eta ikasleek irakasleen autoritatea ez errespetatzeari. Arazoei eman dieten erantzunetan, DBHko 2. mailakoek neurri handiagoan uste dute jokaera bandalikoaren arrazoia lagunaren puntuak irabaztea dela. Halaber, 4. mailako ikasleekin erkatuta, 2. mailako gehiagok esaten dute

irakasleen eta ikasleen artean harreman txarrak egotearen arrazoia ikasleek gehiegikeriak egitea dela.


Erantzuten dutenak **irakasleak** direnean, arrazoiak beren erantzukizunetik at gelditzen dira (ikus 3.26 irudia). Irakasleen % 54k uste dute *ikasleak etxean nahi duten guztia egiten ohituta daudela*; aitzitik, ikasleen % 15,8k bakarrik egin dute aukera hori. Horren ondoren, irakasleek gehien aukeratu duten azalpena hau izan da: *ikasleek ez dute irakasleen autoritatea errespetatzen* (% 28). Deigarria da oso, arrazoiak irakaskuntza-faktoreetan dagoela esaten duten hiru aukerak –*irakasleek gai honetan beraien erantzukizunak saihesten dituzte* (% 2,7); *ikastetxeak ez du berariaz bizikidetza egoki bat sortzeko antolakuntza egiten* (% 3,9); *Bigarren Hezkuntzako antolaketak ez ditu pertsonarteko harremanak errazten* (% 11,4)– hain irakasle gutxik aukeratu izana.



Irakasleen lagineko aldagaiekin lotuta aipatu daitekeen desberdintasun garrantzitsuena da ikastetxe pribatuetako irakasleek ikastetxe publikoetakoekin alderatuta neurri handiagoan uste dutela gatazken sorburua ikasleak etxean nahi duten guztia egiten ohituta daudela.

Familien pentsamendua, bestalde, bizikidetza-arazoak gertatzearen arrazoiak, lehenik eta behin, oso *gatazkatsuak diren ikasle batzuk daudelako* (% 47,1) ideian oinarritzen da, eta, bigarren postuan, *gaur egungo ikasleek ez dute autoritatea errespetatzen* ideian (% 45,4) (ikus 3.27 irudia). Maiztasun oso antzekoarekin, erantzukizun zati handi bat beren gain hartzen dute familiak: *seme-alabekin utzikieriaz jokatzeko duten familiak daude* (% 42,8). Irakasleek erantzukizun guztia kentzen diete, izan ere, *irakasleak ikasleekin intoleranteegiak dira aukera* % 2,3k soilik aukeratu dute, eta *ikasleek ez zaie irakasten arazoak bortxa gabe konpontzen aukera* % 9,6k.

3.27. irudia. Gatazken arrazoiak. Ondorengo baieztapenekin ados dauden familien ehunekoak



Familien laginaren aldagaiei dagokienez, DBHko 4. mailako ikasleen familiek ehuneko handiagoan esaten dute, aukera hori egiten dutenak oro har gutxi izan arren, irakasleek beren erantzukizuna saihesten dutelako sortzen direla gatazkak. Bestalde, testuinguru ertain-baxuko edo baxuko familiek neurri handiagoan egozten diote arazoia ikasle batzuk arazotsuak izateari.


• Arazoen aurrean zer egin

Arazoak konpontzeko moduaren inguruan hezkuntza komunitateak zein ikuspuntu zuen ezagutzea ere interesatzen zitzaigun. Horrexegatik proposatu zen *ikastetxeko gatazkak justiziaz konpontzen dira* baieztapena. 3.28 irudian biltzen diren erantzunek erakusten dutenez, gutxi gorabehera **ikasleen** erdiak (% 56,2) hori horrela dela pentsatzen dute. **Irakasleen** % 90,3k horri egia irizten diete, eta, beste behin ere, agerian gelditzen da ikastetxeko bizikidetzaren ulertzeko moduan dagoen desakordioa. Ikuspuntuaren arteko desberdintasun hori areagotu egiten da azterlanean parte hartzen duten ikastetxeetako **zuzendarien** erantzunen kasuan, baieztapenarekiko adostasun-maila % 97 baita. Amaitzeko, **familiak** erdibidean gelditzen dira, baina seme-alaben ikuspuntutik gertuago irakasleentatik baino. Familien % 61,1 ados daude baieztapenarekin.

Eran berean, **ikasleentzako** galdera-sortan, bizikidetzaren arazoak ebazteko erari buruzko galdera bat sartu zen. Ikasleek egoera horietan jarduteko bi moduren artean aukeratu behar zuten: *inplikatuaren artean hitz eginez* edo *zigorren bidez*. Berriro ere, desadostasuna da nagusi. % 51,1ek diote arazoak hitz eginez konpontzen direla eta gainerakoek (% 48,9) zigorren bidez.


Aurreko galderaren antzeko helburuarekin, ondorengo baieztapenarekin zuten adostasun-maila adierazteko eskatu zitzaizen ikasleei eta irakasleei: *arazoak sortzen dituzten ikasleekin neurri zorrotzagoak hartu beharko lirateke*. **Ikasleen** % 68 ados daude ikuspuntu horrekin, eta **irakasleen** % 59,4k ere adostasuna erakutsi dute.

3.28. irudia. Ikastetxean gertatzen diren gatazkak justiziaz konpontzen direlako baieztapenarekin ikasle, irakasle, zuzendari eta familiek duten adostasun maila




Azterlanean parte hartu duten ikastetxeetako **zuzendariei** honako hau adierazteko eskatu zitzaien: 3.29 irudian biltzen diren neurriak zenbat aldiz hartu dituzten ikasleen jokoaren aurrean 2004/2005 ikasturtean, hau da, azterlana egin aurreko ikasturtean. Ikus daitekeen bezala, datuek eskaintzen duten irudia da ikastetxeek agian barneko baliabideekin erantzuten dietela bizikidetza-arazoei. Gehien erabiltzen den zigor mota irakasleek zuzenean jartzen dutena da (% 55,1), eta ondoren datoz zuzendaritzak jartzen dituen zigorrak. Gehienez aste batez ikastetxetik kanporatzea ez da oso ohikoa, kontuan hartzen bada % 40k maiztasun kategorian baxuenean jarri dutela (bat eta hiru artean). Zuzendarien % 90ek esaten dutenez, ikasturte horretan ez dute behin betiko kanporatzerik egin, baina % 30ek ikastetxez aldatzea proposatu zuten. Azkenik, % 7,6k salaketak jarri zituzten polizian eta epaitegietan.

3.29. irudia. Ondorengo jarduerak ikasleekin ikastetxean garatu ziren aldi kopurua 2004-2005 ikasturtean. Zuzendarien erantzunen ehunekoa



Atal honekin bukatzeko, interesgarria izango zela pentsatu zen azterlanean parte hartu zuten helduek egiten zuten balorazioa ezagutzeko tratu txar egoerak bide judizialek ebazteko dagoen joera gero eta handiagoaren inguruan. Horregatik eskatu zen esaldi honekin ados zeuden ala ez adieraztea: *egokia dela uste al duzu seme-alabek jazarpena izan duten familiek egoera argitzeko aukeratu duten bide judiziala?* Galdera horri eman zitzaizkion erantzunek, 3.30 irudian jasotzen direnak, irakasleek eta familiek ez dutela berdin pentsatzen erakutsi zuten. **Irakasleek** bide hori baztertu egiten dute: % 45,7k oso desegokia edo desegokia irizten diote, % 27,4k zertxobait egokia, eta % 26,9k aski egokia edo oso egokia irizten diote. Bestalde, azken kategorian **familien** % 62 kokatzen da, eta familien % 18k soilik baztertzen dute bide hori aho betean.

3.30. irudia. Irakasle eta familien erantzunen ehunekoa galdera honentzako: "Egokia dela uste al duzu seme-alabek jazarpena izan duten familiek egoera argitzeko aukeratu duten bide judiziala?"



Laginaren aldagaien eraginari dagokionez, gorago ere gertatu den moduan ikasleen generoak garrantzi handia du hemen ere. Hala, mutilek baino neska gehiagok uste dute arazoak sortzen dituzten ikasleekin neurri zorrotzagoak hartu behar direla. Neska gehiago daude ados, halaber, ikastetxean gatazkak gizalegez konpontzen direla eta elkarrizketa zigorrak baino gehiago erabiltzen direla esatean. Ikasturteka dauden aldeetan, aipatu beharra dago DBHko 4. mailako ikasleekin alderatuta DBHko 2. mailako ikasle gehiagok pentsatzen dutela ikasle gatazkatsuekin neurri zorrotzagoak hartu behar direla. Aitzitik, 4. mailako ikasle gehiagok uste dute ikastetxean bizikidetza-arazoei aurre egiteko zigorrak gehiago erabiltzen direla.

Bide judiziala erabiltzeari buruzko galderan ikus daitekeenez, testuinguru ertain-baxuko eta baxuko gurasoak, beste testuinguruetakoko gurasoekin erkatuz, adostasun handiago erakutsi dute prozedura hori erabiltzearekin. Bestalde, galdera-sortetakoko galderen artean hori da lurralde historikoak kontuan hartuta aldea erakutsi duen bakarra. Gipuzkoako irakasleek beste irakasleek baino okerrago irizten diote tratu txarren aurrean epaitegira jotzeari. Hori azaltzen duen daturik gabe, eta beraz, azalpena kontu handiz hartuta, pentsa liteke agian Gipuzkoan “Jokin kasuak” eragin handiagoa izan duelako egon direla erantzun horiek.

LABURBILDUZ

Gatazken kausei eta ebazpenari dagokienez:

- Ikasle oso gatazkatsuak daudelako arrazoiari heltzen diote ikasleek eta familiek, gehien bat. Irakasleek, bestalde, seme-alabekin utzikieriaz jokatzeko duten familiak egoteari egozten diote gatazken errua.
- Irakasleek beren irakaskuntzako jarduerarekin lotura duten faktoreei oso garrantzi gutxi ematen diete.
- DBHko 4. mailakoek baino, DBHko 2. mailako ikasle gehiagok pentsatzen dute ikasleen ezaugarriak direla gatazken kausa nagusia. Gainera, ehuneko kopuru handiagoak uste du ikasle gatazkatsuekin gogorrago jokatu beharko litzatekeela.
- Kolektibo gehien aburuz, gatazkak gizalegez konpontzen dira, baina ikasleen kasuan, erdiek soilik pentsatzen dute hori, eta familien kasuan, hiru familietatik batek. Aitzitik, irakasleen % 90ek pentsatzen dute hori.
- Ikastetxeek gatazkei barruko neurrien bidez egiten diete aurre. Polizian eta epaitegietan salaketak jartzea ez da batere ohikoa.
- Familien iritziak, bide judizialera jotzea gatazken aurrean jarduteko modu egokia da; irakasleak, aldiz, ez datoz bat ideia horrekin.

3.2.5. **Bizikidetzeta-gatazken kontrako babes-faktoreak**

Aurreko ikerketetako datuek, lehenengo kapituluan berrikusi direnak, erakutsi dute ikasleen ezaugarri zehatz batzuek, eta batez ere beren testuinguru soziokulturalak eta familiako testuinguruak, zerikusia izan zezaketela tratu txar egoeretan edo bestelako bizikidetzeta-gatazketan inplikaturata egoteko probabilitatearekin. Horregatik proposatu zen lotura posible horiek ere aztertzea. Hala, ikasleei beren autokontzeptu akademikoaren, lagunen sarearen eta familiarekin duten harremanaren kalitatearen inguruan galdera batzuk egitea pentsatu zen.

3.5, 3.6, 3.7 eta 3.8 tauletan biltzen diren emaitzek lotura interesgarri batzuk azalerratu dituzte. Lehenik eta behin, lotura bat ikusi ahal izan da *ikasleak bere buruaz ikasle gisa duen pertzepzioaren* eta gatazka batzuetan duen partaidetzaren artean. Zehazki, beren burua trebetzat ez dutenek probabilitate handiago dute iseken eta gaitz esanen bidez tratu txarrak jasotzeko. Autokontzeptu baxua duten erasotzaileak ere badaude, hitzezko eraso bidez, eraso fisikoen bidez eta mehatxu eta xantaien bidez ikaskideak jazartzen dituztenak. Irakasleekin gertatzen diren gatazkei dagokienez, ikasle mota horrek neurri handiagoan onartzen du irakasleei errespeturik ez diela erakusten eta irakasleak erasotzen dituela, baina, bestalde, ikasle mota horrek gehiagotan esaten du ere irakasleek lotsarazi eta mehatxuez ikaratu dutela, bai eta irakasleek ezinikusia egiten diotela ere. Amaitzeko, ikasle horiek gelako martxa oztopatzeke joera gehiago dute, bai eta jokaera bandalikoak izatekoa ere.

Ikaskideekin nahiz irakasleekin pertsona arteko harreman okerragoak dituzten ikasleen beste ezaugarri bat *soziabilitate baxua* da. Ikusi ahal izan denez, bakartuta sentitzen diren ikasleak tratu txar mota guztien biktima izan direla gehiagotan esan dute bakartasun sentipen hori ez dutenekin alderatuta. Era berean, biktimizazio era guztietan erasotzaileak direla aitortu dutenek, bazterketa sozialean eta sexu-eraso fisikoetan izan ezik, ezaugarri hori erakusten dute. Ikasle horiek, halaber, ehuneko askoz handiagoan, irakasleei eraso egin eta gelako martxa oztopatzeke joera eta jokaera bandalikoak erakusten dituzte. Eta, azkenik, aztertu diren adierazpen guztietan (ezinikusia izan, mehatxuz ikaratu, iseka egin eta lotsarazi) irakasleek okerrago tratatzen dituztela sentitzen dute.

Azkenik, *familiarekin konfiantza gutxi dutela* esaten dutenek ere pertsona arteko harreman-gatazketan nahastuta daudela adierazten dute. Soziabilitate baxua zuten ikasleekin gertatzen zen moduan, familiar konfiantza gutxi izateak lotura dauka aztertutako tratu txar mota guztien biktima izatearekin, eta, kasu honetan, bai eta ikasleek tratu txarrak ematen dituzten modu guztiekin ere. Halaber, desberdintasun nabariak atzematen dira gelako martxa oztopatzeke jokaeretan eta portaera bandalikoetan, irakasleek ikasleei eginiko eraso mota guztietan eta ikasleek irakasleei egiten dieten batean: errespeturik ez erakutsi³.

³ Galdera-sortetako ezaugarri teoriko eta psikometrikoak zehaztasun handiagoz ezagutzeko, irakurlea Alejandro Tiana-ren artikulura zuzendu daiteke, zeina liburu honetan aurki daitekeen: Marchesi y Martín (2002) *Evaluación de la Educación Secundaria. Fotografía de una etapa polémica*. Madrid: Fundación Santa María.

3.5. TAULA. IKASKIDEENGANDIK ERASOAK JASATEN DITUZTEN IKASLEEN EHUNEKOA, EZAUGARRI EZBERDINEN ARABERA

		BAKOITZAREN PERTZEPZIOA IKASLE GISA		ISOLATURIK SENTITZEA		KONFIANTZA MAILA FAMILIAN		
		Txarra edo pattala	Normala edo ona	Ez	Bai	Batere ez edo gutxi	Zertxobait	Handi samarra edo Handia
Iseka egin, nitaz gaizki hitz egin eta lotsarazi naute	Inoiz ez edo Gutxitan	% 83,2	% 87,7	% 89,1	% 62,3	% 78,6	% 86,5	% 87,1
	Sarritan edo Beti	% 16,8	% 12,3	% 10,9	% 37,7	% 21,4	% 13,5	% 12,9
Jo naute	Inoiz ez edo Gutxitan	% 94,2	% 95,8	% 96,6	% 84,2	% 90,5	% 93,8	% 96,0
	Sarritan edo Beti	% 5,8	% 4,2	% 3,4	% 15,8	% 9,5	% 6,2	% 4,0
Ez ikusiarena egin, baztertu naute	Inoiz ez edo Gutxitan	% 92,4	% 94,2	% 95,7	% 75,2	% 86,8	% 92,7	% 94,4
	Sarritan edo Beti	% 7,6	% 5,8	% 4,3	% 24,8	% 13,2	% 7,3	% 5,6
Mehatxatu edo xantaia egin didate	Inoiz ez edo Gutxitan	% 94,3	% 95,8	% 96,5	% 85,1	% 90,4	% 94,3	% 96,0
	Sarritan edo Beti	% 5,7	% 4,2	% 3,5	% 14,9	% 9,6	% 5,7	% 4,0
Gauzak lapurtu edo apurtu dizkirate	Inoiz ez edo Gutxitan	% 90,3	% 92,3	% 92,9	% 81,3	% 85,8	% 88,8	% 92,7
	Sarritan edo Beti	% 9,7	% 7,7	% 7,1	% 18,7	% 14,2	% 11,2	% 7,3
Hitzezko sexu-erasoa egin didate	Inoiz ez edo Gutxitan	% 95,5	% 96,9	% 97,2	% 90,4	% 90,3	% 95,9	% 97,1
	Sarritan edo Beti	% 4,5	% 3,1	% 2,8	% 9,6	% 9,7	% 4,1	% 2,9
Sexu-eraso fisikoa egin didate	Inoiz ez edo Gutxitan	% 97,5	% 97,7	% 98,3	% 90,7	% 94,4	% 96,4	% 98,1
	Sarritan edo Beti	% 2,5	% 2,3	% 1,7	% 9,3	% 5,6	% 3,6	% 1,9

3.6. TAULA. IKASKIDEEI ERASO EGIN DIETEN IKASLEEN EHUNEKOA, EZAUGARRI EZBERDINEN ARABERA

		BAKOITZAREN PERTZEPZIOA IKASLE GISA		ISOLATURIK SENTITZEA		KONFIANTZA MAILA FAMILIAN		
		Txarra edo pattala	Normala edo ona	Ez	Bai	Batere ez edo gutxi	Zertxobait	Handi samarra edo Handia
Iseka egin, besteengatik gaizki hitz egin dut	Inoiz ez edo Gutxitan	% 86,9	% 90,6	% 90,5	% 82,7	% 79,9	% 86,2	% 91,0
	Sarritan edo Beti	% 13,1	% 9,4	% 9,5	% 17,3	% 20,1	% 13,8	% 9,0
Besteak jo ditut	Inoiz ez edo Gutxitan	% 92,5	% 95,3	% 95,0	% 91,2	% 89,3	% 94,6	% 94,9
	Sarritan edo Beti	% 7,5	% 4,7	% 5,0	% 8,8	% 10,7	% 5,4	% 5,1
Ez ikusiarena egin, baztertu egin dut	Inoiz ez edo Gutxitan	% 91,2	% 93,1	% 92,9	% 90,2	% 83,9	% 90,1	% 93,7
	Sarritan edo Beti	% 8,8	% 6,9	% 7,1	% 9,8	% 16,1	% 9,9	% 6,3
Mehatxatu edo xantaia egin dut	Inoiz ez edo Gutxitan	% 93,6	% 97,2	% 96,6	% 92,7	% 89,8	% 94,7	% 97,0
	Sarritan edo Beti	% 6,4	% 2,8	% 3,4	% 7,3	% 10,2	% 5,3	% 3,0
Gauzak lapurtu edo apurtu ditut	Inoiz ez edo Gutxitan	% 96,8	% 97,5	% 97,4	% 94,7	% 94,9	% 95,3	% 97,7
	Sarritan edo Beti	% 3,2	% 2,5	% 2,6	% 5,3	% 5,1	% 4,7	% 2,3
Hitzezko sexu-erasoa egin dut	Inoiz ez edo Gutxitan	% 97,4	% 98,0	% 98,0	% 94,9	% 94,4	% 96,4	% 98,2
	Sarritan edo Beti	% 2,6	% 2,0	% 2,0	% 5,1	% 5,6	% 3,6	% 1,8
Sexu-eraso fisikoa eragin dut	Inoiz ez edo Gutxitan	% 98,3	% 98,6	% 98,7	% 96,8	% 94,5	% 97,9	% 98,9
	Sarritan edo Beti	% 1,7	% 1,4	% 1,3	% 3,2	% 5,5	% 2,1	% 1,1

3.7. TAULA. IRAKASLEEK IKASLEENGANAKO JOKABIDE NEGATIBOAK DITUZTELA USTE DUTEN IKASLEEN EHUNEKOA, EZAUGARRI EZBERDINEN ARABERA

		BAKOITZAREN PERTZEPZIOA IKASLE GISA		ISOLATURIK SENTITZEA		KONFIANTZA MAILA FAMILIAN		
		Txarra edo pattala	Normala edo ona	Ez	Bai	Batere ez edo gutxi	Zertxobait	Handi samarra edo Handia
Lotsarazi egiten zaituzte	Inoiz ez edo Gutxitan	% 86,2	% 91,5	% 91,6	% 78,0	% 80,3	% 83,9	% 92,0
	Sarritan edo Beti	% 13,8	% 8,5	% 8,4	% 22,0	% 19,7	% 16,1	% 8,0
Ez ikusiarena egin dizute	Inoiz ez edo Gutxitan	% 75,1	% 84,7	% 83,1	% 74,5	% 72,7	% 75,6	% 84,0
	Sarritan edo Beti	% 24,9	% 15,3	% 16,9	% 25,5	% 27,3	% 24,4	% 16,0
Iraindu egiten dizute	Inoiz ez edo Gutxitan	% 91,8	% 94,5	% 94,6	% 86,5	% 86,8	% 92,3	% 94,6
	Sarritan edo Beti	% 8,2	% 5,5	% 5,4	% 13,5	% 13,2	% 7,7	% 5,4
Mehatxu bidez beldurtzen zaituzte	Inoiz ez edo Gutxitan	% 93,9	% 96,0	% 95,7	% 93,0	% 88,9	% 93,4	% 96,3
	Sarritan edo Beti	% 6,1	% 4,0	% 4,3	% 7,0	% 11,1	% 6,6	% 3,7

3.8. TAULA. JOKABIDE NEGATIBOAK IZAN DITUZTEN IKASLEEN EHUNEKOA, EZAUGARRI EZBERDINEN ARABERA

		BAKOITZAREN PERTZEPZIOA IKASLE GISA		ISOLATURIK SENTITZEA		KONFIANTZA MAILA FAMILIAN		
		Txarra edo pattala	Normala edo ona	Ez	Bai	Batere ez edo gutxi	Zertxobait	Handi samarra edo Handia
Irakasleenganako errespetu falta	Inoiz ez edo Gutxitan	% 88,9	% 95,9	% 94,3	% 91,8	% 84,3	% 90,6	% 95,5
	Sarritan edo Beti	% 11,1	% 4,1	% 5,7	% 8,2	% 15,7	% 9,4	% 4,5
Irakasleei eraso egitea	Inoiz ez edo Gutxitan	% 97,5	% 99,4	% 99,1	% 97,5	% 98,0	% 98,5	% 99,0
	Sarritan edo Beti	% 2,5	% 0,6	% 0,9	% 2,5	% 2,0	% 1,5	% 1,0
Ikastetxeko materiala lapurtu edo apurtzea	Inoiz ez edo Gutxitan	% 95,2	% 97,4	% 97,3	% 92,5	% 91,4	% 94,5	% 97,7
	Sarritan edo Beti	% 4,8	% 2,6	% 2,7	% 7,5	% 8,6	% 5,5	% 2,3
Gelako martxa eteten duen portaera izatea	Inoiz ez edo Gutxitan	% 85,3	% 93,3	% 91,6	% 87,1	% 80,8	% 86,9	% 92,9
	Sarritan edo Beti	% 14,7	% 6,7	% 8,4	% 12,9	% 19,2/	% 13,1	% 7,1


LABURBILDUZ

- Bakartuta sentitzea, ikasle txarra zarela pentsatzea eta familian konfiantza gutxi izatea arrisku-faktoreak dira.
- Era berean, ezaugarri horiek dituzten ikasleak gelako martxa oztopatzeko jokabide gehiago eta jokaera bandaliko gehiago dituzte.

3.3. BALIOAK ETA BIZIKIDETZA


Garapen morala bizikidetzaren oinarrietako bat da. Ikasleek eskolan, eta beste hezkuntza testuingurutan, eskema axiologiko zehatz bat ikasten dute, eta horretan oinarrituko da beren bitzta ikusteko modua eta beren buruarekin zein besteekin harremanak izateko era. Nerabeak eta gazteak mugitzen diren atmosfera morala, bai familian bai eskolan, ikastetxeko bizikidetzeta-giroa nolakoa den hobeto ulertzeko funtsezko aztergaia da. Galdera-sortetan irakasleek sortzen lagunduko zuten pertsona mota nolakoa den aztertzeke galdera batzuk sartu ziren, bai eta gizaki bakoitzaren eta gizarte-taldearen garapenean garrantzirik gehien zein baliok zuten aztertzeke galderak ere.

3.31 irudian ikus daitekeenez, ikasleek (% 65,2) nahiz irakasleek (% 72,9) lehentasuna ematen diete *moralari* gizartearen garapenerako funtsezko faktore gisa.



Zein dohain iruditzen zaizu egokiena gizartearentzako galderaren aurrean eta giza-banakoaren garapenari dagokion nagusiki, zein balio irakatsi behar zaiela uste duzu galderaren aurrean, 3.32 irudian biltzen diren emaitzek erakusten dutenez, kolektibo guztiak bat datoz eta ororen gainetik zintzotasunaren balioa irakatsi beharko litzatekeela esaten dute. Familiak, baina, gizartearentzako egokiena den dohainari dagokionez, apur bat desberdin pentsatzen dute: ikasleentzat eta irakasleentzat justizia izango litzateke, eta familientzat, ordea, tolerantzia.


3.32. irudia. Ikasleen, irakasleen eta familien erantzunen ehunekoa balioen inguruan (1)



Azkenik, zure semearen/alabaren zein akatsek arduratuko zintuzke galdera eta gaur egungo gazteek edukitzea gehien gustatuko litzaidakeena zer den proposatu zirenean, ikasleak eta irakasleak ados daude muga handiena gutxi ahalegintzea dela⁴. Zer izatea gustatuko litzraiguke galderaren aurrean, ikasleak eta beren familiak bat datoz kasu honetan, eta garrantzitsuena zoriontsu izatea dela esaten dute. Irakasleek, aldiz, gizalegezkoa izatearen alde egin dute.

⁴ Item honi familiek emandako erantzunak ez dira sartu, izan ere, galdera hipotetikoa eta orokorra da (zure semearen/alabaren zein akatsek arduratuko zintuzke), egoera erreala aipatu beharrean. Horregatik, datuak ez dira konparagarriak.

3.33. irudia. Ikasleen, irakasleen eta familien erantzunen ehunekoak balioen inguruan (2)



Aldagaien eraginari buruz esan behar da irakasleen eta ikasleen generoan soilik ikus daitekeela desberdintasuna. Gorago aipatu den moduan, gizartearen garapenerako faktore nagusia morala dela denek pentsatzen duten arren, emakumezko ikasleek eta emakumezko irakasleek gehiagotan egiten duten aukera horien alde.

LABURBILDUZ


Balioekin lotuta:

- Bai ikasleek bai irakasleek morala hartzen dute gizartearen garapenerako faktore funtsezkotzat.
- Eskola-komunitateko kolektibo guztiek pentsatzen dute zintzotasuna dela gazteei irakatsi behar zaien dohain nagusia.
- Ikasleen akats nagusizat gutxi ahalegintzea hartu da.
- Zoriontsu izatea da ikasleek bilatzen dutena.

3.4. HEZKUNTZA TESTUINGURUEN BALORAZIOA

Nerabeen eta gazteen hezkuntza ez da ikastetxeetan ikasten denaren arabera baka-rik. Familia, ikasleak eta komunikabideak garapenean eragin handia duten hezkuntza testuinguruak dira. Hala, oso interesgarria da jakitea zenbateko garrantzia ematen dioten ikasleek testuinguru horietako bakoitzari beren sistema axiologikoa osatzen duten balioen eraikuntzan eta pertsona arteko harreman-gaitasunetan. Horretarako, galdera-sortan, 3.34 irudian biltzen diren galderak sartzea pentsatu zen.


Erantzunek argi eta garbi erakusten dutenez, ikasleek familiari ematen diote garrantzi gehien, balioei dagokionez (% 78,4). Bigarren tokian, baina lehenengoarekiko alde handiarekin, lagunen eragina aipatzen dute (% 49,7). Komunikabideak hirugarren tokian agertzen dira (% 38,3), eta azken tokian daude, hain zuzen, irakasleak (% 32,8).




Baina, hala ere, *eskolak zer-nolako garrantzia du ikasleak tolerantzian, bizikidetzan eta balioetan hezteko galdetzen denean, garrantzi nahikoa eta garrantzi handia duela % 70,3k esaten dute, eta hori pentsatzen duen irakasleen ehunekoa are handiagoa da: % 82,3.*

Familia oso garrantzitsua izanik, eta garrantzi hori azterlaneko datuek berresten dutela ikusita, eta azterlanak eskola testuinguruetan jartzen duen interesa ikusirik, hiru kole-


ktiboen galdera-sortetan galdera batzuk sartu ziren. Galdera horien xedea zen batzuek eta besteek bi hezkuntza inguru horiez zuten pentsamendua sakontasun handiagoz ezagutzea. 3.35 irudian jasotzen diren erantzunek erakusten dutenez, ikasleek familian konfiantza gehiago dute (% 79,9) eskolan baino (% 39,7). Hala ere, eskola-instituzioak garapen pertsonalean eta sozialean garrantzi handia duela pentsatzen dute (% 68). Bestalde, Bigarren Hezkuntzako ikasleen gehiengoak (% 91,5) uste du *familia bere ikasketez arduratzen dela*.



Irakasleek familiaz duten irudia, berriz, nahiko negatiboa da. 3.36 irudian ikus daitekeenez, lau irakasletik batek soilik uste du *gurasoek seme-alaben eskola-jarduerei behar besteko arreta eskaintzen dietela* (% 24,5). Antzeko ehunekoak uste du (% 29,6) *ikastetxeko familietako guraso eta seme-alaben artean komunikazio gutxi dagoela* eta ikastetxeko familien *bizikidetza gainbehera etorri dela azken urte hauetan* (% 30,4).



Bestalde, familiak pozik azaldu dira beren seme-alabekin duten harremanekin. 3.37 irudian biltzen diren erantzunek islatzen duten moduan, bi aldeen iritziak oinarrian bat etortzen dira, izan ere, gurasoek ere *seme-alabek pertsonalki zein eskolan dituzten arazoak kontatzen dizkietela* uste dute (% 81) eta *sarritan semearen/alabaren eskolako lanetan parte hartzen dutela* (% 83). Eskolako gauzak ez ezik, aisialdiko denbora ere partekatzen dute (% 86,8), eta lau gurasotik batek (% 77,1) esaten duenez, *familian bizikidetzarako arauak seme-alabekin adostu dituzte*.



Komunikabideei dagokienez, irakasleak kritikoak dira komunikabideek eskolako bizikidetzara hobetzeko izan dezaketen paperarekin. Irakasleen % 54,1 ez daude ados baieztapen honekin: *hedabideek bizikidetzarako arazoak duten garrantzia zabalitzen parte hartu dute*, eta % 72,9k uste dute *hedabideek ikastetxeetako bizikidetzaren irudi desitxuratua ematen dutela*.

Azkenik, irakasleen iritzia ezagutu nahi izan zen, oro har hezkuntzaren ebaluazioaren inguruan, eta ez bizikidetzarekin lotutakoari buruzko iritzia soilik: % 68,8k uste dute *hezkuntzak azken urteotan okerrera egin duela*.

Lagineko aldagairen baten eragina nabaritzen da hezkuntza testuinguruen balorazioaren inguruan. Zehazki, ikasleen generoari dagokionez, neskek mutilek baino garrantzi handiagoa ematen diete eskolaren eraginari eta beren balioetan lagunek duten eraginari. Irakasleen kasuan, familiari buruzko galderetan, ikastetxe pribatuetako irakasle gehiagok uste dute familian bizikidetzara gainbehera etorri dela azken urteotan. Iritzi hori bera dute hezkuntzaren bilakaeraren inguruan, izan ere, ikastetxe publikoekin konparatuta, ehuneko handiago baten uestez okerrera egin du hezkuntzak. Testuinguru soziokulturalari dagokionez, eskolako lanei eskainitako arretaren inguruko eta gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazioaren inguruko iritzietan alde nabarmenak ikusi dira. Bi kasuetan, testuinguru baxuko eta ertain-baxuko ikastetxeetako irakaslek kritikoagoak dira, 3.9 taulan ikus daitekeen moduan.

3.9. TAULA. IRAKASLEEN IRITZIA HEZKUNTZA ETA HEDABIDEEI BURUZ

		TESTUINGURUA		TITULARTASUNA		GUZTIRA
		ALTUA ETA ERTAIN- ALTUA	ERTAIN- BAXUA ETA BAXUA	PUBLIKOA	PRIBATUA	
Hezkuntzak azken urteotan hobera ala okerrera egin duela uste duzue?	Okerrera egin du	% 63,5	% 67,2	% 61,7	% 68,9	% 65,8
	Ez da aldatu	% 12,3	% 7,3	% 9,5	% 8,9	% 9,2
	Hobera egin du	% 24,3	% 25,5	% 28,8	% 22,2	% 25,0
Hedabideek bizikidetzara-azaroek duten garrantzia zabaltzen parte hartu dute	Ez nago batere ados edo Ez nago ados	% 54,4	% 53,9	% 52,1	% 55,6	% 54,1
	Ados nago edo Oso ados nago	% 45,6	% 46,1	% 47,9	% 44,4	% 45,9
Hedabideek ikastetxeko bizikidetzaren irudi desitxuratua ematen dute	Ez nago batere ados edo Ez nago ados	% 25,9	% 27,9	% 25,8	% 28,1	% 27,1
	Ados nago edo Oso ados nago	% 74,1	% 72,1	% 74,2	% 71,9	% 72,9

LABURBILDUZ

Hezkuntza testuinguruen balorazioari dagokionez, honako hau ondoriozta daiteke:

- Irakasleen arabera, beren jokoera gidatzen duten balioak batez ere familiaren eraginagatik osatu dira. Eskola da arlo honetan garrantzi gutxien ematen dioten hezkuntza testuingurua.
- Familiak, bai gurasoak bai seme-alabak, positiboki baloratzen dituzte euren arteko harremanak. Irakasleek, aldiz, oso iritzi negatiboa dute hezkuntzan familiak duen paperari buruz eta familiako bizikidetzari buruz.
- Irakasleen aburuz, komunikabideek ikastetxeetako bizikidetzaren egoeraren irudi desitxuratua ematen dute.
- Irakasle gehienek uste dute bizikidetzaren gainbehera etorri dela azken urteotan.
- Ikastetxe pribatuetako irakasleen ehuneko handiago batek uste du, publikoetakoekin erkatuta, familian bizikidetzaren gainbehera etorri dela azken urteotan eta hezkuntzak txarera egin duela azken urteotan.

AZTERLAN KUALITATIBOAREN EMAITZAK

4. AZTERLAN KUALITATIBOAREN EMAITZAK

4.1. BIZIKIDETZA IKASTETXEAN

4.1.1. *Giro orokorra*

Bizikidetza hezkuntza prozesu ororen helburu zehatza eta oinarrizkoa da, eta errespetuzko jarrera eta portaera positiboak eta adostuak dakartza ikastetxeko komunitateko sektore guztien partetik. Bizikidetzan heztea ezinbesteko baldintza da garapen pertsonalerako eta bizitza sozial heldu egokia izateko. Ikastetxeko komunitatea diren talde ezberdinen artean eratzen diren harreman pertsonalak funtsezko faktore dira bizikidetzarako. Hori dela eta, eztabaida taldeetan eta azterlan kualitatiboaren baitan izandako elkarriketetan interes berezia eman zitzaion gai horri. Lehenik eta behin bizikidetza-giroa oro har baloratu zuten erantzunak aurkezten dira eta, ondorenean, talde ezberdinen arteko harremanen gaineko informazioa.

Aukeraturiko hamar ikastetxeetan elkarriketaturiko talde ezberdinek modu berean erantzun zioten ikastetxeko bizikidetza oro har nola ikusten duten galde egin zitzaizenean. Kasu guztietan, txosten honetan agertuko diren arrazoi ezberdinengatik, bizikidetza ona dela adierazi zuten, azterlanaren zati kuantitatiboan gertatu zen moduan. Ondorenean aipatuko direnak bezalako adierazpenak behin eta berriro errepikatu izan dira:

- “Oro har, ondo.”
- “Ona.”
- “Oro har, bizikidetza ona da.”
- “Giroa lasaia da.”
- “Zenbait kasutan harremanak txeratsuak izatera iristen dira.”

Hala eta guztiz ere, azken urteotan ikastetxeetako bizikidetzak okerrera egin duenaren sentipena, gizartean zabalduko, ere aurkitu ahal izan da. Horren ondorioz, ikasleek nahiz irakasleek duten sententzia antzeman daiteke: beren ikastetxeko bizikidetza ona bada ere, lehen adierazi bezala, beste ikastetxe batzuetako egoera okerragoa da.

Bestalde, zenbait irakasleek adierazi zuten ikastetxeetako bizikidetza-arazoak ez direla orain urte batzuk zeudenak baino larriagoak, baina aldaketa hedabideek gaia jorrazteko izandako ezberdintasunean dagoela. Hau da, uste dute ikastetxeetako bizikidetzaren gainean eman nahi den gizarte irudia ez datorrela bat errealitatearekin, eta ikastetxeetan

jazoriko edozein gertakari larriagotu egiten dela. Hona hemen hezkuntzaren eremuan urte askotako esperientzia duten irakasle ezberdinen iritzia:

- *“Bai uste dudala gaiari gizartean ematen zaion pertzepzioa ezberdina dela. Kasu gehiago plazaratzen dira, baina, oro har, ez dut uste gehiago daudenik.”*
- *“Nire ustez hedabide kontua da. Gatazkak saltzaile onak dira. Estatu Batuetan horixe egin zuten eta helburua lortu zen. Orain diru asko gastatzen dute segurtasunean, zain-tzan eta gainerakoetan. Zertarako jakin geletan gatazkak daudela, egin behar dena arazoa etetea da. Jokinen kasua gertatu zenetik antzeman daiteke. Hedabideen aldetik interesgarria da.”*

Ikastetxeetako bizikidetzaren irudi orokorrean duen paperaren gainean eginiko lehen adierazpen hori alde batera utzita, hedabideen gaia aurrerago jorratuko da sakontasun handiagoz.

4.1.1.1. *Familien eta ikastetxearen arteko harremana*

Gurasoei, irakasleei, zuzendaritzari eta ikasleei azken hauen familien eta ikastetxearen arteko harremana nolakoa zen galdetu zitzaizenean, kasu guztietan azpimarratu zen oro har ona dela.

- *“Oro har, giro ona.”*

Irakasleek nahiz familiek onartzen dute ikastetxeek nahikoa bide eskaintzen dizkietela gurasoei ikastetxeko bizitzan parte hartzeko. Zentzu horretan, nahikoa normala da ikasturtearen hasieran tutorea gurasoekin biltzea. Bilera horietan, aurrerago ikusiko den moduan, ikastetxeko eta geletako bizikidetzara-arauek gaia jorratu ohi da, besteak beste. Bilera bateratu horren ondoren, irakasleek ordutegi jakina izaten dute astero familiekin elkarrizketatzeko. Normalean, tutore bakoitzak birritan hitz egiten du horietako bakoitzarekin ikasturtean zehar. Egoerak bestelakorik gomendatuko balu, noski (egoera zailak baldin badaude ikasketen nahiz gizartearen esparruan, eremu pertsonalean, etab.), bilera kopurua handiagoa izango litzateke.

Jardunbide horrek balorazio onak jaso ditu oro har eta esan daiteke gurasoen eta tutoreen arteko harremana egokia dela kasu gehienetan. Hala eta guztiz ere, batzuek azpimarratu zuten, ikastetxera geroz eta aita gehiago hurbiltzen badira ere, ehuneko oso baxua dela amenarekin alderatuz gero.

- *“... eta dauden guraso pila kontuan hartuta, zazpi bakarrik ikusten dituzu eta, gainera, amak.”*

Bestalde, irakasle askoren kexa da seme-alabek arreta gehiago behar dutelako parte hartzeko behar handiena izango luketen familiak izan ohi direla, hain zuzen, errezero gehien agertzen dituztenak, ikastetxeko deia jasota ere.

Ikastetxeak, beraz, komunikaziorako baliabide ezberdinak baditu ere, irakasleek nahiz zuzendari taldeek azpimarratzen dute familien parte-hartzea oso urria dela ikastetxearen funtzionamenduko beste eremu batzuetan (batzorde ezberdinak, gobernu organoak,

eskolaz kanpoko jarduerak, etab.). Azken urteotan parte-hartzeak beherantz egin duela ere badiote.

- *“Noski, seme-alabekin zerbait gertatzen bada, deitu eta etorri egiten dira, baina ikastetxean parte hartu, ez.”*
- *“Betikoak gauza guztietarako.”*
- *“Ez asko. Tutoreekin biltzen dira, baina gainerako ekintzetan ez dute parte hartzen.”*

Iritzi hori familiei eginiko azterketan ere agertu da. Adierazi dute ikastetxeek parte hartzeko aukera eskaintzen dietela, baina onartu dute ikastetxean duten partaidetza geroz eta urriagoa dela.

- *“Hori bai, uste dut harremanak estuagoa izan beharko lukeela.”*

4.1.1.2. Irakasleen arteko harremana

Oro har, hamar ikastetxeetan nola familiek hala ikasleek adierazi dute irakasleen arteko harremana, kanpoko ikuspegitik aztertuta, ona dela.

- *“Talde bakarra eratzen dute.”*

Gai bera irakasleen artean aztertu denean, ikastetxe gehienetan harremana oro har ona dela onartu zen arren, gizakiek lanean izaten dituzten ohiko zenbait arazo agertu dira. Irakasle nahiz zuzendaritza talde ia guztiek azpimarratu zuten, ikuspuntu, ikuspegi edota ika-mika ezberdinak egon daitezkeen arren, klaustroek badakitela norabide bererantz egin behar dutela, eta horretan ahalegintzen direla.

- *“Klaustro mailan giroa ona da.”*
- *“Harremana oso ona da.”*
- *“Bai, irakasleen arteko harremanak onak dira. Huskeriak badira, giza harreman guztietan bezala, baina, oro har, uste dut ona dela.”*

Hala eta guztiz ere, azterturiko ikastetxeetako batean bakarrik izan bada ere, gatazka egoera bat agertu zen eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste ikastetxe batzuetara extrapolatu daiteke. Kultura ezberdinen arteko talkak eragindakoa da, garai bateko OHO sistematik zetozen irakasleak BBB edo LHkoekin ikastetxe berean taldekatzean. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleen artean harremana aurretik existitzen zen ikastetxe askotan, adierazitako talka gaindituko zen beharbada, baina oraindik ez da gainditu egoera berriagoa duten ikastetxeetan.

Jarduteko modu ezberdin horiek DBHko lehen zikloan dute eragina batez ere. Adibide gisa, zuzendaritza taldeko kide batek adierazitakoa aipa daiteke:

- *“Garai bateko BBBko irakasleek esaten didate hilabetean behin biltzarekin nahikoa dela, lehengo OHOkoez asteko bilera bat nahikoa ez dela esaten duten bitartean.”*

Zalantzarik gabe, bi kulturen arteko alde nabarmena da. Garai bateko BBBko irakasleak gaien araberrako mintegietan biltzen ziren bitartean irakasgaiez hitz egiteko, lehengo

OHOk irakasleak ziklo edo mailaka biltzen dira ikasleei buruz hitz egiteko. Irakasle eta hezitzaileen artean hautatu behar da. Irakasle mota biek kultura ezberdinak izateak ez du esan nahi garai bateko irakaskuntza ertainetako irakasle askok, eta batez ere zuzendaritza taldeek, desagerturiko OHOk irakasleen ahalmena baloratzen ez dutenik hezkuntza ikuspegi hori gauzatzeko. Aurrerago berriro ere gai hori aztertuko da, ikastetxeko bizikidetzan faktore erabakigarria baita.

Irakasle eta zuzendaritza taldeak erabat ados dauden gaia plantillaren egonkortasunak, hau da, ikastetxe berean elkarrekin hainbat urtetan jardun izanak, irakasleen arteko harremanak hobeak izaten laguntzen duela da. Horixe adierazi zen honako elkarrizketa honetan¹:

- “Nire ustez irakasleen arteko harremana oso ona da. Beti ager daiteke ika-mikaren bat, baina, oro har, oso ona da.
- Gustura gaude.
- **Plantilla oso egonkorra osatzen al duzue?**
- Gehienak bai. Bertan gaudenok sei edo zazpi urte daramatzaugu hemen.
- Baita hamar ere.
- **Zuen ustez, horrek eragina al du harremanetan?**
- Bai, ezagutza gehiago.
- Laguntza.
- Pertsona bat geroz eta hobeto ezagutu, orduan eta hobeto dakizu berarekin nola erlazionatu.”

Ikastetxean bizikidetzatza ona lortzeak irmotasuna exijitzen du, eta horretarako beharrezkoa da irakasle klaustro egonkorrak izatea, hezkuntzan izaten diren aldaketek ardura eta denbora eskatzen baitituzte.

4.1.1.3. *Ikasleen arteko harremana*

Aurreko ataletako ildoari jarraituz, ikastetxeko komunitateko maila ezberdinei ikasleen arteko harremana beren ikuspuntutik nolakoa zen adierazteko eskatu zitzairen. 4.1 taulan talde ezberdinek oro har emandako erantzunak zeintzuk izan ziren antzeman daiteke.

¹ Elkarrizketa laburpenak laukietan jasotzen dira parte-hartzaile ezberdinen iritzi bakanetatik ezberdintzeko. Elkarrizketatzailearen mintzaldiak letra lodiz agertzen dira.

4.1. TAULA. IKASLEEN ARTEKO HARREMANA TALDE EZBERDINEN ARABERA ELKARRIZKETATURIKO IKASTETXEETAN

	Lehen zikloko ikasleak	Bigarren zikloko ikasleak	Irakasleak	Familiak	Zuzendaritza
1 IKASTETXEA	O	O	O	O	O
2 IKASTETXEA	O	O	O	O	
3 IKASTETXEA	O	O	N	O	O
4 IKASTETXEA	O	O	O	O	
5 IKASTETXEA	T	O	N	O	
6 IKASTETXEA	N	N	T	O	O
7 IKASTETXEA	O	O	O	O	O
8 IKASTETXEA	O	O	O	O	O
9 IKASTETXEA	O	O	O	O	O
10 IKASTETXEA	O	O	O	O	O

O=Harreman ona; N=Harreman normala; T=Harreman txarra.

Ikus daitekeen moduan, aztertutako ikastetxeetako zortzitan talde guztiek adierazi dute ikasleen arteko harremana ona dela eta, gainerako bietan, joera berdina bada ere, zenbait ezadostasun agertu dira. Hala eta guztiz ere, beharbada interesgarriagoa izango da parte-hartzaile ezberdinek adierazitako iritziak alderatzea.

Ikasleek beren arteko harremanei buruz hitz egin dutenean adierazi dute, oro har, onak direla. Gauza bera antzeman da azterlanaren zati kuantitatiboan. Hala eta guztiz ere, zenbait alde topatu dira lehenengo zikloaren eta bigarrenaren artean. Ikasleen arabera, DBHko 1. eta 2. mailako ikasleek “liskar” gehiago izaten dituzte beren artean.

Bestalde, normala den moduan, ez da harreman maila bera existitzen ikasle guztien artean. Eztabaida taldeetan ikasleen arteko harremanak adeitsuak direla agertu da, baina noski, ez guztiekin:

- “Guztiak ez gara berdinak eta ezin gara guztiokin ongi konpondu.”

Elkarrizketan ikasleen arteko tira-biren gaia irteten denean, ikasleek garrantzia kendu diote.

- **“Ikastetxe honetako harremanak onak direla iruditzen al zaizue?**
- *Benoa... Borroka ugari, eztabaidak, etab. egoten dira... Beharbada baloikada batekin hasten dira eta gero elkarri kolpeka eta guzti jarraitzen dute.*
- **Beraz, huskeria batekin has daitezke eta gehiagotara iritsi. Gainerakoak ados al zaudete?**
- *Ez.*
- *Ez.*

- **Zergatik diozue gehienek ezetz?**
- *Ikastetxe normal batean bezala gertatzen da. Arazoak izan ditzakezu, baina ez dago borrokarik.*
- *Noski, ez dira beti izaten.*
- *Oso noizean behin.*
- *Ikastetxe guztietan bezala da. Batzuetan gertatzen da, baina ez oso maiz.*
- **Zuk besteek diotena baino maizago gertatzen dela uste al duzu?**
- *Beno, ez dakit.*
- **Eta zuek?**
- *Noizean behin, ikastetxe guztietan bezala.*”

Onartzen dute bizikidetza-arazo tipiko eta komunak dituztela:

- *“Ez dut arazo larririk ikusten, zenbait haserre, besterik ez.”*
- *“Batzuetan haserretu egiten gara. Uste dut neurri batean normala dela.”*

Ikasleek azpimarraturiko aldeetako bat deigarria da, eta oso interesgarria suertatzen da batzuetan helduek eta gazteek gertakariak interpretatzeko duten modu ezberdinarengatik. Antza, ohiko jardunbidea da batak bestea iraintzea gehiengoak “normaltzat” jotzen duen tratua barruan. Haiek adierazitakoaren arabera, oso erraz antzematen dute iraina tratua “normalaren” baitan jasotzen den ala ez, eta zenbaitetan gainera adeitsua izan daiteke lagun minenen artean esaten denean. Modu berean, min emateko edo benetan iraintzeko erabiltzen denean ere antzematen dute. Gainerako taldeek badakite modu berezi hori erabiltzen dutela beren artean tratatzeko, eta onartzen dute ez dela hori ikasleek erabiltzen duten tratua gurasoekin eta irakasleekin harremanetan jartzean. Normalean egoera hobekien ezagutzen dutenak nerabeak dira. Hala eta guztiz ere, guztiak ez daude ados egiten duten balorazioan. Batzuentzat egoera normala eta onargarria da:

- *“Oro har, ez dut uste bizikidetza txarregia denik. Baina bai existitzen direla zenbait errespetu falta erreferenterik ez izateagatik.”*
- *“Irainak botatzen dizkiote elkarri, baina ez dira gaizki konpontzen.”*

Beste batzuek, ordea, balorazio negatiboa egiten dute portaera horren gainean:

- *“Uste dut eraso, txantxa eta errespetuaren mugak ez dituztela ezarrita, edo gure muga ezberdinak direla.”*

Irakasleen ustetan, ikasleen arteko harremana aldatu egin da azken urteotan. Adierazi dute beren arteko harremanak zakarragoak direla.

- *“Lehen, orain esaten diren gauzak irain gisa ulertzen genituen, baina orain ez. Normaltasun nahikoarekin ikusten dira. Batzuetan normaltzat hartzen dute.”*
- *“Batzuetan mota guztietako hitzak esaten dizkiote elkarri eta normaltzat jotzen dute. Lehen, ordea, gauzak ez ziren horrela.”*

Hala eta guztiz ere, ikasle batzuek ez dute uste harremanetan jartzeko modu hori egokia denik eta, gainera, gaizki sentitzen dira eta uste dute beste batzuek ere gaizki pasatzen dutela, nahiz eta beren beregi ez adierazi.

- *“Batzuk iraindu egiten dira eta ez dira errespetatzen.”*
- *“Ni ondo sentitzen naiz, baina badira gaizki sentitzen diren pertsonak.”*

- *“Arrazismo asko dago. Gela batzuetan iraintzen ari dira etengabe.*
- *Gela batean pertsona beltz bat dago, eta beti hari dira hari “beltza, ez dakit zer” esaten.*
- *Eta gaizki sentitzen da.*
- *Baina ez gara gu bakarrik, beste herrialde batzuetakoek gu iraintzen gaituzte.”*

Hori dela eta, komenigarria litzateke balizko normaltasuna berraztertzea ikasleek iraina (iraintzeko asmorik gabe) erabiltzerakoan eta haiei ikusaraztea harremanetan beste era batera jartzeko beharra dagoela.

Ikasleen artean, batzuk portaera horren arrazoa non egon daitekeen agertu dute:

- *“Haurrak ezberdinak dira. Gurasoek utzikeria handiagoz jokatzten dute. Ez dutenez mugarik, pixka bat zapaltzen badituzte, eraso eta nahi dutena egiten dute. Familiak nola diren, antzeman egiten da. Lehen gela bakoitzean pertsona bat egon bazitekeen besteen gainetik agertuz, orain bat edo bat baino gehiago dago.”*

Irakasleek nabarmendu duten beste faktore eragileetako bat ikasleen jatorriarena da. Ikastetxe batera doazen ikasleak inguruan bizi badira, bai herri txikia izan eta ikasle guztiak ikastetxe berean pilatzen direlako, bai ondoko auzoko ikasleak jasotzen dituelako, bizikidetza-arazoak urriagoak dira. Askotan eskolan hasi zirenetik elkar ezagutzeak eta eskola orduetatik kanpo esparru berdinarik erabiltzeak eta jarduera berdinarik egiteak beren arteko harremanak hobekuntza izaten laguntzen du.

- *“Argi dago, ezagutzen dira eta ezagutu dute beren arteko bizikidetza. Ikastetxeaz gain, kalean ere bizi izan dira.”*

Modu berean, ikasle kopuru txikiaren ikastetxeek bizikidetza-arazo gutxiago agertzen dituzte, ikasleek beren artean dituzten harremanetan eragina izateaz gain, haiek irakasleekin dituztenetan ere eragina duelako, ondorengo atalean aztertuko den moduan.

- *“Ikastetxe txikia izateak abantailak eta eragozpenak ditu. Abantailen artean harremanen gaia dago. Ikaslea izenez ezagutzea, eskolak eman dizkiozula jakitea, familia ezagutzea. Eta horrek beste mota bateko aukerak ematen ditu esku hartzeko garaian.”*
- *“Nik ikastetxe handiago batean egin nuen lan. Ikastetxeak bost ildo zituen maila bakoitzeko. Kontrola ezina iruditzen zitzaidan. Ikasle asko dira.”*

4.1.1.4. *Ikasleen eta irakasleen arteko harremana*

Ikasleek azpimarratu dute oro har irakasleekin duten harremana ona dela, nahiz eta ikastetxe guztietan adierazi den irakasle guztiekiko tratua ez dela berdina. Diotenaren

arabera, irakasle batzuk irekiagoak dira eta haiekiko harremana konfiantzazkoa da. Beste muturrean tratu txarretik oso gertu kokatuko litzatekeen portaera duten irakasleak egongo lirateke. Hala eta guztiz ere, salbuespenak dira.

- *“Harremana ona da. Nik uste dut ezinbesteko oinarria elkarrenganako errespetua dela. Ikasleek irakasleenganakoa eta irakasleek ikasleenganakoa.”*

Ikasle batzuk gai dira irakasleen eta hezitzaileen arteko bereizketa egiteko. Eskolak eman eta alde egiteaz bakarrik arduratzen diren irakasleak badirela diotenean, esan nahian dabilzana da, beste mota bateko irakasleak nahiago dituztela, eskolak emateaz gain (matematikak, gaztelania, euskara, etab.), beren egoera eta arazoez arduratzen den norbait. Behin eta berriro irakasleen arreta eskatzen dute, beren behar akademikoez nahiz bestelakoez arduratzen den norbait.

- *“Nolakoa den, batzuek rollo ona dute, baina beste batzuek beren eskolak eman eta kito.”*
- *“Ondo legoke konfiantza izatea, baina batzuk eskolak eman besterik ez dute egiten.”*
- *“Haiek zu entzutea.”*
- *“Haiek diotena bakarrik ez izatea.”*
- *“Haiek zu ulertzea.”*
- *“Aitzitik, bada beste bat gure iritzia galdetzen duena, edo laguntzarik behar dugun galdetzen duena, etab.”*
- *“Irakasle hori gustukoa dugu konfiantza ematen digulako. Gure lekuan jartzen da.”*

Dualtasun hori eginiko azterketa guztietan errepikatzen ari dena da. Ez dira ulertu behar kontrajarritako bi jarrera bezala, baizik eta bi mutur dituen jarraikako kontu gisa, eta irakasleak koka daitezkeen erdibideko egoera asko daude. Oro har, eta hain zuzen ere existitzen diren salbuespen guztiak kontuan hartuta, Haur Hezkuntzatik hasi eta unibertsitatera iritsi arte, joera hezkuntzaren muturretik irakaskuntzarenera abiatzearena da eta horrek badu nolabaiteko logika. Hala eta guztiz ere, berriro ere, gatazka Bigarren Hezkuntzan sortzen da, batez ere derrigorrezko tartean. Irakasleek irakasleagoak izan behar dute ala hezitzaileen muturrean kokatu behar dute gehiago?

Ikasleek adibide garbiak jartzen dituzte:

Horrela, hezitzaileei buruz hitz egiterakoan:

- ***Eta zer ezaugarri dituzte irakasle horiek?***
- *Bereziak dira. Beharbada lanen bat ari zara egiten eta zure ondoan daude hitz egiten.*
- *Konfiantza jorratu daitezkeen gaien araberrakoa da, gizarteko gaiak edo beste gai batzuei buruz hitz egin daitezkeen ala ez, eta ez bakarrik gelako kontuez.”*

Edo hezitzailea ez den irakasleari buruz:

- *“Behin gelatik ateratzerakoan borroka izan zen eta honakoa esan zuen: (irakasleak): “Geldi zaitetzte, mutilak”, eta joan egin zen. Ez zuen geratu nahi izan gauzak konpontzeko.”*

Modu berean, gurasoek azpimarratu dute beren seme-alaben eta irakasleen arteko harremana ona dela oro har. Askok adierazi dute bilakaera izan dela tratuan, bi mende baino zertxobait gehiagoko tartean beldurrean oinarrituriko harremanetik adetasun handiagoko harremanera igaro delako.

- *“Tratu ezberdina dago garai batean zegoenarekin, lehen zegoena beldurretik gertu zegoen. Orain konfiantza eta hurbiltasuna dago, gehiegizkoa batzuetan.”*

Irakasleek, ikasleek bezala, beren arteko harremanak onak direla onartzen dute oro har, nahiz eta, logikoa den moduan, ez diren neurri berean onak guztiekin.

- *“Ikasle eta irakasleen artekoa ondo doala uste dut.”*
- *“Uste dut ez garela ikasle guztietara iristen, nik horixe sentitzen dut, nahiz eta niri guztietara iristea gustatuko litzaidakeen. Batzuegana iristeko arazo gehiago izaten ditut. Beste ikastetxe batzuetan gauza bera gertatzen da. Baina uste dut muga horiek hobetzeko ahalegina egin behar dugula.”*

Hala eta guztiz ere, irakasle gehienek hezitzaile izatearena beren funtzioen barruan onartzen badute ere, guztiak ez daude ados. Irakasle batzuk adierazi dute ikastetxera irakastera doazela, eta ez hezitsera:

- *“Nik egin beharrekoa matematikak irakastea da, eta hezi, heziko dituzte gurasoek. Hori ez da gure lana.”*

Oro har, beraz, ondoriozta daiteke irakasle eta ikasleen arteko harremanak osasun ona duela, irakasle zehatzen batekin egon daitekeen salbuespena salbuespen. Hala eta guztiz ere, ikasleek behin eta berriro eskatzen dute irakasleak, eskolak emateaz gain, beren ondoan egoteko, hau da, beren hezkuntzan funtsezko pertsona izatea eta ez bakarrik ikasketen aldean.

Irakasle eta ikasleak bat datoz elkarrizketa garrantzitsua dela adieraztean, eta ikasleen ahotsa entzuteko bideak existitzen direla onartzean.

- *“Gu gehiago entzutea eta gure ideiak aintzat hartzea.”*
- *“Ikasleek nahikoa konfiantza dute irakasleekin gertatzen dena esateko.”*
- *“Ikasleekiko eta familiekiko harremanari arreta ematearen aldeko apustua dago. Hezkuntza proiektutik datorren ildo da. Oso nabaria da. Zuzendariak berak bere denborako ordu ugari ematen ditu ikasleekin hizketan. Eta hori antzeman egiten da. Ikaslearen gainean izan daitekeen ezagutza askoz ere handiagoa da.”*
- *“Nik uste dut ikastetxe honetako bizikidetza ona hitz egitean oinarritzen dela. Pertsona batek entzun egiten duenean... Komunikazioa, bide bat izan dezatela.”*
- *“Nik uste dut haiekin hitz egiteko duzun denborak eragin handia duela. Asko hitz egin nahi dute.”*

Elkarrizketa honek modu egokian jasotzen ditu irakasle eta ikasleen arteko harremanak:

- **“Gaia aldatuz, ikastetxe honetako irakasleek ondo tratatzen zaituztete?”**
- Bai.
- Irakaslearen arabera.
- Oro har, ondo.
- **Ez zaituztete iraintzen.**
- Ez.
- Beno, batzuetan bai, nahiz eta oro har esaten duten eta gaizki uzten zaituzten.
- Zu ergela zara, edo horrelakoren bat.
- Bada irakasle bat muga pixka bat gainditzen duena. Baina gela osoari esaten dizkio. Zu imitatzen hasten da edo horrelakoren bat.
- **Zer motatako irainak dira?**
- Baboak zarete.
- Zu leloa zara.
- Atzeratuak dirudizue.
- Gela guztiari esaten dizkio.
- Eta, bat-batean, irakasleak heldu edo bultza egiten dizu.
- **Baina irakasle bakarra da?**
- Bai, gainerakoek ez.
- **Eta ikasleek ondo tratatzen dituzue irakasleak?**
- Bai.
- Ez.
- Beno, irakaslearen arabera.
- Batzuei errespetu handiagoa zaie beste batzuei baino.
- **Gaizki tratatzen dituzue...**
- Ez, ez da gaizki tratatzea. Ez dugu konfiantza bera.
- **Iraintzen dituzten ikasleak badira?**
- Batzuk.
- Baina ez aurpegira.
- **Baina gelan?**
- Batzuetan, txantxak.
- Nik bai entzun dudala “leloa zara.”
- Baina ez berak entzunda.
- Irakaslearen araberkoa da, izan ere, badira ezertaz ohartzten ez direnak. Bat bereziki.
- Batzuetan haren kontra egiten dute.
- **Eta hark zer egiten du?**
- Gure aurka egiten du.
- Gure izenak ere ez dakizki. Baina hori salbuespena da.
- **Eta irakasle batzuekin beste batzuekin baino hobeto moldatzen zarete?**
- Bai.
- **Eta zergatik uste duzue irakasle horiekin konfiantza handiagoa duzuela?**
- Izateko eragatik.
- Lehenengo egunetik jarri zituen mugak.
- Interes handiagoa agertzen dute zugatik.
- **Gelan mugak jartzen dituzten horiekin bat etortzen dira?**
- Bai, gehien irakasten dizuten horiek.
- **Eta irakasle horiekin konfiantza handiagoa duzue banakako mailan hitz egiteko?**
- Bai.
- Gehiago entzungo dizula eta jaramon egingo dizula uste duzulako.
- Badirelako jaramonik egiten ez dizuten batzuk. Ez dira arduratzen.
- **Eta haiengana jotzen duzue?**
- Irakasle gehienak dira horrelakoak. Bakarrik bat edo bi dira bestelakoak.
- Onak dira.”

4.1.2. **Arauk**

Ikastetxeei buruzko araudiaren esparruan, hiru arau mota bereizi beharko liriateke. Alde batetik, ikastetxean, osotasunean, aplikatzen direnak, bestetik gela bakoitzean ezar daitezkeen arauak eta azkenik Hezkuntza Administrazioak ezarritako araudi orokorra (dekretuak, legeak, etab.). Azken hori, beraz, ikastetxearen kontroletik kanpo dago.

Atal honetan lehenengo bi arau motei dagozkien iritziak jaso dira. Hala eta guztiz ere, gelako arauak dagokienez adierazi behar da, jasotako informaziotik ondorioztatu dela ikastetxe guztietan ez direla gelako arau zehatzak existitzen, eta horrelakorik baduten zenbaitetan ez direla arautzat hartzen, “*irakasle bakoitzaren estiloa*” edo “*akordioak ikasleekin*” bezalako kontzeptuak erabiltzen direlako. Ondorioz, atal honetan aurkezturikoa ikastetxeko araudiari dagokio funtsean.

Lehenengo zatian, agente hezitzaile ezberdinek ikastetxean aplikatzen den araudiaren gainean duten ezagutzaren gaia jorratzen da, horien garapenean parte hartzeko moduekin batera. Bigarrenik, ikastetxeetan parte hartzen duten talde ezberdinek duten ustea islatu nahi izan da ikastetxeetan aplikatzen diren arauen egokitasuna eta baliagarritasunaren inguruan. Hirugarrenik, indarrean dagoen araudia aplikatzeko modua aurkezten da eta, azkenik, bertan aldaketak sartzeko ezarritako prozedurak agertzen dira.

4.1.2.1. *Araudiaren ezagutza eta garapenean izaten den parte-hartzea*

Araudiaren ezagutzari dagokionez, esan behar da ikasleek ikastetxean aplikatzen den araudia ezagutzen dutela. Logikoki, gelarako arau zehatzak daudenean, modu berean ezagutzen dira. Eztabaida taldeetako parte-hartzaile guztietatik ikasle batek bakarrik adierazi du ez zekiela araudi hori existitzen zenik. Ikastetxeetan ohikoa izaten da ikasturte hasieran araudiaren berri ematea.

Familiei dagokienez, kasu honetan ere esan daiteke araudia ezagutzen dutela, edo behinik behin eztabaida taldeetan parte hartu dutenek ezagutzen zutela. Horiek, arestian aipatu bezala, Eskola Kontseiluko kideak izan dira, ikastetxe batean izan ezik. Kasu horretan atzerriko ama batzuk sartu dira, eta horregatik oraindik ez dituzte ikastetxeko arauak behar bezala ezagutzen. Modu berean ohikoa izaten da araudia ikasturte hasieran banatzea gurasoek ezagut dezaten.

Hala eta guztiz ere, araudia hedatzeak eta familia guztiei helarazteak ez du esan nahi derrigorrean gurasoek benetan ezagutzen dutenik. Zenbait kasutan badirudi arauak existitzen direla ezagutzeak ez dakarrela arauen edukia bera zein den jakitea. Ondorenean, gurasoek parte hartu zuten elkarrizketa baten laburpena aurkeztuko da, ideia hori argi islatuz.

- **“Eta familiek, ezagutzen al dute araudi hori?**
- Bai, ikasle berriren bat sartzen denean helarazi egiten delako.
- Lehenengo gauza da.
- Egutegia eta dokumentazioa ematen dizuten modu berean, estatutu hori ematen dizute.
- **Eta familiek ba al dakite...?**
- Bai, badute.
- Beno, edukitzetik irakurtzera...
- Baina beno, eduki badute.
- Gurasoek nahikoa informazio dute ikastetxeari buruz. Beste kontu bat da informazio hori irakurtzen duten ala ez, baina eduki badute.”

Arau horien **garapenean parte hartzeari** dagokionez, ikasleek adierazi dute, salbuespenak salbuespen, ez dutela parte hartu horien garapenean. Baieztapen hori hedaturik dago ikasleek parte hartu duten talde ezberdinetan, eta emaitza kuantitati-boekin bat dator. Aitzitik, gelako arau zehatzak garatu direnean, ikasleen eta tutoreen parte-hartzea ohikoena da.

Ikastetxe bakar bat dago ikasleek araudiaren garapenean parte hartu dutela adierazten duena. Puntu hori ikastetxe berdineko ikasleen iritzia kontrajartzen zaio, haiek parte hartu ez dutela baitiote. Hala eta guztiz ere, irakasleek ikasleek araudiaren garapenean parte hartu ahal izan dutela aipatzen duten kasu bakarra da. Gainerako irakasleek onartzen dute ikasleek ez dutela parte hartzen erabaki prozesu horretan. Ondorenean, zentzu horretan eginiko bi baieztapenen laburpenak jasotzen dira. Lehenengo ikasketa-buru batek eginikoa da eta bigarrena ama batek:

- “Guztion artean. Lehenengo klaustroak eta gero Eskola Kontseiluak onartu behar du. Gurasoek bai, baina ikasleek... gertatzen dena da, ez direla etortzen..”
- “Beharbada bizikidetzak hobetzeko punturik garrantzitsuenetariko bat haiek (ikasleek) ikastetxeko arauetan parte-hartze zuzenagoa izatean datza. Hori izango litzateke beharbada hobetu beharreko puntu bat.”

Familien parte-hartzeari dagokionez, joera berdina da: oso kasu gutxitan adierazi da gurasoek modu aktiboan parte hartu dutenik. Ohikoena irakasle batek honako laburpen honetan adierazitakoa da, talde ezberdinen parte-hartzeari buruz hitz egi-terakoan:

- “Bai, batzuk bertan ginen. Irakasleek eta ikasleek parte hartu zuten. Gurasoek onar-penean bakarrik.”

Bildutako informazioaren arabera ondoriozta daiteke, oro har, irakasleak direla ikaste-txeetan indarrean dauden arauen garapenean parte hartu dutenak. Ikasleen eta familien parte-hartzerik ez da ia egon. Hori dela eta, ona litzateke goian agerturiko amaren adierazpenean jasotako iradokizuna kontuan hartzea, eta hobetu beharreko oinarritzko helburuen artean ikastetxeetako bizitza arautzen duen araudia ezartzeko parte-hartze bideak areagotzea egotea.

4.1.2.2. Arauen balorazioa

Atal honetan ikastetxeetan parte hartzen duten talde ezberdinek duten iritzia aztertuko dugu ikastetxeetan aplikatzen diren arauen egokitasun eta erabilgarritasunaren inguruan. Lehenik eta behin adierazi behar da irakasleen, familien eta ikasleen ikuspuntuaren aldetik beharrezkotzat jotzen dela zenbait arau egotearen beharra. Hona hemen ikastetxeetako ikasle batzuk emaniko erantzunak:

- “Beharrezkoak dira, bestela parranda litzateke.”
- “Bai, beharrezkoa da arauak egotea.”
- “Niri ongi iruditzen zait.”

Existitzen diren arauen erabilgarritasunari dagokionez, oro har erabilgarritzat edo eraginkortzat jotzen dituzte talde ezberdinek, nahiz eta kasu batzuetan ezadostasunak egon. Ikasleei dagokienez, arauen erabilgarritasuna onartzen dute, salbuespenen bat badagoen arren. Horixe gertatzen da ikasleek osasunarentzat kaltegarriak izan daitezkeen produktuak kontsumitzea ekidin nahi duten zenbait arauarekin. Ikasleek adierazten duten beste irizitako bat da ikasle gatazkatsu batzuentzat arauak ez dutela ezertarako balio, ez baitituzte betetzen. Hona hemen eztabaida taldeetan izandako elkarrizketa batzuetako laburpenak:

- **“Dituzuen arauetatik, zeintzuk iruditzen zaizkizue garrantzitsuenak?”**
- Ez erretzea.
- Jolastokitik ez ateratzea. Ezin da hesitik gertu atera.
- **Arau horiek zerbaitetarako balio dutela uste duzue?**
- Batzuek ez.
- Oharrak bidaltzen dizkieten horiei berdin zaie gerta daitekeena.
- Ez, berdin-berdin izango zaielako. Haien gurasoek badakite erretzen dutela, denetarik sartzen dutela, eta berdin die irakasleek esaten dutena.
- **Denetarik sartzen dutela, zer esan nahi duzu?**
- Ba festetara joaten direla, eta sartu beharko luketena baino gehiago sartzen dutela.
- Ikastetxean egiten dute? Eskola egunetan?
- Ez. Kanpoan eta astegunetan ere bai.
- **Zerbaitetarako balio dutela uste duen norbait.**
- Hesira ez inguratzearena erabilgarria da, ezin dutelako tabakorik ez beste ezer pasa.
- Baina berdin dio, norbait kanpoan badago erretzen, zupada bat eman diezaiokizu.
- Hemen hesira ingura zaitzake. Egin nahi duenak egin egiten du inolako ardurarik gabe. Nire gelan bada norbait kalera botatzen ez badute penagatik dena. Berdin dio bat gehiago edo bat gutxiago.”

- **“Norbaitek arauen bat urratzen badu, zigorra jartzen zaiola adierazi duzue. Zer motatako zigorrak?**
- Argibide oharrak. Gelan eginikoa idazten duzu eta zergatik zigortu zaituzten adierazi.
- Eta jarri dizuten zigorra.
- Eta gero gurasoek sinatu egiten dute.
- Gatazkatsuek gutun mordoa egin dute, baino balio izan duenerako...
- Egin dituzunen arabera, espedientea ireki diezazukete.
- **Argibide oharrek zerbaitetarako balio dutela uste duzue?**
- Bai zera!
- Beharbada.
- Batzuetan bai.”

Irakasleen arabera, arauen erabilgarritasuna bizikidetzarako esparruaren barruan duen paperetik dator funtsean, ikasleari zeri euts diezaiokeen jakinarazten diolako, jokoaren arauak balira bezala.

- *“Ezinbestekoa da haiek jakitea zeintzuk diren. Irailean lan egiten denean balioekin eta ekidin beharreko jokabideekin egiten da. Egia da arau asko daudela esaten digutela. Nik esan ohi diet “bai, baina bizitzan ere badira.” Gertatzen dena da kasu honetan idatzirik dituztela, eta ikusi egiten direla.”*
- *“Nik uste dut beraien alde dutena araudia existitzen dela jakitea dela. Ikasturte hasieran azaltzen zaie.”*

Familiei dagokienez, modu berean onartzen dute arauak erabilgarriak direla, eta azpimarratu behar da kasu batean baino gehiagotan agertu dela, ikastetxe batetik bestera eramateak ez duela ezertarako balio, oinarrizko arauak larriki eta etengabe urratzen direnean jartzen den zigor gisa. Hona hemen aita batek emaniko iritziaren adibide bat:

- *“...Eta ikastetxetik badoala esaten denean, zein ikastetxera joan aukera dezake hangoak amorraraztera. Eta hori arazoa beste ikastetxe bati pasatzea da. Besterik gabe. Hona beste ikastetxe batetik arazo ugari izateagatik datorren gazte bat badator, ezin zaio ezetz esan. Eta hori arazoa eskuz aldatzea da.”*

Labur adierazita, ondoriozta daiteke oro har beharrezkotzat jotzen dela ikastetxeetan zenbait arau egon beharra. Hala eta guztiz ere, ikastetxeetan indarrean dauden arauen erabilgarritasunari dagokionez, adostasuna ez da erabatekoa eta ezadostasunak agertzen dira. Gainera, badirudi zenbait arauen erabilgarritasunarekin kritikoenak ikasleak direla. Arazo nagusia, antza, beharrezkoak diren neurriak hartzeko garaian dauden mugekin identifikatzen direla da, arauak urratzen diren kasurako.

4.1.2.3. Arauen aplikazioa

Lehenik eta behin esan behar da, oro har adostasuna dagoela elkarriketaturiko talde guztien aldetik irakasle guztiek arauak ez dituztela modu berean aplikatzen adieraztean.

Hala eta guztiz ere, adostasun maila handiagoa da ikasle eta irakasleen kasuan. Familien artean alde handiagoa dago emaniko erantzunen artean.

Ikasle batzuek emaniko baieztapen hauek ikasleek oro har duten iritzia agertzen dute:

- *“Irakasle bakoitzak bere era du.”*
- *“Batzuk gogorrakoak dira beste batzuk baino.”*
- *“Batzuk oso gehiegizkoak dira. Telefono mugikorrek gelan jotzen badizu, batzuei hiru hilabeterako kentzen diete, eta beste batzuei ez diete kentzen. Arau bera da baina irakasle ezberdina.”*
- *“Batzuetan, oso larria ez den gauza batengatik, gertakari bat jartzen dizute traba beharrean. Guztiek ez dute gauza bera egiten.”*

Kontu honen beste aldeetako bat da ikasleei iruditzen zaiela arauak ez direla modu berean aplikatzen ikasle guztien kasuan. Hona hemen ikasleek bidegabekotzat jotzen dituzten egoeratako batzuen adibideak:

- *“Faboritismoa dago.”*
- *“Nik uste dut pertsona bat isila bada eta beste bat berritsua eta ez badute portaera txarrik, ez zaiela modu berean tratatzen. Bati leuntasun handiagoarekin esaten zaio besteari baino.”*
- *“Guri gertatu zitzaigun gimnasiako eskolan mutil batek nahigabe eman ziola sabaiari baloiarekin, eta negatibo bat jarri zioten, eta gero neska batek egin zuen eta ez zioten ezer jarri. Eta askoz ere gauza gehiago gertatu dira, baina hasiz gero ez dugu amaituko.”*

Ikasleek irakasle guztiek arauak modu berean aplikatzen ez dituztenaren edo arauak ikasle guztiei modu berean aplikatzen ez zaizkienaren iritzia azterlan honen zati kuantitatiboaren emaitzekin bat dator.

Beren aldetik, irakasleek onartzen dute ez dituztela arauak modu berean aplikatzen, eta kontzienteki eta gertakari bakoitzak izan ditzakeen ezaugarrien arabera egiten dutela onartu dute. Esan liteke irakasleak malgutasunaren alde daudela arauak aplikatzerakoan, ikaslearen ezaugarri pertsonalak kontuan hartuta. Besteak beste, honako baieztapen hauek jaso dira:

- *“Ez. Guztiak ezberdinak gara, norbaitentzat garrantzitsua dena, beste batentzat ez du horrelako garrantzirik. Batzuek errazago jartzen dituzte parteak beste batzuek baino.”*
- *“Irakasle bakoitza mundu bat da. Pertsonak gara gainerakoak bezalaxe. Gertakari berdinen aurrean, batentzat larriagoa da beste batentzat baino... Eta ikasleak ezagutzeak ere, erabaki bat edo beste harrarazten digu. Izan liteke ikasle bat momentu txarra bizitzen aritzea, gurasoak banatzen ari direlako eta jakinaren gainean gaude. Ikastetxe handi batean jakinaren gainean egon daitezke edo beharbada ez. Jakinaren gainean egonda, zigorrak jartzeko garaian malguagoak gara, edo beste era batera hitz egiten dugu. Hori garrantzitsua iruditzen zait.”*

Ikasketa-burueta bategi honela arrazoitu zituen irakasleen arteko aldeak arauak aplikatzerakoan:

- **“Eta uste duzu irakasle guztiek modu berean aplikatzen dutela araudia?”**
- *Ez. Nik ez nuke esango koordinazio falta denik, bakoitzak badaki zer egin behar duen. Nik esango nuke sentsibilitate falta edo zezenari adarretatik heldu nahi ez izatea dela.*

Nik jasankortasun gehiago izan dezaket eta beste batek jasankortasun gutxiago. Ni bikaina izan naiteke nire ikasleekin, baina ez naiz beren laguna.”

Malgutasun hori ez dute modu berean ulertzen ikasleek. Merezki du ikasle gehienek ikasleei arauak aplikatzerakoan ulertzen duten berdintasun iritzia. Zenbait erantzunetan errespetu falta antzeman daiteke ezberdintasunekiko. Ondorenean, elkarriketatzailearen eta zenbait talderen artean izandako elkarriketak aurkezten dira adibide gisa:

- *“Irakasle batzuk, nor denaren arabera, gauza bera egiten dute, bati negatiboa jartzen zaio eta besteari ez.*
- *Nire gelan ere badira kuttunak.*
- *Irakasle horrek gehiago egiten du mutilekin neskekin baino (...)*
- ***Ezin liteke izan pertsona bat ezberdina izan daitekeela eta modu ezberdinean tratatu behar zaiola?***
- *Bai, baina ez kuttunagoa izan.*
- *Ezin gaituzte modu ezberdinean tratatu nahiz eta ezberdinak izan.*
- *Guztiak gara berdinak nahiz eta norbait hiperaktiboa izan.*
- *Guztiak gara pertsonak.”*

- ***Hau da, zuek uste duzue zuen irakasleek aldeak egiten dituztela ikaslea nor den gorabehera arauak aplikatzerakoan.***
- *Bai.*
- ***Eta uste al duzue beharbada horren arrazoia ikasle bakoitzak tratatu ezberdina behar duela izan daitekeela?***
- *Ez, guztiak berdinak garelako. Gertatzen dena da, batzuk lotsagabeagoak direla.*
- *Horixe errepikatzen digute behin eta berrero, berdinak garela (...)*
- *Ze guztiak berdinak bagara, onerako eta txarrerako gara berdinak.*
- ***Ados al zaudete berarekin?***
- *Bai.*
- *Bai.”*

Esan beharko litzateke arestian arauen aplikazio ezberdinaren inguruan adierazitakoa getetako egoerei dagokiela funtsean. Arauen aplikazioa gelatik kanpo egiten denean, gatazka esparru horretatik haratago joateagatik edo hartu beharreko erabakian parte hartu behar duten irakasleak bat baino gehiago izateagatik, iritzia da koherentzia maila altuagoa dagoela irakasleen artean. Hona hemen ideia hori azaltzen duten bi adibide. Lehenengoak ikasle batek adierazitako iritzia islatzen du, eta bigarrena ikasketa-buru batek emanikoa da:

- *“Guztien artean hitz egiten dutenean, bai. Larria bada, guztiak ados jartzen dira, eta gauza bera egiten dute. Baina gelan, bakoitzak bere erara egiten ditu gauzak.”*

- *“Nik uste dut saiatu egiten garela. Ikastetxe txikia izatean, komunikazioa badago eta saiatu egiten gara. Gero gelan bakoitzak portaera bat du, baina ezarritako ildo jarraitzen saiatzen gara.”*

Familien artean dagoen iritzia irakasleek arauak modu berean aplikatzen dituztela da, alde garrantzitsurik egin gabe. Hala eta guztiz ere, ikasle guztiak modu berean tratatzen dituztenaren inguruan, ezadostasunak handiagoak dira. Ikus ditzagun gurasoek parte hartu duten eztabaida taldeetan agertu diren elkarrizketen laburpen batzuk.

– **“Zuek uste duzue irakasleek modu berean aplikatzen dituztela arauak? Eta modu berean aplikatzen dizkietela ikasle guztiei?”**

- *Nik uste dut, gaizki har daitekeen arren, arazoak sortzen dabiltzan gazteei utzi egiten zaiela. Guk nahi ala ez, gertatu egiten da. Batzuei gehiago uzten zaie beste batzuei baino.*
- *Irakasle askok beharbada ez dituzte zigortzen ohiko ikasle alfer-azkarrak edo zirikatzailak, gaizki dagoen zer edo zer egitean. Baina modu berean ez diete saririk ematen zerbait ongi egitean edo arretaz entzutean. Erremediorik gabekotzat hartzen dituzte ia.*
- **Diskriminazio positibo hori...**
- *Niretzat diskriminazio hori negatiboa da. Alde batera utzita, abandonatu egiten da.*
- *Ikasleak ez du horrela ikusten.*
- *Ikaslea abandonaturik sentitzen da. Ni ikasle ona banaiz eta antzematen badut errieta gehiago egiten didatela niri... Nik ez dut gehiago baloratzen hiru egunetarako kalera botatzen dutenaren arabera.*
- *Baina noski, beharbada gure alaben bidez ikusten dugulako izan daiteke. Ikasle ona dela ikusten badute gainean daude, baina gelan lo hartzen duela ikusten badute...”*

– **Eta ikasle guztiei modu berean aplikatzen zaizkie?**

- *Ez. Ikasle batzuek ospe txarra dute Lehen Hezkuntzatik. Toki guztietan gertatzen den bezala.*
- *Ni ere ados nago. Nor denaren arabera, tratu bat edo beste ematen zaio. Txikitatik urduria bada, tira... baina beharbada ez du zerikusirik; edo sekulan arazorik eman ez duen umea bada, aurpegi ona jarri eta beste modu batera garatzen da egoera. Nik horrela ikusten dut, ez dakit gainerakoek zer pentsatzen duzen.*
- *Nik izan dudan esperientzia... ez dut modu horretan bizi izan behinik behin.”*

Eztabaida talde ezberdinetan aurkeztu den beste gai bat kasu askotan izaten den gehiegizko mantsotasuna da, ezarritako zigorrak arauak urratzen dituztenei ezartzeko garaian. Batzuetan geratzen den sentsazioa da, erabaki bat hartzen denerako beranduegi dela lortu nahi diren eraginak izan ditzan. Hona hemen zentzu horretako adierazpen batzuk:

- “Erdikoak, ohartarazpen larriak eta arinak daude. Eta gero kanpotik datozenak, zerbait konpontzen hasi nahi denerako ikasturtea amaitu da.”

- “Abiaduragatik baino eskumenengatik diot. Helburua portaera aldatzea bada, azkarra izan behar da. Gertakaria eta ondorioa. Berehala. Ezin da kontua hamar egun baino gehiagoz luzatu. Baina zer eska daiteke maila judizialean gertakaria egin eta epaiketa egiten denerako sei hilabete igaro badaitezke eta zigorra iristen denerako urtebete ere igaro badaiteke.
- **Eta nolakoak beharko luke prozedurak? Zuk Eskola Kontseilutik pasa gabe utziko zenuke?**
- Nik ez dut hori esaten. Guk, muturreko kasuren batean adibidez, “begira, zure semea edo alaba etxean geratuko da hiru egunez arau garrantzitsu batzuk urratu dituelako” esateko aukera izango bagenu... Nik uste dut horretarako ez litzatekeela koordinazioa egon behar, gero Bizikidetzarako Batzordea, gero ez dakit zer, buelta berriro ere batzordera...”

- “Lehenik eta behin ohar koadernoan jakinarazten diren arinak daude. Gero etxera bidali eta sinaturik ekarri beharreko gertakari larriak jasotzen dituzten gutunak daude. Gero, urratze arin edo larriak jasotzen dituzten gutun horiekin, Bizikidetzarako Batzordean biltzen gara eta espedientea ireki ala ez erabakitzen dugu. Eta espedientea irekitzea erabakiz gero, Eskola Kontseiluari helarazten zaio han hartu beharreko neurriak erabaki ditzaten...”
- Eta, gainera, horrek ekar ditzakeen izapide guztiek denbora asko hartzea eskatzen dute. Orduan zerbait egiten denerako ez da praktikoa.”

4.1.2.4. Arauen aldaketa

Araudia egiterakoan eta ondorengo aldaketetan parte hartzen dutenak batez ere irakasleak direla kontuan hartuta, atal honetan bereziki ikasleek eta familiek duten iritzia ztertuko dugu, ikastetxe ezberdinetan aipaturiko araudian aldaketak sartzeko ezarritako prozeduren gainean.

Ikasleek araudian aldaketak sartzeko parte-hartze biderik badutenaren inguruan, ikasleak oro har ados daude. Bide ezberdinak aipatu zituzten baliabide horiek erabiltzeko. Kasu gehienetan ordezkarien eta tutoreekin duten harremanaren bidezkoa da eta Eskola Kontseilua izango da azken erabakia hartzen duena.

Irakasle eta familien aldetik ere antzematen da iritzi orokorra dela ikasleek araudia aldatzeko prozesuetan parte hartzeko bideak badituztela. Hona hemen irakasleek emaniko erantzunetako batzuk:

- “Bai, noski parte hartzen dutela. Taldeka proposamenak egiten dituzte.”
- “Aldaketa garrantzitsua izan da ordutegien eremuan. Eta beraien ekimenari esker izan zen. Iradokizun postontzia dute. Adierazi, aztertu eta aldatu egin zen.”
- “Beren ordezkari eta ordezkariordea dituzte, eta talde guztiek dute tutoretza ordua astero.”

Eta gurasoek adierazitakoa ere honakoa:

- *“Eta ikasleek ere proposamenak egin dituzte eta kontuan hartu dira.”*
- *“Eskola Kontseiluan ordezkaturik daude. Aldaketak aurkez ditzakete.”*
- *“Bai, nik uste dut baietz. Uste dut entzuten dietela.”*

Ikasleek araudiaren aldaketan parte har dezaketen moduan, gurasoek ere parte hartzeko aukera berdina dute.

Guztien adostasuna jasotzen ez duen kontua ikasleen parte-hartze eraginkorrarena da, ikasleen taldetik bertatik sorturiko ekimen posibleak kontuan hartzen diren ala ez, alegia, eta azken batean onartzen diren. Zentzu horretan, ikasleen iritzia aldatu egiten da ikastetxe batzuetatik besteetara eta askotan dagoen sentsazioa da zaila dela benetako eragina izatea. Hona hemen ildo horretan ihardetsi duten ikasle batzuen erantzunak aldaketak proposatu ditzaketenaren galderaren aurrean:

- *“Beharbada proposatu bai, baina jaramon egin...”*
- *“Bai, baina ez digute jaramonik egiten, joan den urtean idazki bat aurkeztu genuen eta ez ziguten kasurik egin.”*
- *“Bai, baina lorpenak arau txikiekin ematen dira. Bestela, zaila izaten da.”*

“Arau txikitzat” ulertzen zuena galdetuta, ikasleak eman zuen erantzuna honakoa izan zen:

- *“Ba, adibidez, lehen ezin genuen ezer hartu beheko kafe makinan, eta orain astean bitan zer edo zer har dezakegu. Baina gelan jan edo edan bezalako arau baten kasuan, ez da posible.”*

Ikasle hau bat dator irakasle batekin. Haren iritziak, zenbait eskaera edo proposaturiko aldaketa ezin dira onartu:

- *“Zenbait gauza egiteko modukoak dira. Baina beste batzuk ez dira posible, atsedenean kanpora ateratzea edo geletan jatea bezala.”*

Erantzun horietatik eta antzerako beste batzuetatik ondorioztatzen da, ikasleen eta familien ikuspegitik Eskola Kontseilua bezalako organoetan parte hartzea ez dela modurik eraginkorrena proposaturiko aldaketak eraginkorrak izateko. Parte-hartzea sustatzen duten eta gelatik gertuago dauden prozedurak, berriz (ordezkariak, tutoreak, etab.), eraginkortasun gehien dakartzatenak dira.

Eskola Kontseiluko gurasoen partetik ere, ikasle batzuek duten iritzia bultzatzen duten zenbait iritzi agertu dira, alegia, araudian aldaketak sartzeko parte-hartze bideen eraginkortasun faltarena. Eraginkortasun falta hori irakasleen iritziaren aurka joateko ezintasunaren bidez arrazoitzen da, izan ere, gehiengoa eratzen dute Eskola Kontseiluan.

- *“Baina kontua da haiek ezin dutela ezer egin. Gu bezalaxe, gutxiengoa dira botoa emateko garaian.”*

Horrela, bada, garrantzitsua litzateke gogoratzea araudiaren eraketan, aplikazioan eta berreraketan parte hartzeak maila guztiei nolabaiteko identifikazio maila emango

liekeen bidea izan beharko lukeela, eta horrek ikastetxeko bizikidetza hobetzeko balio beharko lukeela.

Laburpen gisa ondoriozta daiteke, eraketan irakasle eta gurasoek gain ikasleek ere parte hartu duten araudi argia existitzeak lagundu egingo duela ikastetxeko bizikidetza egokiagoa izaten. Ikasleek araudia ezagutu behar dute eta bertan aldaketak bultzatzeko bideak izan behar dituzte. Hau da, araudiak urtero ezaugarrien arabera egokitzen doan dokumentu dinamikoa izan behar du, eta ez bere garaian eginikoa eta inork eusten ez duen dokumentu zaharra, zigorren bat berresteko ez bada behinik behin.

- *“Nik beti irakasle batek orain dela urte asko esan zidan gauza bat esaten diet: irakasle edo hezitzaileak mota guztietako pilotakadak jasan behar ditugun frontoiak bezalakoak gara, baina ez duzu onartu behar inor bazterrera joatea pixa egitera. Eta berehala ulertzen dute. Mugak argi jartzen dizkiezunean eskertu egiten dute eta jakinaren gainean daude.”*

4.2. GATAZKAK IKASTETXEAN

Atal honetan irakasleek, ikasleek eta familiek ikastetxeetan izaten diren edo izan daitezkeen sei gatazka moten inguruan (gelako martxa etetea, ikasleen arteko tratu txarrak, irakasleek ikasleak jotzea, ikasleek irakasleak jotzea, bandalismoa eta absentismoa) duten iritzia aurkeztuko da. Horietako bakoitzaren eragin maila aztertu da, baina batez ere gatazkak sorrarazten dituzten arrazoietan sakontzeko saiakera egin da, eta horiek konpontzeko egon daitezkeen modu ezberdinak aztertu. Bestalde, bildutako datuei esker talde bakoitzak ikastetxeko segurtasunaren inguruan duen iritzia ezagutu ahal izan da.

Emaniko iritzia xehetasunez aztertu baino lehen, merezi du aurreratzeak, salbuespenak salbuespen, azterlanean parte hartu duten ikastetxeetako maila ezberdinek bertako segurtasunaren gainean duten iritzia ikasleentzat segurtasun maila altua egotearena dela. Adibide gisa, hona hemen elkarrizketaturiko ikasle batzuek emaniko erantzunak:

- *“Bai. Beste batzuen aldean (ikasleak), bai.”*
- *“Pertsona batzuk konfiantza ematen dizute.”*
- *“Zer gertatuko zaizu, bada?”*
- *“Nik hona etorri nahi duten lagunak ditut. Ni ondo nago hemen.”*
- *“Bai. Auzoan gaude, ez zaizu ezer gertatuko.”*

Ikasleen aldetik antzeman daitezkeen segurtasun sententzio hori eztabaida talde ezberdinetan parte hartu duten gurasoen iritzia ere berresten du. Hona hemen ikastetxe ezberdinetako gurasoek emaniko erantzunak, ikastetxea beren seme-alabentzat toki segurua den galderaren inguruan:

- *“Bai. Nik ikusi izan banu ez zela toki segurua, nik ez nukeen alaba hona ekarri izango.”*
- *“Ematen duena da benetan segurua den ikastetxea dugula, eta pozik gaude funtzionamenduari. Lasaitasuna ematen du.”*
- *“Bai, ondo. Lasai gaude. Berehala esaten digute guztia, bai ona dena eta baita txarra dena ere.”*

Irakasleei dagokienez, ikasleak ikastetxean seguru daudenaren iritzia emateaz gain, ez dute beren bururako segurtasun ezeko sentsaziorik agertu. Bi baieztapen bakarrik jaso dira irakasleen ibilgailuen aurka eginiko jarduerak aipatuz:

- *“Bai izan dugula irakasle baten ibilgailua kaltetu duten kasu bat. Gizartean antzematen den errealitatea bezalakoa da.”*
- *“Orain dela urte asko, bullying-a oraindik agertu ez zenean, bai egin ziotela arrastoa irakasle bati bere ibilgailuan.”*

Azkenik adierazi beharko litzateke, bizikidetza-giro orokorrarekin gertatzen zen moduan, ikasleek hainbatetan adierazi dutela beste ikastetxe batzuetako segurtasun eza handiagoa dela bertakoa baino. Hona hemen iritzi batzuk:

- *“Beste ikastetxe batzuetan, askoz ere okerrago.”*
- *“Beste ikastetxe batzuetan irakasleek baja hartu dute depresioagatik. Buelta ematen diete ibilgailuei.”*

Hala eta guztiz ere, parte hartu duten hamar ikastetxeetan jasotako datuek ez dute frogarik ematen horrelako egoerak maiz izaten direla ondorioztatzeko.

Horrek ez du esan nahi ikastetxe eta institutueta gatazkak egoten direla onartzen ez denik. Ondorenean arazo ezberdinekin eta horien entzute txarrarekin uztarturiko alde ezberdinetan sakonduko da, gatazka horien arrazoiak aztertuko dira, eta hirugarren atalean ikastetxeetan ager daitezkeen gatazkak konpontzeko erabilitako prozedura ezberdinak jorratuko dira.

4.2.1. **Gatazka motak**

Puntu honetan ikastetxeetan ohikoenak diren gatazken zerrenda eta talde ezberdinek horiek antzemateko duten modua aurkeztuko dira. Eztabaida taldeetan eta ikasle, irakasle eta familiekin eginiko elkarrizketetan lorturiko datuetatik abiatuz, eta jasotako informazioak duen garrantzia kontuan hartuta, kezka gehien agerrarazi duten hiruak aipatuko dira: geletako martxa etetea, ikasleen arteko tratu txarrak eta bandalismoa².

4.2.1.1. *Gelako martxa etetea*

Adierazitako iritziak kontuan hartuta eta datu kuantitatiboekin bat etorritz, hori da azterlanean parte hartu duten ikastetxeetan ohikoena den gatazka. Sentsazio hori irakasleek nahiz familia eta ikasleek antzematen dute.

Irakasleen erantzunek, zuzendaritza eta orientazio lanen arduradunenek bezalaxe, gelako martxa etetea geletako portaera gatazkatsuena izatearen pertzepzioa berretsi dute.

² Gogoratu irakasle eta ikasleen arteko gatazkak, bi norabideetan, 4.1.1.4 atalean aipatu direla. Bertan, talde horietako pertsonen arteko harremanak aztertu dira.

- *“Nire esperientzia lau urtez ikasketa-buru izatearena da, eta funtsezko arazoak gelako martxa etetea eta absentismoa dira.”*
- *“Ikasleen artean zer motatako urradurak zeuden ikusi da, eta harritzekoa da, gutxi zeudelako beren arteko borrokengatik. % 50 baino gehiago gelako martxa etetetik eratorritako arazoak eta irakasle-ikasle sesioak dira.”*

Gelako martxa eteten duten jokabide horiek gogorik ezerako arrazoi dira irakasleentzat:

- *“Antsietate gehien sorrarazten duena gelako martxa etetea da.”*
- *“Niri pertsonalki, eskoletan eteten zaituzten kontu hori, motibazio gutxi dutela iruditzen zait. Ez ikastetxean bertan, nire gelan gehien gogaitzen nauena da. Ez da arazo larria izatera iristen, baina jasan beharreko desgatea...”*

Eztabaida taldeetan parte hartu duten gurasoak ere jabetzen dira egoera horietaz:

- *“Beti egon izan dira eta egongo dira gelako martxa etengo duten ikasleak.”*
- *“Ez naiz tratu txarrez hitz egiten ari, baizik eta eskolak ematen ez uzteari buruz, eteteari buruz. Hitzen bidez adarra jotzeari. Amorraraztea. Nik ez dakit zer nolako baliabideak dituzten irakasleek gelan isiltasuna lortzeko, baina badirudi ikasleek eteteko dituztenak baino urriagoak direla.”*

Gelako martxa eteten duten egoerak dauden galdetu zaien ikasleen erantzunak biribilak dira. Onartzen dute askotan izaten direla horrelakoak, nahiz eta kasu batzuetan besteetan baino orokorragoa izaten den, eta mailaren arabera aldatu egiten den.

- *“Bai. Gela bakoitzean bat edo bi.”*
- *“Bai. Hiru gela bakoitzeko.”*
- *“Beti berdinak dira.”*
- *“Normalean ikasturtea errepikatzen dabiltzanak dira.”*
- *“Bat hasi egiten da eta gainerakoek jarraitu egiten diote.”*
- *“Normalean guztiok egiten dugu hori. Irakaslea hitz egiten hasten da eta gu ere bai, eta isiltzeko agintzen digu.”*

Azpimarratu beharko litzateke eztabaida taldeetan parte hartu duten ikasleak jabetzen direla gutxi gorabehera ohikoa den etetea ikastetxeko giroan eragin negatiboa duen faktorea dela. Hona hemen erantzun adierazkorrenetako batzuk:

- *“Batzuetan barre egiten duzu eta ondo dago, baina gero aspergarria bihurtzen da. Horrenbeste aldiz eginda nekagarria bihurtzen da.”*
- *“Eskola ordubetekoa izan daiteke eta bertan eginiko lana hogeit hamar minutukoa.”*

4.2.1.2. *Ikasleen arteko tratu txarrak*

Ikasleei argitu zitzaizen ikasleen arteko tratu txarrak ez zirela liskar edo harreman txar isolatuak, baizik eta ikaslea bere kabuz irten ezin daitekeen sufrimenduan kokatzen duten eta denboran luzatzen diren biktimizazio prozesuak. Hori horrela izanik ere, pertsonen arteko gatazka zehatzen adibideak jarri zituzten berriro ere parte-hartzaile askok, baina ez tratu txarreko adibiderik.

Gelakideen arteko gehiegikeria adibide baten gainean, hitzeko erasoak, elkarrizketetan eta eztabaida taldeetan parte hartu zutenak ikasleen arteko irainen gaira itzuli ziren. Gehien nabarmendu zen ideia, eta ikasleen arteko harremanen gaia jorratzen duen 4.1.1.3 atalean jada aipaturikoa izan dena, ohiko jardunbidea izatearena da, baina berez ez duela eraso larriaren izaera eta are gutxiago tratu txarren ezaugarriarik. Hauek dira ikasleek eginiko baieztapenetako batzuk:

- *“Irainak ez, txantxa.”*
- *“Batzuetan txantxetan da, baina beste batzuetan serioa da.”*
- *“Noski, nork eta nola esaten dizunaren arabera. Aldea oso ondo antzematen da.”*
- *“Esate baterako ‘mamonazo’ hitza estimazkoa da, baina mespretxuzkoa ere izan daiteke.”*
- *“Ez dakit, esan daiteke ‘jo, ze tuntuna zaren...’, baina besterik gabe.”*
- *“Niri min gehiago ematen dit irain batek ostiko batek baino.”*

Irakasleek emaniko erantzunetatik antzeman daiteke, haiek irain gisa ulertzen dutena, ikasleek komunikatzeko modu natural gisa barneraturik dutela eta, gainera, irainez gain ezizenak jartzen dizkiotela elkarri.

- *“Bai. Hitz egiterakoan askotan erabiltzen dira ezizen iraingarriak.”*
- *“Bai. Baina harrapatzea ezinezkoa den hizketa modua dute. Horrelakoak egoten dira, baina gutxi. Baten bati ezizenaz dei diezaiokete, baina zuk ez dakizu.”*

Sentsazio bera antzeman daiteke familiekin izandako elkarrizketa batzuetan emaniko iritzietan.

- *“Orain potolo deitzea polita deitzea da.”*
- *“Jendeak brometan egiten du iseka, baina ez dute min emateko asmorik.”*

Ikasleen arteko tratu txarrei buruz mintzatzean eta bildutako datuak kontuan hartuta, talde guztiek antzematen dute jazotzen den jardunbidea izanik ere, ez dela portaera orokorra eta oso ohikoak ez diren egoera zehatzetara mugatzen direla. Bestalde, esan daiteke egun duen eragina ez dela orain dela urte batzuk zuena baino handiagoa. Hona hemen zenbait erantzun:

- *“Kasu gehienak adibide zehatzak dira. Ez dira ohartzen erasotzaileak direla eta ez dituzte uztartzen jarrera erasotzaile horiek bullying-arekin.”*
- *“Modu etengabea, ez. Noizean behin ‘hau edo bestea egin didate’ kontuarekin datozenean, baina ez modu jarraituan.”*

Eraso fisikoei buruz galdetu zenean, parte-hartzaileek helarazi zuten sentsazio orokorra borrokak ez egotearena izan zen eta gatazka guztiak gutxi gorabehera gogorrak izan zitezkeen eztabaidetara mugatu zituzten. Horiek, kasuren batean, eraso fisikoren batera eramanean zezaketela adierazi zuten. DBHko 4. mailako ikasle batek dioen moduan:

- *“Errietak bai, baina borrokak ez.”*

Hala eta guztiz ere, ikasleek onartzen dute bertako ikasleek parte hartzen duten gatazkak ikastetxetik kanpo gertatzen direla.

- *“Baina hemen, bigarren zikloan, badira beti iskanbilaren bila dabiltzan gazteak. Eta astebururo borrokatzen dira. Hemendik kanpo jotzen diote elkarri eta arazoak hona ekartzen dituzte.”*

Egoera berdin hori antolaturiko banden kasura aplikatu dakioke. Adierazpen guztiak bat datoz agertzean, ikastetxean ez dagoela antolaturiko bandarik, baina ikasle batzuk harremanak dituztela ikastetxetik kanpo existitzen direnekin.

- *“Ikastetxean ez dago bandarik. Pare batetan XXtik etorri dira ateraino batzuk istiluren batean sartu direlako. Itxarotera etorri izan dira. Eta irteterakoan, jo egiten dute.”*

Familia eta irakasleen pertzepzioa bat dator ikastetxean bandarik ez dagoela adieraztean. Hona hemen ikasketa-buru baten iritzia:

- *“Ez. Beste toki batzuetan existitzen direla entzun dezakegun tipologiakoak, ez. Hemen ugaltzen ari dena joko-etxeena da. Lagun taldeak lokal bat alokatzen du eta bertan egoten dira. Lagun taldeen arteko lehia pixka bat, talde batekoen eta beste taldekoen artean, baina ez banda izateko mailan. Ez dugu antzeman giroa beroa dagoenik, ezta gutxiagorik ere.”*

Modu berean, banden kontua pixka bat puzten denaren sentsazioa antzeman da. Honela mintzatzen zen irakasle bat taldeetako batean:

- *“Bandak beti egon izan dira. Nire aitak kontatu izan dit lehen auzo batekoek beste auzo batekoekin egiten zutela borroka. Nik prentsan agertzen dena komatxo tartean jartzen dut, guztia puztu egiten da...”*

Azken batean, esan daiteke banden arteko liskarrak ikastetxe barruko bizikidetzatik kanpo geratzen direla, nahiz eta dudarik gabe eragina izan dezakeen bandetako partaideak ikastetxeko ikasleak izateak edo ikasle horiekin loturak dituzten pertsonak izateak, eta hori ez da oso ohikoa.

“Ciber-bullying” izeneko fenomenoak hartzen doan garrantzia kontuan hartuta, hau da, eraso gauzatzea mugikorrek edo Internetek ematen dituen hedatze aukerak erabiliz, parte-hartzaileei mota horretako jokabiderik antzeman zuten galdetu zitzaizkien. Jasotako erantzun gehienek oso ohikoa ez den errealitatez hartu zuten.

Bestalde, elkarrizketa eta eztabaida taldeetan galdetzean ea horrelako gertaerak gehiago eman zitezkeen mutila edo neska izateagatik, talde guztiek ezezkia eman zioten ideia horri. Ikasleek emaniko erantzun gehienek arabera, beren arteko harremanak zuzenak dira, ondo konpontzen dira, eta gatazkarik gertatzen den kasuan, modu berean gertatuko dira batzuen zein besteen kasuan.

Galdera horrek modu berean sexu-erasoaren arazoa agerrarazi zuen. Horri dagokionez, bai ikasleek bai irakasleek eta familien iritzia izan zen mota horretako tratu txarrak ez direla ia existitu ere egiten eta ez dagoela arrazoirik ardura gehiegirik hartzeko. Adibide gisa, hona hemen familiekin izandako elkarrizketetan agertu zen erantzun adierazko-rrerako bat:

- *“Ustekabe galanta izango genuke horrelakorik gertatzen dela jakingo bagenu.”*

Ikasleen artean egon daitezkeen tratu txar mota ezberdinen aurrean, sentimendu kontraesankorrek daude ikasleen artean, erasotuarekin solidaritatea agertzen dutenetatik hasi eta erasotzailearen jarrera justifikatzen dutenetaraino iritsiz. Ikus daitezten DBHko 2. zikloko bi ikasleren erantzunak:

- *“Lehenengo mailan txiki bat dago eta haren kontra egiten dute. Nik “Nahikoa da!” esaten diet. Haiek esaten didate beren laguna dela, baina uste dut lagunei ez zaiela horrelakorik egiten.”*

Ikusi, ordea, beste kasu batzuetan ematen den azalpena, pertsona batzuek “merezi dutela” uste duten ikasleen aldetik:

- *“Nik uste dut badakidala noren gainean zabiltzan. Eta hori bai uste dudala bullying-a dela, ez dut uste merezitakoa duenik.”*

- *“Beharbada merezitakoa da.*
- ***Inork ez du merezi tratu txarrak jasotzea.***
- *Baina pertsona batek aurretik gauza bera egin badu, orduan bai merezi duela.*
- ***Baina ez ikusiarena jasotzen duten pertsonak, horixe jasotzen dute aurretik modu horretan jardun dutelako?***
- *Bai.*
- *Bai.*
- *Oro har, horrela da. (...)*
- ***Orduan, ez ikusiarena jasotzen duen pertsonak, merezi du?***
- *Kasu batzuetan, bai.”*

Ikasketa-buru batek honako ñabardura hau erantsi zuen:

- *“Ikasle gatazkatsu batzuk ditugu jokabideagatik eta beste gatazkatsu batzuk diagnostiko psikiatrikoengatik, nortasunaren nahasteengatik. Zenbaitzuek eraso edo bullying bezala antzematen dituzte egoera horiek eta beren ustez erasotzaileak diren pertsonak babesten gabiltzala uste dute, baina arazoak dituzten ikasleak dira.”*

Bestalde, irakasle eta familien artean gizarte alarmako sententzioa dago bullying-aren gaiaren inguruan sortua.

- *“Nik uste dut istorio honetan kontu handiarekin ibili behar dela. Orain guztia da bullying. Ezer ez ikustetik guztia bullying dela esatera igaro gara. Hedabideek, gertatu den guztiarekin, buf!, nik uste dut albisteak irakurtzen jakin behar dela.”*
- *“Ni bullying-aren gaiarekin, batzuetan jolastokian jolasean dabilta eta irakasleak guztiaren jakinaren gainean egoten dira. Eta zer muturreraino gainera! Gehiegizkoa da. Badirudi guztia bullying-a dela.”*

Badirudi, berez, tratu txarren gaiaren gainean gehiegizko gizarte alarma sortu denaren sententzio orokorra dagoela. Gizarte alarma horren sorreran garrantzitsua izan den faktorea, parte-hartzaileen ustetan, hedabideek zenbait gertakari isolaturi eman dioten tratua

izan da. Horrek kasu kopurua handiagoa denaren sentsazioa izatea ekarri du, benetan izaten direnen aldean. Hona hemen familiako aita eta ama baten iritziak:

- *“Nik uste dut bullying-a beti existitu izan dela. Nire garaian ere bai. Lodixeago zegoena, edo geldoena zena, edo... Gertatzen dena da, beharbada ez zitzaiola horrenbesteko jaramonik egiten.”*
- *“Azkenean irakurtzen duzunaz fidatzen zara eta baita entzuten duzunaz ere, eta sentsazioa baiezkoa da. Hemen gertatzen denaz fidatuko bagina, ba ez, baina telebista edo irratiaz fidatzen bagara, bai.”*

Ondoriozta liteke, beraz, ikastetxeko komunitateko talde ezberdinen pertzepzioa dela ikasleen arteko tratu txar kasuak urriak direla eta, bizikidetzatza hobetzeko egoera horiek kontuan hartu eta horien aurka egin behar bada ere, ez dagoela kezkatzeko arrazoirik.

4.2.1.3. Bandalismoa

Azterlanean bildutako iritzietatik ondoriozta liteke, aztertutako ikastetxeetan ez dela lapurreta, bandalismo edo material apurketako gertakaririk izaten. Zentzu horretan azpimarratu beharko litzateke, hiru jardunbide horietatik, lapurreta txikiak edo kasu jakinetan eginiko ebasketak izango liratekeela nabarmentzeko gauza bakarra.

Ikasleek emaniko erantzunen arabera, arazoa oso maila hutsalean kokatzen dute:

- *“Beno, gelan, arkatzak edo bolaluma.”*
- *“Zororen bat, baina gero paperontzian aurkitzen duzu.”*
- *“Orain ez, baina norbaitek ostikoak ematen dizkie armairuei.”*
- *“Orain dela urte batzuk bai egon zirela. Kristal bat apurtu genuen baloikada batez. Ez genuen nahita egin.”*
- *“Joan den urtean bolaluma beltzak desagertzen ziren. Bildumagilea zen. Hori obsesioa, hori!”*

Irakasleek emaniko erantzunak ildo beretik doaz:

- *“Ez. Sinestezina da. Hemen ez arrastorik ibilgailuetan ez ezer.”*
- *“Mantentze lanak egiten dituztenek adierazten digute gauza gehiago apurtzen direla. Nahita, ez dakit, baina gauza materialei garrantzia gutxiago emanez.”*
- *“Lapurretak zehatzak dira. Nahasteak dira.”*
- *“Ezingo nizuke adibidez bandalismo kasurik aipatu, ikastetxe honetan ez dagoelako bandalimorik. Noski, bandalismoa izan daiteke su-itzalgailu bat irekitzen dizun norbait.”*
- *“Oso arraroa da. Gauza deigarrietako bat da. Detailtxoren bat egon daiteke, adibidez, mahaian eserita egon, gelan egoteko gogorik ez duen horietako bat, eta mahaia konparekin urratzen hastea. Baina berriro diot, oso arraroa da. Apurketarik ez.”*

Modu berean, familien pertzepzioa horrelako gertakariak oso modu isolatuan gertatzen direla da. Gainera, ez dirudi gai horrek gehiegizko kezka sorrarazten duenik.

- *“Arkat bat falta dut’ bezalako gauza tipikoak.”*
- *“Beno, joan den urtean iskanbila egon zen telefono mugikor batekin. Bi neskaren artean. Baina lapurreta baino elkarri gorroto ziotela izan zen, eta min emateagatik.”*

- *“Orain dela bi edo hiru urte izan zen. Sukaldetik zerbait lapurtu zuten, actimel edo horrelakoren bat.”*

Gatazka maila handiagoa duen ikastetxeren batekoek onartu zuten ikasleren batek horrelako jokabideak agertzen dituela maiztasun handiagoz, baina kasu horretan ere isolaturiko gertakariak omen dira eta ez dute arazo orokor bat aurkezten:

- *“... gauzak apurtzen dituztenak, gure ikasturtean bat edo bi, eta hirugarren eta laugarren mailan beste bi edo hiru.”*
- *“Kasu zehatzak dira. Gazteren bat. Orain bada bat... Orain dela gutxi haizeak eman zion eta harri bat jaurti zuen kristalaren kontra. Beste egun batean, barauts batzuk teknologian. Baina kasu zehatza da.”*
- *“Bi daude, bi ikasle. Horietako batek atentzia erakartzeko gogo handia du. Arazo oso zehatzak dituen kasua da.”*

4.2.2. **Gatazka arrazoiak**

Atal honetan, parte-hartzaile ezberdinen ustetan, ikastetxeetan gatazkak izateko dauden arrazoi ezberdinak aurkezten dira. Arrazoi horien zerrenda aurkezteaz gain, interesgarria da ere talde ezberdinek arrazoi horien inguruan egiten duten balorazioa ezagutzea.

4.2.2.1. *Irakasleen ospe-galtze profesionala*

Irakasleen ikuspuntutik argi antzematen da beren pertzepzioa irakasle eta hezitzaile gisa duten lanak gizartearen errekonozimendu orokorra ez izatearena dela eta, zehazkiago, ikasleen familien aldetikoa ez izatearena. Ondorenean aurkeztuko direnak bezalako adierazpenak irakasleekin izandako bilera ezberdinetan entzun ahal izan dira:

- *“Gurasoek zalantzan jartzen dute gure lana, guztian sartzen dira, baina aldiz ez diote sendagileari esango zer egiten duen.”*
- *“Beldur handiagoa diegu guraso bilerei ikasleei baino.”*
- *“Ni orain oso nekatuta nago. Niretzat erantzukizun handia da. Izan ere ikusten dut, profesionalki ospea galdu dugula. Eta gero gizartearen agertzen diren ia arazo guztiak gure erantzukizunpean jartzen dituzte eta, modu berean, esaten digute ez dugula ezer egiten.”*

Eztabaida taldeetan parte hartu duen guraso taldeak berak ere arazo bat dagoela onartzen du eremu horretan eta, adibidez, irakasleen agintaritzaren galeran eta irakasleen profesionaltasunaren balorazio faltan antzeman daiteke. Honako hau adierazi zuen ikastetxeetako bateko Eskola Kontseiluko kide den aita batek:

- *“Orain irakasleek ez dute jada agintaritarik. Ahotsa pixka bat altxa eta ‘nire amari jakinaraziko diot’. Agintaritzaren guk kendu diegu.”*

Lanbidearen ospe-galerarekin uztarturik, hezkuntzak berak, hiritarrak prestatzeko ezinbesteko elementu gisa, izandako ospe-falta aipa daiteke. Hona hemen taldeetako batean bi irakasleek emaniko hitzak:

- *“Gizartean hezkuntzak duen balioa hutsa da. Eta gizarteak honi guztiari buelta eman behar dio. Telebistan ikusten dute batek dirua irabazten duela ezer ez egiteagatik eta prestakuntza jaso izan gabe. Eraikuntzaren boomarekin guztiak igeltsero izan nahi dute.”*
- *“Ni kezkatzen nauena da, batzuetan ez dutela ezagutza intelektualean sinisten, uste dute guztiaren gainean iritzia eman daitezkeela, eta hori oso kalekoa da. Objektibotasuna oso gutxi garatu dute. Eta horrek eragina du gelan. Formula bat jartzen diezu eta zergatik izan behar du horrek horrela. Baita azentuak ere. Dena zalantzan jartzen da.”*

Ondoriozta liteke, beraz, irakasleen funtzioak eta hezkuntzak berak bizi duten gizarte errekonozimendu faltak eragina duela modu berean irakasleen lidergo faltan. Alde hori gatazka arrazoi ez bada ere, bizikidetzagiro egokiaren ezaugarri diren pertsonen arteko berezko harremanak zailtzen ditu.

4.2.2.2. *Ikasleen motibazio falta*

Goian adierazi da ikastetxeetako ohiko gatazkatako bat ikasleek gelako martxa etetea dela. Badirudi mota horretako egoerak ikasle horiek eskolako lanekiko duten motibazio faltarekin uztartzen direla. Hori ikasleek nahiz irakasle eta familiek antzeman eta onartzen duten puntua da.

Hona hemen irakasleek emaniko iritzietako batzuk:

- *“Gazte batzuk ez dute motibaziorik, ez daude ikasten aritzeko prest eta mugaturik gaude gure erantzunetan. Kasu horietan ez dugu aurre egiteko armarik.”*
- *“Gelako martxa etetea akademikoki motibaziorik ez izatetik dator. Egunean zazpi ordu begira egon behar, eta ulertu gabe.”*
- *“Lehenengo mailakoak eten egiten dizu aspertu egiten delako, baina laugarren mailakoa bizkorragoa da eta badaki nola egin. Ez dizu aurrera egiten uzten eta gai gutxiago ditu gero azterketa egiterakoan.”*

Ikasleen iritzia ez da oso ezberdina:

- *“Ikasturtea errepikatu dutenek ez dute errepikatu nahi eta behartu egiten dituzte. Orduan, ba aspertu egiten dira.”*
- *“Ez dute beste zereginik eta enbarazu egiten dute. Normalean errepikatzaileak dira.”*
- *“Asperturik daudelako, interesik gabe. Hemen egon behar dute 16 urte bete arte.”*

Eskola Kontseiluetako gurasoen pertzepzioari dagokionez, hona hemen emaniko erantzunen bi adibide adierazgarri:

- *“Ikasle batzuk aspertu egiten dira ikastetxean. Jardun akademikoak ez du inolako interesik haientzat, eta egunero sei ordu pasatzeko moduak topatu behar dituzte. Beren burua hain ondo defendatzen ez duten horiek, edo gizarte mailara igaroko dituztenak zanpatzea.”*
- *“Onargarria ez dena hemezortzi urteko gazteak edukitzea da DBHko laugarren mailan. Ze, egon, badaude. Horiek dira zereginik ez dutenak. Nik ezagutzen ditut ikasleak irakasleengana jo eta esan dietenak: ‘Ni hemen egongo naiz hemezortzi urte bete arte, eta betetzen ditudanean, agur’.”*

Ikasleei motibazioa falta izateko arrazoi ezberdinez gain, badirudi 16 urte bete arte derrigorrean ikastetxean egon beharra, gatazka egoera batzuetan eragina izan dezakeen faktore gisa ari dela ulertzen; ez bakarrik gelako martxaren etetean.

4.2.2.3. Aldaketak balio-eskalan

Irakasleen funtzioaren balorazioaz eta ikasleen motibazio faltaz gain, argi dagoela dirudi azterlan kualitatiboan parte hartu dutenek uste dutela egungo balio krisiak, balio batzuk galtzea beste batzuegatik ordezkatu izan gabe hain zuzen, eragina duela familiengan eta, ondorioz, baita ikastetxeengan ere. Balio jakin batzuk galtzeak gatazkak sorrarazten baditu gizartean, ikastetxeetan ere gauza bera gertatzen da. Horixe adierazi zuen familiako aita batek taldeko elkarrizketetako batean:

- *“Ikastetxea kalearen isla da. Eta kalea indarkeria da argi eta garbi. Ikastetxean harremanetan jartzeko duten modua joko da, elkarri jotzearen joko. Bizikidetzarena, gainerakoenganako errespetuarena, tolerantzia... balio ugari falta zaizkie.”*

Garrantzia eman izan zaion beste kontuetako bat gizartean dagoen utzikeriarena da, gazteen jarrera eta portaerei dagokienez. Utzikeria horren gainean egin daitezkeen balorazioak alde batera utzita, argi dagoena da parte-hartzaileek uste dutela ikastetxeko ordena onartzeko ahalmena indargabeturik geratzen dela, neurri handi batean, jarduera asko derrigorrean egin behar direlako. Horri gehiegizko gainbabesa elkartzen badiogu, esfortzua pedagogiaren alde ez egitea dakar eta hori da, haien ustez, eskola sistemaren zati garrantzitsu baten oinarrian dagoena. Irakasle talde batean honako adierazpenak jaso ziren:

- *“Oraingo kultura esfortzu ezarena da. Ikasle hoberena esfortzurik egiten ez duena da. Hoberena bizkorra izan baina alferra dena da. Eta zentzu horretan merezimendu gehiago egin ditzakezu jolas-garaian gelan baino.”*
- *“Aldatu dena etxean ikastetxearen gainean duten ikuspegia da. Etxean duten babesa.”*

Eta familiekin eraturiko talde batean, honakoa adierazi zen:

- *“Orain irakasleek ez dute jada agintaritarik. Ahotsa pixka bat altxa eta ‘nire amari jakinaraziko diot’. Agintaritza guk geuk kendu diegu.”*

Azkenik, hona hemen bigarren zikloko ikasle baten iritzia:

- *“Europako hiri guztiek duten arazoa da. Diziplina falta da. Bigunegiak dira beren seme-alabekin, eskolan, guztian.”*

Gatazkak sortzeko beste arrazoietakiko bat aniztasunarekiko errespetu falta eta tolerantzia falta izan zitekeela adierazi zuten parte-hartzaileek. Azterturiko gatazka ugariaren atzean ezaugarri horiek antzeman dira, DBHko lehenengo zikloko ikasle talde batek emaniko erantzunetan ikusi zen moduan besteak zirikatzeke dauden arrazoiei buruz galdetu zitzaizkien:

- “– Jendeak, janzteko moduarengatik eta, asko zirikatzen du.
 – Beti ahulenak zirikatzen dituzte.
 – Edo bakarrik ikusten bazaituzte.
 – Edo gaixotasunen bat bada.
 – Edo fisikoarengatik bakarrik, eta ziurrenik ez dute ezagutu ere egingo.”

Balio aldaketan, zeregin garrantzitsua dute hedabideek, batez ere telebistak, gerora ikastetxeetan antzemango diren balio negatiboak helarazten dituelako. Emakumearen papera objektu gisa, indarkeria arazoak konpontzeko bide gisa, gehiegizko kontsumismoa eta esfortzu gehiegirik gabe irabazitako dirua bezalako balioek esfortzu ahalmen eskasarekin uztarturiko jokabideetara, larderiara, diskriminaziora, tratu txarretara eta abarretara eraman dezakete. Horixe islatzen da ikasketa-buru baten iritzian DBHko 2. mailako ikasleei buruz hitz egiterakoan:

- “Aukeren gaiak epe laburrean egingo dutenaz gehiago jabetzearekin du zerikusia. Sentikorragoak agertzen dira hedabideengatik, eta “epelaburtasun” azkarrera jotzen dute. Eskaintza ugari daude haientzat. Azkar atera nahi dute hemendik, hegan egin nahi dute.”

4.2.2.4. Familiarekin uztarturiko faktoreak eta egoera pertsonalak

Aurreko ataletan jada aipatu dena dudarik gabe familiatik aparte gertatzen ez bada ere, parte-hartzaileen erantzunetan familien barruko harremanen esparruarekin eta ikasleen egoera pertsonalekin lotura zuzenagoa duten arrazoiak jaso dira.

Irakasleak jabetzen dira, gatazkatsuak edo bizikidetzatza onaren aurkako portaerak agertzen dituzten ikasleen ehuneko altu batek nolabait zailak diren familia egoerak bizi dituela eta horrek eragina duela mota honetako jokabideetan. Bi ikasketa-buruk honakoa adierazi zuten:

- “Dudan esperientziaren arabera, beti daude erantzun mota hau ekartzen duten familia egoerak edo bizipen pertsonalak. Oso gutxitan topatu izan dut horrelakorik atzean izan ez eta gelako martxa eteten zuten ikasleak. Nahasmendu pertsonala agertzen ziren kasuak ez baziren behinik behin. Falta erregistroak edo diziplina-espeditenteak aztertzen zozoen heinean ikusten duzu atzean familia egoera oso zehatzak daudela.”
- “Faktore ugari agertzen dira: autoestimua, beren buruenganako pertzepzioa, atentzioa erakartzeko beharra, familiaren egoera, bizi duten arazoa nonbaitetik ateratzeko nahia, gelakideen aurrean grazia egitea, berria den irakasle bat izorratzeko nahia... Gauza asko.”

Gizartearen gehiegizko utzikeriaren pertzepzioari uztartuta, familian jarraibide edo arau argiak ez egotea ere gatazkarako arazoitzat jotzen da. Orientatzaile batek honakoa dio:

- “Ikasle bakoitzaren arrazoiak mundu bat dira. Ezagutzen ditut eta batzuei jarraibide kontzienteak falta zaizkie, etxetikoa arau falta, puntu komuna izan daiteke. DBHn jokabideak puztu egiten dira.”

Bestalde, ikasleek eta irakasleek behin eta berriro azpimarratzen dute atentzioa erakartzea eta neurri bateko protagonismoa lortzea gelako martxa eteteko arrazoi direla. Ikasleen arteko eztabaida talde ezberdinetan “*Erakuskeriatan aritzea gustuko dute*”, “*atentzioa erakartzeko*”, “*txorakeria handiena nork egiten duen ikusteko*”, “*gainerakoei barrea eragiteko*” bezalako adierazpenak jaso dira. Hona hemen adibide adierazgarri batzuk:

- “*Atentzioa erakartzeko eta arazo bat izan dezaketelako.*”
- “*Bere garaian zerbait egin zuten, nabarmen agertu ziren eta antzeman zuten kasu egiten zietela, eta ordudanik jarraitu egin dute.*”
- “*Edo beharbada lehen bakarrik egon dira, eta jendearekin elkartzean gehiago direla uste dute. Edo agian pertsona bat horrelakoa izan ez arren, jarraitu egiten du berriro ere bakarrik ez geratzeko.*”

Antzeman daitekeen moduan, uste da protagonismo nahiaren edo atentzioa erakartzeko beharraren atzean afektibitate arazoak egon daitezkeela. Irakasle honen pertzepzioa ere ildo beretik doa:

- “*Hondoan arazo bat dagoenaren uste osoa dut... Eta gero atentzioa erakarri nahi duten bestelako haurrak daude, etxean beste mota bateko gabeziak dituztelako, afektiboak-eta.*”

4.2.2.5. Irakasleen metodologia

Gatazkak agerrarazteko beste faktoreetako bat bezala agertzen dena, bai behinik behin bizikidetza onarentzako kaltegarri gisa, irakasle batzuk, gizartean eta irakaskuntzan izandako aldaketen ondorioz, ikastetxeetan sortutako egoera berrietara ez egokitzea da.

Egungo irakasle asko egungoarena ez beste sistema batean prestatu ziren, antolakuntza azpiegitura ezberdinekin eta balio eskala ezberdinarekin. Egungo hezkuntza sistemaren eskakizunek, ez hasierako prestakuntzan ez etengabekoan, jaso ez diren gaitasunak exijitzen dituzte.

Desfase horren isla handiena talde ezberdinek, ikasle eta irakasleek batez ere, antzeman duten sententzioan agertzen da. Antza, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan erabilitako metodologia ez da egokiena. Hona hemen ikasleek eginiko adierazpenen adibide batzuk:

- “*Gaiak aspergarriak direlako, zer axola dizu zuri orain dela ehun urte hil den tipo batek...*”
- “*Oso txapalatak dira.*”
- “*Eskolak nola ematen dituzten ere eragina du. Batzuetan ariketak egiten dira eta gero ahoz, eta beste batzuetan irakasleak bakarrik hitz egiten du. Batean adi zaude, bestean zure munduan.*”

Egoeraz jabetzen diren irakasleak ere badira, ondorenean agertuko den iritziak erakusten duen moduan:

- “*...nik ez dut uste ikastetxeek egun bizitzen denari aurre egiten diotenik. Uste dut ez garela egokitu. Ez dakigu nola egin, ez dugu horretarako baliabiderik, beste modu batera*

irakasteko saiakera egiteko. Oraintxe bertan orain dela berrogeita hamar urte hildako maisuren bat berpiztuko balitz, nik egun ematen dudan eskola bera emango luke. Beraz, uste dut ez dakigula oso ondo nola egin. Beste era batera lan egitea ahalbidetuko ligukeen antolakuntzarik ere ez dugu.”

Azkenik, eta laburpen moduan, parte hartu duten ikastetxeetako bateko ikasketa-buruarren pertzepzioa aurkeztu da:

- *“Antzeman dugu arazo mota bateko gatazkak irakasle mota batera mugatzen direla. Nik uste dut metodologia kontua dela. Uste dut gatazkarako arrazoi garrantzitsuenetako bat irakaskuntza-ikaskuntza metodologia dela. Ikasle zailak ere badaude. Eta beste zailtasunetako bat ikasle eta maila aniztasunari emaniko arreta da. Hori metodologia kontua da.”*

Une honetara arte atal honetan esandakoa bilduz, ondoriozta genezake hezkuntza maila guztien pertzepzio orokorra dela ikastetxeak ez direla gatazka gehienen arrazoiak sortzen diren esparrua. Horrekin parte-hartzaileek ez dute esan nahi ikastetxeek eta beren jarduerak ez dutenik eraginik bizikidetzeta-maila on eta txarrean, baizik eta familiako eta gizarteko bizipenak direla ikastetxeetako bizikidetzan eragiten dutenak.

4.2.2.6. *Ikasleen kultura anitzeko jatorria*

Inmigrazioa bere horretan ez bada ere gatazkaren iturria, noski, onartu behar da etorkinen etorrerak egoera berriak sortu dituela gure gizartean eta, horiek behar bezala ebatzen ez direnean, gatazka egoerak ekar ditzaketela. Ikastetxeak bizi garen gizartearen isla diren neurrian, interesgarritzat jo zen talde ezberdinek zuten pertzepzioa ezagutzea inmigratioaren fenomenoaren eta eskolako bizikidetzaren arteko loturei zegokienez.

Aurretik argitzea komenigarria den kontu bat da, ikasle etorkinen banaketa oso ezberdina dela Erkidegoko ikastetxeetan, eta azterlan kualitatiboan parte hartu zutenen artean askok ia ez zutela biztanleria mota horretako ikaslerik, hortaz, bildutako informazioa egoera hori kontuan hartuta aztertu behar da.

Lehenik eta behin, nabarmendu beharko litzateke ez dela inolako kasutan adierazi ikasle etorkina edo etorkinen seme edo alaba dena gatazkatsua denik ezaugarri horrengatik. Hala eta guztiz ere, badirudi ikasleek oso kontuan hartzen dutela iritsi berria den ikasle berriaren jarrera.

- *“Guri XXgo bat etorri zitzaigun eta hasieran jo eta horrelakoak egiten zituen, baina gero, normal. Bortitza zen eta hango egoera ezberdina da, baina orain ikasi du hemen ez dela normala joka ibiltzea.”*

- **“Etorkinik ba al dago ikastetxean? Nolakoa da harremana?”**
- *Bere jarrera nolakoa denaren arabera.*
- *Jarreraren arabera.”*

Hau da irakasle talde batek emaniko iritzia:

- **“Ikasle etorkinak dituzue, nolakoa da gainerakoekin duten harremana?”**
- Gutxi dira, bi.
- Normala.
- Bietako bat berezi xamarra da, baina bestea ez dute baztertzen.
- Baina neska berezia delako. Ez etorkina izateagatik.”

Atzerriko jatorriko ikasle kopurua handia den testuinguruetan eta kultura ezberdineko kideen artean egoera gatazkatsuak sortzen direnean ere, arrazakeriarekin zerikusirik ez duten bestelako arrazoiak ematen dira. Hona hemen irakasleek parte hartu zuten eztabaida talde batean agerturiko iritzia:

- **“Uste al duzue inmigrazioak bizikidetza okerragora eramaten duenik?”**
- Ez, ez nahitaez.
- Nahitaez ez, baina bai marjinaltasunari uztarturik doalako.
- Nik uste dut marjinaltasunean kokatu behar dela. Gure ikasleak marjinalak dira oro har. Eta forma horiek guztiak zerikusia dute mugitzen diren mundu marjinalarekin. Ez du arrazarekin zerikusirik, marjinaltasunarekin baizik. Gero, badira beste herrialde batzuetatik datozen gazteak baina ez dira marjinalak, eta modu ezberdinean datoz.”

Mota horretako gatazkak ezagutzen diren kasuetan, sortzen dituzten egoera gatazkatsu posibleetarako arrazoi batzuk antzeman dira. Horietako bat taldean sarturik ez egotea izan daiteke. Hona hemen arrazoibide mota horren adibideetako batzuk:

- “Haiek, hasieran, lekuz kanpo sentituko direla pentsatzen dut. Baina gizarteratzen doaz. Arazoa da gehienak ahalmen gehiegirik gabe iristen direla eta laguntza geletan daude. Beraz, haiek gustura sentitzen diren tokia antzekoak topatzen dituzten taldean da, eta ez erreferentziako gelan.”
- “Gazteak ohartzen dira, beren arteko taldeak egiten dituzte jolastokian, beren tokia topatzen ez duten gazteak egoten dira eta horiek isolaturik geratzen dira.”
- “Txikitatik hasten direnekin ez da arazorik egoten, baina helduagoak badira, jada eraturiko taldeetan sartzen dira eta zailagoa izaten da bertakotzea.”

Inmigrazio ehuneko altuko ikastetxe bateko ikasleen eztabaida taldean bakarrik agertu ziren jokabide arrazisten iritzi batzuk, baina bildutako iritzi orokorra da ezin dela gatazka mailaren eta ikasleen jatorriaren arteko loturaz hitz egin. Etorkin kopuru altua duten ikastetxeetan ere, ez dago horrek bizikidetza txarra dakarrenaren sentsazioa.

4.2.3. **Gatazkak konpontzea**

Atal honen helburua ez da bakarrik Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, gatazka ezberdinak konpontzeko, aplikatu ohi diren prozeduren zerrenda aurkeztea. Helburu

nagusia ere ez da hori. Estamentu ezberdinek prozedura anitzen aurrean agertzen duten pertzepzioa da islatu nahi dena: horien gaineko justizia eta eraginkortasunaren gaineko balorazioa.

Gatazka baten aurrean jarraitzen den prozeduraz galdetzerakoan, neurri ezberdinak aplikatzen direla antzeman ahal izan da. Ez dago zalantzarik epe luzera prebentzioa dela gatazkak konpontzeko modurik eraginkorrena, baina gatazka gertatu den edo gertatzen ari den egoerari arreta emanez gero, antzematzen da horiek konpontzeko prozedurak aldatu egiten direla ikastetxe batzuetatik besteetara eta aldakortasuna gatazka mota edo larritasunarekin uztartzen dela.

Bildutako erantzunen artean honako neurri hauek aipa daitezke: banakako edo taldekako tutoretza saioak, bitartekaritza, ikasle laguntzaileen programak, ikuskaritza neurriak, jolas-garairako jarduerak antolatzea, komunitateari konponketa eta zerbitzuak emateko neurriak, banakako zigorrak, taldekako zigorrak, parteak, espedienteak irekitzea, ikastetxetik botatzea, poliziaren egoitzan edo epaitegietan eginiko salaketak, prestakuntza lana senideekin... Argi dago neurri horietako batzuen helburua pres-takuntzazkoagoa dela zenbait portaera eten edo menderatzeko, zigor izaera duten beste batzuen aldean.

Prebentzio handienekoetatik hasiz, batez ere tutoretzaren garrantzi handia azpimarratu da. Tutorearen irudia oso garrantzitsua da bai ikasleen bai familien erreferentzia badelako gai guztietarako eta, bat aipatzearen, bizikidetzarenerako. Taldeko tutoretza ikastetxe guztietan erabili ohi da, banaka planifikaturiko tutoretza hain ohikoa ez den bitartean. Gatazkak konpontzeko bide horiek bizikidetzeta hobetzeko ere erabiltzen dira eta, beraz, xehetasun handiagoko garatuko dugu hurrengo atalean.

Oro har, gatazkak jazo diren esparruan konpontzea helburu duten elkarrizketan eta parte-hartzean oinarrituriko jarduera guztiak baloratzen dira, horretarako ikastetxean bertan aurki daitezkeen giza eta zerbitzu baliabideak erabiliz. Eztabaida taldeetan parte hartu zutenei galdetu zitzaizen ea zer litzatekeen, beren ustez, ikastetxeak egin behar zuena seme-alabaren bati zerbait gertatuko balitzaio eta guraso batzuen erantzunen arabera uler daiteke familiek eskertu egiten dutela ikastetxeek komunikazio eta parte-hartze estrategiak erabiltzea:

- *“Nik uste dut ikastetxearen laguntza izango genukeela. Lasaitasun hori badut behinik behin. Normalean gaia aztertzen dute. Gatazka izan duten haurrekin hitz egiten dute, jarraipena egiten da...”*
- *“Eta nik uste dut garrantzitsua dela. Kasu honetan hizketaldia egon zen, ikasleei uste zutena adierazten utzi zieten, hori ere garrantzitsua baita, bakoitzak bere ikuspuntua eman zuen, eta gero guraso eta irakasleek. Arazoa eteteari dagokionez, uste dut guztiona izan dela pixka bat.”*

Ikasleek berenhezkuntza prozesu propioetako protagonista izan behar badute, logikoki parte hartu duten gatazken ebazpenean ere parte hartu beharko dute. Zentzu horretan elkarrizketa eta parte-hartzea ezinbesteko bi printzipio dira. Horixe zioen DBHko lehen zikloko irakasle-tutore batek:

- *“Batzuetan taldea izan beharko litzateke bere gatazken konpontzea dinamizatzen duena, tutorearekin batera. Ikasleek bideratu egin behar dute eta guk horretara bultzatu behar ditugu. Izan ere, gatazka batek besteengan ere eragina du.”*

Ondorenean aurkeztuko ditugun laburpenak bizikidetza-giro oneko ikastetxe batean gurasoen artean jasotakoak dira:

- *“Guk dakigunaren arabera, zerbait gertatzen denean, beren jarduna (irakasleena) be-rehalakoa da. Segituan jakinarazten dizute zerbait gertatu bada: zer gertatu den, zer egin den, egin diren urratsak eta azken konponbidea. Guk beti ikusi izan dugu Eskola Kontseiluan.”*
- *“Aipatu nahi nuen beste gauza bat da, zurekin hitz egiten dutenean, ez dela bakarrik zure alabak zerbait larria edo oso larria egin duelako; edozein txikikeriagatik jartzen dira zurekin harremanetan.”*

Bizikidetza-arazo ugari dituztela baieztatzen duten ikastetxeetan ere, hartzten ari diren neurrietako batzuk zerikusi handiagoa dute prestakuntza eta parte-hartze ildoarekin zigorren aldearekin baino. Hona hemen mota horretako jardueren adibidea. Kasu honetan sarrera ahalbidetu nahi zaie familiei bizikidetzaren hobekuntzan:

- *“Gero, egiten diegun bigarren proposamena da gelan sartu behar dutela laguntzeko. Hirugarrena da senideen prestakuntzarako planean prestatzera sartzeko. Haiek ere kezkatuak daude eta nahi izaten dute. Gero aztertzen ari garen beste batzuk (neurriak) daude. Lehentasuna ematen diegu komunitatearen onurarako eta konpontzaileak di-renei. Kaleratzei baino gehiago.”*

Gatazka maila handiagoko ikastetxe batzuetan, jolas-garaian pertsonen arteko harre-manak areagotzeko jarduerak eskaintzera zuzenduriko neurriak dituzte martxan, modu horretan gatazkei aurrea hartzeko. Mahai-jokoak aukera ona izan ohi dira. Ekimen horiek irakasle batzuen ikuskapen zorrotzarekin osatzen dira bai jolas-garaian eta baita korridoreetan ere, bereziki gelaz aldatzerakoan. Honela argitzen du ikastetxe horietako bateko orientatzaileak:

- *“Noski, jolas-garaian hiru jarduera talde garrantzitsu ditugu, irakasle batek oso ondo eramana; beste bat dibertimenduzko jokoekin, funtsean txinatarrak direnak eta jotzen den baten bat; eta gero beste bat dantza arabiarra eta hip-hoparekin... Eta gero jolas-garaian izan dezakegun zaintzarako irakasle multzoa, komunitatearentzako lanak ere ikuskatuz.”*

Bitartekaritza programak eta ikasleak beren ikaskideei laguntzeko baliabideetan bihur-tzeko helburuan oinarritzen diren horiek, ikasle laguntzaileak hain zuzen, ez dira oso ohikoak oraindik, baina pixkanaka antolatzen doaz ikastetxeetan, xehetasun handiagoz hurrengo atalean agertuko den moduan.

Erabat zigorrezkoak diren neurriak aztertzen hasi aurretik, merezi du ikasleen eta beren familien iritziak nabarmentzea, irakasleek gatazken prebentzio eta konponketan izan beharreko paperari dagokionez. Oro har ikasleek onartzen dute irakasleek esku hartzen dutela gatazkek ikastetxearen barruan izan direnean, eta positiboki baloratzen dute; izan ere, uste dute irakasleek, irakasteaz gain, hezkuntzarekin uztarturiko aldeei ere arreta eman behar dietela.

- **“Zer baldintza behar dira irakaslearengana jo ahal izateko?”**
- Igarri egiten zaio, ez dio horrenbesteko garrantzirik ematen ikasteari, beste gauza batzuei ere ematen die.
- Harremanari.
- Konfiantza, segun eta nola. Gizarteko gaiez hitz egin badezakezu, beste gai batzuez ere hitz egin dezakezu, eta ez bakarrik gelako kontuez.”

Parte hartzen ez duten irakasleekiko jarrera kritika ugarikoa da berriro ere ikasleen artean.

- **“Gainerako irakasleek maite ez zaituztela uste duzue?”**
- Ez.
- Ez da maite ez gaituztenik, baizik eta eskolak eman besterik ez dutela egiten, besterik gabe.
- Baina hori da irakasleen betebeharra. Eskolak eman behar dizkiote ikasi nahi duenari. Arazoa da ikasleekin ez direla konpontzen.
- Behin gertatu zen, ingeleseko eskolan, zarata handia zegoela. Irakaslea asko haseurretu zen, baina arazoa izan zen eseri eta eskolarik ez zuela eman nahi. Eta guztiak isilik geundenean, gelakide batek galdetu zion ea eskolarik eman behar zigun eta hark erantzun zuen eskola eman ala ez berdin ordainduko ziotela.
- Hark esan duenari dagokionez, alegia, irakasleak irakastera bakarrik datozela, nik uste dut borroka bat etetea ere irakastea dela.”

Familien aldetik ere, iritzi orokorra da irakasleek parte hartzen dutela gatazka egoerak izaten direnean. Taldeka eginiko elkarrizketetan parte-hartzaileen seme-alabak agertzen ziren egoera ezberdinak azalera ziren. Hau da ama batek eman zuen erantzuna:

- “Bai, irakasleek parte hartzen dute. Nik uste dut ikastetxearen funtzionamendua dela. Nik, arazorik txikiena sortu bezain laster, baieztatzeke aukera izan dut. Beti.”

Hala eta guztiz ere, esku-hartzea ikastetxetik kanpoko gatazka edo gertakariengatik agertzen denean, esku-hartze hori ez da beti onartzen. Badirudi irakasleek argi ikusten dutela ikastetxetik kanpo sortutako arazoak konpontzea ez dela haien eskumenekoa. Hona hemen adibide bat:

- “Gure ustez, arazoa zein den gorabehera, ikastolak ez du parte hartu behar. Ondo dago ikastolak laguntzea, baina adibidez ikastolatik kanpo sortzen diren kontu pertsonaletan ez du zertan sartu behar.”

Hala eta guztiz ere, ez da iritzi bera jaso kasu guztietan. Azpimarratzekoa da, gatazka maila handiko ikastetxeren batean, irakasleek onartu izan dutela ikastetxea bertatik kanpoko gatazkaren batean sartzea. Irakasle horiek esperientzia anitza dute esku-hartzearen

esparruan, udaleko eta gizarte zerbitzuak bezalako kanpoko beste estamentu batzuekin batera. Ondorenean, ikastetxe horietako bateko zuzendaritza taldeko bi pertsonak emaniko informazioa aurkezten da:

- **“Kanpoan gertatu ahal izan diren arazoez ere arduratzen al zarete?”**
- *Bai, bai. Lehen ikasleek esaten zuten ikastetxeko ordutegitik kanpo nahi zutena egin zezaketela. Orain jada ez dute zalantzan jartzen. Atzo bertan piper egin eta beste eskola batera batzuei itxaron eta jipoitzera joaten ziren lau ikaslerekin egon nintzen hizketan. Asteburu gehienetan istiluak izaten dituzte eta gero horrek hurrengo aste-buruan jarraitzen du. Eta inork ez du zalantzan jartzen gure esku-hartzea. Zigorrak ere jartzen dira.*
- *Eta kanpoan egin den zerbaitengatik jarri ditugu zigorrak; izan ere, kanpoan gertatu bada ere, ikasleak hemengoak dira.*
- **Hori aurrerapausoa da, ezta? Haiek ikus dezatela jarraipena dagoela barruan eta kanpoan eta funtzio hezitzailea agertzen dela.**
- *Ba bai. Gainera, oso zailak izan eta neurri judizialak dituzten gazteekin gertatzen da. Bitartekari gisa jarri gaituzte modu naturalean. Kontua da gainezka egiten dugula. Gure aldetik urrats hori eman dezakegu legitimazioz, baina ikusten da dakarten istorioa itzela dela eta ezin dugu urratsa eman prebentzioan. Adibidez, haiek ikusteko gatazka bat konpontzeko modua ez dela borroka egitea. Horretan bai iruditzen zaigula gainezka egiten dugula hezkuntza esparru gisa. Egia da, modu berean, gurekin hirugarren eta laugarren mailatan jarraituz gero, normalena bide hori uztea izaten dela.*
- *Hori ohikoa izaten da. Beste irakasle batzuek esaten digute ‘zerbait egin izango dutela lehenengo eta bigarren mailan’. Lehen gatazkatsuak ziren gazteak hirugarren mailara iritsi eta... adinak ere badu zerikusirik. Aldaketa antzematen da. Zerbait egingo genuen, edo zerbait gertatu izango da.”*

Irakasleen esku-hartzea baloratzen bada ere, ikasleek ez dute beti haiengana jotzen gatazkak ikasleen arteko tratu txarreko egoerak direnean. Puntu horrekiko galdeketetan jasotako erantzunetan sakontzeko asmoarekin, elkarriketetan errudun edo errudunen salatzearen kontua agertu zen, erruduna nor den jakinez gero. Horretarako, ikasleen galdeketan aipaturiko dilematako bat adierazi zen berriro. Hona hemen dilema:

Dilema:

Lagun talde bat gelan kide batekin izandako arazoari buruz hitz egiten ari da. Mutil batetaz ari dira, Anderrez, beste ikasle talde batek sekulakoak egiten dizkio. Eztabaidan ari diren lagunak iritzi ezberdinak dituzte. Adierazi zure iritziarekin bat datorrena:

1. Ezin da ezer egin. Kontakatilu izatea okerrena da.
2. Ez du merezi ezer egitea, denborarekin pasako diren gauzak dira. Bitartean jasaten jakin behar da.
3. Askoz hobe hura defendatzen ez hastea, azkenean zerbait egiten baduzu zeure kontra joaten dira eta.
4. Nahiz eta kontakatilu deitu, hobe da irakasle bati esatea.

Bildutako informazioaren azterketatik baieztatu daiteke ikasleek oso argi dutela zer egin beharko litzatekeen, nahiz eta egiten dutela esaten dutena beste gauza bat izan. Ohar-tzen dira eraso edo tratatu txarra jasotzen duen pertsonari lagundu egin behar zaiola, bai hura defendatuz edo bai irakasleengana joaz. Baina egingo luketela adierazten dutena, eta praktikan ere antzematen dena, edo kasua sortuko balitz egingo luketena, arazotik aldentzea izango litzateke, gatazkan parte-hartzeak ekar ditzakeen ondorioen “beldur” direlako, edo salatari gisa har ditzaketelako.

Hona hemen bildutako erantzunetako batzuk:

- “Hoberena laguntzea da, baina egiten dena isilik geratzea da.”
- “Ezer ez egitea, ze sartuz gero zuri kalte diezazuke.”
- “Nik uste dut egin beharrekoa azken aukera dela (irakasleari jakinaraztea) baina benetan egiten dena lehenengoa da (ezer ez egitea, kontakatilu izatea okerrena delako).”
- “Irakasleei jakinaraztea ez da hoberena, haien artean konpondu beharrekoa da.”
- “Baina zer kontu diren gorabehera, irakasleek ezin dituzte gauza horiek konpondu.”

Hona hemen ikasketa-buru baten eta irakasle baten iritziak:

- “Gauza horien inguruan noizbait hitz egin dugunean esan izan dute: ‘gauza bat da zer egin beharko litzatekeen eta beste bat zer egingo nukeen’.”
- “Nik uste dut ez dutela ezer esaten beldurratetik.”

Eta azkenik, hona hemen ama eta aita baten iritziak:

- “Baina hitz eginda, esaten dizu hori ez dela kontakatilu izatea, laguntzea baizik. Baina egoera horretan egongo balitz, ez dut uste jakinaraztera joango litzatekeenik.”
- “Argi dute zer den egin beharko luketena, baina...”

Horrek ez du esan nahi irakasleekin hitz egitera ausartzen den ikaslerik ez dagoenik. Ondorenean aurkezten den laburpena, adibidez, DBHko 2. zikloko ikasleen arteko elkarrizketa da:

- “Irakasleak ohartzen dira gertatzen denaz. Gu baino lehenago eta guzti.
- Gainera, gu haiei kontatzera joaten gara. Nik ikusten badut gazte bati tratatu txarrak ematen dizkiotela bai joaten naizela horren berri ematera.
- **Nahiz eta kontakatilu deitu?**
- Nahi dutena dei diezadakete.”

Zigor motako neurriei dagokienez, jarrera orokorra horien eraginkortasuna zalan-tzan jartzea da. Bildutako erantzunetan iritzi orokorra agertzen da eta, horren arabera, zigortzeko neurriak aplikatu aurretik, bestelako aukerak agortu beharko lirateke eta zigorrak muturreko kasuetarako utzi.

Zigorrak oro har ez dira nahikotzat jotzen esku hartzeko bide bakar gisa eta horietatik zenbait neurrik gaitzespen berezia sorrarazten dute. Ikasleei dagokienez, azpimarra-

tzekoa da taldeko zigorren aurka daudela erabat ez zaizkielako bidezkoak iruditzen. Eztabaida talde ezberdinetan kontu hori agertu da, eta kasu gehienetan argi eta garbi aurka daudela adierazi dute. Hona hemen DBHko lehenengo zikloko ikasleei dagokien adibidea:

- *“Ni ez nago ados batek gauza bat apurtu eta guztiok ordaintzearekin. Irakasleak esaten digu batek zerbait apurtu eta gainerakoek nor izan den jakin eta ez badugu esan nahi, ohar anonimo bat utz dezakegula. Eta bestela, guztion artean ordainduko dugula.”*

Kaleratzei eta ikastetxe aldaketei dagokienez ere, hainbat zalantza agertzen dira neurriaren eraginkortasunaren gainean. Ondorengo adibidean DBHko 2. zikloko ikasle batek adierazitako iritzia ikus daiteke:

- *“Izan ere, etxera bidaltzen badituzte, baztertuta jarraitzen dute. Gurasoek ere baztertu egiten dituztelako. Horrek ez du ezertarako balio. Ez dakite haiek gidatzen.”*

Gurasoen aldetik ere, zalantzak antzematen dira zentzu horretan. Txartzat jotzen dute kaleratua den ikasleen kasuan, baina abantailatsua taldearentzat. Hala eta guztiz ere, iritzi orokorra da neurriak berak ezintasuna agertzen duela, eta izapidea konplexua dela. Hona hemen Eskola Kontseiluko gurasoek osaturiko eztabaida talde batean hitz egindakoaren zati baten transkripzioa:

- **“Konponbidea espedienteak direla uste al duzue?”**
- *Ez da konpontzen, baina bai konpontzen dela gainerako haurren arazoa.*
- *Lanerako ikastegiak, edo...*
- *Baina horrelakoak existitzen dira jada.*
- *Ez dakit.*
- *Baina kaleratzea posible izan dadila horrenbesteko izapiderik gabe.*
- *Egokitu egin behar dute. Nik badakit zaila dela, haurrak direlako.*
- *Baina gela osoari eskubidea kentzen ari zara bakar baten erruz.*
- *Zer konponbide du? Gela berezi bat? Ez dakit. Oso zaila da.”*

Hona hemen ikasketa-buru baten zalantzak:

- *“Ez dakit. Beharbada, zenbait kasutan, arrazoizko neurria izan daiteke. Baina modu berean ez zait iruditzen hamaika urteko haur bat ikastetxez aldatu behar denik. Oso gogorra iruditzen zait.”*

Azkenik, azkenaldian geroz eta gehiago antzematen ari den fenomenoaren inguruan galde egin zitzaizen, ikastetxeetako zenbait gatazka konpontzeko bide judiziala erabiltzearena, alegia. Oso zabalduta ez dagoela iruditu arren, oso larriak diren gatazka egoeretan izan ezik, gaia aztertu duten taldeetan antzeman da bide judiziala erabiltzeak ikastetxeetako bizikidetza errealitatea desitxuratzea dakarren aukera dela. Ikasketa-buru batek honakoa dio:

- *“Ni kezkatu egiten nau horrek. Oso gaizki deritzot. Azkenean betikoa da, gizarte amerikarrarekin geroz eta antza gehiago du. Guztia epaitegietara eramatea.”*

Hezkuntza gatazken judicializazio prozesu hori gizartearen isla da eta irakasleek ez dute uste oso eraginkorra denik:

- *“Lehen, sekulan ez litzaioke aita bati bururatuko salaketa jartzea semeari betaurrekoak apurtu dizkiotelako. Gaur egun, epaiketetara iristen dira. Ez dut uste hezkuntza denik judicializatu dena, gizartea baizik. Hor bai esku hartu beharko litzatekeela. Ez litzateke utzi behar gauza horiek epaitegietaraino iristen.”*

Familiei ere ez zaie biderik egokiena iruditzen, baina iritzia zehatzagoa da gehiegikeria kasuak ikasleen artean izaten direnean. Uste dute logikoa dela gurasoek beren seme-alabak laguntzen saiatzea edozein modutan tratatu txar egoerak pairatzen dituztenean.

- *“Zuk uste baduzu zure semeak bullying-a pairatzen duela, deitu eta ez badizute kasurik egiten, berriro deitu eta kasurik egin gabe jarraitzen badute... zerbait egin behar da.”*

Bide judiciala erabiltzearen inguruan, badira kanpoko elementuak erabiltzen dituzten beste hainbat neurri, gizarte edo udal zerbitzuak edo polizia, esate baterako. Parte hartu duten hamar ikastetxeetan bildutako informaziotik, oso kasu jakinetan bakarrik aipatu dira mota horretako esku-hartzeak eta oso ohikoa ez den jardunbidea islatzen dute.

4.3. IKASTETXEAREN JARDUERAK BIZIKIDETZA HOBETZEKO

Aurreko atalean, gatazkan konpontzeko bideen artean izaera prebentiboa zutenak komentatzerakoan, logikoki gatazkei aurrea hartzeaz gain, bizikidetza hobetzen laguntzen duten jarduera ugari aipatu dira jada. Hala eta guztiz ere, elkarrizketetan eta eztabaida taldeetan bestelako ekimen oso interesgarriak aipatu ziren, eta atal honetan garatuko dira.

4.3.1. *Elkarrekin bizitzen irakastea*

Ikastetxe bateko bizikidetza egokia izateko faktore garrantzitsuenetako bat ematen zaion garrantzia da. Logikoki, gaian ardura agertzen duen ikastetxe batek pertsona ezberdinen arteko harreman egokien lorpenean, arrakasta handiagoa izaten lagunduko duten itxaropenak sortuko ditu. Itxaropen horiek irakasleengan nahiz ikasleengan sortu behar dira, eta baita gurasoengan ere.

Azpirarratzeko moduko lehenengo adierazpena da, elkarrizketaturiko talde guztiek onartzen dutela bizikide izaten ikas daitekeela. Alde horrek berebiziko garrantzia du, bizikidetza hobetzeko ezinbestekoak diren gaitasunak irakastearen aldeko jarreratik abiatzen dela dirudielako. Irakasle eta familiek irakasteko ardura izango dute eta ikasleak oharitzen dira ohiko irakasgaiez gain beren prestakuntzarako garrantzitsuak diren beste alde batzuk ere ikasi behar dituztela. Ondorioz, haiek guztiak bat datoz ikasketa horiek garrantzitsutzat jotzerakoan. Hona hemen irakasleen iritzietako batzuk:

- *“Eguneroko menuaren osagaia da.”*
- *“Gai horrekin kezkaturik gaude eta gure programazioa balioetan oinarritzen da. Ikasgaietan eta tutoretza orduetan lantzen dugu.”*
- *“Hemen hazia jartzen dugu eta fruiturik jasotzen ez duzunaren sentsazioa duzu, baina beren bizitzan parte hartzen duzu.”*

Irakasle batzuk etekinaren eta bizikidetzaren arteko harremanaz ohartzearen garrantzia azpimarratzen dute edo, zehazkiago, bizikide izaten ikastea curriculumaren ezinbesteko aldea dela jabetzea. Ideia hori ondorenean aurkeztuko den irakasle baten parte-hartzean bildu zen:

- *“Arrakasta akademikorik ez izateagatik frustrazioa bizi duten gazteak dauden neurrian, horrek bizikidetzari eragin diezaioke. Baina beno, ikastetxe hau nahikoa homogenea denez, hobeki daramagu. Ez da gauza bera gehienak onak izatea eta hiru edo lau okerrago ibiltzea. Hobe da gaiztoa izatea tontoa izatea baino. Hemen denetatik dago, baina curriculum maila baxuko ikasle talde garrantzitsua dago. Zaila da. Hasiera batean adetasun lan osagarria egin dezakezu. Ikastetxean erreferentziako esparrua topa dezatela, etekin baxuak alde batera utzita. Uste dugu parte-hartzea komunitatearena dela, bizikidetzaren aldeko lan esplizituak eta etekinen hobekuntzak bateratuta egon behar dutela. Bateria-tasuna egon behar da. Besteak beste, gela eta balioetan eraikitako hezkuntza etekinekin batera joan dadila, batez ere solidaritatearekin. Kontua da ni zuri laguntzen saiatzea, “ikasleen artean”, beharrezkoa delako. Itzulpena, edota erregulazio emozionala. Gu baino hobekiago egoerak bideratzeko gai diren ikasleak. Oro har, kontu hau jendearen bizitzari lotzen ikasten dugun heinean... Oso utopikoa da, baina horretarantz abiatu behar dugu. Bizikidetzak hobetzea eta etekinak hobetzea batera doaz.”*

Ikasleek ere garrantzitsua dela uste dute ikastetxeak pertsonen arteko harreman positiboak eratzen irakastea:

- *“Nik uste dut bizikide izaten irakatsi daitekeela.”*
- *“Nik uste dut hori (bizikide izaten) dela irakatsi behar dena.”*
- *“Nik uste dut denbora gehiago eskaini behar zaiola bizikide izaten irakasteari eskolak emateari baino.”*

Hala eta guztiz ere, irakasleak jabetzen dira familiarekin batera garatu beharreko lana dela, eta epe luzera gainera.

- *“Eta pixkanaka ikasi egiten da. Modu berean egun bateko edo biko kontua ez dela badakigu. Eta nik uste dut horrela ikasi egiten dela.”*
- *“Baina luzapen bat izan behar da. Etxearen eta eskolaren artean. Guztia izan behar da pixka bat.”*

Lankidetzak hori da azpimarratu beharreko bigarren aldea. Ikastetxeko talde guztiek onartu zuten, ikasleak hezteko lanak ezin duela ikastetxearena bakarrik izan. Familiek lan handia egin behar dute. Gainera, batzuen eta besteen lanek koordinaturik egon behar dute guztiek zentzu berean aurrera egiteko.

- *“Nik uste dut ikastetxeak lan handia duela egiteko, baina beti gurasoen babesarekin.”*
- *“Gure lana oztopatzen duen gauzatarik bat gurasoen jarrera da gatazkaren bat egon eta irakasleen erabakia edo jarduna zalantzan jartzen denean.”*

- *“...lan egiten da, baina ikastetxean ere ezin dira mirariak egin. Gurasoek zer egiten dutenaren gaia oso garrantzitsua da. Izan ere, antzeman egiten da gurasoek noiz funtzionatzen duten eta noiz ez.”*

Beste faktore garrantzitsu bat, bizikide izatearen lanari ematen zaion garrantziarekin zuzenean uztarturikoa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren prestakuntza izaera onartzea da. Ikastetxe bat ohiko ikasgaiak (matematikak, gaztelania,...) ikasleei irakasteaz bakarrik arduratzen bada, ez da posible izango funtzio hezitzailea betetzea. Ikastetxearen lana ezin zaio horri bakarrik atxiki. Hau da, irakaslea hezitzailea izatearen uste osoa izan behar da, eta ez bakarrik irakaslea.

- *“Gure lehen ardura pertsona da eta bigarren mailan matematikako ikaslea geratzen da. Eta hori horrela da, argi dugulako hezitzaile izan nahi dugula, eta hori dela gizarteak exijitzen diguna.”*

Zorionez, elkarrizketaturiko irakasle gehienek alde hezitzaile hori onartu zuten.

- *“Nik uste dut gu hezitzaileak garela. Ikastetxe batzuetan oraindik irakasleak direla uste dute. Dударik gabe, bide horrekin gertatzen dena da ez dela erraza. Irakaslearengan transformazioa gertatu da, eta horrelakorik izan ez duena gaizki dabil.”*

Guztiek, ordea, ez dute iritzi bera. Hona hemen, esate baterako, aztertutako ikastetxeetako bateko ikasketa-buruak emaniko iritzia:

- *“Baina ez, heziketa etxean. Gu, irakastera.”*

Hala eta guztiz ere, oro har Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleek ikastetxeko bizikidetzaren aurrean agertzen duten sentsibilitatea altua da eta, ondorenean aurkeztuko den iritzia jabe den irakasleak onartzen duen moduan, kasu askotan prebentzio lana egitean datza eta, beste batzuetan, ekintza zuzenak egitean, ezohiko gertakariren bat gertatzean.

- *“Bi bide bezala ditugu: bata prebentzioa da, etengabeko ikuskapena, alegia, eta bestea zuzeneko ekintzak garatzea.”*

4.3.2. **Prestakuntza**

Adierazpen gehienetan uztartu egiten da bizikidetzaren irakastearen aldeko sentsibilitatea ikastetxeko irakasleen prestakuntzarekin. Prestakuntza behar hori irakasleek aldarrikatzen dute. Jabetzen dira gizartearen aldaketaz, baina hala eta guztiz ere, ez dakite benetan aldaketa horietarako prest dauden.

- *“Agian prestakuntza behar dugu. Ohartzen gara gizarteak aldatu egin dela eta ez dakit noraino aldatu garen gu.”*
- *“Nik ez dut uste ikastetxeak egun bizitzen denari erantzuna ematen dionik. Uste dut ez garela egokitu. Ez dakigu nola egin, ez dugu horretarako baliabiderik beste modu batera irakasteko saiakera egiteko.”*

Zentzu horretan, azterlan kualitatiboan parte hartu duten ikastetxe guztietan irakasleen, ikasleen eta/edo gurasoen prestakuntzarekin uztarturiko jardueraren bat dute. Kasu

askotan gainera, azken urteotan, prestakuntzarako jarduerak oso uztarturik agertzen dira ikastetxeko bizikidetzarekin. Hala eta guztiz ere, prestakuntza jarduerak ez dira beti ikastetxearen plan baten barruan egoten, baizik eta pertsona partikularrek edo ikastetxeko talde jakin batek izan dezakeen interesetik ematen zaie arreta.

Ikastetxe batzuetan egiten ari den prestakuntza lana Berritzegunee³ koordinaturikoa da, bertatik eskolako bizikidetzarekin uztarturiko zenbait programa eskaintzen baitira. Programa horien barruan agertzen den programatako bat *Gernika gogoratzuz* izenekoa da eta gatazken kudeaketaren bidezko bitartekaritzan adituak prestatzeko helburua du. Modu berean ikastetxe batzuk bere garaian Lehen Hezkuntzan hasi zen plan integrala dute, eta orain, egokitzapenak barneratuz, Bigarren Hezkuntzara igarotzen dabilta. *Bitartekariak* programaren kasua da.

- *“Lehen Hezkuntzan ‘bitartekaria’ programarekin hasi ziren eta, orain, proiektua aprobetxatzen gabiltza Bigarren Hezkuntzan ere horrekin jarraitzeko.”*
- *“Bai, gatazkak ebaztearena lau ordu dira. Irakasle, ikasle eta gurasoentzat. Kanpoko pertsona bat etorri ohi da, kanpoko kabinete batetik.”*

Ikastetxeren batean ikasleen prestaketarako programa bat egin dute. Helburua ikasleak berak prestatzea da bitartekari izan daitezen eta ikasleen arteko gatazketan bitarteko lanak egiteko gai izan daitezen.

- *“Gazteak bitartekari gisa prestatzea da helburua, ikasleen arteko gatazketan.”*

Parte hartu duten ikastetxeetako batean garaturiko beste programatako batek, *Geuk* programak, prestakuntza eskaini zuen irakasle guztientzat eta, horrez gain, ikasle, irakasle eta familiekin osaturiko batzordea dago. *Gernika gogoratzuz* programarekin gertatzen zen moduan, programa honek ere balorazio oso onak ditu. Hona hemen irakasle baten erantzuna izan zezakeen garrantziaren aurrean:

- *“Uste dut gure artean baietz. Irakasleen artean bai, beste filosofia bat dago gai hauen aurrean. Beste modu batera esku hartu behar dugula dakigu. Badirudi teoriaren bat geratu dela.”*

Ikastetxe batzuetan ere saiitzen dira gurasoak prestakuntza plan horietan sartzen, nahiz eta lorturiko emaitzak urriak izan diren haien parte-hartzea oso txikia izateagatik.

- *“Modu berean hizketaldiak antolatzen ditugu gurasoekin, baina erantzuna ez da oso handia izaten.”*

Ikastetxeren batean, ordea, modu isolatuan jorratzen den gaia da eta bizikidetzarako prestakuntza eskolatik kanpoko erakunderen batek emaniko hizketaldiren batera mugatzen da.

- *“Egin dugun gauza bakarra, udaletxeak proposaturiko bizikidetzaz-hitzaldietan parte hartzea izan da. Ikasleentzat sei ordu izan ziren.”*

³ Berritzeguneeak zonalde bateko irakasleen berrikuntzarako edo babeserako zentroak dira.

- *“Tailer bat egin zen eta bi neska etorri ziren harremanen inguruan eta hitz egitera.”*

Hezkuntza Sailak eskainitako bizikidetzaren hobekuntzarako programa zehatzei dago-kienz, positiboki baloratzen dira baina irakasle batzuk adierazi zuten zenbaitetan ez dela lortzen irakasleak motibatzea parte hartzeko baldintzak ez direlako egokiak. Izan ere, irakasleen liberazioak eman beharko lirateke. Baina, oro har, ia ikastetxe guztien ardura altua da, ikastetxeko bizikidetzaren inguruko gaietan prestatzeko beharrari da-gokionez.

4.3.3. **Bizikidetzarako Batzordea**

Elkarrizketetan Bizikidetzarako Batzordearen gaineko informazioa bildu zen, ikastetxeko komunitateko talde ezberdinek egiten zuten balorazioa zein zen baieztatzeko, hain zuzen ere, bizikidetzaren hobetzeko diseinaturiko organo horren gainean.

Ikastetxe gehienek Bizikidetzarako Batzordea dute, eta ez dutenek eratzeko bidean dute. Normalean zuzendaritza taldeko norbaitek, guraso batzuek eta irakasle batzuek eratzen dute. Kasuren batean, nahiz eta oso ohikoa ez izan, irakasleen ordezkari batzuk parte hartzen dute. Puntu hori nahikoa eztabaidagarria da; elkarrizketetan eta eztabaida tal-deetan parte hartu zutenetako batzuek interesgarritzat jo bazuten ere ikasleek batzordean parte hartzea, beste batzuek ezezkoa eman zuten. Iritzi alde hori batzordeari ematen zaion funtzioaren arabera da. Batzordea zigorrak ezartzeko organoa dela uste bada, gehiengoaren iritzia ikasleen parte ez hartzearen aldekoa izan ohi da. Funtzio horrez gain, prebentzio edo gatazken antzemate funtzioa ere izango balu, ikasleen parte-hartzea ezinbestekoa izango litzateke.

Irakasle eta familia gehienek iritzia da, hasiera batean, batzorde horri gatazken pre-bentzioa, bizikidetzaren hobekuntzarako neurriak martxan jartzea eta horien jarraipena egitea barne hartzen dituzten funtzioak eman bazitzaizkion ere, ikastetxe gehienetan onartzen ez diren jokabideak zigortzeko balio duen organoa bihurtu dela.

- *“...astero biltzen ziren, gauzak egiten ziren, ez bakarrik zigorrak jarri. Denbora epe laburrean; gertatu egiten zen eta konpondu. Baina gero zigorrak ezartzekoa izatera igaro zen.”*
- *“Eskola Kontseiluaren izaera informatiboagoa da, Bizikidetzarako Batzordearena berriz, zigortzaileagoa.”*

Hala eta guztiz ere, ez da gauza bera gertatzen ikastetxe guztietan.

- *“Niretzat Bizikidetzarako Batzordea ez da bakarrik epaimahai bat, baizik eta kasu ho-rietara ez iristen lagun dezaketenek neurriak ezartzen dituen organoa.”*
- *“Ez da zigortzailea soilik.”*

Kasu horietan azpimarratzen da batzorde horrek gatazkek antzemateko sistema azkarra eta eraginkorra izan beharko lukeela, beharrezkotzat jotzen den esku-hartzea berehala martxan jartzea ahalbidetuz. Horretarako, irakasleek berriro azpimarratzen dute, aurreko ataletan adierazi den moduan, garrantzitsua dela adi egotea eta irisga-riak izatea:

- **“Eta, zein uste duzue dela gakoa harreman onak izateko?”**
- *Komunikazioa. Nik uste dut garaiz moztu behar dela, gauzek aurrera egin baino lehen.”*

- *“Orduan bai uste dudana da ganean gaudela, gazteak ezagutzen ditugula, nahikoa irisgarriak garaia.”*

Hala eta guztiz ere, azterturiko ikastetxeetako batzuetan egoera bitxia topatu dugu. Bizikidetzarako Batzordea, Antolakuntza eta Jarduera Araudia sortzerakoan eta organo eskusiboki zigortzailea bilakatzean, ikastetxeko bizikidetzaren inguruko bestelako funtzioak biltzen dituen batzorde osagarriren batekin osatu da, askotan bizikidetzaren hobekuntzara zuzenduriko programa zehatzen bat martxan jartzearekin uztartuta. Kasu guztietan, zuzendaritza talde, irakasle eta familiez gain, ikasleek ere parte hartzen dute. Ez dirudi batzorde bikoitzeko eredu hori egokiena denik, izan ere, Bizikidetzarako Batzordeak eginkizun hori hartu beharko luke bere gain, eta ordezkari izan estamentu guztien partetik, ikasleena barne.

- *“Izan ere, bi ezberdin daude: bata Bizikidetzarako Batzordea, ikastetxearen araudiaren barruan dagoena, eta bestea aurtengoa, proiektu honen ingurukoa, Bizikidetzarako Batzordearena ‘Elkarbizitza’ programako zuzendaritza eta koordinatzaileak bezalako kideekin, bestelako irakasle, ikasle eta gurasoekin.”*
- *“Bai. Paraleloa da. Ikasleen parte-hartze handiagoarekin.”*

4.3.4. **Tutoretza**

Parte-hartzaileen adierazpen guztiek indar berezia jarri zuten tutoretza jardueraren garrantzian. Ia ikastetxe guztietan ordubete inguru eskaintzen diote tutoretzari. Ordu horretan tutorea ikasleekin biltzen da eta tutoretzako jarduera planean diseinaturiko zenbait jardura garatu. Horien artean, garrantzi handia ematen zaio, hain zuzen ere, balioen, autonomia pertsonalaren eta bizikidetzaren gaineko lanari.

- *“Tutoretza lan oso ona da prebentziorako.”*
- *“Hemen ordubeteko tutoretza dugu astero. Hitz egin egiten da eta orientatzaileak tutoretza lana arautzen du.”*
- *“Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetako bat tutoretza da. Eta tutoretzan materialak sortu dira. Eta iristen direnean, jaso, aztertu eta ikasturte bakoitzerako sailkatzen dira.”*

Beste kasu batzuetan, prozedura indukziozkoa da eta, tutoretzako jardura planean aurreikusitakoa alde batera utzita, esparru hori erabiltzen da sortu ahala antzematen diren arazoei arreta emateko. Ikasleengan antzemandako beharren arabera, kezka eta aste horretan zehar eman diren arazoaren arabera, talde bakoitzean eztabaidatuko diren gaiak agertzen dira.

- *“Tutoretzan, gatazkaren bat antzematen bada, lan egiten da.”*

Ikasleek, oro har, tutoretza orduetan kezkatzen dituzten gaiez hitz egiteko askatasuna dutela onartzen dute, inolako hertsapenik izan gabe.

- *“Bai, pertsonaren arabera da. Ez dago hitz egiteko beldurrik.”*
- *“Tutorekin bai.”*

Edonola ere, ordu horietan jorratzen den gai garrantzitsuenetariko bat ikastetxeetako bizikidetzarena da, bai gelakideekiko harremanen ikuspuntutik bai gelako talde gisa, eta baita ikastetxean ere. Zentzu horretan, ohikoa izaten da ikastetxeetan gelako eta ikastetxeko araudia berrikustea ikasturte hasieran, eta ikasleei aldaketak proposa ditzaketela jakinaraztea.

- *“Tutoretza orduetan urtero bai egiten dena arauen gaia lantzea da. Hain orokorra izanda, ezin da aldaketa gehiegirik egin, baina ikasleekin gaia lantzen saiatzen gara.”*

Interesgarria da ikastetxe batzuk tutoretza orduan araudia lantzeko duten modua. Guztien artean arau bakoitza uztartzen dute lortu nahi den balioarekin eta ekidin nahi den jokabidearekin. Ikasleak berak dira araua (normalean ikastetxeak proposaturikoarekin bat etortzen da) eta hori urratzeak dakartzan ondorioak (normalean ikastetxeak ezarritakoa baino zigor handiagoa izan ohi du) idazten dituztenak.

Ikastetxe batzuk garatzen ari diren eta emaitzak ematen hasi den beste ekimen interesgarri bat banakako tutoretzena da. Kasu horretan, tutorea, aldizka eta sistematikoki, ikasleetako bakoitzarekin elkarrizketatzen da banaka, interesekoak dituen gaiak jorratzeko. Logikoki, kasu horretan ikasleek hitz egiteko askatasun gehiago dute. Honako balorazio hau egiten du ikastetxeko irakasleetako batek:

- *“Niri ezinbestekoa iruditzen zait. Oso interesgarria da. Hain zuzen ere, guk tutoretzako lehenengo jarduera plana egin genuenean, orain dela zortzi urte jada, hausnarketa hori atera zenean, horregatik izan zen, harreman zuzena behar zen haiekin. Gelan ez dizu denborarik ematen, gauza asko aztertzeke geratzen dira eta hitz egin beharrekoak dira. Neurri estrukturala behar du izan. Eta zentzu horretan ikastetxearen aldeko apustu garbia antzeman behar da.”*
- *“Hasi ginenean, igarri egin genuen. Gure artean aipatzen genuen ‘Nola antzematen den gazte batekin hitz egin duzunean.’ Ez bakarrik gatazkak daudenean. Hobe da aurrea hartzea gero damu izatea baino. Edo haiekin hitz egiten baduzu arazoak iritsi baino lehen. Egiten duguna prebenitza da.”*

Ikasleek ere oso modu positiboan baloratzen dute. Hona hemen beren iritzien gaineko laburpena:

- **“Banakako tutoretzara joan zaretenak, zer moduz?”**
- Ondo.
- **Taldeko tutoretza baino hobeto?**
- Bai.
- *Banakako tutoretza oso ezberdina da taldekakoaren aldean. Taldekakoan bestelako gaiak jorratzen dira.*
- **Beraz, ondo baloratzen duzue. Beste ikastetxe batzuei gomendatuko zeniekete bide hori?**
- Bai (aho batez).”

Elkarrizketetan eta eztabaida taldeetan sarritan agertu den aldeetako bat tutoretzetarako beharrezkoa den denbora da. Badirudi astero ordubeteko tarte taldekako tutoretzarekin ematen dela. Horregatik, beharbada astero ordubeteko tarte taldekako tutoretzetarako eta beste ordubete astero irakasleak ikasleetako bakoitzarekin elkarrizketatzeko ematea pentsatu beharko litzateke.

- *“Ordu gehiago egon beharko lirateke tutoretzarako.”*
- *“Bai, denbora gehiago tutoretzarako.”*

Bestalde, banakako tutoretza orduetako jarduerak ardua denbora gehiago eskatzen dute irakasleen partetik, baina denbora hori ez da langile taldeen horniduran aurreikusten. Hala eta guztiz ere, puntu hori lehenasunezkotzat zuten ikastetxeetan ordutegiak antolatu egiten dituzte Bigarren Hezkuntzako lau ikasturteetan denbora hori bermaturik gera dadin.

Tutoretzaren funtzionamendu zuzenerako ezinbesteko elementua ordezkarien egitura da. Ikastetxe batzuetan ia funtziorik ez duen dekorazio irudia besterik ez bada ere, beste batzuetan aldizka biltzen dira beren artean eta zuzendaritza taldeko kideekin, besteak beste, ikastetxeko bizikidetzarekin uztarturiko gaiak jorratzeko. Biler horietan harturiko erabakiak gainerako ikasleei jakinarazi behar zaizkie, horretarako tutoretza orduak erabiliz.

- *“Ordezkariekin egiten diren asanbladak eraginkorrak izan ohi dira. Nik uste dut ondo sentitzen direla ordezkariak beren funtzioa dutela ikustean, eta parte-hartzaile sentitzen dira. Haiek gelakide guztiei jakinarazten diete tutoretza orduetan. Hori programaturik dago.”*

Azkenik, ikasle guztiak ezagutzeko ahalmen horrekin estuki loturik eta izan ditzaketan beharrei banakako arreta emateko, zenbaitek gela berean irakasten duten irakasle kopurua gutxitzea eskatu du. Kasu batzuetan zenbaki hori hamar baino handiagoa izan daiteke. Irakasle berdinarekin elkarrekintza izateko aukera gehiago edo gutxiago izatea eragin daitekeen bizikidetzamotarekin uztarturik dago.

- *“Gela bakoitzetik irakasle gutxiago igarotzea, esparruka antolatzea eta ez horrenbeste hamabi irakasgaika. Horrek ere bizikidetzarekin du zerikusia.”*

4.3.5. **Harrera plana**

Ikastetxean sartu berriak diren ikasleentzako harrera plana tutoretzako jarduera planaren ekimen osagarria da eta kasu askotan haren zatitzat hartzen da. Oraindik ikastetxe eta institutu gutxi du sistematizaturik, baina geroz eta zabalagoa den praktika da eta ziurrenik gutxi barru orokor bilakatuko da.

Plan horietan arreta berezia ematen zaie Bigarren Hezkuntzako ikasleei eta, horien barruan, Lehen Hezkuntzako ikastetxeetatik datozenei. Ikastetxe batzuetan jarduketa plana dute ikasle horren integrazioa errazteko.

Bestalde, zenbait ikastetxeetan ere aurretik inorekin harremanik izan gabe iristen diren ikasle berrientzako arreta aurreikusten da, ikasturtea hasi aurretik edo behin hasi denean. Kasu horietarako ere, parte hartzeko jarraibideak eskura dituzte.

4.3.6. **Bitartekaritza programak eta ikasle laguntzaileenak**

Bitartekaritza programen gaiak aipamen berezia merezi du. Oraindik ezohikoak diren arren, mota horretako programak geroz eta gehiago ari dira martxan jartzen ikastetxeetan. Kasu batzuetan bitartekaritza jarduerak dira erasotzaile eta biktimaren artean, eta ikasle edo irakasle eta ikasle izan alde batera utzita. Helburua beren arteko harremana lehengora eramatea da. Bitartekariak helduak izan daitezke edo ikasleak berak. Mesfidantzaz ikusten da ikasleek gatazkan parte hartzea irakasle batek parte hartzen badu.

Beste kasu batzuetan, eredia ez da bakarrik bitartekaritza, baizik eta ikuspegi zabalagoa erabiltzea “ikasle laguntzaileekin”. Kasu horietan zenbait ikasle babeserako baliabide bihurtzen da gelakideentzat. Mota horretako esku-hartzeen helburua ikastetxean sor daitezkeen gatazkak ikasle bidez bideratzea da. Hala eta guztiz ere, haien lana ez da hasten gatazka antzematean, baizik eta prebentzio lanarekin has daiteke, azterturiko ikastetxeetako baten kasuan bezala.

- *“Ikastetxeko bizikidetzak hobetzeko ikasle talde bat eratu da eta haien funtzioa dauden arazoak antzematea eta konponbideak bilatzen saiatzea da.”*

Mota horretako programen arrakastaren gakoetako bat bitartekaritza lan hori egingo dutenak aukeratzean datza. Kasu batzuetan gelako ordezkariekin hitz egin da. Aukera horrek duen abantaila da ia ikastetxe guztietan existitzen den irudia dela, eta demokratikoki aukeraturikoa izaten dela. Prozedura hori ikasleei laguntzeko lanak erantsita erabil daiteke, betiere, aukeraketaren unean hautagaiek nahiz gelako taldea lan horrek dakarrenaz jabetzen badira.

Hala eta guztiz ere, horrek ez du zertan aukera bakarra izan behar. Beste ikastetxe batzuetan, ikasle laguntzaileak lan horretarako zehazki aukeratzen dira, besteak beste, sentsibilitate eta enpatia ahalmenak kontuan hartuta. Ikastetxe eta institutu horietan adierazitako lan egiteko beharrezkoa den prestakuntza jasotzeko ikasleak aukeratu egin dira. Kasu horietan, edozein motatako gatazka gertatzen denean, ikasle horiek bitartekari papera egin eta konpontzen saiatzeko ardura dutenak dira eta, ahal den neurrian, helduek ezingo dute esku hartu. Haien lana, ordea, zabalagoa da eta gelakideek izan ditzaketen beharrei arreta ematea dakar, gatazkak sortzea itxaron behar izan gabe.

Lehen adierazi den moduan, azterturiko kasu guztietan programa oraindik ezartzeko bidean dago eta itxaron egin beharko da ematen duen fruitua zein den ikusteko, nahiz eta itxaropenak oso positiboak diren.

4.3.7. **Ikastetxearen esparrutik kanpoko jarduerak**

Azkenik, ugariak izan dira ikastetxeen ezintasuna azpimarratu duten iritziak, zenbait arazori existitzen diren baliabideekin bakarrik aurre egiteari dagokionez. Atal honen hasieran jada azpimarratu da garrantzitsua zela familiekin lankidetzan aritzea, baina, modu berean, eskolatik kanpoko erakundeekin bestelako lankidetzak neurriak ere aipatu dira.

Programa bateratueta datza. Horiek eskolatik kanpoko jardueretatik, adibidez, adimen osasuneko arazoak dituzten ikasleentzako babes zehatzagoetaraino joan daitezke. Baina gehien kezkatzen duen arazoetako bat bizitoki egonkorrik ez duten gazte horiekin zerikusia duena da. Ikastetxean lan egin daiteke ikaslearekin bertan dagoen bitartean, baina handik kanpoko jarraipena ere beharrezkoa da. Zentzu horretan, ikastetxeek “leihatila bakarraren” beharra aldarrikatu dute, Andakatik Mundakara ibili behar ez izateko ikasle horiei laguntzeko kanpoko baliabideak lortzerakoan.

- *“Esate baterako, orain badugu bizitoki bat beharko lukeen ikasle bat. Bere etxean ez egoteko, zereginetako egoitzan egon dadila. Buelta ugari eman ondoren, gizarte zerbitzuak sartu dira eta hezitzaile bat haren etxera joatea lortu dugu ordu batzuk. Baina gazte horrek norbait egotea behar du etxean bera iristean. Ez egotea bakarrik ama joan egin delako eta aita ez dakit zer. Eta horrek, nori axola dio? Inori ez.”*

4.4. ADMINISTRAZIOAREN ETA HEDABIDEEN EGINKIZUNA

Eztabaida talde ezberdinetan eta eginiko elkarrizketetan hainbatetan agertu zen alde garrantzitsuetako bat izan da, Hezkuntza Administrazioak betetzen duen edo bete beharko lukeen funtzioa ikastetxeko bizikidetzaren gain.

Zentzu horretan, “*Jokinen kasuak*” iraganaren eta orainaren muga ezarri zuen ondorenean garatuko ziren ikuspuntu ezberdinei dagokienez. Gertakari gogor horren arrazoiak baloratzen hasi gabe, helburua ikastetxeen ustetan gertakari horrek ekarri dituen ondorioak hausnartzea da.

Lehenik eta behin, talde guztiek onartu zuten, gertakariaren ondorioz, ikastetxeko bizikidetzarekiko sentsibilitatea eta, zehazkiago esanda, ikasleenganako tratu txarrekikoa handitu egin dela modu nabarmenean. Adierazitako sentsibilizazio hori maila ezberdinetan eman da. Hezkuntza Administrazioari dagokionez, hainbat neurri eta ekimen garatu zituen, esate baterako, ikastetxeetan ikasleen artean izan diren tratu txarren errealitatearen gaineko azterketa deskriptiboak eskatzea, jarduera protokoloak sortzea eta irakasle eta ikastetxeen prestakuntzarako eskaintza areagotzea bizikidetzagaien inguruan.⁴ Horixe onartu dute elkarrizketa eta eztabaida taldeetan parte hartu duten irakasle gehienek:

- *“Administrazioaren aldetik kezka argiagoa antzematen da.”*

Hezkuntza Administrazioaren erabakietako bat jarduera protokoloa martxan jartzea izan zen, bizikidetzaz arazoren bat antzeman eta diagnostikatzen den kasurako. Oro har, irakasleek protokoloa onartu dute haien ustez “*babestu egiten dituelako*”. Garrantzitsua da gogoratzea, irakasleek nahiz zuzendaritza taldeek egin ohi duten salaketa babesik ez izatearena dela, norbaitek (familiek edo hedabideek) beren jardunbidea salatzen duenean bizikidetzaz arazoren batengatik. Antza, Administrazioaren aldetiko babes faltaren

⁴ Ikusi I. eranskinean Hezkuntza Sailak berak bere jardueren gainean aurkezten duen laburpena, informazio gehiagorako.

sentipena dute, eta uste dute beti ikasleen eta familien eskubideak babesteko saiakera egiten dela irakasleak eta zuzendaritza taldeak ahaztuz. Edozein gatazkaren aurrean sentitzen dute beren hitzaren sinesgarritasuna hezkuntza komunitateko gainerako estamentuenaren oso azpitik dagoela.

- *“Nik uste dut irakasleak babesik gabe daudela oso.”*
- *“Guztiak dituzte beren eskubideak, gurasoek eta ikasleek, eta guk betebeharrak bakarrik ditugu. Gazteek toki guztietan agintzen dute. Etxean agintzen dute, haiek esaten duten moduan eta hemen ere agintzeko asmoa dute. Ondorioz, erabat salduta nago ni hor. Babesgabetsun egoeran gaude Administrazioaren aurrean. Eta epaiketara banoa, Administrazioak ez nau defendatzen.”*
- *“Hori bai, gizarteak bakarrik utzi ditu irakasleak arriskuaren aurrean. Lehen irakasleak zen egi bakarra zuena, eta orain edonork du irakasleak baino arrazoi gehiago.”*
- *“Geure burua bakarrik ikusten dugu.”*
- *“Presio handia dago irakasleenganako, exijentzia ugari.”*

Bestalde, badirudi argi dagoela egungo gizartea judizializatu egin dela. Irakasleen eta zuzendaritza taldeen ustez, judizializazio hori ez da ikastetxeko komunitatetik kanpo geratzen. Lehen barruan konpontzen ziren arazoak, gaur familiek kanpora eramaten dituzte auzitegiak izan daitezzen horiek konpontzen dituztenak. Zentzu horretan ez da kasualitatea Adingabekoaren Zigor Erantzukizuneko Lege-proiektuak, txosten hau idazten ari den bitartean Legebiltzarreko izapidean dagoena, esplizituki jasotzea ikastetxeko erasoen gaia, edo adingabeko erasotzailearentzako biktimarengandiko edo ikastetxearengandiko urruntze neurriak jasotzea.

- *“Gizartea judizializatu egin delako. Maila guztietan, ez bakarrik ikastetxeetan.”*
- *“Familiarentzat diru iturri bihurtuko da. Baten batek esango dio ‘Borroka zaitez norbaiten aurka, oporretara joan behar dugu eta.’”*
- *“Niri oso tristea iruditzen zait zuzendariak ezagutza juridikoak izan beharra. Oso tristea da arazoak epaitegietan konpondu behar izatea.”*

Hainbatetan aipatu izan den moduan, irakasleen sentsazioa ez da bizikidetzara-azaroak areagotu egin direnik modu nabarmenean. Aurreko urteetan agertzen ziren antzeko arazo eta gatazkak izaten jarraitzen dute. Horiei aurre egiteko modua da, ordea, aldatzen ari dena. Lehen normalena barruko arazo gisa tratatzea bazen, orain geroz eta ohikoagoa da familiek arazoa kanpora eramatea, bai Hezkuntza Administrazioa, dagokion ikuskaritza edo lurralde ordezkariaren bidez, bai justizia auzitegietara.

- *“Normala da 12 urteko haurrek elkar jotzea. Lehen, sekulan ez litzaioke aita bati bururatuko salaketa bat jartzea semeari betaurrekoak apurtu dizkiotelako. Gaur egun, auzitegietaraino iristen dira.”*

Ez dirudi ohiko arazo eta gatazkak ikastetxetik kanpo ateratzeak giroa eta bizikidetzara hobetzen laguntzen duenik. Zentzu horretan, muturrekoak izatera iristen diren egoerak gertatzen dira.

- *“Lehenengo egunean zitazio judiziala iritsi zitzaigun. Antza, bi gelakide borrokan aritu dira jolas-garaian eta aitetako batek, tutorearekin edo zuzendaritza taldearekin aurretik hitz egin gabe, zuzenean epaitegira jo du eta salaketa jarri semearen gelakidearen eta ikastetxearen aurka.”*

- *“Baina gauza larriagoak ere badira. Orain dela gutxi, inguruko ikastetxe batean, bi neska iletik tiraka aritu dira. Ama batek salaketa jarri dio beste amari. Eta epaileak erantzukizuna ikastetxearena dela adierazi du ez zaintzeagatik. Badirudi zaintzarik gabeko toki bat zela, komuna edo horrelakoren bat. Komunean ez zara sartuko, bada! Ba ikastetxeari indemnizazioa ordaindu beharra ezarri zaio gertakari hori jazo zenean; izan ere, gurasoak pixka bat horrela zeudenez, ikastetxeak gutuna bidali zien eta adierazi zien, akatsen bat egon izan bazen, gertaturikoa sentitzen zuela. Orduan, bere errua onartu duenez, barkamena eskatzeagatik, errudun da. Nesken arteko borroka baino ez zen izan, besterik gabe.”*
- *“Lehen goan, gazte bat beste batekin jo zen, begia ubeldu zion eta larrialdietako sendagileak berak salaketa jartzera animatu zuen.”*

Iritzi orokorra da mota horretako gatazkek ez luketela epaitegira iritsi behar. Ez litzateke horien izapidetzea onartu behar. Lehenik eta behin, ikastetxea izan beharko litzateke bere baliabide propioekin arazoa konpontzeko saiakera egin beharko lukeena. Arazoa ezin bada ikastetxean bertan konpondu, auzitegietara iritsi aurretik, Hezkuntza Administrazioak berak izan beharko luke arazoa konpontzen saiatu beharko lukeena. Horrela, auzitegiak azken beltzean erabiltzeko geratuko liriateke.

- *“Ez lukete utzi behar gauza hauek auzitegietara iristen.”*
- *“Horien izapidetzea ez onartzeko.”*
- *“Hezkuntza Sailarekin konpondu beharko litzatekeen gauza da.”*
- *“Oso oinarrizkoa den zenbait aipatzearen, gertaturikoa baieztatu beharko litzateke tutorearekin.”*

Zentzu horretan bertan, ikastetxe guztiak bat datoz jarduteko autonomia handiagoa exijitzerakoan, neurri bateko larritasuna duten bizikidetzaz-azaroak sortzen direnean. Hezkuntza Administrazioak jarduera protokoloa egin du eta zuzentasun handia exijitzen du gauzatzerakoan. Bertan, xehetasun osoz ezartzen da zein den jarraitu beharreko prozedura. Irakasle eta zuzendaritza taldeek prozedura hori kritikatu dute burokrasia gehiegizkoa iruditzen zaielako. Horrela, gertakaria gauzatzen den unetik ezar daitekeen zigorra zehaztu arte, denbora luzea igarotzen da. Horregatik, ikastetxe guztietan jarduera horien burokrasia arintzeko beharra azpimarratu da, ikastetxeei jarduteko autonomia gehiago emateko beharrezko batera, beharrezkoa den konfiantza jarritzeko ikastetxeengan eta, bestalde, haiek modu arbitrarioan jardungo ez direla bermatuz.

- *“Eusko Jaurilaritzatik askatasun gehiago ematea ikastetxeari. Ez dadila egon horrenbeste izapide egiteko beharra espediente bat irekitzerakoan.”*
- *“Hor autonomia gehiago eman dakieke ikastetxeei diziplina-neurriak hartzeko. Azkenean, diziplina-espediente bat egiteko, hamaika bilera egin behar dira, Kontseiluari dei egin, batzordeari dei egin... gauza pila bat. Gertakari jakin bati neurriren bat aplikatu nahi diozunerako, pedagogikoki, ez du inolako zentzurik.”*

- “Uste dut Administrazioak autonomia handiagoa eman beharko liekeela ikastetxei.
- **Gogorragoak izateko?**
- Azkarragoak izateko erabakietan. Eraginkorragoak.
- Ni azkartasunaren aldetik noa. Nire semeak zerbait gaizki egiten badu, ez diot zigorra jarriko hilabete barru.
- Asko itxaron behar da. Espedientea bidali behar duzula, itzuli egin behar duela, berriro ere Eusko Jaurlaritzari bidali behar zaiola, ez dakit zer... Zigorra jartzen duzunerako...
- **Pertsona batzuek uste dute ikastetxeen aldetiko arbitrariotasun arriskua bihurtu daitekeela hori.**
- Baina konfiantza egon behar da. Erdibideko erakunde bat egon beharko litzateke goraino iristeko. Autonomia handiagoa egon behar da.”

Administrazioaren jarreraren ikasleen arteko tratu txarreko sentsibilizazio handiagoak izan duen eraginaz gain, gertakariak berak, dituen ondorioak eta ikastetxeetan gizar-teak ezagutzen ez dituen eta salatzeko modukoak diren gertakariak izatea **hedabideen arreta** erakarri zuen. Ordudanik aurrera, hedabideek ikastetxeetako bizikidetzaren alde gatazkatsuak azpimarratu ohi dituzte nolabaiteko indar informatiboarekin, zenbait gertakari bakanen irudia normalean gertatzen dena balitz bezala aurkeztuz. Iritzi askok azpimarratzen dute, aurreko ataletan adierazi den moduan, jarrera horrek irudi bat ematen lagundu duela eta irudi hori Euskal Autonomi Erkidegoko ikastetxeetako bizikidetzaren benetan dena baino negatiboagoa balitz bezala aurkeztzen zaigula. Irakasleen nahiz gurasoen ustetan, hedabideek eztabaida honetan parte hartzeak gaiarekiko sentsibilitate handiagoa izatea eta ikastetxeetan arduraren handiagoa egotea ekarri du hasiera batean eta, horri esker, erabakiak hartu dira eta bizikidetzaren hobetzerara zuzenduriko jarduerak gauzatu. Hala eta guztiz ere, esku-hartzea gehiegizkotzat jotzen ari da, askotan errespetu gutxikoa, eta edonola ere, sentsazionalistegia.

- “Hedabideena ikaragarria izan da. Gai guztietan gertatzen den moduan, batzuetan errespeturik gabe eta modu sentsazionalistan jorratu dute gaia. Informazioa moztuta ematen da. Hedabideek ikastetxeen inguruko kritika egin zuten, irakasleen ingurukoa. Beldurtu egin ginen.”
- “Nik uste dut asko ari direla (hedabideak) dramatizatzen.”
- “Nik uste dut geletako gatazka hedabideena dela batez ere. Asko saltzen du gatazka daudela esateak.”
- “Badakigu hedabideek nola funtzionatzen duten. Gertakari baten izugarrikeria erabiltzen dute eta berri bilakatzeko eta aipamenak egiteko pagotxa gisa erabili. Hedabideen erantzukizuna hori guztia bideratzea da. Gaia konplexua da.”
- “Noski, gauza bat informazioa da eta bestea manipulazioa.”
- “Hedabideetan sailburuordeak emaniko datu bat agertu zen; horren arabera, ikasleen % 4k bullying-a pairatzen dute, hau da, 25 ikaslelik batek edo, beste era batera esanda, gela bakoitzetik batek. Hori ez da erreala.”
- “Nik uste dut ikasleen arteko tratu txarrak areagotzen ari direnaren ideia hedabideek erabat eta bortizki puzturikoa dela. Baina guztiarekin gertatzen den moduan, egun. Mugikorrek egiten diren grabazio ezagunen gaiarekin bezala. Horrek, gainera, ideiak ematen dizkie gainerako gazteei. Niri iruditzen zait erabat nahasia dagoen gaia dela hedabideen aldetik, baina mundu honetako ia gauza guztiak bezalaxe.”

Hori dela eta, beharrezkoa da ikastetxeko bizikidetzaren gaian –parte-hartzaileen ustez– hedabideek duten paper desitxuratzaila azpimarratzea. Haien ustez, irakasleen irudi okerra eskaintzen dute, estresaturik eta ilusiorik gabeko talde gisa aurkeztuz, eta ikasleen taldea, berriz, osotasunean gatazkatsu bezala agertu ohi dute. Irudi hori ez dator inolaz ere bat aztertu diren hamar ikastetxeetan aurkitu den egoerarekin.

ONDORIOAK

5. ONDORIOAK

Ondorenean azterlanaren ondorioak aurkeztuko dira, testuaren antolaketarako azpiegitura gisa emaitzen azterketan ikusitako dimentsio ezberdinak hartuz eta, posible den kasuan, alderaketak eginez bildutako datuak hobeki interpretatzeko aukera ematen duten beste ikerketa analogo batzuekin.

Lehenengo ondorio bat da, ikastetxeko komunitatea eratzen duten talde guztiek uste dutela ikastetxeetako **bizikidetza giroa** positiboa dela. Gogoratu behar da ikasleen % 92,3k adierazten dutela oso ondo sentitzen direla ikastetxean eta lagun asko dituztela. Irakasleek, beren aldetik, hori baino hobekiago baloratzen dituzte ikasleekin dituzten harremanak. Emaidza horiek deigarriak dira gizarteak egoeraren inguruan duen irudia, eta are garrantzitsuagoa dena beste azterlan batzuk (CCOO, 2004; Piñuel, 2006) islaturikoa, gatazkatsua izatearena denean. Dударik gabe gatazkak egon badaude ikastetxe eta institutuetan, aurrerago ere adieraziko dugun moduan, baina hori ez da bateraezina irakasleek beren ikasleenganako begirunea izateko eta haiek modu berean irakasleekin harreman onak dituztela adierazteko. Familiak dira kritikoen agertzen direnak harremanekiko, baina modu berean, ikastetxean gertatzen denaren inguruko ezagutza zuzen gutxien duen multzoa da. Bestalde, emaitza hori bizikidetzari buruz eginiko ikerketetan ari da baieztatzen, izan ere, antz handiko datuak bildu izan dira (Eusko Jaurlaritz, 2004; Martín, Rodríguez eta Marchesi, 2003, 2005; Madrilgo Erkidegoko Adingabekoaren Defendatzailea, 2006). Komenigarria litzateke horiei arreta jartzea, batzuetan ikastetxeko bizikidetzaren inguruan helarazten den ikuspegi hain negatiboa orekatzen laguntzeko. Ikuspegi negatibo hori hedabideek barreiatzen dute batez ere.

Inkesta erantzun dutenen bi herenen ustez, ikastetxeetan eta geletan ordena mantentzen da. **Arauen** inguruko balorazioak positiboa izaten jarraitzen badu ere, bizikidetzaren alde horretan agertzen den poztasuna zertxobait txikiagoa da. Bi arazo argi identifikatzen dira, eta gainera ikastetxeko komunitateko hiru taldeak bat datoz: batetik, ikasleen parte-hartze urria, eta bestetik, arauen aplikazioan neurri bateko arbitrariotasunaren existentzia. Lehenengo puntuari dagokionez, ikasleen erdiak uste dute –baina baita irakasle askok ere– parte-hartze gutxi dagoela ikasleen aldetik arauak egiterakoan eta agertzen diren arazoak konpontzeko hartzen diren erabakietan. Diagnostikoan gertatzen den kointzidentzia horrek ez du esan nahi, ordea, egoera modu berdinean baloratzen denik. Elkarriketa eta eztabaida taldeetan argi geratu zen ikasleek ahots gehiago izan nahi zutela. Irakasle gehienek, baina, ez zuten uste izan ona zenik ikasleek orain dutena baino paper garrantzitsuagoa izatea. Badirudi ezinbestekotzat jotzen dutela ezarri diren

neurriak ongi argitzea eta horiez gelan hitz egitea, baina ez horrenbeste modu bateratuan egitea, eta are gutxiago ikasleei sarrera ahalbidetzea sor daitezkeen arazoetan neurriak hartzeko ardura duten azpiegituretan. Askotan, irakasleen eta baita familia gehienek aldetik ere arrazoitzen da oso zaila ikusten dutela ikasleek beharrezkoa den distantzia hartzeko gai izatea arazoa “objektibotasunez” aztertu ahal izateko. Baieztapen horietako askotan egon daitezkeen arazoia ukatu gabe, oraindik ikastetxe gehienetan antzematen den kultura horren eta bizikidetzaren hobekuntzarako ikuspuntu guztietan sustatzen den parte-hartzearen printzipio teorikoaren arteko kontraesankortasuna azpimarratu behar da.

Ikasleak, irakasleak eta familiak bat datoz halaber adieraztean, oraindik lan asko dagoela egiteke ikastetxeetan, **arauen aplikazioan koherentzia** maila egokia lortzeko. Irakasleen artean akordioetara iristeak esfortzua eskatzen du dudarik gabe, eta eskola orduetarako aurreikusitako parte-hartze azpiegiturek eskatzen ditu, taldeko lan horren buruan dauden pertsonekin batera. Hala eta guztiz ere, badirudi argi dagoela aurrerantz jotzea eskatzen duen esparrua dela. Arbitrariotasunak babesgabetasuna dakar. Ikasle baten portaerak askotan erantzun oso ezberdinak badakartza irakasleen partetik, are zailagoa da ikasleen jokabidea arautzen laguntzea. Logikoki, helburua ez da homogeneotasuna defendatzea, baizik eta koherentzia. Heterogeneotasuna aberastasuna da, eta inkohherentziak ikaskuntza zailtzen du.

Ikasleen gehiengoak ere **kutunkeria** kontuen existentzia kritikatu du, eta berriro ere, datu hori oso indartsua da ikerketan (IDEA, 2005, 2006; Martín, Rodríguez eta Marchesi, 2003, 2005; Madrilgo Erkidegoko Adingabekoaren Defendatzailea, 2006). Uste dute ez zaiela guztiei tratu bera ematen. Kexa hori, aurreko kasuarekin gertatzen zen ez bezala, ez da orokorrean onartzen irakasleen artean. Oso interesgarria da irakasle askok balizko desadostasuna argitzeko ematen duten arazoia. Haien ustez, tratu ezberdintasunaren arazoia ikasleen ezaugarri eta behar ezberdinen ezagutzatik dator, horrek beren esku-hartzea moldarazten dielako egoera bakoitzean. Zaila da jakitea hori den ikasleek bidegabekeriatzat ulertzen dituzten portaera guztietarako dagoen arazoia, baina edonola ere, badirudi gai hori esplizituki adierazi beharrekoa dela taldeetan, eta horren inguruko hausnarketak egitea komeni dela.

Datuen arabera ikastetxeetan oso ondo funtzionatzen duena **familielikiko komunikazioa** da, seme edo alabei zuzenean eragiten dieten gaietan. Gurasoek beren seme edo alabaren egoeraren inguruan ondo informatuta daudela sentitzen dute tutoretzen bidez, eta baieztatzen dute azkartasunez jakinarazten zaiela haiek izan dezaketen edozein arazo. Aurrerago adieraziko den moduan, badirudi irakasleak kexu direla, kasu batzuetan familiak ikastetxearen aldetiko komunikazio horri ematen dioten erantzuna ez delako behar den bezain aktiboa.

Azterlanaren emaitzetatik, kuantitatiboak nahiz kualitatiboak, ondoriozta daitezke aldeak bizikide izaten irakastearen garrantziaz ohartzen direla. Bai irakasleek, bai familiak, bai ikasleek horren konbentzimendua izatea adierazten dute, eta beste irakaskuntza batzuk baino garrantzitsuagoa dela ere uste dute. Inkesta erantzun zuten lau pertsonatik hiruk, gutxi gorabehera, uste dute bere ikastetxean arreta handia ematen zaiola positiboki erlazionatzen jakiteari. Hala eta guztiz ere, elkarrizketa batzutan adierazi da irakaskuntzaren esfortzu hori ez dela beti modu berean islatzen ikaskuntzan. Aurrerago berriro ere

adieraziko den moduan, ohikoa da entzutea, irakasleen artean batez ere, kasu askotan ikastetxean lan handia eginda ere familien babesak ez bada izaten edota gizarteak zenbait balore sozial ez baditu aldatzen, ikastetxeetan irakasten denak garrantzia galtzen duela. Esparru horretan ikasten jarraitu behar dela uste duten irakasle eta zuzendaritza taldeak ere ugariak dira, irakasleak gaian prestatu behar direnarekin eta bizikidetzaren hobekuntzarako programak martxan jarri behar direnarekin batera. Hala eta guztiz ere, ikastetxeen benetako parte-hartzea horrelako jardueretan beharra izatearen kontzientzia baino askoz ere txikiagoa da. Elkarriketetan adierazi da desfase horren arrazoietakoa bat horrelakorik garatzeko denborarik ez izatea eta irakasleen gainkarga dela. Arazo oso garrantzitsuak dira, eta parte-hartze urriaren arrazoiak agortu gabe, hezkuntza ardura-dunei pentsarazi egin beharko liekeen kontua da. Bestalde, programa horien artean, ikasle berrien harrera egokia dela bermatzera zuzendurikoak ugariak diren moduan, ia ez da programarik martxan jarri bitartekaritza edo ikasle laguntzaileen esparruan, bertsio ezberdinetan.

Ikastetxeetako bizikidetzak giroaren lehen aldi hori itxi aurretik, garrantzitsua da adieraztea argazki orokor horrek zenbait zehaztasun dituela hainbat aldagairen arabera. Horrela, guztiak pozik agertu diren arren, kritikoagoak dira DBHko 4. mailako ikasleak 2. mailako kideak baino. Horren arrazoiak izan daiteke azken horiek pertsonen arteko harreman pozgarriagoetan murgildurik egotea edo helduagoek pentsamendu kritikoagoa izatea, edo ziurrenik gertatu dena: bi arrazoiaren nahastura, eta kasu bakoitzean eragina izan dezaketen beste faktoreen batekin agertu izana. Bestalde, adierazle horietako batzuk, bereziki ordenari eragiten diotenak, maila positiboagoa eskuratzen dute titulartasun pribatuko ikastetxeetan eta testuinguru soziokultural ertain-altu eta altukoetan.

Giroa positiboa izan arren, datuek agertzen dute ikastetxeetan modu egokian konpon-tzen ari ez diren **gatazkak** existitzen direla. Horietako bakoitza xehetasunez aztertzen hasi aurretik, emaitzen arabera ondoriozta daiteke orokorrean ez dagoela adostasunik bizikidetzaren egoerak okerrera egin duen ala ez adieraztean. Desadostasuna taldeen artean nahiz horietako bakoitzaren barruan antzematen da. Horrela, irakasleen gehiengoak ez du uste gatazkak areagotu egin direnik. Irakasleek antzeko adostasun eta desadosta-sun ehunekoak agertzen dituzte baieztapenarekiko, eta familien artean, orain gatazka gehiago ez dagoela uste duen pertsona kopurua handiagoa bada ere, ia heren batek kontrako iritzia dute. Datu hori interpretatzea ez da erraza. Izan liteke erantzun duten pertsonen ezaugarri pertsonalagoek –gogoratu irakasle emakume kopuru bikoitzak uste duela gatazkak areagotu egin direla irakasle gizezkoen aldean– edo ikastetxe bakoitze-koek eragina izatea. Hain zuzen ere, ikastetxe pribatuetan eta testuinguru soziokultural ertain-altu edo altukoetan, irakasle eta familia kopuru handiagoak uste du ere gatazkak ugariagoak direla orain.

Datu horiek beste ikerketa batzuekin alderatzean, zenbait ondorio atera daitezke. Lehenengoa, gatazka gehiago daudenaren iritzia duten irakasle ehunekoak igo egin dela. Martín, Rodríguez eta Marchesik (2005) 2003an bildutako datuen arabera, % 30ek iritzi hori zuten, eta azterlan honetan, berriz, ehunekoak % 41,7koa izan da. Hala eta guztiz ere, alderaketa 2005-2006 ikasturtean bertan baina lagin ezberdinarekin eginiko ikerketarekin egiten bada, aterako den ondorioa bestelakoa da. Horrela, Madrilgo Erki-degoko Adingabekoaren Defendatzailearen azterlanaren emaitzek agertzen dute erkidego horretako bigarren hezkuntzako irakasleak direla batez ere (% 55) gatazkak areagotu

egin direnaren ustea dutenak. Herriaren Defendatzailearen datuekiko alderaketa (2000) zailagoa da, kasu hartan galderak beste erantzun aukera batzuk ematen zituelako. Hala eta guztiz ere, kontuan hartuta % 45,7k esaten zutela pixka bat igo zela eta % 32,7k berriz bortizki igo zela, ondoriozta liteke Euskal Autonomia Erkidegokoan baieztapen horrekin ados dagoen irakasle kopurua txikiagoa dela. Irakasle eta familien erantzunak alderatzen direnean, ez da ezta ere aldaketa garrantzitsurik antzematen.

Ikastetxeetan gertatzen diren gatazken artean, irakasleei kezka handiena sorrarazten diona ikasleek eskolak ematen ez uztearena da, hau da, gelako martxa etetea. Datu hori lehen aipaturiko ikerketa guztietako emaitzekin bat dator. Gehien kezkatzen duen bigarren arazoa ikasleen arteko gehiegikeriak dira, nahiz eta jarrera txarrek eta beren aurkako erasoek agertzen duten ehunekoak berdina den. Gure ustez, datu positibotzat har daiteke azken hori, alegia, ikasleen arteko tratu txarrek irakasleei beren aurka egon daitekeen indarkeriak bezalaxe kezkatzea. Ikastetxeko jazarpenaren arazoak sorrarazi duen kontzientziaren sintoma bat da, eta oso positiboa da irakasleek beren ikuspegia uzteko gai izatea eta ikasleen tokian jartzen jakitea.

Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan egon daitezkeen **ikasleen arteko tratu txarren** egoerei dagokienez, ondoriozta daiteke biktinek eta erasotzaileek aitortzen duten jazarpen mailak antza handia duela erreferentzia gisa hartu izan diren beste ikerketetan agerturikoarekin. Tratu txarreko adierazpen bakoitzaren garrantziaren ehunekoak Herriaren Defendatzailearen azterketan topaturikoarekin (2000)¹ eta Eusko Jaurlaritzarenekin (2004) alderatuz gero, edo Martín, Rodríguez eta Marchesiren (2003) etengabeko biktimizazioaren –maiz eta beti gertatzen dena– eta Madrilgo Erkidegoko Adingabekoaren Defendatzailearen (2006) emaitzak hartzen badira, ikusiko da **eragin maila** oso antzekoa dela. Datuak, ordea, ez datoz bat Oñederra eta beste batzuek egindako azterketarekin (2005). Maila zabalagoen barne egongo lireratekeen adierazpen ezberdinak batuta ere, kasu guztietan –hitzeko erasoak salbu– eragina baxuagoa da Oñederra eta beste batzuen azterlanean. Hala eta guztiz ere, adierazi behar da, aldeak ez direla oso handiak. Alde horren arrazoietakoa bat izan daiteke kasu bakoitzean erabilitako metodologia desberdina izan dela.

Berriro azterlan honetan ere baieztatzen dena, lehen aipaturiko gainerako guztietan bezalaxe, jazarpen moduen **eragin ordena** da. Hitzeko erasoak eta gizarte bazterkeria dira erasotzaileek gehien erabiltzen duten modua beren biktimak jazartzeko. Horren atzetik zeharkako eraso fisikoa –gauzaren bat gordetzea, apurtzea, lapurtzea–, zuzeneko –jotzea– eta, eragin maila baxuagoarekin, xantaiak, mehatxuak eta sexu jazarpena, hitzekoak nahiz fisikoa², egongo lirerateke.

¹ Bi azterlanen emaitzak alderatzean kontuan hartu behar da (ikusi 1.3.3 eta 3.2.2 atalak, hurrenez hurren), lan honetan tratu txarren sail handiak erabiltzen direla; Herriaren Defendatzailearen ikerketan, berriz, xehaturik agertzen dira.

² Eusko Jaurlaritzaren ikerketaren emaitzetan (2004), mehatxu bidez beldurtzearen eragina handiagoa da jotzearena baino, nahiz eta hori ez den ikusi ez azterlan honetan ez eta aipaturiko gainerakoetan ere. Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar da beste azterlan hauetan galdetzen den mehatxurako modu bat besterik ez dela. Modu berean, mehatxu bidez gauzak egitera behartzeari edo armen bidez mehatxatzeari buruz ere galdetzen da, eta horrek eragin gutxiago izatea dakar.

Interesgarria da nabarmentzea biktimen eta erasotzaileen artean aldea dagoela gizarte bazterkeria eragiten edo jasaten dutela adierazterakoan. Biktimek eragin txikiagoa adierazten dute. Herriaren Defendatzailearen eta Oñederra eta beste batzuen azterlanetan banaka galdetzen da bazterkeria aktiboari –parte hartzen ez uztea– eta pasiboari –ez ikusiarena egitea– buruz, eta bertan lorturiko datuen arabera pentsa liteke biktimek ez ikusiarena egiten dietela ez antzematean egon daitekeela aldea. Logikoa dirudi gelakide bat baztertzeko asmoa duen pertsona horretaz jabetzea, biktima beti horretaz jabetzen ez bada ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan ez dirudi arazoak beste erkidegoetan baino eragin handiagoa duenik, eta maiztasuna jazarpen adierazpenen larritasuna alderantziz proportzionala da maiztasunarekiko. Horrek ordea, ez dio inolako garrantzirik kentzen arazoari berari. Portzentaje hotzak egunero ikastetxean sufritzen ari diren gazte kopuru zehatzetara aldatzen badira, argi geratzen da presazkoa dela egoera horiei aurre hartzea, eta noski erabat deuseztatzea behin martxan jarrita badaude. Zorionez, izandako elkarrizketetan eta eraturiko eztabaida taldeetan inork ez zion garrantzirik kendu fenomeno horri, eta inork ere ez zuen adierazi bigarren kapituluan aipaturiko baieztapen horiek mito arriskutsu eta arrazoirik gabeak zirenik. Hala eta guztiz ere, presa hori ez zaio datuak behar bezala interpretatzeko beharrari kontrajartzen. Horrek argi uzten du zenbait baieztapenek ez dutela ñabardurarik sartzten jazarpenaren intentsitate mailen artean, eta beraz, lau ikaslelik batek bere buruaz beste egiteko ideiak izatera eraman dezakeen tratu txarra jasaten duela adieraztea, azterlan honen arabera, arduragabea eta alarmista izango litzateke.

Ikerketa honetako emaitzek berriro ere baieztatzen dute tratu txarrek mutilei eta neskei modu berean eragiten dietela, baina genero aldea antzematen den kasuan –biktimetan: hitzezko eraso, eraso fisikoa eta mehatxuak; erasotzaileetan: aurrekoak gehi gauzak apurtu eta lapurtzea, eta hitzezko sexu eraso– gelan mutil gehiago egotearen ondorio dela. Batzuetan entzuten da neskak lehen agertzen ez zituzten portaera bortitzak izaten hasi direla. Posiblea izan daiteke, baina azterlanak adierazten duenez, gaur egun horren maiztasuna mutilena baino txikiagoa da oraindik adierazitako jokabideetan. Modu berean, eragin handieneko mailei dagokien eredu ere baieztatu egiten da: DBHko 2. mailako ikasleek tratu txar gehiago aitortzen dituzte jotzearen eta hitzezko sexu erasoen kasuan.

Eragin mailak ezagutzea eta, batez ere, tratu txarra gertatzeko moduak zeintzuk diren jakitea garrantzitsua da, baina gure ustez are garrantzitsuagoa da **horiek zein egoeratan gertatzen diren eta zer motatako erreakzioak eragiten dituen** ulertzea. Emaitzek argi uzten dute, berriro ere aurreko lanekin bat etorritik, lagunak izatea garrantzitsua dela. Lagunei maiztasun handiagok kontatzen zaizkie arazoak eta haiek izaten dira tratu txarreko egoera deuseztatzeko esku hartzen dutenak. Bestalde, azterlanean agertzen da lotura argia dagoela isolaturik sentitzearen eta tratu txarreko egoeratan norik bere burua biktima edo erasotzaile bezala ikustearen artean. Emaitza horiek ikasle laguntzaileen programen garrantzia berresten dute. Horiei esker, zenbait ereduren bitartez, ikasleak babesteko eta laguntzeko sistema bihurtzen dira gelakideentzat.

Familiengana gutxitan jotzen da, lau kasuko multzo bakoitzeko behin bakarrik, eta irakasleengana are gutxiago, hamarretik behin. Zergatik? Ziurrenik hainbat arrazoiengatik.

Batzuetan, biktimek lotsa sentitzen dute, beste tratu txar mota batzuetan gertatzen den moduan. Kontakatiluaren irudiaren aurkako jarrerak ere garrantzia duela dirudi. Ikasleei mahai gainean jarri zitzairen dilemaren emaitzek argi uzten dute hori pentsatzen dutenak gutxiengoa eratzten dutela. Gogoratu ehuneko hamarrak bakarrik aukeratu zutela kontakatilu izatea “okerrena” izatea zela zioen aukera. Datuek agertzen dutenaren arabera, orde, garrantzitsuagoa da norbera biktima bihurtzearen aukerari zaion beldurra. Lau ikasletik batek “askoz hobe hura defendatzen ez hastea, azkenean zeure kontra joaten dira-eta” erantzuna aukeratu zuten. Kontuan hartzen badugu beste talde batek, % 10 baino handiagoa, “denborarekin pasako diren gauzak dira. Bitartean jasaten jakin behar da” aukera hobetsi zuela, azken emaitza da inkesta erantzun zuten ikasleen erdiak arrazoiren bat topatzen duela ez esku hartzeko edo inori ezer ez esateko.

Bateragarria al da ikasleak irakasleengana ez joatea eta ikasleen ia erdiak adieraztea irakasleak ez direla enteratzen ikasle batek beste batekin arazoak dituenean, eta irakasleek adierazitako eragina hain altua izatearekin maila gehienetan, biktimena baino altuagoa izanda kasu batzuetan? Beharbada, hasiera batean larritasun gutxienerako jokabideetan hori gertatu daiteke, baina justu alderantzizkoa gertatzea alarma gehien eragiten dutenetan. Ondorioz pentsa daiteke erasotzaileek ardura handiagoa hartzen dutela inork haiek ez ikusteko, eta biktimek eta gainerako ikasleek ez dutela ausardiarik gertatzen dena kontatzeko goian adierazitako arrazoiengatik.

Bestalde, harrigarria dirudien datua da ikasleek adieraztea ez dietela beti familiei gertatzen dena kontatzen, eta gero gurasoek adierazitako tratu txarren eragin datuak modu deigarrian bat etortzea seme-alabenekin biktimen kasuan, biktimizazio larriko emaitzak kontuan hartuz gero. Hortaz, pentsa liteke tratu txarrak maila oso altuetara iristen direnean bai kontatzen direla familian. Horrek ez du esan nahi une horretara arte asko sufritu ez denik edota tratu txarrak une horretan etengo direnik. Modu berean arreta jarri behar da gurasoek beren seme edo alabak erasotzaileak direla ez jakitearen datuan. Logikoa da haiek ez kontatzea eta, eztabaida taldeetan irakasleek kexatu ziren moduan, ikastetxean antzematen denean askok ukatu edo garrantzia kentzen diote. Ikastetxearen eta familiaren arteko komunikazioa, beraz, lehentasuna duen behar gisa agertzen da berriro ere.

Azkenik, ikasleen arteko gatazken eraginari dagokionez, antolaturiko **banden** agerpenak eskasa izaten jarraitzen du eta batez ere ikastetxetik kanpo eragina duen fenomeno da, nahiz eta hori ikastetxeko edo institutuko irteera izan daitekeen. Horrek ez du esan nahi asteburuetan edo aisialdi denboran gazteen edo lagun taldeen artean sor daitezkeen gatazkek ondorioz ez dutenik ikastetxeko bizikidetzan. Bai ikasleek bai irakasleek onartzen dute kanpoko arazoak ikastetxera ekartzen dituztela. Aitzitik, errealitate hori ez da berdina antolaturiko banden kasuan. Bestalde, nola ez dituzte kanpoko arazoak ikastetxera ekarriko? Edozein pertsona gai al da gauzak banatu eta ikastetxean sartzekoan kezka kanpoan uzteko? Helduak ez dira erabat gai horrelakorik egiteko, nahiz eta kontrol handiagoa duten zentzu horretan, beraz, ez da oso arrazokoa gazteengandik hori espero izatea. Horrek ez du esan nahi, hala ere, ahalmen hori ikasten laguntzen ez diegunik. Egokiagoa izan liteke ikastetxeko testuingurutik kanpo dagoen errealitatea azterketarako eta hausnarketarako xede bihurtzea, ezagutzaren beste esparru batzuekin egiten den bezala. Horietako gatazka batzuk taldean landu daitezke eta landu beharrekoak dira, eta beste batzuk esparru pribatua behar dute, ikaslea gai izan dadin ireki eta bere

bizitzako barru-barruko aldeak heldu bati adierazteko edo lagun diezaiokeen ikasle bati jakinarazteko. Esparru horiek ez dira beti existitzen, eta existituta ere ez dute irakasleen behar besteko denbora edo prestakuntza izaten.

Hala eta guztiz ere, ikasleen arteko tratu txarra ez da ikastetxeetan pertsonen artean gertatzen den gatazka bakarra. Zer ondorio atera daiteke azterlan honetatik **irakasleen eta ikasleen arteko harremanari** dagokionez? Lehenik eta behin, gatazka mota horren inguruan aitortutako eragin maila, tratu txarren kasuan gertatzen zen moduan, beste azterlanetan topaturikoen antzekoa dela. Martín, Rodríguez eta Marchesiren (2003; 2005) ikerketen emaitzekin, Madrilgo Erkidegoko Adingabekoaren Defendatzaileak eginikoarekin (2006), edo Kataluniako Generalitateak eginiko azterlaneko datuekin (2002)³ alderatuz gero, ikasleek eta irakasleek elkarren artean arazoak dituztela onartzen dutenen ehunekoak oso antzekoak dira. Hala eta guztiz ere, Eusko Jaurlaritzaren azterlanean (2004) bildutako datuekin alderatuz gero, antzeman daiteke kasu honetan ikasleek aitortzen dituzten irain eta eraso fisikoen eragin maila altuagoa dela. Ikerketa horretan ere beste alde adierazgarri bat topa daiteke: ikasleek irakasleen mailaren parekoa edota pixka bat handiagoa den eragin maila azpimarratzen dute. Datu hori ez da agertzen aipaturiko gainerako lanetan: horietan, irakasleek jokabide erasotzaile gehiago jasotzen dituztela adierazten dute, ikasleek aitorturikoaren aldean, eta, horrez gain, irakasleek baieztatzen dutenez, ikasleenganako jokabide erasotzaile gutxiago dituzte, eraso fisikoen kasuan salbu. Izan ere, azterlan gehien-gehienetan, irakasleek jasotako erasoei dagokienez, ikasleek onarturiko eragin maila baino txikiagoa dela adierazten dute irakasleek.

Azterlan guztietan talde guztiak bat datozen gaia gatazka horien eraginaren ordena da, irakasle eta ikasleen artean. Irakasleak kexu dira batez ere gelaren martxa eteten duten portaerez, horietako askok jokabide erasotzaile gisa bizitzen dituztelako lana egitea galarazi eta ezinegona sorrarazten dietelako. Ikasleek ere onartzen dute jokabide horiek direla ohikoenak. Ondorenean jarrera txarrak eta errespetu faltak agertzen dira, eta eraso fisikoek oso agerpen txikia dute, bai ikasleen ustez bai eta irakasleen iritziz ere. Atentzioa ematen du datu horiek Piñuelenak (2006) bezalakoe-tatik aldentzea.

Irakasleen ikasleenganako jokabide erasotzaileen inguruko datuek ikastetxeko komunitateari pentsarazi egin behar diote, eta horien artetik irakasleei bereziki. Ulertzekoa da zenbait mementotan burua galtzeko arriskuan egotea, baina beharrezkoa da kontzientzia handia izatea irakasle-ikasle harremanen asimetriaren eta irakasleen eredu paperen inguruan. Irakasleek botere handia dute, nahiz eta elkarriketa guztietan agertu agintea galdu egiten dutela, eta kalte handiagoa egin dakioke ikasleari barregarri utziz edo harremaneko jokabide arbitrarioak izanez.

Familiei dagokienez, berriro ere irakasle eta ikasleen arteko gatazken inguruan egiten dituzten irudikapenek oso eredu ezberdinak erakusten dituzte. Gurasoek eragin txikiagoa ematen diete beren seme eta alabek eragindako gatazkei, nahiz eta haiek onarturikoak izan, eta kontrako kasuan, ikasleen maiztasunetik gertuago dauden datuak agertzen di-

³ Kasu horretan ikasleei bakarrik galde egin zitzairen, eta bakarrik irain eta erasoengatik.

tuzte irakasleenetik gertu egon baino. Ez dirudi lan erraza, beraz, familiek eta irakasleek bizikidetzara arazoak ulertzeko modu berdina izatea. Irakasleak eta ikasleak ere ez dira ados jartzen. Beharbada, ekimenen bati hasiera ematerakoan ikastetxeko komunitateko hiru taldeei lagunduz izan behar da, beren ideien eta horien arteko aldean inguruko kontzientzia hartuz, eta batzuk bestekin alderatuz.

Egoera berdin baten inguruko ikuspuntu ezberdinen arteko distantzia horren adibide bat irakasle askok azpimarratzen dutena izan daiteke, ikasleek beren artean tratatzeko duten moduaren inguruan. Irakasleentzat, erabilitako hiztegia, askotan ezizenez edo irainez beterikoa, edota zenbait jokabide fisiko, oso erasotzaileak dira, baina irakasle askok ulertzen dute horrek guztiak ez duela esanahi bera gazteentzat. Belaunaldien arteko haustura zentzu horretan garrantzitsua dela antzematen da. Distantzia gutxiagoko ereduak ezarri bada ere autoritarismoari dagokionez irakasle eta ikasleen artean, kulturen arteko distantziak bertan dirauela nabarmena da. Hain zuzen ere, ikasleen heren batek baieztatzen du “bi mundu ezberdin direla”. Irakasle askok ere etsipena eta nekea aipatu zuten, ikasleen aldetiko ezagutzarenganako interes faltaren ondorio beren ustetan. Gazteek egun izateko duten modua eta garai batean zutenaren inguruko aipamenek, elkarrizketa eta eztabaida taldeetan ere neurri bateko maiztasunarekin errepikatu izan zirenak, argi uzten dute nolabaiteko malenkonia sumatzen dela, eta horrek distantzia kulturala areagotzen laguntzen duela.

Aitzitik, irakasleak eta ikasleak bat datozen eremua **irakasle onaren ezaugarriak** zerrendatzearena da. Irisgarriak izatea, ikasleengatik arduratzea eskoletako gaiez haratago, eta beretzat garrantzitsuak direla irisarazten jakitea dira gehien aipatu diren ezaugarrietako batzuk. Oso interesgarria da azpimarratzea ikasleek ez dituztela irakasle “bigunak” nahi. Askotan ordena jartzen jakiteko bertutea nabarmentzen dute, errespetua irabazten jakitea. Hala ere, hori ez da nahikoa, eta harremanen esparruko beste dimentsio bat lortu nahi dute, irakaskuntzaren esparruko bakarrak izatearen orde haratago doana. Irakasleek elkarrizketa eta eztabaida taldeetan hitz egin dutenean, ezaugarri horien garrantzia ere onartu dute eta horrekin batera argitu dute zaila dela oreka ia magiko hori lortzea kontrolaren eta afektuaren artean. Modu berean, jasotako hasierako prestakuntzak ez duela helburu hori lortzen laguntzen ere adierazi dute. Zentzu horretan, irakasle askok azpimarratu dute, OHOkoi goi mailako ziklotik datozen irakasleek erraztasun handiagoa izaten dutela mota horretako harremana eratzeko, nahiz eta beti bezala, ezin den eta ez litzatekeen orokortasunez hitz egin behar.

Azterlanaren emaitzek ikastetxeko indarkeriaren beste modu baten inguruko ondorioren bat ateratzea ahalbidetzen dute, **bandalismo jokabideak**, hain zuzen. Eragina eskasa da beste gatazka batzuekin alderatuz gero, baita irakasleen ustez ere. Puntu hori bat dator beste lanetan topaturiko datuekin (Martín, Rodríguez, Marchesi, 2003, 2005; Eusko Jaurilaritza 2004, Kataluniako Generalitatea, 2002). Interesgarriena ikasleek horrelako jokabideak gauzatzeko ematen dituzten arazoak dira. Gogoratu behar da hormak margotzen, mahaiak apurtzen edo bestelako gauzak txikitzen dituzten ikasleak egotearen zergatia aurkezten zuen dilemaren erantzunetan, ikasleen erdiak aukeraturako erantzuna “ondo pasatzen duzu, barre batzuk egiten ditugu” izan zela, eta ia heren batek “ez da zurea, zer axola dio” erantzun zuela. Guztona denaren inguruko balorazioa eta errespetua garrantzia gutxiago balorea dela dirudi gazteen artean, eta ikastetxeetan lantzea komenigarria litzateke.

Tratu txarren kasuan gertatzen zen moduan, mota horretako gatazketan agertzen direnak mutilak izan ohi dira modu esanguratsuan nesken aldean, bai irakasle eta ikasleen arteko harremanetan bai bandalismo jokabideetan.

Modu berean, interesgarria da ere irakasle emakumeak izatea gizonezkoak baino ikasleek errespeturik ez dietela eta eraso egiten dietela adierazten dutenak. Beharbada ikasleei haiek ahulagoak iruditzeagatik izan daiteke, edo beharbada irakasle emakumeak sentikorragoak izateagatik indarkeriaren aurrean. Ziurrenik bi arrazoien nahastura izango da, beste arrazoi posible batzuekin batera.

Ikasleen artean maila soziokulturalarekin uztarturiko aldeak existitzen ez badira ere, bai ikus daitekeela testuinguru ertain-baxu eta baxukoetako irakasleen eta familien emaitzetan irakasleei errespetua galtzearen erantzuna inkesta erantzun duten gainerakoetan baino gehiago agertzen dela. Testuinguru horietako familiek ere maiztasun handiagoz adierazi dute irakasleek beren seme-alabak iraintzen dituztela, eta ezinikusia egiten dietela. Badirudi, beraz, ikastetxe horiek babes handiagoa beharko luketela bizikidetza giro ona lortu eta mantentzeko.

Babes hori emateko, bai administrazioaren aldetik bai eta ikastetxe bertako baliabideetatik ere, garrantzitsua da gatazken sortzailatzat jotzen diren arrazoiak eta martxan jarri beharko liratekeen neurriak ulertzea. **Gatazken arrazoi** dagokienez, oso interesgarria da mundu guztiak irakasleak kanpo uztea eta erantzukizuna ikasleen ezaugarrietan jartzea. Ikasleek eurek ere egiten duten zerbeit da. Ia erdiek adierazten dute “ikasle oso gatazkatsuak daudelako” gertatzen dela, eta beste ia % 20k diote “irakasleen agintea ez dutela errespetatzen”. Proporzio horiek are handiagoak dira irakasleen kasuan, eta aldiz, ez dute beren menpe egon daitekeen faktorerik antzematen. Hala eta guztiz ere, bizikidetza arazoan arrazoi nagusia irakasleen ustetan ikasleak familietan hezteko dagoen modua da. Kexa hori behin eta berriro agertu da elkarrizketetan eta eztabaida taldeetan. Badirudi irakasleen ikuspegia dela gurasoak ez direla gai seme-alabak modu egokian hezteko. Modu berean, hedabideei eta gizarte indarkeriari buruz mintzatu izan dira, baloreen krisiari buruz bezalaxe. Dena dela, horri guztiari familiari baino garrantzia gutxiago ematen zaio. Batez ere, lankidetzaren gehien beharko luketen familien kasua da azpimarragarria. Beren seme-alabek arazo gehien agertzen dituztenak izan arren, askotan ikastetxearekin lankidetzaren gutxien agertzen dutenak dira.

Familiek beren aldetik, erantzukizun bera ematen diote beren gehiegizko tolerantziari eta ikasle oso gatazkatsuak eta agintearenganako errespeturik gabekoak egoteari. Irakasleek haiei egotzitako zenbait puntu onartzen dituzte, eta ez dituzte inolaz ere erruduntzat jotzen. Are gehiago, elkarrizketa eta eztabaida taldeetan askotan irakasleek duten meritua handia azpimarratu izan da eta haien lanaren zailtasuna norainokoa den, ez bakarrik ikasleengatik baizik eta familia batzuegatik. Izan ere, taldeetan parte hartu zuten guraso batzuek adierazitakoaren arabera, seme-alabak baino gatazkatsuagoak suerta daitezke zenbaitetan. Irakasleen lanarenganako jarrera hain ulerkorra eta positiboa irakasle batzuek adierazitako sentsazioari kontrajartzen zaio, beren irudiaren gizarte hondamenari buruz hitz giterakoan.

Emaitza horiek bat datoz funtsean aipatu izan diren beste azterlan batzuetan topaturikoekin, bai eta eskola-porrotaren inguruan eginiko beste batekin ere. Kasu hartan,

ikasleek beren buruari egotzen zizkioten arrazoiak, eta ez hainbeste beste faktoreei (Marchesi eta Lucena, 2002). Baloratu egin beharko litzateke ideia hori hain erroturik egotea zer neurritan den positiboa. Dударik gabe, positiboa da norberak bere mugen inguruko kontzientzia hartzea, baina modu berean da garrantzitsua ulertzea edozein prozesu konplexuan, esate baterako bizikidetzan, arrazoen elkarrekintza konplexua gertatzen dela, eta arrazoa ez dela faktore bakar bat izaten.

Bizikidetza hobetzeko hartu beharko liratekeen neurriei dagokienez, zenbait ondorio atera daitezke. Lehenengoa, irakasleen eta ikasleen iritzia ezberdina dela berriro ere ikastetxeko gatazkak konpontzeko erabiltzen den justiziari dagokionez. Ikasleen erdia bakarrik dago ados justiziaz ebazten direnaren baieztapenarekin aitzitik, irakasleen artean iritzia hori dutenak % 90 dira. Ikasleak ere banaturik agertzen dira baloratzean elkarrizketa edo zigorrak diren ikastetxeko arazoak konpontzeko biderik ohikoena. Beharbada, bi metodoak konbinatzearen ondorio izango da, elkarrizketa eta eztabaida taldeetan irakasle askok adierazitako moduan.

Badirudi irakasle gehienak ohartzen ari direla pixkanaka zigorrak, beraiek bakarrik, ez direla nahikoak. Horrek, halere, ez du esan nahi beharrezkotzat jotzen ez dituztenik. Ikastetxe gehienek ikasleekiko komunikazioa areagotzeko esparruak lortzeko neurriak jarri dituzte martxan. Taldeko tutoretzak asko baloratzen dira, baina banakako tutoretzen esperientzia existitzen den ikastetxeetan azken horien erabilgarritasun handia azpimarratzen dute, bai irakasleek bai ikasle eta familiek. Gauza bera gertatzen da ikasle laguntzaileen bitartekaritza programekin. Oraindik, baina, oso urriak dira. Halaber, oso interesgarriak dira jolastorduetarako jarduerak eskaintzera zuzenduriko ekimenak, horiek ikasleei positiboki erlazionatzen lagun diezaiekitelako. Adierazpen askotan nabarmendu dira jarduera horiek guztiak garatu ahal izateko lagun dezaketen bi faktore hauek: langileen egonkortasuna eta ikastetxearen tamaina irakasleak koordinatzea eta guztiak ezagunak izatea ahalbidetuko duen neurrikoa izatea.

Batez ere hezkuntzaren esparrukoak diren neurri horiekin batera, ikastetxeek gatazkak agertzea ekiditera zuzenduriko beste batzuk sendotu dituzte kontrol handiagoaren bidez. Irakasleek arreta handiagoa eman diete zaintzei, kontrol neurriak areagotu dira ikastetxean sartzen diren pertsonentzako eta zenbaitetan udaltzaingoaren laguntza ere eskatu izan da. Hala eta guztiz ere, ikastetxeek egoeraren kontrola mantentzen jarraitzen dute. Ikastetxeetako zuzendaritza taldeek eskainitako datuen arabera, gatazken % 7,6 poliziaren egoitzan edo epaitegietan eginiko **salaketa** bihurtzen dira.

Hala eta guztiz ere, datuek gatazka epaitegiraino iritsitako kasuak nahiko ezohikoak direla agertu arren, badirudi konponbide horrek gorakada izan duela. Horrek, jada adierazi izan den moduan, irakasleen eta familien iritzia ezagutzea ekarri zuen, neurriaren egokitasun eta erabilgarritasunaren inguruan. Emaizetatik ondoriozta daiteke, berriro ere irakasleek eta familiek ikuspuntu ezberdinak dituztela. Lau irakasletik batek bakarrik uste du bide hori egokia dela ikasleen arteko tratu txarren kasurako. Gurasoen artean, berriz, positiboki baloratzen du hirutik bik. Datu kuantitatibotik haratago joanez, interesgarria da talde batek eta besteak agerturiko ikuspegi alde elkarrizketa eta eztabaida taldeetan. Emaniko erantzunen arabera badirudi, irakasleek nolabaiteko babesgabetasun sentimendua bizi dutela, eta familiei, aitzitik, eskubideak bermatzeko bidea dela iruditzen zaie. Halere, erantzun horiek ulertzeko adierazi behar da ikasleen arteko tratu

txarren egoeren inguruko galdera izan arren, askotan kezka, batez ere irakasleek zutena epaitegietara iritsitako gatazken inguruan, ez zela ikastetxeko jazarpenari buruzkoa, baizik eta familiek irakasleei beste arazoren batengatik eginiko salaketen ingurukoa. Ikastetxeko jazarpenaren kasuan, ikastetxearen edo irakasle jakinen erantzukizunak kezkatzen zituzten.

Parte-hartzaileek talde eta elkarrizketetan emaniko erantzunetatik ondoriozta liteke, ez zela berez bide judizialarekiko desadostasun kontua, baizik eta dudarik gabe ondorio garrantzitsuak izango dituen neurrietara jo aurretik ikastetxeak ezarritako bideak erabili ez izanagatikoa kexua. Iritzi bera dute ikasle gehienek, eta zenbait guraso ere ados agertu dira, batez ere irakasleen aurkako salaketak izatean. Ikasleen arteko ikastetxe jazarpeneko kasuetan, familiei hobeto iruditu zitzaizen bide judiziala erabiltzea. Batzuetan arrazoitu zen ikastetxeak ez zituela neurri egokiak hartu, beste batzuetan, berriz, ikastetxeak ez zuela nahikoa baliabiderik arazoari aurre egiteko, aurre egin nahi izanda ere. Hala eta guztiz ere, ez zuten ukatu beren ustetan zenbait familiek azkartasunez hartzen dituztela erabakiak, edo ikastetxeekin lankidetzat gutxiko jarrera hartzen dutela.

Irakasleek nahiz familiek eginiko azterketan, beste kezka bat agertu zen gai horren inguruan, zehazki ikasleen arteko tratu txarren egoeran harrapatutako ikaslea ikastetxetik aldatzearen erabakiaren inguruan. Alde batetik, ez zen zuzentzat jotzen biktima izan beharra ikastetxe edo institutuz aldatu behar duena. Bestetik, erasotzailea hartu behar duen ikastetxe berriak aurre egin behar dion arazoa nabarmendu zen. Familiek batez ere azpimarratu zutena izan zen, ikastetxe aldatetaren neurria ondo etor dakiekeen edo ez alde batera utzita, neurria ez zela arazoarentzako benetako konponbidea. LOEk, hain zuzen ere, neurri hori ezartzen duen heinean, garrantzitsua izango litzateke ideia horiek guztiak kontuan hartzea araudiaren garapenerako.

Gatazkak sortzen direnerako ikastetxeen barne neurri dagokienez, bai familiek bai irakasleek, baina azken horiek batez ere, arazo bat dagoela uste dute egungo araudiarekin jarraitu beharreko prozeduran. Mota bateko zigorra jarri nahi bada, araudiak ezarritako urratsak jarraituz gero denbora galtzen dela adierazi zuten, eta galera hori ez dela koherentea gatazka batzuen larritasunarekin. Gainera, luzapenaren ondorioz neurriak indarra galtzen duela agertu zuten. Hausnarketa horietan parte hartu zutenek onartu zuten konponbidea ez dela erraza. Askok badakite arriskutsua dela beharrezkoa den parte-hartzea galtzea gauzak azkarregi egin nahi izateagatik. Edonola ere, azterlanean araudia berrikusteko eskaria antzeman da, azkartasuna erantsi ahal izateko.

Gai horri dagokionez, emaitzek argi uzten dute bizikidetzat batzordeek organo zigortzaile gisa funtzionatzen dutela batez ere. Logikoki, zigor bat erabakitzea beharrezkotzat jotzen denean, hori batzorde horren berezko funtzioetako bat da, baina badirudi irakasleek uste dutela prebentziozko funtzioa ere bete beharko lukeela, bizikidetzat hobetzeko beste neurri batzuk koordinatzeko.

Gatazkei dagozkien ondorioekin amaitu aurretik, garrantzitsua da azterlan honek argi utzi duen eta beste lan batzuekin bat etortzeagatik sendotzen den emaitza bat azpimarratzea (Adingabekoaren Defendatzailea, 2006; IDEA, 2005; Lucena, 2004). Txosten honetan aztertu izan diren gatazka mota ezberdinetan harrapatutako egotzarekin uztarturik

dauden ikasleen ezaugarri jakin batzuk identifikatzean datza. Isolaturik sentitzea, ikasle eskastzat izatea nor bere burua eta familiarengan konfiantza gutxi izatea dira **ikasleak ahulagoak bihurtzen dituzten faktoreak**. Gatazketan agertzeko arrazoi edo ondorio badira zehaztea lan zaila da. Gizakiaren garapenerako beste hainbat aldetan bezala, ziurrenik erlazio zirkularra izango da lineala baino: aldi berean arrazoi eta ondorio dira. Logikoki, ez da inongo determinismo motarik, aukerak besterik ez. Horrelako gatazkak ekiditeko esku-hartzeak nondik norakoa izan beharko lukeen ulertzen laguntzen duten faktoreak izango lirateke.

Gizarteratzearen garrantziak ikasleen gizarte gaitasunak garatzeko ekimenak martxan jartzera bultzatu ditu ikastetxe asko, baita hezkuntza administrazioaren programa zehatzen bidez ere. Oraindik agertzen den eztabaidaren gaia da, programen bidez egin beharko litzatekeen edo irakasle bakoitzak bere ikasgaitik lantzea eta ikasleekin ohiko elkarrekintzan garatzea hobe izango litzatekeen. Logikoa dirudi pentsatzea gizalegezkoak ez diren jokabideei aurre hartzeko modurik egokiena gizalegezkoak badirenak nahita irakastea dela, eta ikastetxeko partekaturiko proiektuak geroz eta argiago izan helburu hori, orduan eta indartsuagoa izango da haren esku-hartzea.

Eskola-porrotaren eta jokabide moldakaitzen arteko lotura ere, oso ezaguna den hezkuntza fenomeno da. Horrek ez du esan nahi eragina duen faktore bakarra denik (Marchesi, 2004). Ikasleen ongizate emozionala ezinbesteko garrantzia duen faktorea da ikastetxean arrakasta izateko. Jantzia eta kontent sentitu behar du nor bere burua ikasten jarraitu ahal izateko, eta horrek modu berean arrakasta esperientziak izatea ekartzea ikastetxeko lanetan. Aniztasunari arreta ematea, hau da, laguntza pedagogikoa ikasle bakoitzaren ezaugarri zehatzei egokitzea, bizikidetzak hobetzeko gakoetako bat da.

Bestalde, familiako harreman ona edozein pertsonaren garapenerako garrantzitsua izatea edozein esparru teorikoa agertzen den puntua da. Aurrerago aztertuko den moduan, ikasleak familia identifikatzen du eragin handieneko hezkuntza testuinguru gisa. Baina, ikastetxeak familiaren dinamikaren gainean esku hartu al dezake? Gai konplexua da hori. Familiaren eta ikastetxearen arteko komunikazioa hezkuntzaren kalitaterako faktoreetako bat da dudarik gabe, baina argi dagoela dirudi esku-hartze asko, beharrezkoak izan arren, ikastetxeko esparrutik haratago doazela, eta familiaren hezkuntza funtzioa sendotzeko ekimen zehatz gisa proposatu beharrezkoak direla.

Ezaugarri horiek arrisku faktoreak diren moduan, **balore sistema** jakin batek babeserako faktore gisa jardun dezake. Zer adierazten digu azterlan honek ikasleek eta haiek hezten dituzten irakasleek mantenduriko baloreen inguruan? Ondorio esanguratsuena da, morala ezinbesteko elementutzat hartzen dutela bai ikasleek bai irakasleek gizartearen garapenerako, erlijioa, zientzia, politika edo artea bezalako gaien gainetik. Emaidza hori bat dator Madrilgo Erkidegoko Adingabekoaren Defendatzaileak eginiko azterlanean (2006) lorturiko emaitzekin.

Zer eragin izan dute hezkuntza testuinguru ezberdinek balore horien eraikuntzan? Ikasleentzat beren familiak dira balioetan eragin handiena izan dutenak; bigarren tokian lagunak kokatzen dituzte; ondorenean hedabideak, eta azkenik irakasleak. Ordena hori bat dator berriro ere Madrilgo Erkidegoko Adingabekoaren Defendatzailearen azterketak agerturiko emaitzekin, eta hausnarketa eragin beharko lioke hezkuntza komunitateari

eta administrazioari, ikastetxeetan baloreen hezkuntzari nahikoa arreta eskaintzen zaionaren inguruan.

Ikerketa honek **hezkuntza testuinguru ezberdinen balorazioari** buruz ematen duen informazioa ez da, ordea, baloreetan izandako eraginari bakarrik mugatzen. Beste ondorio interesgarri batzuk eskaintzen ditu. Baloreen ikaskuntzarako iturri gisa ikasleek laugarren postuan kokatzen badituzte ere irakasleak, eskolatzearen osotasunaren garrantziaren (prozesua irakasleak bakarrik baino gehiago da), tolerantziarako hezkuntzaren, bizikidetza eta baloreen inguruan galde egiten zaienean, hiru ikaslelik bik diote nahiko edo oso garrantzitsua dela, eta antzeko ehunekoak onartzen du garapen sozial eta pertsonalean eragin handia duela. Hala eta guztiz ere, emaitzek erabat argi erakusten dute familia askoz ere garrantzitsuagoa dela beraiantzat. % 80k konfiantza dute familiarengan, % 91,5k diote senideek beren ikasketengatik ardura agertzen dutela. Eta irudi hain positibo hori elkarrenganako da. Familien % 80k baino gehiagok diote beren seme-alabei etxeko lanak egiten laguntzen dietela, haiek arazo pertsonalak eta ikastetxeak kontatzen dizkietela, aisialdiko denbora haiekin partekatzen dutela, eta etxeko bizikidetza arauak guztien artean adosturik ezarri direla.

Bestalde, familiek positiboki baloratzen dituzte irakasleak, goian adierazi den moduan, eta baita ikastetxeak orokorrean ere. Gutxi gorabehera, hiru gurasotik batek dio seme-alabak eskolaturiko ikastetxea edo institutua ona edo oso ona dela. % 93,4k diote oso pozik daudela seme-alabak ikastetxean eskolaturik egotearekin, eta % 81,9k diote ez luketela seme edo alaba ikastetxez aldatuko.

Zergatik da orduan hain negatiboa irakasleek familien inguruan duten irudia? Lau irakaslelik batek bakarrik uste du gurasoek nahikoa arreta eskaintzen dietela seme-alaben ikastetxeko jardueri, eta hirutik batek dio etxebizitzetako bizikidetza okertu egin dela azken urteetan. Modu berean, gutxi dira guraso eta seme-alaben artean komunikazio ona dagoela uste dutenak. Berriro ere emaitzak oso adierazgarriak dira, eta talde ezberdinen ikuspegiak koordinatzearen beharra islatzen dute. Koordinazioa testuinguru soziokultural baxu eta ertain-baxuko ikastetxeetan da beharrezkoa, iritzi horiek maiztasun handiagoarekin agertzen baitituzte irakasleek.

Irakasleen ikuspegi negatibo hori ez da familiaren egoerara bakarrik mugatzen, hezkuntzara ere zabaltzen da. Irakasleen % 68,8k uste dute okertu egin dela azken urte hauetan. Datu hori kezkatzeko modukoa izan arren, adierazi behar da Madrilgo Erkidegoko Adingabekoaren Defendatzailearen azterketan gauza bera baieztatzen dutenen ehuneko baina nabarmenki baxuagoa dela, kasu hartan % 88,5k eman zutelako erantzun hori.

Irakasleak ere oso kritikoak dira hedabideek hartzen duten paperarekin ikastetxeko bizikidetza arazoan aurrean. % 70k diote ikastetxeko bizikidetzaren irudi desitxuratua ematen dutela, nahiz eta inkesta erantzun zutenen erdiak onartu gatazka horiei garrantzia ematen lagundu dutela. Ez luke zertan zaila izan bi funtzioak bateratzea. Dударik gabe hedabideek berebiziko garrantzia duen balia bidea eratzen dute gizartea kontzientziatzeko, baina arreta handiagoa izan beharko lukete informazioa aurkezterakoan, oso delikatu baina. Justifikaziorik gabeko alarma egoerak sortzen laguntzea, edo askotan nahi izan gabe, portaera eredu maltzurak eskaintzea ekidin behar da.

Zer balorazio jasotzen du administrazioak testuinguru honetan? Kasu honetan ere, irudia ez da positiboa. Irakasleen kasuan, % 28 bakarrik dago ados administrazioak ikastetxeetako bizikidetzaren arazoengatik inguruan kezka agertzen duenaren baieztapenarekin. Ehunekoak % 5,5era jaisten da hobetzeko politika eraginkorra den galdetzean. Familiak positiboagoak dira balorazioan. % 40k uste dute administrazioa kezkatu dagoela, eta % 18k eraginkorra dela. Joerak Madrilgo Erkidegoko Adingabekoaren Defendatzaileak eginiko azterlanetan topaturikoen oso antzekoak dira, nahiz eta kasu honetan ehunekoak baxuagoak izan.

Aurreko azterlanetan lorturiko emaitzak ikusita itxaron zitezkeen moduan, ondorioen baturak argi-ilunak dituen irudia ematen du. Hala eta guztiz ere, beharbada garrantzitsua dena da bizikidetzaren hobekuntza arrakastaz lantzeko gai izaten ari diren ikastetxeetako ekimen interesgarriak berreskuratzea, eta horiek sektore guztietatik sustatzea. Behingoz onartu beharko litzateke bizikidetzaren ikastea ikastetxeko esparrua nabarmenki gaituzten duen erantzukizuna dela, eta erakunde horrek gizarte osoaren babesa sentitu behar duela lan horren garapenean.

ARARTEKOAREN GOMENDIOAK

6. ARARTEKOAREN GOMENDIOAK

MAILA OROKORREKO GOMENDIOAK EDO IZAERA ARAUTZAILLEKOAK, HEZKUNTZA ADMINISTRAZIOARENAK BERARENAK DIRENAK

1. Ikastetxeen parte-hartzea bultzatzea, bizikidetzaren hobekuntzarako programa eta planetan. Praktika onak hedatzea eta esku-hartze programak barreiatzea, ebaluatu, eta eraginkorrak direla baieztatu ondoren.

Eginiko azterlanak agertzen du, ikastetxeek ez dituztela neurri batean ezagutzen hezkuntza Administrazioak sustatzen dituen Planak, bizikidetza hobetze aldera. Beste kasu batzuetan, planak ezagutzen dituzte, baina ez dute horietan parte hartzen.

Horrela bada, plan horiek existitzen direla jakinaraztea gomendatzen da, batez ere zuzendaritza taldeen eta Eskola Kontseiluko kideen artean, eta horrekin batera, ikastetxeak horietan parte hartzera bultzatzea.

Bestalde, batzuetan hezkuntza Administrazioak bultzatuta, baina beste hainbatetan ikastetxeen euren edo bakearekin konprometituta dauden taldeen ekimenez, badira gure artean ikastetxeetako bizikidetza hobetzeko helburua duten hainbat ekimen: ikasleen arteko bitartekaritza esperientziak, bakerako eta bizikidetzarako hezkuntza programak, bizitzarako ezagutza eta gaitasunen gaineko hezkuntza, baloreen hezkuntza, hezkidetzak, etab.

Beharrezkoa da programa horiek ebaluatzea, emaitzak eta eraginkortasuna baieztatzea, eta hori guztia frogatutakoan, programak praktika oneko eredu gisa hedatzea eta horien barreiapena babestea.

2. Ikastetxeei babesa ematea baliabideen, aholkularitzaren, irakasleen prestakuntzaren eta bizikidetza planak martxan jartzen lagun dezaketen material zehatzen bidez.

Hezkuntza Administrazioak sustatutako jardunbideetako bat (ikusitxo honetako I. eranskina) materialak, orientabideak, dokumentazio bibliografikoa eskaintzea da, Berritzeguneen bidezko aholkularitza eta babes baliabideekin, hezkuntza Ikuskapenare-

kin edo xede horrekin sortutako taldeekin batera, adibidez, Hezikidetza programaren arduraduna.

Proposamena, alde batetik, jardunbide horiek sendotzea da, eta, bestetik, administrazioak sustaturiko programen eraginkortasunaren gainean, irakasleek nahiz familiek egiten duten balorazioa –oso kritikoa– kontuan hartzea.

Bizikidetza sistematikoki lantzeak, indarkeriari aurrea hartzeak, gatazka eta erasoetan modu eraginkorrean esku hartzeak, etab., errekurtoez gain, hainbat gaitasun eta ahalmen izatea ere eskatzen du, eta irakasle guztiak ez dira beti horretarako trebatuta egoten.

Hezkuntza sistemaren barruan horretan trebaturik dauden zenbait profesional egon daitezkeela alde batera utzita, beharrezkoa da hasierako prestakuntzan nahiz irakasle guztien trebakuntza iraunkorrean gizalegezko jokabideen aldeko gaitasunak eranstea, taldeak kudeatzeko teknikekin edo gatazkek kudeatzekoekin batera.

Prestakuntza planek ere, banakako eta taldekako tutoretzak garatzeko trebakuntza zehatza izatea gomendatzen da, jazarpen egoeretan ere behar bezala esku hartzeko aukera izan dezaten.

3. Bazterketa ekiditea, heterogeneotasunaren alde egitea, eta arreta eta baliabide bereziak ematea arazoak pilatzen dituzten ikastetxeei edo sektore ahulenei.

Zoritzarrez, azterlanek agertzen dute hemen azterturikoak bezalako jokabideak ikastetxe guztietan antzematen direla. Baina guztietan ez da neurri berean gertatzen, ezta ondorio berdinekin ere. Ikastetxe batzuetan, arrazoi ezberdinengatik eta askotan antolakuntzarekin berarekin zerikusirik ez dutenengatik, arazo ugari pilatzen dira, eta, kasu horietan, bizikidetzaren kudeaketa bereziki zaila izaten da.

Hezkuntza Administrazioak marjinaltasunaren pilaketa edo bereziki gatazkatsuak diren egoerak ekidin behar ditu ikastetxeetan –normalean “eskolako ghettoak” bezala eza-gutzen dira–, horrek ekar dezakeen gatazka arriskua ekarrita ere. Aldi berean, ordea, arreta berezia eta baliabide gehiago eskaini behar zaizkie behar eta arazo gehien dituzten ikastetxei.

Ikuspegi horretatik abiatuz, azterlanak kezkarriak diren bi gertakari gutxienez azpimarratzen ditu, eta horiei arreta zehatza eskaini behar zaie:

- Bereziki ahulak diren sektoreei, babes handiagoa behar dutenei edo maila sozio-ekonomiko baxuko biztanleei laguntza ematen dieten ikastetxeak.
- Atzerriko ikasle kontzentrazio handia duten ikastetxeak orain dela gutxiko errealitate dira, eta jarraipen handiagoa exijituko du.

4. Egungo esparru arautzailea berrikusi eta osatzea. Ikasleen eskubide eta betebeharren Dekretua aldaraztea.

Erakunde honek urteak daramatza egungo esparru arautzailea berrikusi egin behar dela azpimarratuz, eta zehazki, ikasleen eskubide eta betebeharrei buruz indarrean dagoen Dekretua (160/1994 Dekretua).

Hamarkada bat baino gehiagoko esperientziak erakutsi du dekretu horrek ez duela balio egungo arazo askori erantzun egokia eta azkarra emateko. Hain zuzen ere, ikastetxeetan gatazkak konpontzeko edo zenbait jokabide jakinen aurrean hartzen diren erabaki asko adierazitako dekretu horretatik kanpo hartzen dira, eta, ondorioz, esparru arautzaile argiak eskainiko lukeen babes eta bermerik gabe.

Araudi berriak esperientziak agerturiko gabeziak zuzendu beharko lituzke, egoera eta errealitate berritzaileak edo sentsibilitate handienekoak erantsi, autonomia eta erabakiak hartzeko ahalmen tartea handitu, prozeduren azkartasuna erraztea beharrezkoak diren bermeak gutxitu gabe, eta abar.

Berrikuspen hori alde batera utzita, badirudi beharrezkoa dela esparrua osatzea ere, oinarrizkoak ere badiren aldeak arautzen dituzten beste arau batzuekin, esate baterako, irakasleen eskubide eta betebeharrak, edo familien eskubide eta betebeharrak.

5. Dauden jarduera protokoloak berrikustea eta beste berri batzuk garatzea, zabalduen dauden edo larrienak diren indarkeria egoerei aurre egiteko.

Esku hartzeko protokoloak egoteak zenbait egoerei erantzun goiztiarra ematea aurreikusten du, erantzukizunak argitzea, koordinazio bideak aurreikustea, aldeei bermeak eskaintzea, jarraipena erraztea, etab.

Gure artean bada jada esku hartzeko protokolo bat, jazarpen egoeretan erabiltzeko (*“Ikastetxe batean tratu txarren aurrean jarduteko gida”*).

Txosten honetako I. eranskinean dokumentu horren edukiaren laburpena jaso da, aipaturiko Gidaren balorazioa, eta 2006ko ekainaren 20a bitarte izandako aplikazioak emaniko hainbat datu. Hori guztia Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak Artatekoari helarazitako dokumentu baten bidez adierazi zen.

Ez da denbora asko igaro adierazitako protokoloa martxan jarri zenetik, baina beharrezkoa izango da erabilpen eta erabilgarritasunaren jarraipena egitea. Horrela, honakoak bezalako aldeak berrikustea komenigarria litzateke: esku-hartze eskaeren jatorri ohikoena zein den eta kasuen izapidetzean mantentzen diren konfidentzialtasun bermeak nahikoak diren, zenbait familiak erakunde honi adierazitako kontsulta eta kexen arrazoiak izan delako; salatutako gertakarien, esku-hartzearen errekerimendu data eta beharrezkoak diren neurriak hartzearen artean igarotzen den denbora; ikastetxeko jazarpentzat jotako egoeretan hartutako neurrien eraginkortasuna, eta jazarpentzat hartu ez arren salatu

izan diren beste gertakari batzuetako neurriak (gutxi gorabehera, joan den ikasturtean salaturiko kasuen erdia horrelakoak izan ziren).

Gida horren berrikuspen edo jarraipenarekin batera, indarkeriako beste egoera batzuetarako protokolo zehatzak egitea proposatzen da, larritasunaren edo hedapen maila kontuan hartuta.

IKASTETXEEN ANTOLAKUNTZARI ETA LEHENTASUNEI ERAGITEN DIETEN GOMENDIOAK

6. Bizikidetzaren hobekuntza eta edozein motatako tratu txarren gaitzespena jartzea ikastetxe ororen lehentasunezko helburu gisa.

Ikastetxeko giroa hobetzeko ezinbesteko faktoreetako bat ikastetxe bakoitzak ahalmen sozial, emozional eta moralei garrantzia ematea eta lehentasunen artean kokatzea da. Horrek isla du curriculumean, antolakuntzan, ikastetxeko tarte eta eremu guztien antolakuntzan, eta ikastetxeko “bizikidetzaren Plana” bezala ezagutu ohi denaren barruan zehaztu daiteke.

Adierazitako plana dokumentu jakin batean zehazten den edo plan orokorragoetan barneratzen den alde batera utzita, Ikastetxeko Planean edo Ikastetxeko Curriculum Proiektuan, adibidez, eta, edonola ere, izapide berria edo dokumentu burokratikoa bilakatzea edo horretan soilik geratzea ekiditen saiatuz, garrantzitsua dena benetako konpromisoa islatzea da, jarrerak zehazteko eta hezkuntza komunitatearen barruan sinergiak sortzeko balio izan dezala, ikastetxeko proiektuak eta hezkuntza praktika antolatuz.

7. Ikasleen parte-hartzea sustatzea zenbait gatazken kudeaketan.

Parte-hartzea areagotzeak, oro har, gatazkek gutxitzea ekarri ohi du, baita erantzukizun gehiago hartzea ere. Gainera, bizikidetzako gatazkek konpontzen ikasteko aukera eskaintzen du, praktikoki konponduz.

Gure artean bitartekaritza programen edo ikasle laguntzaileen gaineko esperientzia nabarmena dago. Horiek ikastetxe ezberdinetan garatu dira, kanpoko erakundeen laguntzarekin edo gabe. Txostenak oso balorazio positiboa jasotzen du horrelako programen inguruan. Horrelakoetan, ikasle jakin batzuk, bitartekaritza lanak hartzen dituzte bere gain, modu antolatuan.

Hori dela-eta, ona litzateke adierazitakoa bezalako jardunbideak ebaluatzea, jakinaraztea eta horien aplikazioa beste ikastetxe batzuetara hedatzea, kasu bakoitzean behar izan daitezkeen orientazioak eta mugak errespetatuz.

8. Banakako tutoretzen praktika zabaltzea.

Ikastetxe batzuek, beren ekimenez, banakako tutoretza saioak egiteko praktika ezarri dute taldekako tutoretzen osagarri gisa. Horrek denbora eta giza baliabideen aldetiko

ardura eskatzen du. Horrelako jardunbideen ondorio onuragarrietan adostasun maila handia dago, bizikidetza arazoak prebenitu eta konpontzeari dagokionez. Irizpide hori praktikan jarri den ikastetxeetako ikasleen, irakasleen eta familien iritzi positiboaren balorazioarekin sendotzen da.

Gomendio honetan banakako tutoretzen praktika ikastetxe guztietara zabaltzea proposatzen da. Horretarako beharrezkoa da administrazioak behar diren baliabideak eskaintzea: orientazioak, denbora aurreikuspenak eta ordu kontaketa, tutoreen prestakuntza, etab.

9. Taldekako tutoretzetan harremanetarako gaitasunak lantzea sistematikoki.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxe gehienetan tutoretza saio bat dute astero. Bertan, mota askotako jarduerak egiten dituzte, eta horiek ez datoz beti programazio edo aurretiko plan baten ondotik. Gizarte gaitasunak ikastetxeko eskola, tarte eta eremu guztietan landu behar direla ahaztu gabe, tutoretza saioei prestakuntzako eduki handiagoa ematea proposatzen da, sistematikoki ikasle guztiakin gaitasunak eta emozioak –larritasuna, tristezia, inbidia, amorrua, etab.– kudeatzeko ahalmenak landuz, adibidez.

Ikastetxeetako orientaziorako atalek ezinbesteko papera gara dezaketela uste da, eta laguntza handikoak izan daitezke gomendio hau eta aurrekoa aplikatzerakoan.

10. Talde-gela bakoitzean parte hartzen duen irakasle kopurua gutxitzea ahalbidetuko duen antolaketa ahalbidetzea, tutoretzen egonkortasun handiagoarekin batera.

Azpiegitura edo antolakuntzako kontu batzuk ikastetxeko giroari eragiten diote, adibidez, irakasle taldeen egonkortasuna, gela bakoitzeko dagoen ikasle kopurua edo esparruen banaketa irakasleen artean. Gomendio honetan azpimarratu nahi dugu, gutxienez, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeentzat bereziki esanguratsua den bat. Horietan, askotan, talde-gela bakoitzean parte hartzen duen irakasle kopurua oso handia izan ohi da aukera legalak ez aprobetxatzeagatik, adibidez irakasle berdin batek lehenengo zikloko esparru bat baino gehiago irakasteko aukera izatea (LOE, 26.3 artikulua). Horrek are gehiago sendotuko luke taldeko tutorearen ezinbesteko papera.

Ikuspegi horretatik aztertuz, ikastetxeetako langile taldeen egonkortasunaren alde egin beharko litzateke, edo gutxienez ikastetxean jarraitzen duten irakasleek talde-gela berdineko tutore gisa jarraitzeko aukera izan dezatela, bestelako arrazoiek hori horrela ez izatea gomendatzen ez badute behinik behin.

11. Eskola orduetatik kanpoko denborak eta esparruak aztertu eta ikuskatzen direla bermatzea.

Ikastetxeko denbora eta esparru guztiak hezkuntzako denbora eta esparrutzat hartu behar dira, eta beraz, xede horretarako aprobetxatu. Irizpide hori garraioa edo jangela

bezalako zerbitzu oso ezagunei aplikatu behar zaie, edo antolakuntza gutxiko tarteei, jolastorduei, kasu.

Kontua ez da ikastetxeko bitzita guztia arautzea edo are zurrunagoa bilakatzea, baizik eta denbora eta tarte horien antolaketa edo hezkuntza ikuskapena bermatzea. Horretarako, hautabide ezberdinak erabil daitezke, esate baterako, zenbait irizpide jartzea, jarduera jakinak antolatu edo sustatzea, horietan parte har dezaketen ikastetxeetatik kanpoko langileak behar bezala gaitzea... Eta ez bakarrik esperientziak agertzen duen moduan gelakoak ez diren momentuetako arazoak ekiditeko, baizik eta hezkuntza aukerak eta bizikidetzako hezkuntzarako balio handiko baliabideak ez galtzeagatik.

12. Bizikidetzako batzordeen funtzioak eta papera areagotzea. Sektore guztietan horietan parte hartuko dutela bermatzea.

Neurri bateko adostasuna dago bizikidetzako batzordeek edo parte-hartzeko beste organo batzuek gara dezaketenean paperaren gainean, ikastetxeko giroa hobetze aldera. Hala eta guztiz ere, horien ahalmena gutxitzen duten bi elementu adierazten dira. Bata, oso zabalduz dagoena, batzorde horien jarduna zigorrak jarri edo berrikustearen joera da. Bestea, ikasle eta familien ordezkariak horrelakoetan parte hartzeko duten aukera mugatua edo aukera eza da.

Hori dela-eta, badirudi beharrezkoa dela hezkuntza komunitateko sektore guztietako ordezkari organo horietan parte hartuko dutela bermatzea eta eskumenak zabaltzea. Praktikan gutxienez, izaera prebentiboko beste funtzio batzuek ere izan beharko litzuzke, arauak egin eta berrikusteko, horiek aplikatzeko irizpideen eztabaidarako, eta abarretarako.

13. Curriculumak eta metodologia egokitu eta erabiltzea, elkarrekin bizitzen ikasteko oinarritzako elementu gisa.

Gomendioak biltzeko eginiko atal honetan, antolakuntzako elementu jakin batzuen garrantzia azpimarratu dugu. Curriculumak, ordea, eragin handia du ikastetxeko bizikidetzan ere. Curriculumean ezberdina denarenganako errespetuaren balorea, tolerantzia, erantzukizuna, eskuzabaltasuna, justizia edo pertsonen eta inguruaren gaineko arduraren ezinbesteko elementu dira bizikidetzarako, eta zentzu horretan, curriculumeko eremu guztiak aprobetxatu egin behar dira. Hala eta guztiz ere, onartu behar da zenbaitek –LOEan aurreikusitako hiritarrentzako Hezkuntza esparrua, adibidez– aukera bereziak eskaintzen dituztela.

Metodologia ere, lankidetzako handiagokoa edo txikiagokoa izan, eraginkortasun handiko baliabidea da bizikidetzan ikasteko. Bizikidetzako arauen gainean eztabaidarako esparruak egotea ere baliabide garrantzitsua izan daiteke ikasleek beren iritziak agertu edo irizpideak defendatzeko aukera izan dezaten.

Ikuspegi horretatik aztertuta, hezkuntza morala, batetik, eta aniztasunarekiko arreta, bestetik, ezinbesteko bi oinarri dira ikastetxeetan bizikidetzan hezteko eta indarkeriari aurrea hartzeko.

14. Ikasleen eta familien parte-hartzea areagotzea bizikidetza arauak egin, aplikatu eta berrikusterakoan.

Eginiko azterlanak agertu du bizikidetza arauak egin, aplikatu eta berrikusterakoan parte-hartze eskasa dagoela, edo gutxienez sektoreek eurek –familia eta ikasleak– eskastzat jotzen dutela.

Hautemate horrek isla izan dezake bizikidetza batzordeak bezalako antolakuntza elementuen eraketa eta funtzioetan (ikus 12. gomendioa). Parte-hartzearen hobekuntzak, hala ere, ikastetxeko dinamikaren beste elementu batzuk ere bil ditzake. Eginiko azterlanaren arabera, gutxienez, honakoak azpimarra ditzakegu:

- Arauak aplikatzeko irizpideak elkarrekin berrikustea, bai irakasleen artean, baita horien eta ikasleen artean ere. Txostenak hainbat datu ematen ditu irakasle bartzuen eta besteen aplikazioan antzematen diren irizpide aldean gainean, eta baita horrek guztiak ikasleen balorazioan dituen ondorioen inguruan ere. Balorazioa nabarmenki negatiboa da.
- Ikerketa prozesuetan, espedienteetan eta zigorretan, alde bakoitzari beharrezkoa zaion informazioa ematen saiatzea eta ardura hori izatea. Arartekoari adierazitako kexetariko asko, hain zuzen ere, gurasoek informazioa izateko edo espedienteak aztertzeko dituzten zailtasunen ingurukoak dira.
- Gela bakoitzean bizikidetzako oinarrizko arauak eztabaidatu eta lantzea, horiek demokratikoki eta modu xehean eta argian ezartzen saiatuz, eta ikasleen parte-hartzea ahalbidetuz garatu behar diren jarduerak garatzean, arauak betetzen ez badira.

15. Gelako martxa etetea edo ikastetxeetako diziplina eza.

Hemen aurkezturiko azterlanean, beste askok bezala, hedatuen dagoen eta hezkuntzaren praktikan egunero eragin handiena duen arazoa nabarmentzen da, gelako martxa etetearena, hain zuzen. Bestelako jokabide larriago batzuekin alderatuz gero, uste izan daiteke garrantzi gutxiko arazo baten aurrean gaudela, edo irakasleen taldeari eragiten diona dela bakarrik. Ezta gutxiagorik ere.

Kontua ez da arazo ranking bat eratzea ikastetxeetako bizikidetzan eragin kaltegarrienak dituztenak zehazteko. Kontua da, gelako martxaren eteteak honako arazoak eta ondorioak dakartzala: denbora eta energia galerak; ikaskuntzan eta etekinetan eragin negatiboak izatea; gelako giroa nahastea; motibazioaren galera; ezinegona; eta abar.

Beharrezkoa da gelako diziplinari dagokion balio instrumentala ematea, ikastetxeko sektore guztietan duen garrantzia azpimarratzea, taldearen martxa onerako ezinbestekoak diren gutxieneko arauak modu argian ezartzea, errespetuzko eta laneko giroa bermatzeko beharrezkoak diren baliabideak eta prozedurak jartzea, ikasleari ikasketa prozesuan parte-hartzaile sentitzen laguntzea, etab. Azken batean, hezkuntza eskubidea bermatzean datza.

16. Informazioa zaintzea, familien artean prestakuntzako jarduerak sustatzea eta familia-ikastetxea lankidetzara estutzea.

Txosten honen sarreran, familien eta irakasleen artean antzemaniko irizpide alde handiak azpimarratu dira, alderdi kezkarrienetako bat bezala. Bestalde, oso ezaguna da eta modu berean azpimarratu da, familia-ikastetxea lankidetzara oso garrantzitsua dela; ezinbesteko faktoreetako bat da hezkuntzaren hobekuntzarako eta, bereziki, ikastetxeko bizikidetzarako.

Badirudi, beraz, beharrezkoa dela ikastetxeek familiei ematen dieten informazioa ahalik eta gehien zaintzea, eta haiei zuzenduriko prestakuntzako jarduerak sustatzea. Hezkuntzaren oinarrian egon behar duten balore eta printzipioen izenean bi jarrerak gerturatu saiatu behar da. Zenbait ekimen, “guraso eskolak” deitzen direnak adibidez, baliabide onak izan daitezke xede horretarako.

Edonola ere, ikastetxe-familia lankidetzari lehentasunezko arreta eman behar zaio, antzeman ahal izan diren arazo asko gainditu nahi badira.

IKASTETXEKO JAZARPEN EDO INDARKERIA EGOERATAN ESKU HARTZEKO GOMENDIO ZEHATZAK

17. Sektore guztiak elkarrenganako errespetuaren garrantziaz jabeatzea, eta edozein motatako indarkeria erabat baztertzea.

Ikastetxeko komunitatea eratzen duten gizakien taldearen ezaugarri ohikoenetako bat kideen iritzi aniztasuna da: ez bakarrik ezaugarri pertsonalenganako errespetua, baita bakoitzak antolaketaren barruan duen paper, funtzio edo estatusarenganako errespetua.

Hain konplexua eta heterogeneoa den giza talde bateko bizikidetzak ezin ditu gatazkak ekidin, eta ezin ditu ekidin behar, baizik eta besteenganako errespetuan kokatu. Bestalde, giza eskubideen kulturak eta gizalegeko bizikidetzak edozein motatako indarkeria deuseztatzea exijitzen du harremanetan, are gehiago izaera hezitzaileko erakunde batean.

Besteenganako errespetua izatea eta indarkeria erabat gaitzestea ezinbesteko bi balore dira, beraz, eta ikastetxeko komunitateko kide guztiek horretaz jabetu behar dute, bai prebentziozko ikuspegitik, baita arazoen aurrean esku hartzeko ikuspegitik ere.

18. Kasu guztietan biktimari laguntzea, eta babesaren eta bere segurtasunaren bermatzea.

Nagusikeriagatik tratatu txarreko egoeretan, ezagunak bilakatzen direnean, egin beharreko lehenengo gauza eta presak handienekoa erasoak jasanez duen pertsonari berehalako laguntza eskaintzea da, harekin hitz egitea, eta bere babesaren bermatzea. Hau da, lehenengo urratsetik antzeman behar du adineko arduradun bat dagoela konfiantza eskaintzeko, hark entzun, lagundu eta emaniko urratsen gaineko informazioa emateko. Harreman pertsonalak norberak bere buruari errua botatzeko saiakerak galarazteko balio behar

du. Jazarpeneko jokabideak erabat gaitzetsi behar dira, justifikaziorako erabiltzen den arrazoa edo aitzakia dena dela ere.

Antzeko helburuak bilatu behar dira tratu txarrak jasan dituen ikaslearen familiarekin harremanetan jartzekoan. Informazioa eman behar zaio, eta harekin lankidetzat estua mantendu behar da une oro.

19. Erasotzaileekin berehala esku hartzea, edozein erasoren aurrean tolerantzia zeroko mezu garbia helaraziz.

Halaber, pertsona erasotzaileei eta haien familiei dagokienez, ikastetxearen parte-hartzeak azkarra, tinkoa eta argigarria izan behar du. Helburuen artean honakoa bilatu behar da:

- Tolerantzia zeroko mezu garbia helaraztea, eta edozein motatako jazarpena berehalakoan utzaraztea.
- Ekintzak ekar ditzakeen ondorio negatiboak edo taldeko defentsako erreakzioak ekiditea.
- Familien eta ikastetxeen arteko lankidetzat sustatzea.

Estatuko Fiskaltza Nagusiaren “Gazte justiziako sistematik ikastetxeetako jazarpenaren tratamenduari buruz” izeneko 10/2005 Instrukzioan adierazten den moduan: *“Erasotzaileek ez badute berehalako balorazio negatibo sendoa jasotzen beren jokabideagatik, eta ez bazaie erantzun tinkoa ematen zigorrik gabe ez direla geratuko jakinaraziz, eta/edo neurri bateko “saria” lortzen badute entzutea eta mendetasuna eskuratuz gainerako ikasleen partetik, portaera erasotzailea jarduteko modu ohikoa bilaka daiteke, eta menderatzetik estilo normalizatua egingo du pertsonen arteko harremanetan.”*

20. Bideak erraztea ikasleek informazioa tutoreei edo ikastetxeko ardura-dunei helarazteko aukera izan dezaten.

Galdera-sortei emaniko erantzunen arabera eta ikasleekin izandako eztabaida taldeetan eztabaidatutakoa kontuan hartuta, atentzioa ematen digu haiek erabat jabetzen direla lekukotzen dituzten jazarpen egoeretan urratsak eman ditzaketela, horiek ekidin edo gainditzeko. Are gehiago esanda, askok uste dute zer edo zer egin beharko luketela jazarritako gelakidea defendatzeko, adibidez, hura defendatzea edo duten informazioa heldu arduradun bati ematea..., baina ez dute horrelakorik egiten beldurragatik edo bide egokiak ez izateagatik. Ohartzen dira, gainera, askotan helduek ez dituztela gertakariak ezagutzen, eta, beraz, ez dutela esku-hartzen horiek deuseztatzeko.

Beharrezkoa da “isiltasun lege” moduko hori apurtzea, eraso jasaten duenari kalte handia egiten diolako, baina modu berean jazarpenaren lekuko mutu direnen kontzientzia moralari ere eragiten diolako. Zenbait jokabideren balio etikoa zalantzan jartzean datza, eta modu

berean, ikasleei bidea erraztea –askotan gertakariak ezagutzen dituzten bakarrak– informazioa tutoreei edo ikastetxeko arduradunei helarazteko aukera izan dezaten.

21. Egoeraren gaineko etengabeko jarraipena egitea eta ikerketako edo zigorroko prozedurak ez luzatzea.

Ikasleen artean nagusikeriagatik gertatzen den jazarpena edo tratu txarra, oro har, denbora luzez mantendu ohi da. Hain zuzen ere, Ararteko erakundeetan jasotako kontsulta edo kexa gehienak urte askotan, eta batzuetan ikastetxe ezberdinetan eta hezkuntza maila anitzetan, pairatutako tratu txarreko egoerekin dute zerikusia.

Esku-hartzeak, jada adierazi den moduan, berehalakoa izan behar du; ikerketa eta zigorroko prozedurek ahalik eta azkarrenak izan behar dute; baina aldi berean, beharrezkoa izango da etengabeko jarraipena egitea, modu horretan arazoak gainditu diren eta hartutako neurriak eraginkorrak diren baloratzeke.

LOEak nahiz Adingabekoaren Zigor Legeak urruntzeko, edo ikastetxetik aldatu edo lekualdatzeko neurriak aurreikusten dituztela kontuan hartuta, horien jarraipena egitea beharrezkoa dela dirudi, edozein motatako urradura ekiditen saiatuz.

22. Jazarpen edo ikasleen arteko tratu txarreko egoeren aurrean, jarduteko aukera ezberdinen berri ematea eta orientatzea.

Egun, gizarte sentsibilizazio handia dago –neurri bateko alarma ere bai– jazarpeneko egoeren aurrean, baina, aldi berean, nahasmendu handia dago horren aurrean egin behar harko litzatekeenaren edo ez litzatekeenaren aurrean. Nahasmendua, adibidez, jarraitzea komeni den irizpideen gainean edo maila ezberdinen aurrean egin behar diren urratsen eta ondorioen gainean (gelako tutorearen aurrean; ikastetxeko zuzendaritzaren aurrean; hezkuntza ikuskaritzaren aurrean; bizikidetzako programaren arduradunen aurrean; Arartekoaren beraren aurrean, polizia edo epaitegien aurrean, etab.).

Ona litzateke hezkuntza komunitateko osagarri guztiek (ikasleek, familiak, irakasleek, zuzendaritza taldeek, etab.) oinarrizko informazio komuna izatea, erabakiak hartzerakoan orientazio gisa balio dezan.

Ararteko erakundeari, dagokion ikuspegitik, komenigarria iruditzen zaio xede dibulgatzailea eta argigarria izango duen gida erraz bat egitea.

BESTE AGENTE SOZIAL BATZUEN ESKU-HARTZEARI BURUZKO GOMENDIOAK

23. Zenbait kasu epaitegietara eramateari buruz.

Txostenak bide judiziala erabiltzearen gainean dauden jarrera ezberdinak nabarmentzen ditu, bizikidetzara larriki aztoratzen duten egoera jakin batzuen aurrean.

Kontu honi dagokionez, badirudi beharrezkoa dela gutxienez honako iradokizun hauek egitea:

- Kasuen jarraipena egitea bide judizialean (jarritako salaketak, auzi-uzteak eta artxibatzeak; hartutako neurriak; prozesuan harrapatutako adin txikikoen eskubide eta intimitatea...) eta horrek guztiak ikastetxean duen entzutea.
- Irakasleen eta zuzendaritza taldeen defentsa bermatzea, beren funtzioak garatzean izandako jarduerengatik.
- Alde guztiei gogoraraztea, justiziarekin lankidetzan jarduteko betebeharrak legala dutela.
- Bizikidetzaren edo bide judizialean salaketa jarri aurretik, gainerako bide guztiak agortzeko irizpide orokorra defendatzea.
- Protokoloa ezartzeko edo jarduteko irizpideak berrikusteko komenigarritasuna, poliziaren esku-hartzea edo ikerketa ikastetxean beharrezkoa izan daitekeen kasuetarako.

24. Hedabideen tratamenduari buruz.

Ikastetxeetako indarkeriaren gainean dagoen irudi soziala alderatzen bada azterlan honetan edo beste batzuetan lortutako emaitzekin, argi dago errealitatea desitxuratu egin dela. Ziurrenik horretarako arrazoia izan daiteke, zabaltzen diren kasuak bereziki larriak direla, edo berrietan gaiari ematen dioten tratamenduak azterketa zorrotzagoa ez ahalbidetzea.

Tratamendu desegokitik eratorritako ondorio kaltegarriak baloratu egin behar dira. Hedabideek, dudarik gabe, kontzientzia soziala sortzen laguntzen ari dira beste era batera oharkabean pasako lirakekeen jokabideak azpimarratuz. Modu berean, ordea, beharrezkoak ez diren alarmak sortzen lagun dezakete, eta imitazioagatik adibide txarren zabalkundea ahalbidetu.

Komenigarria litzateke hedabideek irizpide batzuk edo kode deontologikoak izatea kasu hauetarako. Kode horietan bertan agertzen diren adin txikikoen eskubideak jaso beharko lirakeke espresuki.

25. Beste agente sozial batzuekin lankidetzari buruz.

Datuek agertzen dute, maiz ikastetxean agertzen diren egoera edo arazoek bertatik kanpo edo ikastetxeak kontrol gutxi duen eremuetan sortutakoak direla, edo bertatik kanpo jarraitzen direla. Zenbaitetan, ikasleek ikastetxetik kanpoko gatazketan parte har dezakete eta ikastetxeak ez du horren gaineko inolako informaziorik izaten.

Adierazitako arrazoiengatik nahiz esku-hartzeetan eraginkortasun eta koherentzia handiagoa lortzeko, badirudi beharrezkoa dela inguruan lanean diharduten beste agente sozial

batzuekin lankidetzan aritzea: oinarrizko gizarte zerbitzuekin eta/edo espezializatuekin, polizia agenteekin, kaleko hezitzaileekin edo aisialdi programak kudeatzen dituztenekin, osasun zerbitzuekin, etab.

JARRAIPEN ETA IKERKETA BEHARRARI BURUZKO GOMENDIOAK

26. Errealitatearen eboluzioaren gaineko aldizkako jarraipena egitea ahalbidetzen duten azterlanak.

Azken urteetan eta gure inguruan azterlanak ugartu egin dira –eta ugartzen jarraitzen dute–. Gehienak *bullyingari* buruzkoak dira, eta metodologia eta baliabide ezberdinak erabiliz, maila honetan edo hartan dagoen jazarpen indizea zehazten saiatzen dira, edo indarkeria eredu ezberdinen zabalkunde maila argitzen, eta abar.

Azterlan horien baliozkotasuna oso eztabaidagarria da –eta batez ere eztabaidagarria da sarritan emaitzen artean egiten diren alderaketak– ikastetxeetako bizikidetzak hobetzen laguntzeko.

Edonola ere, helburua errealitatea eta haren eboluzioa hobeki ezagutzea bada, badirudi komenigarriena oro har erabilgarria izan daitekeen ikerketa jakin bat aldizka berregitea izango litzatekeela, aurrerapausoak eta atzerapausoak alderatzea posible izateko.

Zentzu horretan uste dugu, Herriaren Defendatzailearen hurrengo txostena –2000. urtean eginikoaren erreplika– horren adibide ona izan daitekeela. Modu berean, Arartekoaren txosten honetan biltzen denaren antzekoa den beste ikerketa bat erabilgarria izan liteke, hemendik urte batzuetara egitean. Horrek tarte jakin batean errealitatearen bilakaera zein izan den hobeki jakiteko aukera emango luke.

27. Esku-hartze programen eraginkortasunari buruzko azterlanak.

Praktikan eragina izateko eta bizikidetzak hobetzen laguntzeko ikuspegitik, gure artean faltan botatzen dena garatzen arituko liratekeen esku-hartze programak dira. Horrek programen eraginkortasuna neurtzea ahalbidetuko luke, arrakastarako eta porroterako faktoreak antzematea, eta, ondorioz, horiek hedatzen jarraitzea sustatzea edo ez, oinarri handiagoak izanda.

Kontuan hartu behar da bizikidetzak hobetzeko programak gauzatzen dituzten ikastetxeak ugari direla, bai beren ekimenez, bai administrazioaren bultzadaren ondorioz, eta horietako batzuek tradizio luzea dutela beren alde. Badirudi beharrezkoa dela programa horien eraginkortasuna ebaluatzea eta emaitzak publiko egitea. Jarduteko modu hori ez dago oso zabalduta gure artean, nahiz eta beste herrialde batzuek urte asko daramatzaten modu horretan lanean.

28. Egun Hezkuntza Sailak duen protokoloaren edo Ikastetxe batean tratu txarren aurrean jarduteko gidaren aplikazioaren, eta ikastetxeetan aplikatutako espediente eta zigorren jarraipena.

Zorionez, ikastetxeetako bizikidetzari eragiten dioten egoera gehienak ikastetxean bertan konpontzen dira, baliabide propioen bidez. Batzuk, ordea, bestelako maila batzuen esku-hartzea ari dira eskatzen, esate baterako, hezkuntza ikuskaritzaren edo sistema judizialaren esku-hartzea.

Jazarpen egoeren kasuan eta ikuskapenaren esku-hartzerako, bada protokolo edo gida zehatz bat orain dela denbora jakin batetik hona. Horren aplikaziotik, txosten honetako I. eranskinean bildutako zenbait datu jaso dira.

Beharrezkoa da protokolo edo gidaren aplikazioaren jarraipena egitea: aldagai ezberdinen arabera irekitako espedienteak (zikloa, maila, ikastetxe mota...); ikastetxearen gainetik dauden mailen esku-hartzea behar izan duten arazo motak identifikatzea eta larritasun handiagoaren edo txikiagoaren balorazioa; hartutako neurrien eta lortutako emaitzen azterketa; esku-hartzearen denboren edo azkartasunaren balorazioa; datu pertsonalen konfidentziasunerako emaniko bermeen berrikuspena, etab.

Esku-hartzeen kopurua urria denez, bai bide horretan, baita judizialean ere, ez dirudi zaila denik kasu guztien jarraipena eta balorazioa egitea. Ikastetxeek eurek bideratutako esku-hartze eta neurriei dagokienez, esparru zabala izanik, beharrezkoa litzateke gutxienez, zenbait lagin ateratzea edo arazo gehien agertzen dituzten ikastetxeetan jarraipen zehatza egitea.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- ANDERSON, C.S. (1982). The Search for School Climate: A review of the Research. *Review of Educational Research*, 52 (3) 368-420.
- ALONQUEO, P. eta DEL BARRIO, C. (2003). The incidence and meaning of peer bullying in a multi-ethnic school. In: Ross A. (ed.) *A Europe of many cultures*. Londres: CiCe.
- ANDRÉS, S. & BARRIOS, A. (2006). El modelo del alumno ayudante a discusión: la opinión de los alumnos participantes y sus beneficiarios. In J. L. Benítez & F. Justicia (Koord.) Monografikoa: Maltrato entre iguales y problemas de convivencia escolar. *Revista de Investigación Psicoeducativa*, 4 (2), 160-174.
- AVILÉS, J.M. eta MONJAS, I. (2005). Estudio de incidencia de la intimidación y el maltrato entre iguales en la educación secundaria obligatoria mediante el cuestionario CIMEI (Avilés, 1999). *Anales de Psicología*, 25, 1, 27-41.
- BERICAT, E. (1998). *La integración de los métodos cuantitativo y cualitativo en la investigación social*. Barcelona: Ariel.
- BJORKQVIST, K., ÖSTERMAN, K. eta KAUKIAINEN, A. (1992). The development of direct and indirect aggressive strategies in males and females. In K. Bjorkqvist eta P. Nimelä (eds.) *Of mice and women. Aspects of female aggression*. San Diego: Academic Press, 51-64 or.
- BRUGMAN, D., PODOLSKIJ, A.I., HEYMANS, P.G., BOOM, J., KARABANOVA, O. eta IDOBAEVA, O. (2003). Perception of moral atmosphere in school and norm transgressive behaviour in adolescents: An intervention study. *International Journal of Behavioral Development*, 27, 289-300.
- CAMPO, A., FERNANDEZ, A eta GRISAÑELA, J. (2004). *La convivencia en los centros de secundaria. Un estudio de Casos*. Eusko Jaurlaritzak-ISEI-IVEI. www.isei-ivei.net/cast/pub/convcast.pdf
- CEREZO, F. eta ESTEBAN, M. (1992). La dinámica bully-víctima entre escolares. Diversos enfoques metodológicos. *Revista de Psicología Universitas Tarraconensis*, XIV. Bol., 2, 131-145 or.

- COWIE, H. eta SHARP, S. (1996). *Peer Counselling in schools*. Londres: David Fulton Publishers.
- COWIE H, NAYLOR P, TALAMELLI L, SMITH PK. (2002). Knowledge, use of an attitudes toward peer support: a 2-year follow-up to the Prince's Trust survey. *Journal of Adolescence*, 25:453-467.
- CREEMERS, B. P. M. & REEZIGT, G. J. (1999). The Role of School and Classroom Climate in Elementary School. En H. J. Freiberg, (Ed.): *School Climate. Measuring, Improving and Sustaining Healthy Learning Environments*. Londres: Falmer Press.
- DEFRANCE, B. (2005) *Disciplina en la escuela*. Madril: MEC-Morata.
- Del BARRIO, C., MARTÍN, E., ALMEIDA, A. eta BARRIOS, A. (2003). Del maltrato y otros conceptos relacionados con la agresión entre escolares, y su estudio psicológico. *Infancia y Aprendizaje*, 26(1), 9-24.
- Del BARRIO, C., ALMEIDA, A., Van der MEULEN, K., BARRIOS, A. eta GUTIÉRREZ, H. (2003). Representaciones acerca del maltrato entre iguales, atribuciones emocionales y percepción de estrategias de cambio a partir de un instrumento narrativo: *SCAN- Bullying*. *Infancia y Aprendizaje*, 26(1), 63-78.
- Del BARRIO, C., GUTIÉRREZ, H., BARRIOS, A., Van der MEULEN, K., GRANIZO, L.(2005) Maltrato por abuso de poder entre escolares, ¿de qué estamos hablando? *Revista de Pediatría y Atención Primaria*, 7, 75-100
- DÍAZ-AGUADO, M.J. (1996). Programas de educación para la tolerancia y prevención de la violencia en los jóvenes. Madril: INJUVE-MEC.
- DÍAZ-AGUADO, M.J. (1999). Convivencia Escolar y Prevención de la Violencia. Madril: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. www.pntic.mec.es/recursos2/convivencia_escolar.
- DÍAZ AGUADO, M.J., MARTINEZ ARIAS, R. eta MARTÍN SEOANE, G. (2004). *Prevención de la violencia y lucha contra la inclusión desde la adolescencia*. Madril: Lan eta Gizarte Gaien Ministerioa, INJUVE.
- DURÁN, A. (2003) *La agresión escolar en centros de segundo ciclo de la ESO de Granada capital y su provincia*. Argitaragabeko tesia. Universidad de Granada.
- ELZO, J. (zuz.) eta BESTE BATZUK (2003). *Drogas y escuela VI. Evolución del consumo de drogas en escolares donostiarra (1981-2002)*. Donostia: Gizarte Laneko Unibertsitate Eskola.
- ELZO, J (2004). *La educación del futuro y los valores*. www.uoc.edu/dt/esp/elzo0704.pdf
- ELZO, J (2004). Mas allá del 'bullying'. (*El Correo eta El Diario Vasco*, 2004ko urriak 28).

- EUROPAKO BATZORDEA (2004). *Competencias clave para un aprendizaje a lo largo de la vida. Un marco de referencia europeo*. Puesta en práctica del programa de trabajo "Educación y Formación 2010". Grupo de trabajo B. "Competencias clave". Europako Batzordea. Hezkuntzaren eta Kulturaren Zuzendaritza Orokorra. http://www.educastur.princast.es/info/calidad/indicadores/doc/comision_europea.pdf
- EUSKO JAURLARITZA (2004) *Educación para la convivencia y la paz en los centros escolares de la Comunidad Autónoma del País Vasco*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Lan eta Gizarte Segurantzza Saila – Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila – Kultura Saila. www.berrikuntza.net
- FERNÁNDEZ, I. (1998). *Prevención de la violencia y resolución de conflictos. El clima escolar como factor de calidad*. Madril: Narcea.
- FERNÁNDEZ, I. (2001). ¿Qué entendemos por "disrupción"? In I. Fernández (Coord.), *Guía para la convivencia en el aula (17-25 or.)*. Bartzelona: CISSPRAXIS.
- FERNÁNDEZ, I.; VILLAOSLADA, E. eta FUNES, S (2002). *Conflictos en el centro escolar. El modelo del alumno ayudante como estrategia de intervención educativa*. Madril: La Catarata.
- FLANDERS, N. A. (1964). Some relationships between teacher influence, pupil attitudes and achievement. In B. J. Bilddle, W. J. Ellena: *Contemporary research on teacher effectiveness*. Austin (Texas): Holt Rinehart and Winston. Berrargitaratua: in E. J. Amidon & H. G. Hough: *Interaction analysis: theory research and application*. Upper Saddle River, New Jersey: Addison-Wesley, 1967.
- FLICK, U. (2004). *Introducción a la investigación cualitativa*. Madril: Morata.
- FREIBERG, J.H. (Ed.) (1999). *School Climate*. Londres: Falmer Press.
- GALTUNG, J. (1998). *Tras la violencia, 3R, reconstrucción, reconciliación, resolución*. Bilbo: Gernika Gogoratzuz.
- GARCÍA , R. eta MARTÍNEZ (2001) (Koord.). *Los conflictos en las aulas de ESO (Un estudio sobre la Comunidad Valenciana)*. Valentzia: Federació d'Ensenyament CC.OO eta L'Ullal Edicions.
- GENERALITAT DE CATALUNYA-DEPARTAMENT D'ENSENYAMENT (2003). *La convivencia en els centres docents d'ensenyament secundari. Programa y propostes pedagògiques*. Bartzelona: Generalitat de Catalunya.
- GÓMEZ BAHILLO, C. (2005). *Comportamiento social de los estudiantes de educación no universitaria en la Comunidad Aragonesa. Estudio preliminar*. www.educa.aragob.es/ryc/Convi.es/Descargas/INFORME%20PRELIMINAR.pdf
- GONZÁLEZ BLASCO, P (zuz.) (2006). *Jóvenes Españoles 2005*. Madril: Fundación Santa María. Ediciones SM.

- GUTIERREZ, H. (2001). *El maltrato entre iguales por abuso de poder en el ámbito educativo (bullying): las aportaciones de la entrevista semiestructurada*. Argitaragabeko tesia. Universidad Autónoma de Madrid.
- HARGREAVES, H. (1978). *Las relaciones interpersonales en educación*. Madril: Narcea.
- HAYDEN, C. eta BLAYA, C. (2001). Violent and aggressive behaviour in English schools. In E. Debarbieux & C. Blaya (Eds.) *Violence in schools. Ten approaches in Europe* (47-73 or.). Issy-les-Moulineaux: ESF.
- HERNÁNDEZ DE FRUTOS, T eta CASARES GARCÍA, E. (2002). *Aportaciones teórico-prácticas para el conocimiento de actitudes violentas en el ámbito escolar*. Iruña: Instituto Navarro de la Mujer.
- HERRIAREN DEFENDATZAILEA (2000) *Informe sobre violencia escolar: El maltrato entre iguales en la ESO*. C. del Barrio, E. Martín, I. Fernández, L. Hierro, I. Montero, H. Gutiérrez eta E. Ochaíta egina, UNICEFeko Espainiako Batzordearen enkarguz. Madril: Herriaren Defendatzailearen Bulegoko Argitalpena. Bertsio elektronikoa: www.defensordepueblo.es/informes/espec99/maininfoa1
- HUGH-JONES, S. eta SMITH, P. K. (1999). Self-reports of short- and long-term effects of bullying on children who stammer. *British Journal of Educational Psychology*, 69, 141-158.
- IDEA (2005). *Estudio de convivencia escolar. La opinión de estudiantes y docentes a nivel nacional*. Santiago de Chile: Hezkuntza Ministerioa/UNESCO.
- IDEA (2006). *Convivencia escolar, un estudio en México y su comparación internacional*. www.idea-educa.com
- KOHLBERG, L., POWER, F.C. & HIGGINS, A. (1997). *La educación moral. Según Lawrence Kohlberg*. Bartzelona: Gedisa.
- LEDERACH, J. P. (2000). *El abecé de la paz y los conflictos. Educación para la paz*. Madril: Los libros de la Catarata.
- LUCENA, R. (2004). *Variables personales, familiares y escolares que influyen en el maltrato entre iguales*. Argitaragabeko tesia. Universidad Complutense de Madrid.
- LUKAS, J.F. eta SANTIAGO, K. (2004). Evaluación de centros escolares de educación secundaria del País Vasco. *Revista Electrónica de Investigación Educativa*, 6 (2). <http://redie.uabc.mx/vol6no2/contenido-lukas.html>
- LUKAS, J.F. eta SANTIAGO, K. (2005). *Evaluación Educativa*. Madril: Alianza.
- MADRILGO ERKIDEGOKO ADINGABEKOAREN DEFENDATZAILEA (2006) *Convivencia, conflictos y educación en los centros escolares de la comunidad de*

Madrid. A. Marchesi, E. Martín, E.M. Pérez eta T. Díazek egin. Madril: Madrilgo Erkidegoko Adingabekoaren Defendatzailearen argitalpenak.

MARCHESI, A. (2004). *Qué será de nosotros los malos alumnos*. Madril: Alianza.

MARCHESI, A eta LUCENA, R. (2002). *Los valores del alumnado de educación secundaria de la comunidad de Madrid*. FUHEM/IDEA www.fuhem.es

MARTÍN, E. eta MAURI, I. (2001). Las instituciones educativas como fuente de influencia educativa. In C. Coll, J Palacios eta A. Marchesi (Koord.): *Desarrollo Psicológico y educación. Vol.II: Psicología de la educación*. Madril: Alianza Editorial.

MARTÍN, E.; DEL BARRIO, C.; MONTERO, I.; GUTIÉRREZ, H., FERNÁNDEZ, I. eta OCHAITA(2003). La violencia escolar en los centros de educación secundaria españoles. In A. Marchesi eta C. Hernández Gil (eds.): *Cambio educativo y fracaso escolar*. Madril: Alianza.

MARTÍN, E., FERNÁNDEZ, I., ANDRÉS, S., Del BARRIO,C. y ECHEITA, G. (2003). La intervención en los centros escolares: mejora de la convivencia y prevención de conflictos. *Infancia y Aprendizaje*, 26(1), 79-95.

MARTÍN, E, RODRÍGUEZ, V. eta MARCHESI, A. (2003) *Encuesta sobre las relaciones de convivencia en los centros escolares y en la familia*. FUHEM/IDEA www.fuhem.es

MARTÍN, E, RODRÍGUEZ, V. eta MARCHESI, A. (2005) *La opinión de los profesores sobre la convivencia en los centros*. FUHEM/IDEA www.fuhem.es

MATSUI, T., TSUZUKI, T., KAKUYAMA, T. eta ONGLATCO, M.L. (1996). Long-term outcomes of early victimization by peers among japanese male university students: model of a vicious cycle. *Psychological Reports*, 79, 711-720.

MORA-MERCHAN, J.A. (2000). *El fenómeno bullying en las escuelas de Sevilla*. Argitaragabeko tesia. Universidad de Sevilla.

NAYLOR P, COWIE H. (1999). The effectiveness of peer support systems in challenging school bullying: the perspectives and experiences of teachers and pupils. *Journal of Adolescence*, 22:462-479.

NORTH CENTRAL REGIONAL EDUCATIONAL LABORATORY -NCREL- eta METIRI GROUP (2003). *EnGauge. 21st century skills: literacy in the digital age*. 06/04/25ean <http://www.ncrel.org/engauge/skills/skills.htm>-n kontsultatua.

OCDE (2002). *Definition And Selection Of Competences (DeSeCo): theoretical and conceptual foundations. Strategy Paper*. 06/05/01ean http://www.portal-stat.admin.ch/desecco/desecco_strategy_paper_final.pdf-n kontsultatua.

- OLWEUS, D. (1973). Personality and aggression. In J. K. Cole eta D. D. Jensen (eds.): *Nebraska Symposium on Motivation*. Lincoln University of Nebraska Press.
- OLWEUS, D. (1978). *Agression in the schools: Bullies and whipping boys*. Washington, D.C.: Hemisphere.
- OLWEUS, D. (1979). Stability of aggressive reaction patterns in males: A review. *Psychological Bulletin*, 86, 852-875 or.
- OLWEUS, D. (1993). *Bullying at schools. What we know and we can do*. Oxford: Blackwell. Gazt. itzulpena: *Conductas de acoso y amenaza entre escolares*. Madril: Morata, 1998.
- OLWEUS, D. (1994). Annotation: Bullying at School: Basic facts and effects of a school-based intervention program. *Journal of Child Psychology and Psychiatry*, 35, 1171-1190.
- OLWEUS, D. (1997). Bully/victim problems in school: Knowledge base and an effective intervention program. *Irish Journal of Psychology*, 18. 170-190.
- O'MOORE, A.M., HILLERY, B. eta SMITH, P. (1989). Bullying in Dublin schools. *Irish Journal of Psychology*. 10, 426-441 or.
- OÑATE, A. PIÑUEL, I. eta ZABALZA, I. (2005). *Informe Cisneros VII: Violencia y acoso escolar en alumnos de primaria, ESO y bachillerato*. IIEDD www.acoso.escolar.com.
- OÑEDERRA, J.A, MARTÍNEZ P., TAMBO, I eta UBIETA, E. (2005). *El maltrato entre iguales, "Bullying" en Euskadi. Educación Primaria*. Eusko Jaurlaritza. ISEI-IVEI. www.isei-ivei.net
- ORTE, C. eta MARCH, M. X. (1996). *El conocimiento de la problemática de la inadaptación social entre el profesorado de la Educación Secundaria de Mallorca (Curso 1995-1996)*. Palma de Mallorca: Mimeo.
- ORTE, C., FERRÀ, P., BALLESTER, L. & MARCH, M. X. (1999) *Resultados de la Investigación sobre bullying en la Comunidad Autónoma de las Islas Baleares*. Palma de Mallorca
- ORTE, C., BALLESTER TOUZA, C., FERRÀ, P. & MARCH, M. X.(2000) *Bullying and peer aggression in the Balearic Islands (Spain)*. In, *Victimization of children and Youth: an International Conference*. Durham: New Hampshire.
- ORTEGA, R. (1992). Relaciones interpersonales en la educación. El problema de la violencia escolar en el siglo que viene. *Revista de Educación y Cultura*. 14, 23-26 or.
- ORTEGA, R. (koord.) (1998). *La Convivencia Escolar : Qué es y Cómo abordarla*. Sevilla: Andaluziako Juntako Hezkuntza eta Zientzia Kontseilaritza .

- ORTEGA, R eta MORA-MERCHÁN, J (1995). *Vida afectiva y moral en las aulas: el problema de la violencia entre compañeros*. Komunikazioa hemen aurkeztu zen: III Jornadas de Infancia y Aprendizaje/CL&E. Madril.
- ORTEGA, R eta MORA-MERCHÁN, J (1997). Agresividad y violencia. El problema de la victimización entre escolares. *Revista de Educación*. 313, 7-27 or.
- ORTEGA, R. eta DEL REY, R. (2001) Aciertos y desaciertos del Proyecto Sevilla Anti-violencia Escolar (SAVE). *Revista de Educación*, 324, 253-270.
- PAREJA, J.A. (2002). *La violencia escolar en contextos interculturales. Un estudio de la Ciudad Autónoma de Ceuta*. Argitaragabeko tesia. Universidad de Granada.
- PIÑUEL, I. (2006). *Informe Cisneros VIII: Violencia contra los profesores en la enseñanza pública de la Comunidad de Madrid*. IIEDD www.acoso.escolar.com.
- RAMÍREZ, S. (2006). *El maltrato entre escolares y otras conductas-problemas para la convivencia: Un estudio desde el contexto del grupo-clase*. Argitaragabeko tesia. Universidad de Granada.
- RIGBY, K. (1996). *Bullying in schools. And what to do about it*. Londres: Jessica Kingsley.
- RIGBY, K. eta SLEE, P. (1991). Bullying among Australian school children: Reported behavior and attitudes toward victims. *Journal of Social Psychology*, 131 (5), 615 – 627 or.
- ROSS, J. & WATKINSON, A. (Eds) (1999). *La violencia en el sistema educativo. El daño que las escuelas causan a los niños*. Madril: La Muralla.
- SÁENZ, T.; CALVO, J.; FERNÁNDEZ F; SILVÁN A. (2005). *El acoso escolar en los centros educativos de La Rioja*. Argitaragabeko txostena. Servicio de Inspección Técnica Educativa. Sector Rioja Baja-Logroño Este.
- SANDERS, D. eta HENDRY, L.B. (1997) *New perspectives on disaffection*. Londres: Cassell.
- SALMIVALLI, Ch. eta VOETEN, M. (2002). Connections between attitudes, group norms, and behavior in bullying situations. *International Society for Research on Aggression Kongresuan aurkeztua*. Montreal, 28-31.8.2002.
- SALMIVALLI, C.; LAGERSPETZ, K; BJÖRKQVIST, K.; ÖSTERMAN, K. eta KAUKIANEN, A. (1996). Bullying as a group process: Participant role their relation to social status within the group. *Aggressive Behaviour* 22, 1-15.
- SASTRE, G. eta MORENO, M.(2002). *Resolución de conflictos y aprendizaje emocional. Una perspectiva de género*. Bartzelona: Gedisa.

- SCHÄFER, M. eta MADSEN, K. C. (1998). *Victimisation and the consequences: A retrospective study of school bullying and a self-evaluation in adulthood* (eskuizkribua).
- SERRANO, A. e IBARROLA, I. (2005). *Violencia entre compañeros en la escuela*. Valentzia: Centro Reina Sofia para el estudio de la violencia.
- SHARP, S. eta SMITH, P.K. (1994). *Tackling bullying in your school. A practical handbook for teachers*. Londres: Routledge.
- SMITH, G. (1997). The 'Safer Schools – Safer Cities' bullying project. In D. Tattum & G. Herbert (eds), *Bullying: Home, School and Community*. London: David Fulton, 99-113 or.
- SMITH, P.K. (2001). What progress are we making in understanding and reducing bullying in schools? *International Conference on violence in schools and public policies* biltzarrean aurkeztua. Antolatzailea: Observatoire Européen de la Violence Scolaire. Paris, 2001eko martxoak 5-7.
- SMITH.P.K.(Ed.) (2003). *Violence in schools. The response in Europe*. Londres: RoutledgeFalmer.
- SMITH, P. K. eta SHARP, S. (eds) (1994). *School Bullying: Insights and Perspectives*. Londres: Routledge.
- SMITH, P.K.; MORITA, Y.; JUNGER-TAS, J.; OLWEUS, D.; CATALANO, R. eta SLEE, P. (eds.) (1999). *The Nature of School Bullying*. Londres: Routledge.
- SMITH, P.K., PEPLER.D. eta RIGBY,K. (Eds.) (2004). *Bullying in schools. How Successful Can Interventions Be ?* Cambridge: Cambridge University Press.
- SULLIVAN, K. (2000). *The antibullying Handbook*. Oxford: Oxford University Press.
- TORREGO, J.C. eta MORENO, J.M. (2001). Un modelo estratégico para la actuación global sobre conflictos de convivencia en centros educativos: "Proyecto Atlántida". In CCOO. *La convivencia y la disciplina en los centros escolares. Proyecto de Innovación "Atlántida" Educación y Cultura democrática*. Madril: Federación de Enseñanza de Comisiones Obreras, 13-28 or.
- TORREGO, J.C. eta MORENO, J.M. (2003). *Convivencia y disciplina en la escuela*. Madril: Alianza.
- UNESCO (1996). Delors batzordearen txostena: *La educación encierra un tesoro*. Madril: Santillana/UNESCO.
- URUÑUELA, P. (2006): *Disrupción y disciplina en la escuela. Aspectos conceptuales*. http://convivencia.mec.es/congreso_200603/

- Van der MEULEN K, SORIANO L, GRANIZO L,; Del BARRIO C, KORN S, SCHÄFER M. (2003). Recordando el maltrato entre iguales en la escuela: consecuencias. *Infancia y Aprendizaje*, 26(1), 49-62.
- VIEIRA, M. FERNÁNDEZ, I. eta QUEVEDO, G. (1989). Violence, bullying and counselling in the Iberian Peninsula. In Roland, E. and Munthe, E. (Eds) *Bullying: an International perspective*. Londres: D. Fulton Publishers.
- WATKINS, C. eta WAGNER, P. (1987). *School Discipline: a whole-school approach*. Oxford: Blackwell. Gazt. itzulpena: *La disciplina escolar. Propuesta de trabajo en el marco global del centro*. Bartzelona: Paidós/MEC, 1991.
- WHITNEY, I. eta SMITH, P.K. (1993). A survey of the nature and extent of bullying in junior/middle and secondary schools. *Educational Research*, 1, 3-25 or.
- YATES, C. eta SMITH, P. K. (1989). Bullying in two English comprehensive schools. In E. Roland eta E. Munthe (eds.): *Bullying: An international perspective*. Londres: David Fulton Publishers.
- ZABALZA, M.A. (1999). *Informe A convivencia nos Centros Escolares de Galicia. Cursos 96, 97 e 97, 98*. Santiago de Compostela: Consellería de Educación e Ordenación Universitaria.
- ZAITEGUI, N. (1998) *Algunas reflexiones sobre la convivencia*. Txostena hemen aurkeztu zen: Jornadas sobre Convivencia en Positivo. Bilbo, 1998ko ekaina.

I. ERANSKINA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA
IKERKETA SAILAREN JARDUERAK

IKASLEEN ARTEKO ELKARBIZITZARI BEGIRA EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILAK AURRERA ERAMAN DITUEN JARDUERAK.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak duela urte batzuk elkarbizitza eta bakerako hezkuntzari buruzko programak sustatzen ditu ikastetxeetan.

“Escola inklusibo baterantz” deritzona da Sailaren lehentasunezko ildoetako bat. Horretatik hezkuntza-erkidegoa osatzen duten pertsona guztien integrazioa sustatu eta elkarbizitza positiboa bultzatzen da, neurri handi batean indarkeriari aurre egin ahal izateko asmoz.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, **Elkarbizitza eta Bakerako Hezkuntza eta Ezagutzetan eta Bizitzarako Trebetasunetan Hezkuntza** programen bidez, hezkuntza-erkidego osoa ahalik eta ondoen bizi eta parte hartzeko giro bat sustatu nahi du ikastetxeetan. Halaber, ikasleak hitza, negoziazioa eta elkarrekiko begirunea elkarbizitzarako tresnak izango diren ingurune batean biziko dira.

Justizi, Lan eta Gizarte Segurantza eta Kultura Sailekin elkarlanean **“elkarbizitza eta bakerako hezkuntza Euskal Autonomía Erkidegoko ikastetxeetan”** azterketa egin zen 2004, urtean. Azterketa honen ondorio eta proposamenak dira, elkarbizitza eta bakearen gaian, hiru sailek jarduteko oinarria.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak funtsezko papera izan du **EURED Proiektuaren** garapen eta inplementazioan. Esperientzia hau aitzindaria da munduan bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloan. Europa osoko 17 herrialdek parte hartzen dute eta badu egitura egonkor gisa eratzeko asmoa. EURED Proiektua Ingalaterrarekin batera zuzentzen da eta Austria, Holanda, Hungaria, Italia, Alemania, Kroazia eta Frantziako adituek osatzen duten talde batek, Klagenfurt-eko Unibertsitatearen, Vienako Kultura Arteko Zentroaren eta UNESCOren babesarekin, ematen dio laguntza.

Parte hartzen duten 35 ikastetxeetatik bata Bilboko Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko bat da. (<http://www.Gernikagoratzuz.org>)

2004aren bukaeran **Hezkuntza-Foroa** izan zen. Kolektibo pedagogikoek, sindikatuek, ikastetxeen sareek, zuzendarien elkarteek, irakasleek eta familiek hartu zuten parte eta ondorengo web orrian aurki daitezke 7. foroaren, BALOREETAKO HEZKUNTZA: ELKARBIZITZA, BAKEA, HEZKIDETZA, ondorioak: http://www.consultec.es/clientes/hezkuntzaforoa/pdf/7_ES_Educación_en_valores.pdf

Bestalde, Hondarribian gertatu zen DBHko ikasle baten zorigaiztoko heriotzak agerian ipini zuen programa hauetan sakontzearen eta Hezkuntza Administraziozko zerbitzu desberdinetatik, Hezkuntza Berriztapenerako Zuzendaritzatik, ISEI-IVEItik eta Hezkuntza Ikuskaritzatik zehatzago, ekimen batzuk abian jartzearen beharra. Ondoren laburbiltzen dira:

HEZKUNTZA-BERRIZTAPENERAKO ZUZENDARITZAREN JARDUERAK **www.berrikuntza.net**

Jarduerak elkarbizitzaren eredu berri baten eta gatazka desberdin eraldatzearen aldeko apustua dute helburu, erruduntasuna, gaitzespena eta zigorra, balio duen tresna bakar gisa hartuta, gainditu ahal izateko modukoa. Halaber, gaitasunak ahalik eta gehien garatzea eta bizitzarako gaitasun eta funtsezko trebetasun guztien garapena sustatu nahi du eredu berri honek ikasle bakoitzarengan, bere sexua, etnia eta gizarte-maila zein den alde batera utzita.

Horretarako, **ELKARBIZITZA ETA BAKERAKO HEZKUNTZA eta EZAGUTZETAN ETA BIZITZARAKO TREBETASUNETAN HEZKUNTZA PROGRAMAK** lantzen jarraitu da eta, hedatzeko, aurkezteko triptikoak (web-en eman dira argitara) egin dira, eskatzen dituzten ikastetxeetan aurkezten direnak.

Praktikan jarri izanak ondorengo jarduerak ekarri ditu:

- **DAGOENEO IKASTETXEETARA BIDALI DIREN IKASLE, IRAKASLE ETA FAMILIENTZAKO MATERIALAK EGITEA.** www.ikasle.net
 “Zure esku dago” triptikoa Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat.
 “Elkarren arteko harreman hobeak izatea” agiria familientzat.
 “Elkarren arteko harreman hobeak izatea” agiria irakasleentzat.
 “Elkarren arteko harreman hobeak izatea: tratu txarren katea hautsi” inkesta ikasleentzat.
- **“Berdinen arteko tratu txarrei buruzko” MATERIALEN BILDUMA CDa LURRALDE ARDURADUNENTZAT ETA BERRITZEGUNEETAKO AHOLKULARIENTZAT:** Bibliografia, artikulua, jardura-protokoloak, prebentzio-programak, etab... ikastetxeetan sor daitezkeen eskariak bideratzeko lagungarri izango direnak.
- **“Emakumeen kontrako indarkeria” MATERIALEN BILDUMA CDa LURRALDE ARDURADUNENTZAT ETA BERRITZEGUNEETAKO AHOLKULARIENTZAT:** gelarako materialak, bibliografia, artikulua, web interesgarriak, etab..., prebentziorako hezkuntzan esku-hartzeak sustatu eta erraztuko dituztenak,
- **BERDINEN ARTEKO TRATU TXARREN GAIARI HELTZeko MATERIAL ETA BALIABIDEEN BANKU BAT SORTZEA, IRAKASLEEK ERABILTZEKO** www.elkarrekin.org/jsp/publico/index.jsp (materialak) eta www.saretik.net/ekoizpen (jardueren diseinuan parte hartzea).

TRATU TXARRAK SALATZEKO GUTUNONTZIA SORTU ETA BERORREN JARRAIPENA EGITEA, www.ikasle.net, behar duten pertsonen komunikatzeko era berri bat eskaintzeko asmoz. Egunero egingo da gutunontzi horren jarraipen pertsonalizatua. (Gai horri lotutako 148 mezu jaso dira eta guztiei erantzuna eman eta bideratu dira).

- **IKASLEEKIN ESKU-HARTZE ZUZENA:** arreta emateko materialen eta ikasle.net web-aren, bidez eta, horrela eskatuz gero, ikastetxeetan agertuz. Bi programen arduradun guztiek eta elkarbizitza eta aniztasunerako aholkulariek etengabe emango dizkiete aholkularitza eta orientabidea ikastetxeei.

bizitrebe@berrikuntza.net-en BIDEZ ERANTZUTEA MATERIALAK, INFORMAZIOAK, ETAB... ESKATZEKO ETENGABE EGITEN DIREN ESKAEREI. Materialak eta orientabideak bidaliz eman zaie erantzuna Euskadiko ikastetxeek eta beste erakunde, talde, udal, etab... batzuek materialak, bibliografia eta jarduteko eta esku hartzeko protokoloak emateko egin duten eskaerei. **(Gal honi lotutako 400 eskaera inguru daude eta era pertsonalean eman zaie erantzuna, materialak eta orientabideak bidaliz)**

- **PRESTAKUNTZA-IKASTAROAK.**

- **BERRITZEGUNEETAKO AHOLKULARIENTZAKO ETA HEZKUNTZA IKUSKARIENTZAKO PRESTAKUNTZA:**

- ✓ Gipuzkoa: mintegi eta tailerrak berritzegune guztietan, Sevillako Unibertsitateko Rosario del Riorekin.
- ✓ Bizkai eta Arabako berritzeguneak: mintegiak, Murtziako Unibertsitateko Fuensanta Cerezorekin.
- ✓ Hezkuntza Ikuskaritza: prestakuntza-jardunaldia, Kordobako Unibertsitateko Rosario Ortégarekin.

- **JARDUNALDI ETA IKASTARO ESPEZIFIKOAK:**

- ✓ 2005eko apirilaren 11 eta 12a: elkarbizitza eta bakerako hezkuntzan praktika onak trukatzeari buruzko lehen jardunaldiak izan dira Vitoria-Gasteizen.
- ✓ 2005eko iraila. Euskal Unibertsitate Publikoko Udako Ikastaroa. Bizitzarako gaitasunak garatzea.
- ✓ Irailaren 3. astea: elkarbizitza eta bakeari buruz hausnartzeko eta esparru guztietan proposamenak egiteko jardunaldiak.

- **2004-2005eko GARATU IKASTAROAK:** guztira 24 ikastaro espezifiko daude Garatu Programak irakasleei egiten dien prestakuntza-eskaintzaren barruan, ondorengo gaiekin: bizitzarako eta gizarte-harremanetarako trebetasunak, eskola inklusiboa, elkarbizitzaren kudeaketa ikastetxeetan, tutoretza eta elkarbizitza generoaren ikuspegi batetik, tratu txarren prebentzioa, elkarbizitza eta bakerako hezkuntza, etab...

- **PRESTAKUNTZA IKASTETXEETAN 2005/2006 ikasturtean:** (ikastetxeen eskariz).

- ✓ “Era osasuntsuan bizi eta elkarrekin bizitzeko heztea” modulua. **(76 klaustrak hartzen dute parte)**

- **2005-2006ko GARATU IKASTAROAK:**

- ✓ Hez/ hezitzen laguntzeko, eduki eman ahal izateko: garapen pertsonala eta bizitzarako gaitasunak.
- ✓ Haztea hazten laguntzeko, emateko izatea: hazte pertsonala eta bizitzarako trebetasunak.
- ✓ Bizikidetzaren sustatu indarkeria ekiditeko.

- **2004-2005 ETA 2005-2006 IKASTURTEETAN EGIN DIREN PRESTAKUNTZA ETA BERRITZAPEN-PROIEKTUAK.**

- **1. ildoak: eskola inklusibo baterantz:**

- 1.2. programa: Ezagutzetan eta bizitzarako trebetasunetan hezkuntza.
 - 1.3. programa: elkarbizitza eta bakerako hezkuntza.

PROIEKTUA	TITULARI-TATEA	MOTA	1.2 ILDOA	1.3 ILDOA	GUZTIRA
PRESTAKUNTZA	PUBLIKOA	IKASTETXEAK	18	50	68
		PROIEKTUAK	27	53	80
	ITUNPEKOA	IKASTETXEAK	21	39	60
		PROIEKTUAK	32	37	69
BERRIZTAPENA	PUBLIKOA	IKASTETXEAK	12	18	30
		PROIEKTUAK	12	18	30
	ITUNPEKOA	IKASTETXEAK	19	24	43
		PROIEKTUAK	21	25	46

HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN JARDUERAK www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/es/contenidos/informacion/dii6/es_10294/adjuntos/Centros_Guia_Maltrato.doc

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dii6/eu_10294/adjuntos/Ikaste_Gida_TratuTxarra.doc

Hezkuntza Ikuskaritza egiten ari da Hezkuntza-Administrazioak ezagutzen dituen berdinaren arteko tratu txarren jarraipena. Tratu txarren kasu hauek ezagutzeko, Ikuskaritzak era desberdinak ditu: biktimaren familiak aurkeztutako salaketa edo kexa edo ikastetxean bertan lortutako informazioa.

Horretarako, jarduteko gida bat egin da. Gida hau Lehen Hezkuntza eta DBH dituzten ikastetxe guztien eskura jarri da eta orientabide bat ematea du helburu, ikastetxeko ikasleen artean ikus daitezkeen berdinaren arteko tratu txarren kasuak errazago tratatzeko. Halaber, Ikuskaritzak bakarrik erabiltzeko protokolo bat egin da eta, Hezkuntza Ikuskaritzak esku hartzeko eskatuz gero, era sistematikoan eman behar diren urratsak egituratu eta koofinatzea ditu helburu.

• IKASTETXE BATEAN TRATU TXARREN AURREAN JARDUTEKO GIDA

Ondorengo atalak ditu:

1. **Tratu txarren definizioa eta ezaugarriak**, mota desberdinak eta biktimarengan, erasotzailearengan eta ikaskideengan izan daitezkeen ondorioak adierazten dituena.
2. Tratu txar bat gertatzen denean aplikatu beharreko **jarduteko protokolo bat**, ondorengo atalak dituena:
 - Eskaeraren jatorria: familia, tutorea, ikasleak, etab...
 - Tratu txarraren mota eta larritasunari buruzko hasierako datuak biltzea, zein motatakoak den adieraziz:

- Gizarte-bazterketa (parte hartzen ez uztea...).
 - Ahozko eraso (irainak, biktimazgaizki hitzegitea...).
 - Zeharkako eraso fisikoak (gauzak ezkatzea, haustea...).
 - Eraso fisiko zuzenak.
 - Larderia, mehatxuak edo xantaia.
 - Sexu-jazarpena edo abusua.
- Tratu txarrak gertatzen diren tokiak: gela, patioa, komunak, jantokia, aldagelak, autobusa, ikastetxeko sarrerak eta irteerak...
- Kasuaren azterketa eta premiazko esku-hartzeak, erasotako ikaslearen segurtasuna berehala bermatuko duten neurriak eta ikasle erasotzaileei zuzendutako badaezpadako diziplina-neurriak hartuz.
- Hezkuntza Ikuskaritzari jakinaraztea, kasuaren larritasuna egiaztatuz gero.
- Ikastetxeak jarduera-plan bat egitea, Berritzegunearen eta Ikuskaritzaren aholkularitzarekin. Plan horretan arazoak eragiten dien geletan aplikatu beharreko neurriak eta gatazkan dauden ikasleen hartu beharrekoak definituko dira. Neurri horien bidez biktimaren, ikasle erasotzailearen eta ikasle "ikusle"aren banakako tratamendua bermatu beharko da.
- Ikaslearekin hartutako banakako neurriak familiei jakinaraztea, baita proposatu diren antolaketa- eta prebentzio-neurriak ere.
- Hartutako neurriak nola ezarri diren eta eraginkorrak diren ebaluatzea.
3. Eskolaren esparruan gertatzen diren tratu txarrei aurre egiteko har daitezkeen prebentziozko neurri batzuk:
- Hezkuntza-erkidegoa sentsibilizatzeko neurriak: prestakuntza-programetan parte hartzea, AJAren edo Barne Araudiaren berrikuspen parte-hartzailea, ikastetxearen hezkuntza-proiektua, gaiari lotutako proposamen zehatzak Urteko Planean sartzeta...
 - Eskola-antolaketa berrikusteko neurriak: tutoretza bultzatzea, zaintza indartzea, une eta toki arrikutsuak zehaztea ikastetxean, etab...
 - Ikasleek parte hartzeko eta ardurak beren gain har ditzaten neurriak: bitartekaritza-programak garatzea, eskola-giroa hobetzeko neurriak, etab...
 - Prebentziorako eta ikasle gatazkatsuen banakako tratamendurako neurriak: gizarte-trebakuntza asertiboak taldean tratatzea, pertsonen arteko harremanetarako hezkuntza, lankidetzan oinarritutako metodoen bidez gizartearen aldeko joerak garatzea, gatazkak indarkeriarik gabeko metodoen bidez konpontzea, etab...
 - Hartutako neurriak nola ezarri diren eta eraginkorrak diren ebaluatzea.

BERDINEN ARTEKO TRATU TXARREN AURREAN JARDUTEKO GIDAREN BALORAZIOA.

Eskola-indarkeriak badu eskola-ingurunearen eta ikaslearen familia- eta gizarte-testuinguruaren zirkunstantziekin lotura eta, horregatik, eskolak bakarrik ezin du irtenbiderik eman; eragile desberdinek, familiak, gizarteak, hezkuntzak, etab...ek hartu behar dute parte. Gauzak horrela,

hezkuntzan esku-hartzeari dagokionez, Hezkuntza-Administrazioak, ikastetxeek eta irakasleek beren gain hartu behar dute geletako elkarbizitza eta ikaskuntza kudeatzea dela saihestu ezin den irakaskuntza-lanetako bat.

Arrazoi honengatik, eta Hondarribian izan den Jokinen heriotza tragikoaren aurrean, Hezkuntza Ikuskaritzak berdinaren arteko tratu txarren aurrean jarduteko protokolo bat egin zuen, orientabide moduko gida batean sartu eta gure erkidegoko ikastetxe guztien eskura jarri zen. Jarduteko gida hau egiteko, Rosario Ortega Kordobako Unibertsitateko katedradunaren laguntza izan genuen, estatu eta nazioarte mailako ikertzailerik handienetako bat bullying-en.

Azpitarratu behar da hau izan zela hori bezalako gida bat ikastetxeen eskura jarri zuen lehen autonomia erkidegoa eta beste erkidego batzuek, Kataluniak, Asturiasek, Valentziak, etab...ek, lehen aipatutako gida hartu dute, batez ere, oinarri.

Ikastetxeek oso balorazio positiboa egin dute gida horretaz, baita Erkidego honetako Fiskaltzak eta Adin Txikiko Epaitegiek ere. Proposatuz zen helbururako baliagarri dela esan daiteke, hots, irakasleei orientabide argiak ematea ikastetxeko ikasleen artean gerta daitezkeen berdinaren arteko tratu txarren kasuak errazago aztertzeke.

BERDINEN ARTEKO TRATU TXARREN EGOERARI BURUZKO DATUAK.

Hezkuntza Ikuskaritza ere egiten ari da ikastetxeetan antzematen diren berdinaren arteko tratu txarren kasuen kontrola, egoera erabat ezagutzeko eta ikastetxeetako zuzendaritzek kasu hauetan hartzen dituzten diziplina-, antolaketa- eta pedagogiaren aldeko neurrien jarraipena egiteko.

ISEI-IVEIk joan den ikasturtean egindako ikerketak erakutsi zuen legez, Lehen Hezkuntzaren bukaeran eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ematen dira berdinaren arteko tratu txarren indizerik handienak eta oso garrantzi kuantitatibo txikia dute Batxilergoari eta Heziketa-Zikloetan.

Hezkuntza Ikuskaritzak 2006ko ekainaren 20ra arte dituen datuetatik ondoriozta daitekeenez, eta DBHri eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoari (Batxilergoari eta Heziketa-Zikloei) begira, ondorengo egoera dugu berdinaren arteko tratu txarren gaien gure ikastetxeetan:

- Ikuskaritzak Bigarren Hezkuntzan tratu txartzat jotzen dituen kasuak quztira

ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		E.A.E.	
SALATUTAKO KASUAK	TRATU TXARTZAT JOTAKOAK	SALATUTAKO KASUAK	TRATU TXARTZAT JOTAKOAK	SALATUTAKO KASUAK	TRATU TXARTZAT JOTAKOAK	SALATUTAKO KASUAK	TRATU TXARTZAT JOTAKOAK
12	10	30	17	27	12	69	39

Salatutako kasu guztiak ez dira tratu txartzat jo, batzuk unean-uneko erasoak izan direlako, ez behin eta berriz errepikatzen ziren portaerak.

Tratu txartzat jotako 39 kasuetatik, jarraian esan bezala banatzen dira sexu eta lurraldeen arabera:

ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		E.A.E.	
MUTILAK	NESKAK	MUTILAK	NESKAK	MUTILAK	NESKAK	MUTILAK	NESKAK
6	4	9	8	9	3	24	15

- Tratu txartzat jotako kasuak quztira Bigarren Hezkuntzan, hezkuntza-mailen arabera sailkatuak:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	E.A.E.
D.B.H.	10	16	12	38
BATXILERGOA	0	1	0	1
HEZIKETA-ZIKLOAK	0	0	0	0
GUZTIRA	10	17	12	39

- Kasuen mota eta larritasuna (larrienak direnak zehazten dira):

	TRATU TXARRAREN MOTA ETA LARRITASUNA			
	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	E.A.E.
GIZARTE-BAZTERKETA	1	1	0	2
AHOZKO ERASOAK	2	6	1	9
ZEHARKAKO ERASO FISIKOA	0	0	1	1
ERASO FÍSICO ZUZENA	4	5	4	13
LARDERIA/MEHATXUAK/XANTAIA	3	5	5	13
SEXU-JAZARPENA/ABUSUA	0	0	1	1

- Ikastetxeek hartutako badaezpadako neurriak:

	BADA EZPADAKO NEURRIAK			
	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	E.A.E.
ZAINTZA AREAGOTZEA	8	8	9	25
GELAZ ALDATZEA	0	0	0	0
PERTSONALA AREAGOTZEA	0	0	1	1
BESTE NEURRI BATZUK	2	9	2	13

- Tramitatutako espedienteak:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	E.A.E.
DIZIPLINA-ESPEДИЕНTEA IREKI DA	5	4	6	15
SALAKETA POLIZIALA BADAGO	3	7	2	12
TXOSTEN MEDIKOA BADAGO	2	2	1	5

- Tratu txarren egoera Bigarren Hezkuntzan:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	E.A.E.
TRATU TXARREN KASUAK GUZTIRA	10	17	12	39
TRAMITAZIOA EGITEN ARI DA	3	8	8	19
TRAMITAZIOA BUKATU DA (EBATZI DIRA)	7	9	4	20

Ondorio gisa, esan behar da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila gizarteak eta berarekin batera konprometituta dauden eragileek eskatzen dituzten hobekuntzak aplikatzearen alde dagoela, lan egiten dugun eskolak gizarte-justizia, parte-hartzea, demokrazia, elkartasuna edo konpromisoa bezalako baloreak transmititu eta bizitzarako trebetasun eta gaitasunak garatzen dituelako. Horretaz gain, bizitzan zehar ikasten, norbera izaten eta gainontzekoekin harmonian bizitzen irakasten duen eskola da, pertsona bakoitzaren bizi-kaiitatean eragina duten faktore ekonomiko, sozial eta ingurumenekoan artean oreka bilatuz.

ACTUACIONES DEL INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN E INVESTIGACIÓN/IRAKAS-SISTEMA EBALUATU ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA. www.isei-ivei.net / IRAKAS-SISTEMA EBALUATU ETA IKERTZEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAK.

Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (IVEI-ISEI) ikerketa kualitatibo bat, “elkarbizitza Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan”, egin zuen 2004. urtean eta bertan, kasuen azterketatik abiatuz, agerian uzten dira ikastetxeetan elkarbizitza ona izan dadin faktorerik esanguratsuenak. Halaber, adierazten dira elkarbizitza hobetzeko ikastetxeetan erabiltzen diren estrategiak. <http://www.isei-ivei.net/cast/pub/convcast.pdf>.

Ikerketa Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen lagin zabal batean egin zen: 81 ikastetxetako 3.132 ikasle, eta bullying-aren indizea % 3,7koa da (% 4,6 mutilen kasuan eta % 2,6 nesken kasuan). [Htp://www.isei-ivei.net/cast/pub/Bu2.pdf](http://www.isei-ivei.net/cast/pub/Bu2.pdf). 2005ean ikerketa bera egin zen Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, 5.eko eta 6.eko 2.851 ikaslerekin 88 ikastetxetan. Bullying-aren indizea % 5,8koa da (% 6,1 mutilen kasuan eta % 5,5 nesken kasuan). [Htp://www.isei-ivei.net/cast/pub/Bullyng-primaria1.pdf](http://www.isei-ivei.net/cast/pub/Bullyng-primaria1.pdf). Behin-betiko txostena, Lehen eta Bigarren Hezkuntzaren datuak ordenatuta izango dituen, berehala emango da argitara.

II. ERANSKINA

GALDERA-SORTAK

Oharra:

Hurrengo orrialdeetan, txosten hau prestatzeko egin den ikerketa kuantitatiboan erabili diren **lau galdera-sortak** kopiaitu ditugu, **euskarazko bertsioan**.

Hala ere, komeni da adieraztea erabilitako galdera-sortak egiaz ele bietan zeudela (euskaraz eta gaztelaniaz). Horrela, galderak erantzun zituen pertsona bakoitzak nahi zuen bertsioa aukeratzeko eta, aldi berean, beharrezkoa irudituz gero, beste bertsioa kontsultatzeko aukera izan zuen.

Gaztelaniazko galdera-sortak txosten honen II. Eranskinean kontsulta daitezke (gaztelaniazko bertsioan).

IKASLEENTZAKO GALDERA-SORTA

HEZKUNTZARAKO EBALUAZIO ETA AHOLKULARITZA INSTITUTUA**IKASLEENTZAKO GALDERA-SORTA**

- Zure institutua/ikastetxea Arartekoak sustaturiko bizikidetza ebaluatzeko proiektu batean parte hartzen ari da.
- Emaitza hobekia lortzeko asmoz, zure ikastetxeak nola funtzionatzen duen jakin nahi dugu.
- Ikastetxe/institutu honetako ikasleek duten iritzia jasotzeko, honako galdera-sorta hau erantzuteko eskatzen dizugu.
- Galdera-sorta honen bitartez lortzen diren datuak guztiz isilpekoak izango dira eta ez dira ikastetxeko zuzendariaren ez eta irakasleen eskura izango.

GALDERA-SORTA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

- Galdera-sorta honetan zure ikastetxe/institutuko bizikidetzan dituzuen harremani buruzko galderak erantzuteko eskatuko dizugu.
- Galdera-sortari erantzuteko, erantzunen orrian markatu behar duzu aukeratu duzun erantzunaren zenbakiari dagokion laukitxo.

Adibidez: 1 2 3 4 5

- **Egiaztatu** erantzunaren zenbakia eta galderarena bat datozela.
- Erantzunen orrian beti bost laukitxo izango dituzu erantzuteko. Baina **arretaz begiratu erantzunen eskala**, izan ere, galdera askotan bi, hiru edo lau erantzun-aukera bakarrik egongo dira.
- Galdera bakoitzeko erantzun bakarra adierazi erantzun orrian.
- Erantzunen orrian **arrazteaz** idatzi. Nahastuz gero, ezabatu eta aukeratu duzun erantzuna adierazi.
- Galderaren baten erantzuna ez badakizu, ez erantzun.

MILA ESKER ZURE PARTE-HARTZEAGATIK

MESEDEZ, EZ IDATZI EZER KUADERNOTXO HONETAN

Jarraian, hainbat baieztapen aurkituko dituzu eta zure adostasuna edo desadostasuna adierazteko eskatuko dizugu. Horretarako ondorengo eskala erabili:

Ez nago batere ados	Ez nago ados	Ados nago	Oso ados nago
1	2	3	4

1. 1. Orokorrean, atsegin dut nolakoa naizen.
2. Sarritan bakartua edo isolatua sentitzen naiz.
3. Jendeak ni gehiago estimatzea nahiko nuke.
4. Besteek ni pertsona ona naizela uste dute.
5. Gauza on asko ditut.
6. Sarritan jolas-garaian bakarrik sentitzen naiz, nire kideek ez dutelako nirekin egon nahi izan.
7. Zerbait egiten dudanean ongi egiten dut.
8. Nik nahi bezalako ikasle ona naiz.
9. Arazorik gabe egin ditzaket etxeko lanak.
10. Ideia onak ditut.
11. Eskolan hobeto lan egin nahi nuke.
12. Ezagutzen ez ditudan pertsonekin egon behar badut, kezkatu egiten naiz.
13. Batzuetan uste dut ez ditudala gauzak batere ongi egiten.
14. Ikasketetan ongi nabil.
15. Nahi dudan guztia egiteko gai sentitzen naiz.
16. Ikastetxean gatazkaren bat sortzen bada, gizalegez konpontzen da.
17. Ikastetxe honetan badago ordena.
18. Ikastetxeko diziplina-arauak egokiak iruditzen zaizkit.
19. Ikasturte hasieran, ikastetxeko bizikidetzara-arauek argi adierazten saiatzen gara.
20. Ikasleen iritziak kontuan hartzen dira ikastetxean sortzen diren arazoak konpontzeko.
21. Oro har, irakasleek gelan ordena mantentzen dute.
22. Irakasleek irizpide berberak erabiltzen dituzte ikastetxeko arauak ezartzerakoan.
23. Ikastetxeak garrantzia ematen dio besteekin harremanak modu egokian izaten irakastea-ri.
24. Azken urteotan gatazkak areagotu egin dira ikastetxean.
25. Arazoak sortzen dituzten ikasleekin neurri zorrotzagoak hartu beharko lirateke.
26. Ikastetxean ongi sentitzen naiz eta lagun asko ditut.
27. Ikastetxean irakasleen eta ikasleen arteko harremanak onak dira

Ez nago batere ados	Ez nago ados	Ados nago	Oso ados nago
1	2	3	4

28. Ikastetxean garrantzia ematen zaio ikasle batek beste batekin etengabe arazoak ditue-nean.
29. Gelan irakasleen eta ikasleen artean zenbait arau jarri ditugu eta maiz erabiltzen ditugu.
30. Nire gelan ikasle guztiok berdin tratatzen gaituzte, bereizketarik egin gabe.
31. Nire gelan arazoak konpontzeko ikasleen iritziak kontuan hartzen dira.
32. Irakasleek jakiten dute ikasle batek noiz dituen arazoak beste batekin.

- **Adierazi ea gaizki sentitu zaren zure ikaskide batek honako gauzetako bat egin dizulako:**

Inoiz ez	Gutxitan	Sarritan	Beti
1	2	3	4

- 33. Iseka egin, gaizki hitz egin, lotsarazi.
- 34. Jo.
- 35. Ez ikusiarena egin, baztertu.
- 36. Mehatxatu edo xantaia egin.
- 37. Gauzak lapurtu edo apurtu.
- 38. Hitzezko sexu-erasoa.
- 39. Sexu-eraso fisikoa.

- **Adierazi ea zure ikaskideren bat gaizki sentitu den zuk honako gauzetako bat egin diozulako:**

Inoiz ez	Gutxitan	Sarritan	Beti
1	2	3	4

- 40. Iseka egin, gaizki hitz egin, lotsarazi.
- 41. Jo.
- 42. Ez ikusiarena egin, baztertu.
- 43. Mehatxatu edo xantaia egin.
- 44. Gauzak lapurtu edo apurtu.
- 45. Hitzezko sexu-erasoa.
- 46. Sexu-eraso fisikoa

- **Adierazi ea ohikoa den zure irakasleren batek zurekin ondorengo portaeraren bat izatea:**

Inoiz ez	Gutxitan	Sarritan	Beti
1	2	3	4

- 47. Lotsarazi.
- 48. Ezinikusia egin.
- 49. Iseka egin.
- 50. Mehatxuz ikaratu.

- **Adierazi ondorengo arrazoiren batengatik arazorik izan duzun ikastetxean:**

Inoiz ez	Gutxitan	Sarritan	Beti
1	2	3	4

- 51. Irakasleei errespeturik ez erakutsi.
- 52. Irakasleak eraso.
- 53. Ikastetxeko materiala apurtu edo lapurtu.
- 54. Eskolak ematea galarazten duen portaera izan gelan.

55. Nola konpontzen dira ikastetxean bizikidetzako arazoak? (Aukeratu bat):

- 1) Inplikatuaren artean hitz eginez.
- 2) Zigorren bidez.

56. Zergatik uste duzu sortzen direla arazoak ikastetxean? (Aukeratu bat):

- 1) Oso gatazkatsuek diren ikasle batzuk daude.
- 2) Irakasleak ikasleekin intoleranteegiak dira.
- 3) Ikasleak etxean nahi duten guztia egiten ohituta daude.
- 4) Irakasleek ez dute irakasleen autoritatea errespetatzen.
- 5) Irakasleek ez dakite gelan ordena mantentzen.

Ondoren, zu bezalako gazteei gertatzen zaizkien zenbait egoera kontatuko dizkizugu, zure iritzia ezagutzeko.

57. Lagun talde bat gelan kide batekin izandako arazoari buruz hitz egiten ari da. Mutil batetaz ari dira, Anderrez, beste ikasle talde batek sekulakoak egiten dizkio. Eztabaidan ari diren lagunek iritzi ezberdinak dituzte. Adierazi zure iritziarekin bat datorrena:

- 1) Ezin da ezer egin. Kontakatilua izatea okerrekoa da.
- 2) Ez du merezi ezer egitea, denborarekin pasako diren gauzak dira. Bitartean jasaten jakin behar da.
- 3) Askoz hobe hura defendatzen ez hastea, azkenean zerbaitekin egiten baduzu zeure kontra joaten dira eta.
- 4) Nahiz eta kontakatilu deitu, hobe da irakasle bati esatea.

58. Lagun talde bera orain Idoiari buruz eztabaidan ari da. Uste dute Idoia, nota txarrak ateratzen dituen ikaskidea beti irakasleak gogaitzen ari dela, eskolak eragozten, erantzun desegokiak ematen, lanik egin gabe... Ikuspuntu ezberdinak daude. Adierazi zure iritziarekin bat datorrena:

- 1) Idoiak interesgarria iruditzen du. Inork bere graziak barrez hartuko ez balitu, ez lituzke gehiago egingo.
- 2) Normala da horrela portatzea, eskolak aspergarriak dira eta irakasleak autoritarioak.
- 3) Azken finean Idoiak gaizki pasatzen du, trauskil edo lotsagabearen portaera bereganatu du eta ez daki egoera horretatik nola atera. Irakasleak berarekin hitz egin beharko luke eta egoera konpontzen saiatu.
- 4) Idoiari gertatzen zaiona zera da: urte batzuetatik hona ikasketetatik aldendu eta suspentsoak ateratzen hasi zen, eta sesiozale edo "bronkas" guztiarekin elkartu zen. Orain ez dago ikasketetara hurbiltzeko modurik.

59. Lagun taldea Ikerren kasuaz ere ari da. Ikerrek aste oso batean besteek agindutakoa betetzen egon behar izan zuen, taldean onartua izateko. Batzuek ulertzen dute eta beste batzuek ez. Adierazi zure iritziarekin bat datorrena:

- 1) Ez dago horrelakorik egin beharrik. Nahiz eta lagunak edukitzea oso garrantzitsua izan, bilatu arte itxaron behar da.
- 2) Gaizki pasatzen da, baina egin beharra dago, garrantzitsuena lagun taldea izatea baita.
- 3) Garrantzi gutxiko txantxak dira. Dibertigarriak dira. Behin lagun taldean sartzen zarenean lagun berriei egiten diezu.
- 4) Batzuetan hobe da bakarrik egotea erabiltzen zaituzten lagunekin baino.

- 60.** Eztabaida honetan, zera dio Mikelek, taldeko lagun batek: inork zuri kasurik ez egin eta baztertzea baino askoz hobea dela etengabe zure kontra zirika aritzea. Iritziak ezberdinak dira. Adierazi zure iritziarekin bat datorrena:
- 1) Jende oso arraroa dago eta merezia dauka.
 - 2) Lagunik ez izatea gerta daitekeen gauzarik txarra da, lagunek onartzeko ahaleginak egin behar dira.
 - 3) Errua ez da haiena. Taldean agintzea gustatzen zaion bat egoten da eta taldean nor sartzen den edo ez esaten du.
 - 4) Beno, isolatua egotea ez da horren txarra.
- 61.** Ikastetxeko hormak eta komunak zergatik margotzen diren edo mahaiak eta gauzak zergatik apurtzen diren aztertzen denean, ikasle batzuk honako azalpenak ematen dituzte. Adierazi zure iritziarekin bat datorrena:
- 1) Ez da zurea, zer axola dio.
 - 2) Ondo pasatzen dugu, barre batzuk egiten ditugu.
 - 3) Zure lagunak puntuak irabazten dituzu.
 - 4) Irakasleei izorratzeko.
- 62.** Ez dira ados jartzen irakasleen eta ikasleen artean harreman txarra zergatik dagoen esaterakoan. Ematen dituzten azalpenetatik, adierazi zurearekin bat datorrena:
- 1) Irakasleak autoritarioak dira eta ez dituzte ikasleak kontuan hartzen arauak jartzeko orduan.
 - 2) Irakasleok gehiegikeriak egiten ditugu eta horregatik irakasleak gogor jartzen dira.
 - 3) Irakasleen gehiengoa ez da ikasleek arduratzen, soilik eginkizunak betetzera doaz.
 - 4) Normala da, bi mundu oso ezberdinak gara.
- 63.** Bukatzeko, gatazka sortzen duten zenbait talde badaudela eta hauek eskolak ematea galarazten dutela eztabaidatzen ari dira. Iritzi ezberdinak daude. Adierazi zure iritziarekin bat datorrena:
- 1) Gelan dituzun ikaskideen arabera izaten da eta istilutsuak badira, jai dago.
 - 2) Batez ere irakasleengatik da, mugak jartzen dituztenak errespetatzen dira, ez da arazorik egoten.
 - 3) Ez da ez ikasleek kontua ez eta irakasleena ere; garrantzitsuena ikastetxean arau zehatzak eta zorrotzak egotea da.
 - 4) Ez da ikastetxean sortzen den arazoa. Istilutsuak diren ikasleek eskolatik kanpo ere arazoak izaten dituzte, familian edo lagun artean.
- **Orain, galdera bakoitzaren ondoren aukera desberdinak izango dituzu. Arretaz irakurri eta soilik erantzun bat aukeratu erantzunen orrian.**
- 64.** Nori kontatzen diozu batez ere bizikidetza arazoren bat gertatzen denean?
- 1) Ez dut beharrik izan, gertatu ez zaidalako
 - 2) Nire lagunei
 - 3) Familiako norbaiti
 - 4) Irakasle bati
 - 5) Inori ez

- 65.** Nork laguntzen dizu normalean bizikidetza arazoren bat gertatzen denean?
- 1) Ez dut beharrik izan, gertatu ez zaidalako
 - 2) Lagun batek
 - 3) Irakasle batek
 - 4) Familiako batek
 - 5) Inork ez
- 66.** Zer egiten duzu zuk zure lagun batek etengabe arazoak dituenean?
- 1) Nire laguna bada, lagundu egiten diot egoera aldatzeko
 - 2) Nire laguna ez bada ere, lagundu egiten diot egoera aldatzeko
 - 3) Nagusi bati esaten diot (irakaslea, familiakoa)
 - 4) Ez dut ezer egiten
 - 5) Ez dut egoera aldatzeko ezer egiten, baizik eta egoera horretan sartzen naiz
- 67.** Nola ikusten zaituzte ikastetxean?
- 1) Ikasle txarra naizela uste dute
 - 2) Ikasle pattala naizela uste dute
 - 3) Ikasle arrunta naizela uste dute
 - 4) Ikasle ona naizela uste dute
- 68.** Nolako ikaslea zarela uste duzu zuk?
- 1) Ikasle txarra naiz
 - 2) Ikasle pattala naiz
 - 3) Ikasle arrunta naiz
 - 4) Ikasle ona naiz
- 69.** Ikasten laguntzen al dizute zure etxean?
- 1) Inoiz ez
 - 2) Ia Inoiz ez
 - 3) Batzuetan
 - 4) Ia beti
 - 5) Beti
- 70.** Zure familia zure ikasketez arduratzen dela uste al duzu?
- 1) Batere ez
 - 2) Gutxi
 - 3) Zertxobait
 - 4) Dezente
 - 5) Asko
- 71.** Zein faktore uste duzu dela garrantzitsuena gizartearen garapenerako?
- 1) Morala
 - 2) Politika
 - 3) Erljioa
 - 4) Zientzia
 - 5) Artea

- 72.** Nola konpontzen dira gatazkak gaur egungo munduan?
- 1) Erasoz askoz gehiago elkarrizketaren bidez baino
 - 2) Erasoz gehiago elkarrizketaren bidez baino
 - 3) Erasoz zein elkarrizketaren bidez antzera
 - 4) Elkarrizketaren bidez baino gutxiago erasoz
 - 5) Elkarrizketaren bidez baino askoz gutxiago erasoz
- 73.** Adierazi eskolak, zure ustez, zer-nolako garrantzia duen ikasleak tolerantzian, bizikidetzan eta baloreetan hezteko.
- 1) Ez du garrantzirik
 - 2) Garrantzi gutxi du
 - 3) Garrantzi pixka bat
 - 4) Garrantzi nahikoa
 - 5) Garrantzi handia
- 74.** Adierazi zuk orain dituzun baloreetan zure irakasleek izan duten eragina:
- 1) Eraginik ez
 - 2) Eragin gutxi
 - 3) Zertxobait
 - 4) Eragin handi samarra
 - 5) Eragin handia
- 75.** Adierazi zuk orain dituzun baloreetan zure gurasoek izan duten eragina:
- 1) Eraginik ez
 - 2) Eragin gutxi
 - 3) Zertxobait
 - 4) Eragin handi samarra
 - 5) Eragin handia
- 76.** Adierazi zuk orain dituzun baloreetan zure lagunek izan duten eragina:
- 1) Eraginik ez
 - 2) Eragin gutxi
 - 3) Zertxobait
 - 4) Eragin handi samarra
 - 5) Eragin handia
- 77.** Adierazi zure familiarekin daukazu konfiantza maila:
- 1) Batere ez
 - 2) Gutxi
 - 3) Zertxobait
 - 4) Handi samarra
 - 5) Handia
- 78.** Adierazi zure ikastetxearekin daukazu konfiantza maila:
- 1) Batere ez
 - 2) Gutxi
 - 3) Zertxobait
 - 4) Handi samarra
 - 5) Handia

- 79.** Zure ustez, ikastetxean pertsonen arteko arazoak ezagutzen eta horiei aurre egiten irakasten al dute?
- 1) Ia batere ez
 - 2) Gauza gutxi
 - 3) Gauza batzuk
 - 4) Gauza dezente
 - 5) Gauza asko
- 80.** Zer da eskola zure garapen pertsonalerako eta sozialerako?
- 1) Garrantzirik gabekoa
 - 2) Garrantzi gutxikoa
 - 3) Garrantzia pixka bat duena
 - 4) Garrantzi dezentekoa
 - 5) Oso garrantzitsua
- 81.** Zer izan nahiko zenuke nagusiki etorkizunean?
- 1) Pertsona ospetsua
 - 2) Jakinduria handiko pertsona
 - 3) Gizalegezko pertsona
 - 4) Pertsona maitagarria
 - 5) Pertsona zorionsua
- 82.** Zein da zure akatsik handiena?
- 1) Gutxi ahalegintzea
 - 2) Arduragabea izatea
 - 3) Gizartekoia ez izatea
 - 4) Solidarioa ez izatea
 - 5) Zakarra izatea
- 83.** Zein dohain irakatsi beharko luke nagusiki ikastetxeak?
- 1) Eskuzabaltasuna
 - 2) Zintzotasuna
 - 3) Saiatua izatea
 - 4) Leialtasuna
 - 5) Apaltasuna
- 84.** Zein dohain uste duzu dela garrantzitsuena gizartearentzako?
- 1) Tolerantzia
 - 2) Justizia
 - 3) Lehiakortasun profesionala
 - 4) Erantzukizuna
 - 5) Eginbeharren ardura
- 85.** Zein aukera da garrantzitsuena zure bizitzarako?
- 1) Maitatua izatea
 - 2) Errespetatua izatea
 - 3) Justiziaz tratatua izatea
 - 4) Bizitzak merezi duela sinestea
 - 5) Baloratua izatea

- 86.** Zein aukera da txarrena zure bizitzarako?
- 1) Baztertua izatea
 - 2) Justizia gabe tratatua izatea
 - 3) Gutxietsia izatea
 - 4) Tratu txarrak jasotzea
 - 5) Bakarrik egotea
- 87.** Zein da zuretzako oztoporik nagusiena bizitzak merezi duela sinesteko?
- 1) Bakardadea
 - 2) Indarkeria
 - 3) Prestakuntza profesional eskasa
 - 4) Bazterketa
 - 5) Arrazakeria
- 88.** Adierazi, zuk orain dituzun balioetan hedabideek (TB, prentsa, Internet,...) izan duten eragina:
- 1) Eraginik ez
 - 2) Eragin gutxi
 - 3) Zerbait
 - 4) Eragin dezente
 - 5) Eragin asko

Azkenik, zure familiari eta etxeari buruzko galdera hauei erantzuteko eskatzen dizugu.

- 89.** Zein ikasmaila arte iritsi zen zure aita?
- 1) Oinarrizko ikasketak, OHO edo baliokidea amaituta
 - 2) Batxilergoa, Lanbide Heziketa edo baliokidea amaituta
 - 3) Unibertsitateko ikasketak amaituta
- 90.** Adierazi zure aitaren lanbidea ondorengo zein taldetan sartzen den:
- 1) Enpresaburuak (10 langile baino gehiago), enpresetako zuzendariak, goi funtzionarioak, irakasleak, armadako nagusiak eta ofizialak, langile liberalak eta goi mailako teknikariak (abokatuak, sendagileak, arkitektoak, psikologoak, informatikariak, botikariak, albaitariak,...).
 - 2) Merkatariak eta enpresaburu txikiak (5 eta 10 langilekoak), erdi mailako teknikariak (ingeniari teknikoak, aparejadoreak, ATS edo erizainak...).
 - 3) Administrariak eta merkatariak, armadako ofizialordeak, familia-enpresako jabeak, teknikari laguntzaileak, langileburuak, lantegiko buruak.
 - 4) Nekazaritzako, industriako edo zerbitzuetako langile adituak, dendako saltzaileak, gidariak, artisauak eta peoi espezialistak.
 - 5) Langile ez kualifikatuak eta peoiak, etxe-langileak, atezainak, jornalariak.
- 91.** Zein ikasmaila arte iritsi zen zure ama?
- 1) Oinarrizko ikasketak, OHO edo baliokidea amaituta
 - 2) Batxilergoa, Lanbide Heziketa edo baliokidea amaituta
 - 3) Unibertsitateko ikasketak amaituta

- 92.** Adierazi zure amaren lanbidea ondorengo zein taldetan sartzen den:
- 1) Enpresaburuak (10 langile baino gehiago), enpresetako zuzendariak, goi funtzionarioak, irakasleak, armadako nagusiak eta ofizialak, langile liberalak eta goi mailako teknikariak (abokatuak, sendagileak, arkitektoak, psikologoak, informatikariak, botikariak, albaitariak,...).
 - 2) Merkatariak eta enpresaburu txikiak (5 eta 10 langilekoak), erdi mailako teknikariak (ingeniari teknikoak, aparejadoreak, ATS edo erizainak...).
 - 3) Administrariak eta merkatariak, armadako ofizialordeak, familia-enpresako jabeak, teknikari laguntzaileak, langileburuak, lantegiko buruak.
 - 4) Nekazaritzako, industriako edo zerbitzuetako langile adituak, dendako saltzaileak, gidariak, artisauak eta peoi espezialistak.
 - 5) Langile ez kualifikatuak eta peoiak, etxe-langileak, atezainak, jornalariak.
- 93.** Zenbat bainugela eta komun ditu zure etxeak?
- 1) Bat
 - 2) Bi
 - 3) Hiru edo gehiago
 - 4) Bat ere ez
- 94.** Ba al du autorik zure familiak?
- 1) Ez
 - 2) Bai, bat
 - 3) Bai, bi edo gehiago
- 95.** Ba al duzue ordenagailurik etxean?
- 1) Bai
 - 2) Ez
- 96.** Eskolako liburuez gain, zenbat liburu dituzue etxean?
- 1) 50 baino gutxiago
 - 2) 50 eta 100 bitartean
 - 3) 100 eta 500 bitartean
 - 4) 500 baino gehiago
- 97.** Zenbat aldiz erosten duzue egunkaria etxean?
- 1) Inoiz ez edo ia inoiz ez
 - 2) Asteburuetan
 - 3) Egunero edo ia egunero

FAMILIENTZAKO GALDERA-SORTA

CF-1

HEZKUNTZARAKO EBALUAZIO ETA AHOLKULARITZA INSTITUTUA**FAMILIENTZAKO GALDERA-SORTA**

- Zure institutua/ikastetxea Arartekoak sustaturiko bizikidetza ebaluatzen proiektu batean parte hartzen ari da.
- Emaitza hobekia lortzeko asmoz, zure ikastetxeak nola funtzionatzen duen jakin nahi dugu.
- Ikastetxe/institutu horretako ikasleen familiek duten iritzia jasotzeko, honako galdera-sorta hau erantzuteko eskatzen dizugu.
- Galdera-sorta honen bitartez lortzen diren datuak guztiz isilpekoak izango dira eta ez dira ikastetxeko zuzendariaren ez eta irakasleen eskura izango.

Mesedez, ez ahaztu zure seme edo alaba eskolatua dagoen ikasmila eta taldea adieraztea

Ikastetxea/Institutua:.....

Probintzia: Maila:..... Taldea:.....

Jarraibideak

Adierazi zuk aukeratutako erantzuna gurutze edo borobil batez inguratzuz.

Mesedez, ahalik eta azkarren bueltatu ezazu galdera-sorta erantzunda, gutunazal itxi batean zure seme edo alabari eman, horrek tutoreari emateko.

• **Adierazi zenbateraino zauden ados ondorengo baieztapenekin**

Ez nago batere ados	Ez nago ados	Berdin zait	Ados nago	Oso ados
1.....	2.....	3.....	4.....	5

- | | | | | | | |
|-----|--|---|---|---|---|---|
| 1. | Pozik nago nire seme/alabak ikastetxe honetan ikasten duelako | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 2. | Ahal banu, nire seme/alaba ikastetxez aldatuko nuke | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 3. | Ikastetxe honetan badago ordena | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 4. | Tutorearekin harremanetan egoteak nire seme/alabaren egoeraren berri jakiteko aukera ematen dit..... | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 5. | Nire seme/alabarekin harreman arazorik badago, berehala jakinarazten didate | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6. | Ikastetxeko bizikidetzak arauak ongi ezagutzen ditut | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 7. | Ikastetxeko diziplina arauak egokiak dira | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 8. | Ikastetxeko gatazkak justiziaz konpontzen dira | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 9. | Irakasleek irizpide berberak erabiltzen dituzte ikastetxeko arauak ezartzerakoan | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 10. | Ikastetxeak garrantzia ematen dio besteekin harremanak modu egokian izaten irakasteari..... | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 11. | Ikastetxean, bizikidetzarako gaiak lantzeko gurasoekin jarduerak (hitzaldiak, ikastaroak...) egin dira | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 12. | Irakasleek ezagutzen dituzte ikastetxean ikasleen artean sortzen diren gatazkak..... | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 13. | Azken hiru urtetan ikastetxean gatazkak areagotu egin dira | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 14. | Eman zure iritzia ikastetxe hau nolakoa den esanez: | | | | | |
| | 1) Oso txarra | | | | | |
| | 2) Txarra | | | | | |
| | 3) Arrunta | | | | | |
| | 4) Ona | | | | | |
| | 5) Oso ona | | | | | |

• **Adierazi zure iritzia ondorengo taldeen arteko harremanaz**

Oso txarra	Txarra	Arrunta	Ona	Oso ona
1.....	2.....	3.....	4.....	5

- | | | | | | | |
|-----|---------------------------------|---|---|---|---|---|
| 15. | Ikasleak beraien artean | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 16. | Irakasleak beraien artean | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 17. | Ikasleak irakasleekin | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 18. | Familiak irakasleekin | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |

19. Jasan al du zure seme/alabak bere kideengandik etengabe, ez behin bakarrik, ondorengo erasorik? (Beharrezkoa irudituz gero, erantzun bat baino gehiago adierazi)
- Eraso fisikoak
 - Hitzeko erasoak: iseka egin, ezizenak jarri, berataz gaizki esaka aritu
 - Isolamendu soziala, gutxiespena, presio psikologikoa
 - Xantaia, mehatxuak
 - Materiala eta jantziak puskatu edo lapurtu
 - Hitzeko sexu-erasoa
 - Sexu-eraso fisikoa
 - Ez du horrelako erasorik jasan
20. Adierazi ea **ohikoa den** irakasleren batek zure seme/alabarekiko ondorengo portaera hauetako bat izatea (beharrezkoa irudituz gero, erantzun bat baino gehiago adierazi):
- Lotsarazi
 - Ezinikusia izan
 - Iseka egin
 - Fisikoki eraso
 - Mehatxuz ikaratu
 - Horietako bat ere ez
21. Adierazi zure seme/alabak ikastetxean arazorik izan duen hauetako arrazoi batengatik (beharrezkoa ikusiz gero, erantzun bat baino gehiago adierazi):
- Irakasleei errespeturik ez erakutsi
 - Irakasleak eraso
 - Kideak etengabe iraindu
 - Kideak fisikoki eraso
 - Kideen gauzak apurtu edo lapurtu
 - Ikastetxeko materiala apurtu edo lapurtu
 - Eskolak ematea galarazten duen portaera izan gelan
 - Horietako bat ere ez
22. Zein arrazoiengatik, uste duzu, sortzen direla gatazkak ikastetxean? (Soilik bi arrazoi aukeratu)
- Irakasleek gai honetan beraien erantzukizunak saihesten dituzte
 - Oso gatazkatsuak diren ikasle batzuk daude
 - Ikastetxeetan beti izan dira gatazkak
 - Beraien seme/alabekin utzikieriaz jokatzeko duten familiak daude
 - Ikasleei ez zaie irakasten arazoak bortxa gabe konpontzen
 - Irakasleak ikasleekin intoleranteegiak dira
 - Gaur egungo ikasleek ez dute autoritatea errespetatzen
23. Zure ustez, Hezkuntza Saila kezkatuta dago ikastetxeetako bizikidetzan sortzen diren arazoengatik?
- 1) Oso kezkatua
 - 2) Aski kezkatuta
 - 3) Zertxobait kezkatuta
 - 4) Gutxi
 - 5) Batere ez

- 24.** Eraginkorra dela uste al duzu Hezkuntza Sailak ikastetxeetako bizikidetzak hobetzeko daraman politika?
- 1) Oso eraginkorra
 - 2) Aski eraginkorra
 - 3) Pixka bat eraginkorra
 - 4) Eraginkortasun gutxikoa
 - 5) Eraginkortasunik gabea
- 25.** Egokia dela uste al duzu seme/alabek jazarpena izan duten familiek egoera argitzeko aukeratu duten bide judiziala?
- 1) Oso egokia
 - 2) Aski egokia
 - 3) Ez oso egokia
 - 4) Desegokia
 - 5) Oso desegokia

Orain, zure familiaren baitan dituzuen harremanei eta, zehazki, gurasoen eta seme/alaben arteko harremanei buruzko zenbait baieztapen proposatuko dizkizugu

• **Adierazi ondorengo baieztapenei buruzko adostasuna edo desadostasuna**

Ez nago batere ados	Ez nago ados	Berdin zait	Ados nago	Oso ados
1.....	2.....	3.....	4.....	5.....

- | | | | | | |
|--|---|---|---|---|---|
| 26. Sarritan nire seme/alabaren eskolako lanetan parte hartzen dut | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 27. Sarritan nire seme/alabarekin aisialdiko denbora partekatzen dut (bidaiak, bazkariak etxetik kanpo, ikuskizunak, etab.) | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 28. Nire seme/alabek pertsonalki zein eskolan dituzten arazoak kontatzen dizkirate..... | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 29. Familian bizikidetzarako arauak seme/alabekin adosten ditugu | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |

• **Adierazi mesedez, zuen eta seme/alaben artean zenbateko maiztasunarekin gertatzen diren liskarrak ondorengo arrazoiak direla eta**

Inoiz ez	Noizbehinka	Batzuetan	Dezentetan	Oso maiz
1.....	2.....	3.....	4.....	5.....

- | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 30. Ordutegiak | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 31. Lagunak | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 32. Janzkera | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 33. Etxeko lanak eta ordena | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 34. Ikasketak | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 35. Alkohol kontsumoa, tabakoa, beste substantziak | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 36. Gastuak (ekonomia): telefonoa, gutziak | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 37. Modu desegokiak (oihuak, erantzun txarrak) | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |

- 38.** Nagusiki, zer izatea nahiko zenuke zure seme/alaba? (Aukera bakarra adierazi)
- 1) Pertsona ospetsua
 - 2) Jakinduria handiko pertsona
 - 3) Gizalegezko pertsona
 - 4) Pertsona maitagarria
 - 5) Pertsona zoriontsua
- 39.** Zure seme/alabaren zein akatsek arduratuko zintuzke? (Aukera bakarra adierazi):
- 1) Gutxi ahalegintzea
 - 2) Arduragabea izatea
 - 3) Gizartekoia ez izatea
 - 4) Solidarioa ez izatea
 - 5) Zakarra izatea
- 40.** Nagusiki, zein balio irakatsi behar zaiela uste duzu? (Aukera bakarra adierazi)
- 1) Eskuzabaltasuna
 - 2) Zintzotasuna
 - 3) Saiatua izatea
 - 4) Leialtasuna
 - 5) Apaltasuna
- 41.** Zein dohain iruditzen zaizu egokiena gizartearentzako? (Aukera bakarra adierazi)
- 1) Tolerantzia
 - 2) Justizia
 - 3) Lehiakortasun profesionala
 - 4) Erantzukizuna
 - 5) Eginbeharraren ardura

**MESEDEZ, BEHIN GALDERA-SORTA BETETA DUZUNEAN GUTUNAZAL
ITXI BATEAN ZURE SEME/ALABARI EMAN, HORREK TUTOREARI
EMATEKO.**

MILA ESKER ZURE PARTE-HARTZEAGATIK

IRAKASLEENTZAKO GALDERA-SORTA

HEZKUNTZARAKO EBALUAZIO ETA AHOLKULARITZA INSTITUTUA**IRAKASLEENTZAKO GALDERA-SORTA**

- Zure institutua/ikastetxea Arartekoak sustaturiko bizikidetza ebaluatzeko proiektu batean parte hartzen ari da.
- Eraitza hobeak lortzeko asmoz, zure ikastetxeak nola funtzionatzen duen jakin nahi dugu.
- Ikastetxe/institutu honetako ikasleen irakasleek duten iritzia jasotzeko, honako galdera-sorta hau erantzuteko eskatzen dizugu.
- Galdera-sorta honen bitartez lortzen diren datuak guztiz isilpekoak izango dira eta soilik estatistikoki erabiliko dira.

GALDERA-SORTA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

- Galdera-sorta honi erantzuteko, erabil ezazu honi erantsitako **irakurgailu optikoko orria**. Mesedez, ez idatzi ezer galdera-sortako orrietan.
- Ez ahaztu erantzun orrian eskatzen zaizkizun datuak betetzea, bereziki: **eskolak ematen dituzun ziklo/etapa** eta **sexua**.
- Irakurri arretaz egiten diren galderak eta ematen den **eskalaren arabera** erantzun.
- Erantzuna ematerakoan, **egiaztatu** galderaren zenbakia eta erantzunarena bat datozela.
- Mesedez, **arkatzez** idatzi erantsirik doan **erantzun orrian**. Nahastuz gero, ezabatu eta berriz markatu.
- Aukeratutako erantzuna markatzeko ondorengo eran egin behar da:

1 2 3 4 5

MILA ESKER ZURE PARTE-HARTZEAGATIK

• **Zure ikastetxean/institutuan pentsatuz, ondorengo baieztapenekiko zure adostasun maila adierazi:**

Ez nago batere ados	Ez nago ados	Berdin zait	Ados nago	Oso ados nago
1	2	3	4	5

1. Ikastetxean gatazka bat sortzen bada, normalean gizalegez konpontzen da.
2. Ikastetxean badago ordena.
3. Ikastetxeko diziplina arauak egokiak iruditzen zaizkit.
4. Orokorrean, irakasleok gelan ordena mantentzen dugu.
5. Irakasleok irizpide berak erabiltzen ditugu ikastetxeko arauak ezartzerakoan.
6. Nire ikastetxeak garrantzia ematen dio besteekin harremanak modu egokian izaten irakasteari.
7. Azken urteotan gatazkak areagotu egin dira ikastetxean.
8. Arazoak sortzen dituzten ikasleekin neurri zorrotzagoak hartu beharko lirateke.
9. Oso ongi sentitzen naiz ikastetxean eta harreman onak ditut nire lankideekin.
10. Ikastetxean irakasleen eta ikasleen arteko harremanak onak dira.
11. Gelan irakasleen eta ikasleen artean zenbait arau jarri ditugu eta maiz erabiltzen ditugu.
12. Ikastetxean garrantzia ematen zaio ikasle batek beste batekin etengabe arazoak dituenen.
13. Ikastetxean sortzen diren arazoak konpontzeko ikasleen iritzia kontuan hartzen da.
14. Ikasturte hasieran, ikastetxeko bizikidetzako arauak argi adierazten saiatzen gara.
15. Tamalgarria da ikastetxeetako bizikidetzarako batzordeak gehienetan organo zigortzaile hutsak izatea.
16. Ikastetxe orok bizikidetzako hobetzeko programa zehatza izan beharko luke.
17. Nire ikastetxean, irakasleen sentsibilizatorako jarduerak egiten dira ikasle bakoitzaren ezaugarriak ezagutzeko.
18. Nire ikastetxean, bizikidetzarekin loturiko programetan parte hartzen duten irakasleak daude.
19. Nire ikastetxean, tutoretza orduetan, bizikidetzako gaiak, elkar ezagutzeko bideak eta abar lantzen dira.
20. Nire ikastetxean, ikasleekin Ikastetxeko Barne Araudia landu eta eztabaidatzen dugu.
21. Nire ikastetxean, ikasleen parte-hartzea errazten duen metodologia erabiltzen da.
22. Ikastetxeak ikasleen eskola-orduen huts egiteen berri azkar ematen dio familiari.
23. Gurasoek seme/alaben eskola-jarduerari behar besteko arreta eskaintzen die.
24. Ikastetxeko familietako guraso eta seme/alaben artean komunikazio gutxi dago.
25. Ikastetxeko familien bizikidetzako gainbehera etorri da azken urte hauetan.

• **Baloratu 1etik 5era ikastetxeko bizikidetzan ondorengo alderdi hauek duten garrantzia.**

Ez da batere garrantzitsua	Garrantzi gutxi du	Garrantzi pixka bat du	Garrantzitsua da	Oso garrantzitsua da
1	2	3	4	5

26. Eskolak ematea galarazten duten ikasleak.
27. Ikasleen arteko gehiegikeriak.
28. Modu txarrak eta ikasleen erasoak irakasleei.

29. Bandalismoa eta objektuak eta materialak apurtzea.
30. Ikasleen absentismoa.

- **Adierazi zure ikasleetako zenbaterik jasan duen etengabe ondoren aipatzen diren erasoetakoren bat:**

Inork	Oso gutxi	Batzuk	Dezentek	Askok
1	2	3	4	5

31. Hitzezko erasoak (isekak, ezizenak jarri, lotsarazi, gaizki esaka aritu).
32. Eraso fisikoak.
33. Isolamendu soziala, bazterketa.
34. Xantaia, mehatxuak.
35. Materialak eta jantziak apurtu edo lapurtu.
36. Hitzezko sexu-erasoa.
37. Sexu-eraso fisikoa.

- **Adierazi ea ohikoa den ikastetxeko irakasle batzuek ikasleekin horrelako portaerarik izatea:**

Inoiz ez	Gutxitan	Batzuetan	Sarritan	Beti
1	2	3	4	5

38. Lotsarazi.
39. Ezinikusia izan.
40. Iseka egin.
41. Fisikoki eraso.
42. Mehatxuz ikaratu

- **Adierazi ea ohikoa den ikasleek horrelako portaerarik izatea:**

Inoiz ez	Gutxitan	Batzuetan	Sarritan	Beti
1	2	3	4	5

43. Irakasleei errespeturik ez erakutsi.
44. Irakasleak eraso.
45. Ikastetxeko materiala apurtu edo lapurtu.
46. Eskolak ematea galarazten duen portaera izan gelan.
47. Zergatik uste duzu sortzen direla arazoak ikastetxean? (Aukeratu bat, garrantzitsuena iruditzen zaizuna):
1) Irakasleek gai honetan beraien erantzukizunak saihesten dituzte.
2) Ikasleak etxean nahi duten guztia egiten ohituta daude.

- 3) Ikasleek ez dute irakasleen autoritatea errespetatzen.
 - 4) Ikastetxeak ez du berariaz bizikidetza egoki bat sortzeko antolakuntza egiten.
 - 5) Bigarren Hezkuntzako antolaketak ez ditu pertsonarteko harremanak errazten.
- 48.** Zure ustez, Hezkuntza Saila kezkatuta dago ikastetxeetako bizikidetzan sortzen diren arazoengatik?
- 1) Batere ez
 - 2) Gutxi
 - 3) Zertxobait
 - 4) Aski kezkatuta
 - 5) Oso kezkatuta
- 49.** Eraginkorra dela uste al duzu Hezkuntza Sailak ikastetxeetako bizikidetzeta hobetzeko daraman politika?
- 1) Eraginkortasunik gabekoa
 - 2) Eraginkortasun gutxikoa
 - 3) Pixka bat eraginkorra
 - 4) Aski eraginkorra
 - 5) Oso eraginkorra
- 50.** Egokia dela uste al duzu seme/alabek jazarpena izan duten familiek egoera argitzeko aukeratu duten bide judiziala?
- 1) Oso desegokia
 - 2) Desegokia
 - 3) Zertxobait egokia
 - 4) Aski egokia
 - 5) Oso egokia
- 51.** Nolakoak dira gaur egungo ikasleak orain dela urte batzuetakoekin alderatuta? (Erantzun bakarra aukeratu):
- 1) Ezagupen gehiago dituzte
 - 2) Justiziaren zentzu gehiago dute
 - 3) Tolerantzia gehiago dute
 - 4) Zoriontsuagoak dira
 - 5) Portaera baketsuagoak dituzte
- 52.** Nolakoak izatea nahi zenuke zure ikasleak etorkizunean? (Aukera bakarra aukeratu):
- 1) Pertsona ospetsuak
 - 2) Jakinduria handiko pertsonak
 - 3) Gizalegezko pertsonak
 - 4) Pertsona maitagarriak
 - 5) Pertsona zoriontsuak
- 53.** Zein da zure ikasleen akatsik nabarmenena? (Erantzun bakarra aukeratu):
- 1) Gutxi ahalegintzea
 - 2) Arduragabeak izatea
 - 3) Gizartekoiak ez izatea
 - 4) Solidarioak ez izatea
 - 5) Zakarrak izatea

- 54.** Zein dohain iruditzen zaizu egokiena gazteei irakasteko? (Erantzun bakarra aukeratu):
- 1) Eskuzabaltasuna
 - 2) Zintzotasuna
 - 3) Saiatua izatea
 - 4) Leialtasuna
 - 5) Apaltasuna
- 55.** Zein dohain iruditzen zaizu egokiena gizartearentzako? (Erantzun bakarra aukeratu):
- 1) Tolerantzia
 - 2) Justizia
 - 3) Lehiakortasun profesionala
 - 4) Erantzukizuna
 - 5) Eginbeharraren ardura
- 56.** Zer izango du XXI. mendeko gizarteak? (Erantzun bakarra aukeratu):
- 1) Aurrerapen izugarria
 - 2) Neurrizko aurrerapena
 - 3) Aurrerapen gutxi
 - 4) Aurrerapenik ez
 - 5) Atzerapena
- 57.** Zein faktore uste duzu dela garrantzitsuena gizartearen garapenerako? (Erantzun bakarra aukeratu):
- 1) Morala
 - 2) Politika
 - 3) Erlijioa
 - 4) Zientzia
 - 5) Artea
- 58.** Adierazi eskolak, zure ustez, zer-nolako garrantzia duen ikasleak tolerantzian, bizikidetzan eta baloreetan hezteko:
- 1) Ez du garrantzirik
 - 2) Garrantzi gutxi du
 - 3) Garrantzi pixka bat
 - 4) Garrantzi nahikoa
 - 5) Garrantzi handia
- 59.** Zer daukagu gaur egungo munduan?
- 1) Lagunak baino arerio askoz gehiago
 - 2) Lagunak baino arerio gehiago
 - 3) Lagunak adina arerio
 - 4) Lagunak baino arerio gutxiago
 - 5) Lagunak baino arerio askoz gutxiago
- 60.** Nola konpontzen dira gatazkak gaur egungo munduan?
- 1) Erasoz askoz gehiago elkarrizketaren bidez baino
 - 2) Erasoz gehiago elkarrizketaren bidez baino
 - 3) Erasoz zein elkarrizketaren bidez antzera
 - 4) Elkarrizketaren bidez baino gutxiago erasoz
 - 5) Elkarrizketaren bidez baino askoz gutxiago erasoz

- 61.** Hezkuntzak azken urteotan hobera ala okerrera egin duela uste duzu?
- 1) Zeharo okerrera egin du
 - 2) Zertxobait okerrera egin du
 - 3) Ez da aldatu
 - 4) Zertxobait hobera egin du
 - 5) Izugarri hobetu da

ZUZENDARIENTZAKO GALDERA-SORTA

HEZKUNTZARAKO EBALUAZIO ETA AHOLKULARITZA INSTITUTUA**ZUZENDARIARENTZAKO GALDERA-SORTA**

- Zure institutua/ikastetxea Arartekoak sustaturiko bizikidetza ebaluatzeko proiektu batean parte hartzen ari da.
- Eraitza hobek lortzeko asmoz, zure ikastetxeak nola funtzionatzen duen jakin nahi dugu.
- Ikastetxe/institutu honetako Zuzendaritza Taldeak duen iritzia jasotzeko, honako galdera-sorta hau erantzuteko eskatzen dizugu.
- Galdera-sorta honen bitartez lortzen diren datuak guztiz isilpekoak izango dira eta soilik estatistikoki erabiliko dira.

Mesedez, ez ahaztu ondorengo datuak adieraztea

Ikastetxea/institutua:.....

Probintzia: Sexua:..... Antzinasuna zuzendaritzan:.....

Jarraibideak

Adierazi zuk aukeratutako erantzuna gurutze edo borobil batez inguratuz.

MILA ESKER ZURE PARTE-HARTZEAGATIK

• **Baloratu 1etik 5era ikastetxeko funtzionamendu egokian ondorengo alderdiek duten eragina.**

Ez du batere eraginik	Eragin gutxi du	Eragin pixka bat du	Eragina du	Eragin handia du
1	2	3	4	5

- | | | | | | | |
|----|---|---|---|---|---|---|
| 1. | Giza baliabideek eta baliabide materialek | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 2. | Langileen egonkortasunak | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 3. | Ikasleen ikasketa zailtasunak | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 4. | Ikasleen arteko gatazkek eta erasoek | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 5. | Familien parte-hartzeak | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6. | Irakasleen arteko lankidetzak | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 7. | Zuzendaritza Taldearen autonomiak | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |

• **Baloratu 1etik 5era ikastetxeko bizikidetzan ondorengo alderdi hauek duten garrantzia.**

Ez da batere garrantzitsua	Garrantzi gutxi du	Garrantzi pixka bat du	Garrantzitsua da	Oso garrantzitsua da
1	2	3	4	5

- | | | | | | | |
|-----|---|---|---|---|---|---|
| 8. | Eskolak ematea galarazten duten ikasleak | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 9. | Ikasleen arteko gehiegikeriak | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 10. | Modu txarrak eta ikasleen erasoak irakasleei | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 11. | Bandalismoa eta objektuak eta materialak apurtzea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 12. | Ikasleen absentismoa | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 13. | Zergatik uste duzu sortzen direla arazoak ikastetxean? (Aukeratu bat, garrantzitsuena iruditzen zaizuna): | | | | | |
| | 1) Irakasleek gai honetan beraien erantzukizunak saihesten dituzte. | | | | | |
| | 2) Ikasleak etxean nahi duten guztia egiten ohituta daude. | | | | | |
| | 3) Ikasleek ez dute irakasleen autoritatea errespetatzen. | | | | | |
| | 4) Ikastetxeak ez du berariaz bizikidetzak egoki bat sortzeko antolakuntza egiten. | | | | | |
| | 5) Bigarren Hezkuntzako antolaketa ez ditu pertsonen arteko harremanak errazten. | | | | | |

• **Ondorengo baieztapenekiko zure adostasun maila adierazi.**

Ez nago batere ados	Ez nago ados	Berdin zait	Ados nago	Oso ados nago
1	2	3	4	5

- | | | | | | | |
|-----|--|---|---|---|---|---|
| 14. | Ikastetxean ikasle bat bere kideek etengabe baztertzen dutenean, tutoreak edo irakasle taldeak sistematikoki esku hartzen du | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|-----|--|---|---|---|---|---|

- | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 15. Ikastetxean ikasle bat bere kideek etengabe iraindu edo barregarri uzten dutenean, tutoreak edo irakasle taldeak sistematikoki esku hartzen du | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 16. Ikastetxean ikasle bati bere kideek etengabe bere gauzak ezkutatzen, apurtzen edo lapurtzen dizkiotenean, tutoreak edo irakasle taldeak sistematikoki esku hartzen du | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 17. Ikastetxean ikasle bat bere kideek etengabe jo edo mehatxatzen dutenean, tutoreak edo irakasle taldeak sistematikoki esku hartzen du | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 18. Ikastetxean ikasle bat bere kideek etengabe sexualki (hitzez edo fisikoki) erasotzen dutenean, tutoreak edo irakasle taldeak sistematikoki esku hartzen du | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 19. Irakasleek ikastetxean gertatzen diren gatazkak eta gehiegikeriak ezagutzen dituzte | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 20. Ohikoak dira ikasleek irakasleei egindako erasoak (errespetu eza, irakaslearen autoa edo objektuak apurtzea, eraso fisikoak edo hitzezkoak) | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 21. Ikastetxean ohikoak dira irakasle batzuk ikasleak erasotzea (fisikoki, irainduz, lotsaraziz) | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 22. Nire ikastetxean, irakasleen sentsibilizatorako jarduerak egiten dira ikasle bakoitzaren ezaugarriak ezagutzeko | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 23. Nire ikastetxean, bizikidetzarekin loturiko programetan parte hartzen duten irakasleak daude | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 24. Nire ikastetxean, tutoretza orduetan, bizikidetzako gaiak, elkar ezagutzeko bideak eta abar lantzen dira | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 25. Nire ikastetxean, ikasleekin Ikastetxeko Barne Araudia landu eta eztabaidatzen dugu | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 26. Nire ikastetxean, ikasleen parte-hartzea errazten duen metodologia erabiltzen da | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 27. Nire ikastetxean, bizikidetzako egokia bultzatzeko jarduerak burutzen dira | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 28. Gurasoek ikastetxeko bizikidetzarako arauak ezagutzen dituzte | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 29. Ikastetxeko diziplina arauak egokiak iruditzen zaizkit | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 30. Ikastetxean gatazka bat sortzen bada, normalean gizalegez konpontzen da | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 31. Irakasleek irizpide berak erabiltzen dituzte ikastetxeko arauak ezartzeko | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 32. Ikastetxearen antolakuntzak, irakasleen parte-hartzea eta inplikazioa bultzatzen ditu | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 33. Nire ikastetxeak garrantzia ematen dio besteekin harremanak modu egokian izaten irakasteari | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 34. Ikastetxean, bizikidetzarako gaiak lantzeko jarduerak (hitzaldiak, ikastaroak...) egin dira gurasoekin | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 35. Egokia da seme-alabek jazarpena jasan dutenean haien familiek egoera argitzeko aukeratu duten bide judiziala | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 36. Tamalgarria da ikastetxeetako bizikidetzarako batzordeak gehienetan organo zigortzaile hutsak izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 37. Hezkuntza Saila kezkatuta dago ikastetxeetako bizikidetzan sortzen diren arazoengatik | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 38. Eraginkorra da Hezkuntza Sailak ikastetxeetako bizikidetzako hobetzeko daraman politika | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |

39. Ikastetxean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak antolatutako *Elkarbizitzarako eta bizitzarako trebetasunen Programak* ezagutzen dira..... 1 2 3 4 5
40. Ikastetxeak parte hartu du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak antolatutako *Elkarbizitzarako eta bizitzarako trebetasunen Programetan*..... 1 2 3 4 5
41. Ikastetxean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak antolatutako *Bizitzarako ezagutza eta trebetasunetako hezkuntza Programa* ezagutzen da..... 1 2 3 4 5
42. Ikastetxeak parte hartu du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak antolatutako *Bizitzarako ezagutza eta trebetasunetako hezkuntza Programan* 1 2 3 4 5
43. Ikastetxean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak antolatutako *Elkarbizitzarako eta bakerako hezkuntza Programa* ezagutzen da..... 1 2 3 4 5
44. Ikastetxeak parte hartu du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak antolatutako *Elkarbizitzarako eta bakerako hezkuntza Programan* 1 2 3 4 5
45. Hedabideek (TB, prentsa, Internet...) bizikidetzaren arazoek duten garrantzia zabaltzen lagundu dute 1 2 3 4 5
46. Hedabideek (TB, prentsa, Internet...) ikastetxeetako bizikidetzaren irudi desitxuratuaren ematen dute..... 1 2 3 4 5

• **Adierazi zure iritzia ikastetxean ondorengo taldeek duten harremanaz.**

Oso txarra	Txarra	Arrunta	Ona	Oso ona
1	2	3	4	5

47. Ikasleek beraien artean 1 2 3 4 5
48. Irakasleek beraien artean 1 2 3 4 5
49. Familiek beraien artean 1 2 3 4 5
50. Ikasleek irakasleekin 1 2 3 4 5
51. Familiek irakasleekin 1 2 3 4 5
52. Familiek beraien seme-alabekin 1 2 3 4 5
53. Irakasleek ikastetxeetako zuzendaritzarekin 1 2 3 4 5

- **Adierazi zure iritzia ondorengo taldeen arteko harremanak ikastetxean azken urteetan (3-5 urte) izan duen eboluzioaz.**

Zeharo okertu dira	Zertxobait okertu dira	Ez dira aldatu	Zertxobait hobetu	Zeharo hobetu dira
1	2	3	4	5

54. Ikasleek beraien artean 1 2 3 4 5
 55. Irakasleek beraien artean 1 2 3 4 5
 56. Familiek beraien artean 1 2 3 4 5
 57. Ikasleek irakasleekin 1 2 3 4 5
 58. Familiek irakasleekin 1 2 3 4 5
 59. Familiek beraien seme-alabekin 1 2 3 4 5
 60. Irakasleek ikastetxeko zuzendaritzarekin 1 2 3 4 5

- **Adierazi 2004-2005 ikasturtean zenbat aldiz hartu diren ondorengo neurriak ikasleekin.**

Inoiz ez	Behin eta hiru bitartean	Lau eta sei bitartean	Zazpi eta bederatzi bitartean	Hamar edo gehiagotan
1	2	3	4	5

61. Irakasleek zuzenean ezarritako zigorrak 1 2 3 4 5
 62. Zuzendaritzak zuzenean ezarritako zigorrak 1 2 3 4 5
 63. Aldi baterako kaleratzeak (astebete)..... 1 2 3 4 5
 64. Ikastetxetik behin betiko kaleratzea 1 2 3 4 5
 65. Poliziari salaketak egitea 1 2 3 4 5
 66. Epaitegian salaketak egitea 1 2 3 4 5
 67. Bizikidetza arazoengatik ikastetxe aldaketa eskatzea 1 2 3 4 5

68. Zure ustez, gurasoek nolako seme-alabak nahiko lituzkete? (Erantzun **bakarra** aukeratu).

- 1) Pertsona ospetsuak (futbol jokalaria, abeslaria, aktorea)
- 2) Jakinduria handiko pertsonak
- 3) Gizalegezko pertsonak
- 4) Pertsona maitagarriak
- 5) Pertsona zorionsuak

69. Zein akats uste duzu izan daitekeela gurasoen kezka nagusiena? (Erantzun **bakarra** aukeratu).

- 1) Gutxi ahalegintzea
- 2) Arduragabeak izatea
- 3) Gizartekoiak ez izatea
- 4) Solidarioak ez izatea
- 5) Zakarrak izatea

70. Zein dohain iruditzen zaizu egokiena gazteei irakasteko? (Erantzun **bakarra** aukeratu):
- 1) Eskuzabaltasuna
 - 2) Zintzotasuna
 - 3) Saiatua izatea
 - 4) Leialtasuna
 - 5) Apaltasuna
71. Zein dohain iruditzen zaizu egokiena gizartearentzako? (Erantzun **bakarra** aukeratu):
- 1) Tolerantzia
 - 2) Justizia
 - 3) Lehiakortasun profesionala
 - 4) Erantzukizuna
 - 5) Eginbeharraren ardura
72. Zein uste duzu dela zuk lan egiten duzun ikastetxearen maila soziala gurasoen maila sozio-ekonomikoa eta kulturala kontuan hartuta?
- 1) Baxua
 - 2) Ertain-baxua
 - 3) Ertaina
 - 4) Ertain-altua
 - 5) Altua
73. Zure ikastetxeko ikasleen zein portzentaje jaio da estatu espainiarretik kanpo? %_____.
74. Zure ikastetxeak maila bakoitzeko talde bat baino gehiago baditu, urte batetik bestera berantolatzen al dira beraien arteko harremanak bizikidetzat oztokatzen badu?
- 1) Bai
 - 2) Ez
 - 3) Bakarrik talde bakarra dago
75. Zure ikastetxeak ikasle berrientzako ba al dauka harrera planik?
- 1) Bai
 - 2) Ez
76. Zure ikastetxeak DBHko ikasle berrientzako ba al dauka harrera planik?
- 1) Bai
 - 2) Ez
77. Zure ikastetxeak ba al du bitartekaritza programarik?
- 1) Bai
 - 2) Ez
78. Zure ikastetxeak ba al du ikasle laguntzailearen programarik?
- 1) Bai
 - 2) Ez

III. ERANSKINA

GALDERA-SORTAK
APLIKATZEKO JARRAIBIDEAK



IKASLEEN ARTEKO BIZIKIDETASUNA ETA AURKAKOTASUNA IKASTETXEETAN ARARTEKOAK SUSTATURIKO AZTERKETAKO GALDERA-SORTEN APLIKAZIOA

ZUZENDARIARENTZAKO JARRAIBIDEAK

Zuzendari jaun/andre agurgarria:

Orain arte jasotako informazioagatik jakingo duzun bezala, zure ikastetxea aukeratua izan da Arar-tekoak sustaturiko *Ikasleen arteko bizikidetasuna eta aurkakotasuna ikastetxeetan azterketa egiteko*. Ezer baino lehen, gure esker ona agertu nahi dizugu parte hartzeagatik, eta oinarrizko jarraibide batzuk jakinarazi nahi dizkizugu galdera-sortak aplikatu behar diren unerako.

Materiala:

Zuen ikastetxean kaxa bat jasoko duzue azaroaren 21aren bueltan, ele bietan argitaraturiko galdera-sortekin:

1. Irakasleentzako 20 galdera-sorta eta horiek betetzeko irakurgailu optikoko orriak (laranja kolorekoa).
2. Ikasleentzako 50 galdera-sorta eta horiek erantzuteko irakurgailu optikoko orria (more kolorekoa).
3. Familientzako 50 galdera-sorta.
4. Zuzendariarentzako galdera-sorta bat.
5. Galdera-sorten aplikaziorako jarraibideak.

Irakasleak:

Zure ikastetxeko Bigarren Hezkuntzako 20 **irakasleri** galdera-sorta eta irakurgailu optikoko orri bana (laranja kolorekoa) eman behar diezu gutunazal batekin batera. 10 eguneko epean gutunazal itxian bueltatzeko eskatu behar diezu, eta honetarako toki apropos bat iradoki. Kontuan izan prozedura hau azterketak eskatzen duen konfidentzialtasuna bermatzeko pentsatua izan dela.

Zure ikastetxean Bigarren Hezkuntzako 20 irakasle baino gehiago badaude, batik bat Derrigo-rrezko Bigarren Hezkuntzan eskolak ematen dituztenak aukeratu beharko zenituzke. Bestalde, gehienezko parte-hartzerik handiena lortzeko, oso komenigarria izango litzateke parte hartuko duten irakasleei ahalik eta informazio gehien ematea, batez ere, ondoren jasoko duzuen banakako txostenari begira. Era berean, oso garrantzitsua da galdera-sortaren izaera anonimoa eta datuen konfidentzialtasuna azpimarratzea.

Ikasleak:

Galdera-sortak aplikatu ahal izateko, zure ikastetxeko **DBHko 2. mailako talde bat eta 4. mailako beste bat** aukeratu beharko dituzu. Maila bakoitzean talde bat baino gehiago baldin baduzue, ikastetxeko populazioaren erakusgarri onena hautatu¹.

Gure ustez, galdera-sortak aplikatzeko unerik egokiena tutoretza-ordu bat litzateke, baina arrazoiren batengatik une bat hobe iruditzen bazaizue, ez dago inongo eragozpenik. Hori bai, saioak gutxienez 50 minutu iraun beharko du.

¹ Zure ikastetxeak ezaugarri ezberdinetako taldeak baditu eta gai honetaz argibiderik jaso ez baduzu, jar zaituz harremanetan Olaiarekin, ahal bezain azkar, ondorengo telefono zenbakian: 943.01.55.58.



Aplikazioa burutuko duen tutoreak kontuan hartu beharko ditu jarraian erantsirik doazkion orrietako jarraibideak.

Familiak:

Familiantzako galdera-sortari dagokionez, aukeratutako 2. eta 4. mailako taldeen gurasoek soilik hartuko dute parte. Tutoreak, gutunazal batean galdera-sorta bat emango dio ikasle bakoitzari, horiek beren gurasoei emateko. 10 eguneko epean bueltatu beharko dute gutunazal berean itxita. Ahalik eta parte-hartze handiena lortzeko, galdera-sorta betetzeak eta ezarritako epean bueltatzeak garrantzi handia duela gogorarazi behar die tutoreak ikasleei. Era berean, oso garrantzitsua da galdera-sortaren izaera anonimoa eta datuen konfidentzialtasuna azpimarratzea.

Zuzendaria:

Zuk zeuk, bakarka, eskatzen zaizkizun datuak bete eta galdera-sorta koadernotxoan bertan erantzun behar duzu.

Epeak:

Azkenik, gogorarazi nahi dizugu ezarritako epeak betetzeak garrantzi handia duela zuen ikastetxearen emaitzak beste ikastetxeetakoekin batera analizatzeko. Datu guztiak **abenduaren 2rako** bildu behar dira. Horrela egin ezean, ezingo genizuke txosten konparatiboa eskaini.

Material bilketa:

Galdera-sorta guztiak –ikasleenak, irakasleenak, familienak eta zeurea, zuzendariarena– prest dituzunean, sartu kaxa batean familien eta zuzendariaren galdera-sortak bakarrik, eta ikasleen (moreak) eta irakasleen (laranjak) irakurgailu optikoko orriak. Ondoren mesedez, telefono zenbaki honetara deitu 943.01.55.58 (Olaia) mezularia bertara bidali ahal izateko.

Mila esker zure laguntzagatik.



TUTOREARENTZAKO JARRAIBIDEAK

Tutore agurgarria:

Ezer baino lehen, eskerrak eman nahi dizkizugu Arartekoak sustaturiko *Ikasleen arteko bizikidetasuna eta aurkakotasuna ikastetxeetan* azterketan parte hartzeagatik, eta galdera-sortak aplikatzerakoan kontuan izan beharreko zenbait jarraibide eskaini nahi dizkizugu.

- Ikasle bakoitzari galdera-sorta bat eta irakurgailu optikoko orri bat (more kolorekoa) eman behar diezu.
- Ikasleek irakurgailu optikoko orriaren goiburuko datuak ongi emateko, honako datuak soilik bete beharko dituzte:

The image shows a data entry form with the following fields and labels:

- Ikastetxea**: Points to the 'Ikastetxea' field.
- Sexua**: Points to the 'Sexua' field.
- Maila**: Points to the 'Maila' field.
- Hizkuntza erdua**: Points to the 'Hizkuntza erdua' field.

The form also includes a section for 'ERANTZUNAK / RESPUESTAS' with a grid of checkboxes for 'Erantzun' and 'Ez Erantzun'.

- Gogorarazi ikasleei ondorengo azalpenak:
 - **Arkatzez** idazteko eskatu, horrela, nahastuz gero, ezabatu eta berriz idatz dezakete.
 - Garrantzitsua da bete beharreko datuak azaltzea: ikastetxearen izena, sexua, maila eta hizkuntza-eredua.
 - Ez dute beste daturik bete behar (izena, ikaslearen zenbakia, probintzia, proba,...).
 - Irakurri ozen, ikasleekin batera, galdera-sortaren azaleko orriaren agertzen diren jarraibideak.
 - Gogoraraz iezaiezu erantzuna ematerakoan galderaren zenbakia eta erantzunarena bat datozela egiaztatzea behar dutela.
- Azterketa honek ikastetxearentzako eta beraientzako duen garrantzia azaldu behar zaie. Era berean, oso garrantzitsua da galdera-sortaren izaera anonimoa eta datuen konfidentziaztasuna azpimarratzea.
- Funtsezkoa da ikasleek galdera-sortaren 33 eta 46 arteko galderetan agertzen diren gatazkak zein motatakoak diren ongi ulertzea. Jakingo duzunez, nagusikeriagatik ikasleen artean gertatzen diren tratatu txarren fenomenoak (bullying) ez da soilik une zehatzetako erasoetatik eratorria, baizik eta etengabe biktima izatera bultzatzen duen prozesua da, pertsona babesik



gabe utziz. Ikasleek ongi ulertu dutela ziurtatzeko, ondorengo paragrafo hau irakur diezaiezun eskatuko genizuke:

Galdera-sortan 33 eta 46 bitarteko galderetan ikasle batek besteari edo ikasle talde batek beste bati egiten dizkion gauza kaltegarriak agertzen direnean, ez duzue une zehatz batean gertatzen diren gauzetan pentsatu behar, hala nola, batak besteari jo, iseka egin edo baztertu egin duenean. Gauza horiek, noski, gaizki daude eta bizikidetarako oztopoak dira. Baina aipatutako galdera hauetan agertzen diren egoerek zera esan nahi dute: ikaskide bati etengabe gaizki pasaraztea, behin eta berriz biktima izatera bultzatzea eta hark gehienetan arazoetatik bere kabuz ezin atera izatea.

- Gerta daiteke ikasleek maila soziokulturalari dagozkion galderetan (88-96) zalantzaren bat izatea. Mesedez, lagun iezaiezu behar dutenean:
 - Gurasoen lanbideari eta ikasketa-mailari buruzko galderek sortzen dute zalantza gehien. Halako zalantzak dituzten ikasleei laguntzeko, galde iezaiezu beraien gurasoek zertan lan egiten duten, eta kokatu dagokion kategorian. Etxeko-lanetan ari direnak edota langabetuak direnak bosgarren aukeran kokatzea gomendatzen da.
 - Ikasle baten gurasoak bananduak badaude, dibortziatuak eta aitaren edo amaren aldetik umezurtza bada, galde iezaiozu norekin bizi den. Amarekin edo aitarekin bizi bada, bestearen datuak hutsik uzteko esan. Amarekin edo aitarekin beste norbait bizi den kasuan, hala nola, hauetako baten bikotea, aitona-amonak... esan iezaiozu hauen datuak jarri behar dituela (bikotea, aitona-amonak...).
 - Etxean egunkaria zenbatetan erosten duten galdetzen duen galderan ere komeni da argibideak ematea. Galdera horretan kirolekoak ez diren egunkariak soilik hartu behar dira aintzat.
- Bukatzeko, ikasketa proba bat ez denez gero, ez dago inongo eragozpenik ikasleei zalantzak eta arazoak argitzen laguntzea, betiere, beraien erantzunetan eragin gabe.
- Aplikazioa amaitu ondoren, irakurgailu optikoko orriak zuzendariari eman behar dizkiozu.

Mila esker zure laguntzagatik.

IV. ERANSKINA

AZTERLANAREN FASE
KUALITATIBORAKO JARRAIBIDEAK

Kasuak aztertzeko aukeratu diren ikastetxeetan egingo den azterlan kualitatiboa ikastetxeko komunitatea osatzen duten kolektiboetatik informazioa biltzean datza, bai elkarrizketen bidez bai eztabaida taldeen bidez. Zehazki, ondorengo bilera hauek egingo dira:

1. Banakako hizketaldia ikasketa buruarekin (eta ikastetxeak beharrezkotzat jotzen badu, orientatzailearekin ere).
2. Eztabaida taldea Eskola Kontseiluko gurasoekin. (Bizikidetzarako batzordea egongo balitz, batzordea osatzen duten gurasoek ere parte hartuko lukete). Taldean, guztira, ez lirateke 8 pertsona baino gehiago egon behar, eta garrantzitsua izango litzateke, ahal izanez gero, aitek eta amek ordezkartza berdina izatea.
3. Eztabaida taldea irakasleekin. DBHko lau mailetako 8 tutorek, gehienez, osatuko dute taldea. Zortzi baino gehiago izango balira, ausaz egingo litzateke aukeraketa, baldin eta irakasleren batek, edozein arrazoiengatik, bizikidetzako gaietan esku-hartze handiago izango ez balu. Kasu horretan, ona litzateke pertsona horrek taldean parte hartzea. Ikastetxean orientatzaile bat egonez gero, komenigarria litzateke berak ere eztabaida taldean parte hartzea. (Bizikidetzarako batzordea egonez gero, egokia litzateke bertan lan egiten duten irakasle batzuek eztabaida taldean parte hartzea ere).
4. DBHko 1. eta 2. zikloetako ikasleen eztabaida taldea. 6-8 ikasle. Neska eta mutil kopuru berdina. Maila ezberdinetakoak. Ikasleek ez dute izan behar ez oso arazotsuak ez oso lotsatiak. Eta ahalik eta irekienak eta hiztunenak izango dira.

Ikastetxea bizikidetzat hobetzeko esku-hartze programaren bat egiten ari bada, komenigarria izango litzateke programaren arduraduna, ikasketa buruarekin batera, bileran egotea. Era berean, tartean irakaslerik, familiarik edo ikaslerik egongo balitz, horietako batzuk bakoitzari dagokion eztabaida taldeetan parte hartu beharko lukete.

Bilerek gutxi gorabehera ordu bat edo ordu eta erdi iraungo dute. Audioan grabatuko dira, eta bileretara ikertzaile bat eta ikerketako laguntzaile bat joango dira.

Datuen bilketa errazteko asmoz, oso garrantzitsua izango litzateke egun batean ahal bezain beste bilera egiteko moduan antolatuko balitu bilera egunak ikastetxeko zuzendaritzak.

Bilduko den informazio guztia isilpeko informazioa izango da. Ararteko erakundeak egingo duen txostenean ez dira identifikatuko azterlanaren fase kualitatiboan parte hartu duten ikastetxeak.

V. ERANSKINA

DATU TAULEI BURUZKO OHARRA

Txosten honen **idatzizko bertsioan taula eta irudi bakar batzuk soilik** jaso dira. Hain zuzen, testuaren gaiarekin lotuta interesgarriak izan zitezkeenak aukeratu ditugu, batez ere 3. kapituluan.

Bertsio elektronikoan, ordea, azken eranskin moduan, galdera sortetako emaitzetatik ateratako **taula guztiak** sartu dira. Hala, datu guzti guztiak kontsultatu nahi dituenak bertsio elektronikora jo beharko du; bertsio elektronikoa Arartekoaren webgunean (www.ararteko.net) aurkituko duzu.

